

Jean Pierre Arbelbide

**BOKAZIONEA EDO
JAINKOAREN DEIA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.
Iturria: *Bokazionea edo Jainkoaren deia*, J.-P.
Arbelbide. Desclée de Brouwer, 1887.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=730>

BOKAZIONEA EDO JAINKOAREN DEIA

J.P. ARBELBIDE aphezak egina

San Agustinen Elgertasuneko
JAUN DESCLÉE, DE BROUWER,
Eta hekien lagunen moldetegan.

LILLE, Errege-Karrikan, 26. - 1887

*Othoi ezagutaraz dizadazu zu baitarako bidea,
ene Bokazionea. (Psal. 142, 8.)*

JAUN INTXAUSPE BIKARIO JENERALAREN BAIMENA

Irakurtu dugu atsegin handirekin Jaun Arbelbide aphez misionestak egin duen liburua, *Bokazionea edo Jainkoaren deia* deritzana; eta gogotik emaiten dugu gure baimena, ahalik eta laster argitarat eman dadien.

Irakaspen baliosenak daduzka: bai Aita-Amentzat, bere haurren ertzean dituzten obligazioneen ezagutzeko eta behar bezala bethetzeko; - bai presuna gazteentzat, hekieri erakusteko zein bide Jainkoak nahi duen har dezaten, haren borondatearen mundu hontan egiteko, eta bethiko dohatsutasunerat segurkienik heltzeko; - bai eta ere komentuan bizi direnentzat, hango bizitzearen abantailen ezagutzeko eta bere estatu sailduaren obligazioneen ongi konplitzeko.

Ez da lan hori, bertze hainitz gure denboretan ikhusten ditugun bezalakoa, urrexki eta arhinki egina, hitz eta erasi funtsik gabeko dadukana. Lan serioa da Jaun Arbelbidek egin duena; hainitz irakurtze eta gogoeta kosta zaiona.

Han nasaiki ikhusten ditigu Elizako Aiteen erakaspenak, Teologo jakintsunen erabakiak, Sainduen erranak eta hekien egintza eta etsenplu ederrak. Han izpiritua osoki argitua kausitzen da eta gogoia asetzen da; han bihotza berotzen da eta baitezpada irakurzailea bulkatua da berthutearen maithatzera eta pratikatze-ra.

Badu Jaun Arbelbideren liburuak bertze gisako merezimendu bat ere gutiestiko ez dena. Izkribatua da Eskuara garbi eta ederrenean; eta horrela ere hanitz gorestekoa da.

Aphezek hartan khausituko dute, arimaren janhari azkar batekin, eskuararen ederki izkribatzeko eta mintzatzeko molde hoberena; eta haren irakurtzea zerbitzaturen ere da Eskualdun guzieri, eskuara egiazkoaren eta garbiaren ahanzterat ez uzteko.

Atsegin handirekin beraz ikhusiren dugu liburu balios hori argitarat emana eta ahalaz laster Eskual-Herrian barreiatua.

Baionan emana, agorrilaren hamabortzean, 1887.

Inxauspe, Bikario Jenerala

Oi Jesusen Bihotz sakratua, zeronek erran duzu:

Irakatsiko darotzuet bide ona eta zuzena, zuen Bokazionea.

(I Reg. 12, 23.)

Hortakotz, zuri dut eskeintzen eta emaiten ene Liburu xume hau.

Egizu, Jauna, irakurtzaile guziek entzun dezaten zure deia, eta jarraik ditezen bakhotxa bere Bokazio-neari.

J.P.A.

I - ZATHIA

Bokazionerat heltzeko bideak

I - KAPITULUA

Zoin premiatsu den gure bokazionearen ongi ezagutzea

Muthil gaztearentzat, neskatxa gaztearentzat, zer da egitekorik premiatsuena?

Hura da jakitea nola behar duen bere bizia moldatu, Jainkoaren nahia hobekienik bethetzeko eta bere arima segurkienik salbatzeko; eta hori jakiten du bere bokazionea ezagutuz.

Hastapen hortarik, abiadura hortarik, heldu dire guretzat bizi guziko harat-hunatak. Gutarik bakhotxari, ongi edo gaizki atheratzen zaio bere bizia, nola ere hasi baituke lehenbiziko sail hori.

Hainitzek uste dute edozoin bide, nolanahi hartzen ahal dutela. Diote: zer mota du eskuin ala ezker hartzea? nonbaitik bethi biziko gare!

Ba, ez da dudarik, biziko zare, bainan nola?

Beha zazu eia berdin denez.

Nondik heldu dire etxetan elgarren arteko thirabirak eta ezinjasanak? Nondik heldu dire herrietan asko nahasmendu eta behaztopa gaxto? Nondik heldu dire

erresuma handienetan ere hainbertze itzulika eta zarkeria?

Gehienetan heldu dire huntarik: badirelakotz hainitz jende beren bidetik errebelatuak. Eta errebelatu horiek dabiltzalakotz bethi harat-hunat, ezin nihon ere jarriz, sukhar khexu batekin. Itsuak eta erhoak iduri, ez dauzke baster guziak higitu gabe. Berak makhur, eta oro makhurtu behar. Eta zertako?

Erran dut: Zeren-eta ez baitute hartu egiazko saila, Jainkoak hekientzat nahi zuen bokazionea; baztertu baitire; eta berak gaizki direlakoan, bertzeak ere nahasten baitituzte.

Hori bat da, eta ez da handiena.

Bere bokazionea huts egin duenak, zerua ere errexki huts egin dezake. Eta zer baliatuko zaio gizonari, mundu guzia irabazirik ere, baldin bere arima galtzen badu?

Ai orhoitzen bagine hobeki eternitateaz! Gehientzat eternitatearen harat-hunata bokazionetik trenkatzen da. Bere bokazioneari jarraitzen denak badu ausarki Jainkoaren laguntza, eta errexki salba diteke. Bainan bokazionetik baztertzen dena, Jainkoak ez du laguntzen hein batean beizik, eta neke zaio salbatzea.

Halarik ere, bai, salba diteke; ez ordean aise. Herrestan dabila, bazterrez bazter, noiz-nahi eroria. Eta askotan bethikotz galtzen da.

San Ligoriok dio: Nor ere ez baita jarraikitzen Jainkoak nahi duen bokazioneari, hura ez daiteke salba, nekez beizik.

Huna zer dion Teologo aipatu batek: Gure bokazioneari jarraikitzen bagare, Jainkoak laguntzen gaitu, ez nola-nahika, bainan amodiorekin eta hautatuzki. Emaiten derauzkigu laguntza bereziak: 1° garhaitzeko debruaren oldarrak, bai-eta begiratzeko bekhatuzko gerthakari gaxtoetarik: 2° gure bihotzak sustatzeko berthutean, eta aintzinatzeo saindutasunean; 3° hazkartzeko gure herbailtasuna eta iraunarazteko bethi bide onean.

Laguntza berezi horiekin aise salba gaitzke.

Ez baita ordean berdin bokazionea huts egin due-narentzat. Harrek ez du holako laguntza berezirik, eta hekien eskasean galtzen da. Laguntza berezi horiekin zerurat helduko zen; hek ez izanez, ifernurat eroriko da. (Suarez.)

Bizkitartean badire salbatzen direnak, izanik ere baztertuak beren bokazionetik. Bainan nekez dire salbatzen. Hekien zerurateko bidea oro ilhunbe da, oro

erreka eta zilo. Ezin ditezke aintzina behaztopaka beizik. Zonbat inguru, zonbat akhitze, zonbat herstura!

Holakoek huna nor duten iduri.

Duela asko urthe, angles untzi bat Baionara helduzen. Barran sartzearekin, horra non galtzen den untzia, itsasoak iresten du. Gizon guziak eskapatzen dire eta leihorrera heltzen.

Gizon horietarik bat arras gogotaturik jartzen da, bere herrirat ordu-berean itzuli beharrez. Ez dauke, nahi du berehala abiatu.

Lagunek erraiten diote debalde duela khexatzea, ez dela orai Angleterrera ari den untzirik; bat gerthatuko denean joanen direla guziak elgarrekin.

Gure angles gaizoak ez du deusere entzun nahi. Iragaiten da, atheratzera dohan untzi batean eta berriz ere abiatzen itsaso handiari gora.

Ba bainan hau da bitxi: untzi hori ez doha Angleterrera, doha Ameriketara, eta alde hetan asko itzuli egin behar ditu.

Eta holaxet, gure Angles puskak hirur urthe luze iragan zituen, ezin helduz bere herrira. Ikhasi zuen, bainan berantegi, bide xuxena dela guzietarik laburrena.

Bere bokazionetik kanpo dabilanak ere egiten du bai bide, bainan nonbait, eskuin eta ezker, bethi kurri eta sekulan ezin hel.

Angles hori bezala abiatu da. Joan behar zen bere herrirat, zerurat; bide xuxena zuen, bere bokazionea-ri bihotzez jarraikitzea. Ez du bide hori hartu; hartu du bide makhur luze bat; bazter guziak joiten ditu ezin helduz; mirakulu izanen da hatzemaiten badu zerua; eta helzen bada ere, helduko da akhitzearen bortxaz, Jainkoak daki nola.

Bokazionea ezagutuz geroztik, ez da deusen ere beldur izan behar. Behar zaio zinez jarraiki, hala nola egin baitzuen santa Aldegondak.

Santa Aldegonda Frantziako erregen odolekoa zen (655). Bere ahidek ezkondu nahi zuten printze Angles batekin. Bainan ordukotz Jainkoari hitzemana zion ez zela behinere ezkonduko.

Halarik ere burasoak thematzen eta borthizten zaizkon ezkontarazi nahiz.

Orduan, ez ikhusiz bertze biderik bere birjinitatearen zaintzeko, ihes egin zuen. Gauaz athera zen bere jauregitik eta heldu izan zen Zambreko ibaiaren hegi-
ra. Ibai hura zabal eta barna zen; eta trebeskatzeko deus ahalik ez! Santa Aldegondak egiten du othoitz

eta uraren gainean xutik abiatzen da; eta busti gabe,
bertze hegira heltzen da oinez.

Sartzen da gero komentuan eta sailduki bizitzen.

II - KAPITULUA

Bokazionea ezagut dezakegu:

1° Othoitzaren bidez;

2° Gogoeta funtsezkoetan sarthuz

Bokazionea ezagut dezakegu Othoitzaren bidez.

Huna zer dioten liburu sainduak: Iduri zaio askotan gizonari holako bidea zuzena dela, bainan azkenekotz bide horrek itzuli gaxtoa hartzen du, eta salbatu behar orde, galtzen gaitu. Jainkoak ditu bakharrik xuxen bidatzen gizonaren urratsak, eta hura gabe nihork ez dezake berak ezagut bere bokazionea.

Hortik, nork ere nahi baitu bere bokazionea ezagutu, egin dezala othoitz. Galda dezala Jainkoari, eta ez bara oihu egitetik, argitua izan arte eta bokazionean jarri arte.

Dabidek erraiten zion Jainko maiteari: othoi Jauna, irakats dizadazu zu baitharako bidea, ene bokazionea.

Eta Jainkoak bere aldetik hitzeman du onetsiko duela gure galdea. Berak hitzez hitz erraiten derauku: Irakatsiko derauzuet bide ona eta zuzena, bai-eta nere

andingeruak igorriko derauzkitzuet, eta manatuko diotet lagunt zaitzatela, eta errexki salbaturen zarete.

Eta gero, ezagutuz geroztik bokazione egiazko hori, oi zer atsegina! Orduan da bihotza deskantsatzen, orduan gabiltza berthutean errexki eta handizki. Dabidek zion: Oi Jauna, zuk argituz geroztik, ez nauke atseginez eta bozkarioz; orai gogotik leihatuko naiz, orai hegaldaka aintzinatuko naiz zure amodio sailduan.

Ba othoitzaz jokha gaiten, eta Jainkoak ezagutara-ziko derauku gure bokazionea. Eta gure bokazionean jarriz geroztik, gauden deskantsu. Jainkoak zainduko gaitu gerthakari gaxtoetarik, argituko ditu gure ilhunbeak eta sendotuko gure bihotzminak, eskutik ibiliko gaitu ama batek bere haurra ibiltzen duen bezala; eta azkenean helaraziko gaitu gure bethiereko egoitzarat, zeruko egoitza dohatsurat.

San Luis Gonzagakoa, gazte-gazterik lothu zen othoitzari nahiz-eta jakin zer bokazione hartu behar zuen.

Usu zohan mahin sailduetara eta Jesusi komunio-
nean galdegiten ziozkan bere argiak.

Noiz-nahi belhauniko zagon Ama-Birjinaren aldare aintzinean, galdeka, oro sutan, errekerituz argi zezan.

Xede hortara barur egiten zuen larunbat guziez.

Horien buruan huna zer gerthatu zen. Agorrileko Andredena-Maria egunean, komuniatu-eta, galdegiten dio Izpiritu Sainduari, Ama-Birjinaren arartekotasunaz, irakats dezaion garbiki zer bokazione hartu behar duen. Eta hain goraki mintzatzen zaio ordu-berean Izpiritu Saindua, non ez baitzaio gelditzen demendren beldurrik. Iguzki bethean bezala ikhusten du Jesuista egin behar dela. Eta berehala hartzen ditu Jesuistenganat joaiteko urratsak.

Othoitzak lagunduko gaitu, ez xoilki ikhusteko eta ezagutzeko zoin den gure bokazionea, bainan oraino heltzeko bokazione hortarat. Ez da aski jakitea Jainkoak zer nahi duen gutarik, bestalde behar gitzaizko jarraiki. Sainduak hortan emaiten derauzkute irakaspenera ederrak. Huna irakaspenera horietarik bat.

Santa Beronika Merkatolekoa, gazte-gaztea zelarik, primadera goiz batez loreketa zabilan bere etxeko baratzean. Eta horra non Jesus-Jainkoa agertzen zaion, diolarik: ni naiz egiatzko lorea, bil nezazu eta atxik zuretzat.

Hitz horiez bere bokazionea irakatsi zion. Eta orduetik Jesus maitearentzat ziren Beronikaren amets guziak.

Handik laster galdu zuen bere ama. Ama hura osoki Jainkotiarra zen. Nola bost alaba baitzituen, erran zioten hiltzearekin:

Dotetzat emaiten derauzuet bakhotxari Jesusen zaurietarik bat; eta zuri, Beronika, emaiten derauzut bereziki Bihotz-sakratuaren zauria. Oi maita zaitzue Jesusen zauri adoragarriak!

Geroztik are gehiago sutan jarri zen Beronika; mundutik urrun, komentuan gorderik nahi zuen Jesu-sendako bizi.

Bere aitari usu aiphatzen zion; bainan hau ezin deslot alaba maite horrenganik! Erraiten zion: Ene haurra emanen derauzkitzut nahiko dituzun guziak, oro zure gogora eginen ditut; xoilki ez aipha niri komenturat joaiterik.

Aita hori aberatsa zen. Bazituen bertze bospasei haur eta hainitz sehi, eta guzieri debekatu zioten deusik erraitea komentuaz Beronikaren aintzinean. Eta bestalde hiriko gazteria biltzen zuen etxera, egiten zituen phesta handiak, emaiten zernahi dantza eta bazkari; agian holaxet barheiatuko zela Beronikaren gogo eta hartuko zuela ezkontzeko zerbait bide.

Arte hortan haur gaixoa Jainkoari zagon: othoitzak, barurak, komunioneak, bederatziurrunak, zer-

nahi egiten zuen. Ama-Birjina ararteko, gau eta egun oihuz zagon Jesusen Bihotz sakratuari.

Egun batez Aitak erraiten dio: Ez zaitut ezkontze-ra bortxatu nahi zure gogoaren kontra; bainan bederen zaude enekin, zor diozun bezala zure Aitari.

Eta Beronikak: Ene Aita zare bai, eta bihotzez maite zaitut; bainan Jainkoa ez othe da ene lehenbiziko aita? Othoi, zuk eta nik Jainkoaren nahia onets dezagun. Ez dugu bertze salbatzeko biderik. Jesusek beretzat hartu nau; nihork ez dezake ebats Jainkoak hautetsi duen bihotza.

Orduan eztatzen da Aita hori, gogoa ematzen eta guritzen zaio. Nigarrez erraiten dio bere alabari:

Egia diozu, zuk eta nik Jainkoa dugu nausi. Hautatu zaituenaz geroztik, zoazi jarraik zaizkio gogo onez.

Eta berehala Beronikak hartzen ditu komenturatego urratsak.

Bainan, zonbait egunen buruan, Aitari urrikitzen zaio; berriz ere alaba egoiterat bortxatzen du; eta huna nola jokhatzen den, haur gaixo horren aldarazteko eta bere xedetik makhurtzeko.

Ustez-eta tokiz aldaratzearekin, bokazionea airatuko zaion, igortzen du oseba batenganat.

Han eritzen da haur hori, emeki-emeki hiltzera doha; eta medikuek diote ez dela harren eritasuna ardurako gaitzetarik, bertze zerbait minek diotela kalte egiten.

Ai orduan Aita izitzen da, ikhusten du Jainkoaren gaztigua dela hor. Themak eta dudamudak utzrnk emaiten dio alabari bere baimena.

Aitaren baimena entzun dueneko, Beronika mirakuluz sendotzen da eta sartzen komentuan.

III - KAPITULUA

Gure bokazionea ezagut dezakegu, gogoeta funtsezkoak eginez

Zertako emanak gare mundu huntan? Emanak gare hemen Jainkoaren ezagutzeko, maithatzeko, eta harrenganat zeruan bethikotz joaiteko. Hori da gizonaren egiazko helburua. Hortarat itzuli behar ditugu bertze gainerateko harat-hunat guziak. Ala aphezgua, ala laborantza, ala ezkontza, ala komentuko bizi gorde saindua, oro xede, hortara baliarazi behar ditugu.

Bainan ohart huni. Nork-bederak ikhus dezala zer bidez hel diteken xuxenenik Jainkoarenganat. Batzu aphezguaz, batzu ezkontzaz, batzu kontentuaz, bakhotxa bere bokazione bereziaz helduko gare.

Eta bide horien guzien artean, nola berex bakhotxari dohakona?

Huna nola berex dezakegun: Bokazione horiek, batzu eta bertzeak gogoan ibiliz; guzien artean ikhusiz zoin den guretzat hoberena; ohartuz zoinek ereman gaitzazken xuxenenik Jainkoarenganat.

Hortarakotz, gaitezela sar gu baithan, bil detzagun gure gogoak, asma dezagun non diteken gure itzulpi-dea, eta ikhus norat garamatzen gure Jainkoak. Emeki-emeki, bai-eta laster, begiestatuko dugu, adosten zeraukun bokazionea, hobekienik dohana gure jiteari eta Jainkoaren nahikundeari.

Gogoeta horiek egitearekin bokazionearen ezagutzeko, galda dezagun gure buruari:

1° Zertako egin nau Jainkoak eta ezarri mundu huntan?

2° Zer baliatuko zaio gizonari, mundu guziaz jabeturik ere, galtzen badu bere arima?

3° Jesu-Kristok orai zernahi luke nitaz, galdatzen banio?

4° Nola jarraik niteke Jainkoari, ez badut harren nahikundea egiten?

5° Ama-Birjinak, ene Aingeru-begiraleak, ene Patroin sailduak, zer bokazionetan nahi lukete sar nadin?

6° Eta nik adiskide min bati zer bide irikats nio zerukotzat, duda berean balitz?

7° Hiltzeko orenean eta Jainkoaren jujamenduan, nola nahi nuke iragan banu ene bizia?

8° Atseginak, ohoreak, aberastasunak, zer baliatu-ko zaizkit noiz-ere ene gorputza hobirat aurthikiko baitute, eta ene arima eternitatean sarthuko baita?

Horrelako gogoeta onek ezagutarazi diote hainitz saindueri beren bokazionea.

Huna zer gerthatu zitzaion San Antoniori. Hemezortzi urthetan galdu zituen bere Aita-Amak; utzi ziozkaten ontasun hainitz.

Handik sei ilabetheren buruan, Elizan entzuten ditu Jesu-Kristoren hitz hok: hobekienik egin nahi baduzu, zoaz, sal zaitzu dituzunak eta eman beharri, eta izanen duzu aberastasun handi bat zeruan; eta zato jarraik zakizkit.

Hitz horiek gogoari barna sartzen zaizko. Gauaz, egunaz, noiz-nahi, buruan dabilta. Argi bizi batean ikhusten du ez dela funtsean gizonarentzat urrats bat beizik, eta hura dela arimaren salbatzea, zernahi gosta beharrik ere.

Eta orduan bere ontasunak saltzen ditu, emaiten ditu beharri, eta doha Jesu-Kristoren ondotik bortuetan barna.

Guk egin dezogun Jainkoari othoitz eder hau:

Guk zer behar dugun,

Jauna, zuk badakizu;
Zure grazia handiaz,
Othoi gida gitzazu.

Mintza zaite, Jaun ona, hemen nago
Ekharria zure entzutera;
Zure nahia dut konplitu gogo,
Othoi, zato ene argitzera.

Azkenik, othoitz egin ondoan eta gogoeta funtsezkoak egin ondoan, behar dire oraino kontseilu onak hartu. Jainkoak erraiten du gazteari Liburu sainduetan: Ene haurra, deusere ez egin kontseilurik gabe, eta ez duzu ondoan urrikirik izanen.

Eta nori behar da kontseilu galdegin? Ez edozoini, ez-eta hainitz jenderi. Gehienak itsu dire holako gauzetan, ez dezakete eman balio duen argirik. Eta bestalde guti dire ixiltasuna atxik dazaketenak; oro barreiatzen dituzte eta oro nahasten.

Zure bokazioneaz ez zaitela mintza jende argituarri eta ixilari beizik. Hortakotz aipha zazu kofesor jakintsun eta khartsu bati, harrek emanen derauzu azken hitza zure bokazionearen gainean.

IV - KAPITULUA

Probetxu handia dela komenturat goizik eta gaztedanik sartzea

Tokiaren gainean sorthu arbola hazkarrago da ezenez berant landatua. Komentuan ere erro hobeak egiten ditu, gazterik ethorri bokazioneak, ezenez berant helduak.

Deus khotsurik gabe mundutik urrundua, haur gazteak ez daki gaizkia zer den. Deus trabarik gabe Jainkoari dago osoki eta lañoki. Ez du hegaletan demendren herrautsik; zalhu dabila berthute guzietan; nahi bezain gora altxatzen da saindutasunean.

Eta nola adin hortan bihotza guri eta ethorkor baita, nola gogoak eta jiteak ibil errexak baitire, komentuko itzulietara osoki moldatzen eta egiten da.

Bizitzeko bide guzietan probetxu handia da goizik abiatzea. Jainkoak berak dio: Dohatsu gaztedanik uztarria ekhartzen duena; zahartzearekin ere sail berari jarraikiren da eta halaber dohain ederrak agertuko ditu.

Ttipitik xuxen abiatu zuhamua, xuxen goratuko da; ur xirixta jarraikiren da, lasterra lehenik eman dion errekarari; gazterik hezi zamaria, gero ere eskupean ibilkor eta maltso atxikiren duzu.

Halaber, ttipitik trebatu den haurra, gero ere errexkiago aintzinatzen da komentuko eginbidetan. Bertzeak uzkur eta lotsa direlarik, hura erne eta zalhu dabila. Betzerentzat gaitz eta leizetsu diren bideak, harrentzat zabal eta ordoki dire.

Hortakotz komentuek bethidanik altxatu dituzte haur gazteak.

Hirur ehun eta lauethanhogoiean, San Jeromek bere komenturat biltzen zituen haur gazteak, eta berak egiten zioten eskola; berak moldatzen zituen komentuko bizitze sailduari; berak izkribatu eta ederki xehatu izan ditu hekien ongi altxatzeko biderik hoberenak; eta erran du nola gogoan eta bihotzean zerauzkan bethi, oilo batek bere xitoak hegalpean gorderik derauzkan bezala.

Erromatik eta Italiako bertze tokietarik, jaun aberats batzuek, bai-eta asko jende arruntek, igorri zioz-

koten San Benuati beren haurrak, lau ehun eta laue-
tanhogoi eta hamabortzean.

Bi jaun handi, Eutychez eta Tertule, jin ziren berak
San Benuaten ikhustera, eta utzi ziozkoten beren bi
semeak. Eutychezek utzi zuen Mauro, hamabi urtheta-
ko haur bat; eta Tertulek utzi zuen Plazide, ez zituela-
rik oraino zazpi urthe beizik.

San Benuatek bildu zuen holaxet haur multxo bat.
Edozoin eskoletan bezain ongi altxatzen zituen, eta
handituz geroztik on ziren non-nahi agertzeko.

Bainan lehen-lehenik irakasten ziozkoten Benedi-
kano khartsu egiteko urratsak. Hori zen haur gazte
hekientzat jakitate beharrena, eta berek ere ez zuten
bertzerik nahi, ezen hortarakotz athera ziren mundu-
tik eta komentuan sarthu.

Amodio handia zuen San Benuatek haur horien-
tzat. Arthatzen zituen, baratzezain batek bere lore-
landareak arthatzen dituen bezala. Eta zinez non dite-
ke baratze hain aberatsik nola baitzen orduan Kazine-
ko mendia? eta non diteke lore hain ederrik nola bai-
tziren haur gaixo hekien bihotz gazte eta garbiak?

Gure Sainduak erran zezaken bai, Salomonek
erraiten zuena bere Kantiken-kantiketan. Bozkaria
gaiten, ezen loreak agertu dire gure lurrean; Oi zuek,

haur maite gure lore ederrak, handi eta hazkar zaitezte, liliak baratzetan handitzen diren bezala, eta heda zazue gure komentuan zuen usain ona, hobengabeta-sunaren usaina.

Bortz ehun eta lauetanhogoi eta bortzean, San Kolonban ethorri zen Irlandetik Frantziako lurrerat.

Herriz herri predikatzen ari zelarik, gelditu zen Aitoronseme aberats baten etxean. Aitoronseme hura zen jaun Añoaalde.

Bazuen hamar urthetatako seme bakhar bat eta irakatsi zion sainduari, erraiten ziolarik: Huna ene seme bakharra, othoi benedika zazu.

San Kolonbanek ihardetsi zion: Bai benedikatuko dut zure haurra, bainan Jainkoak beretzat nahi du haur hori, komenturat igorri behar duzu.

Elhe hortan, aita gaizoaren bihotza histu eta goibeldu zen. Hargatik ez zen bihurri, eta nigarra begian Sainduari ihardetsi zion:

Haur maite hori bakharra dut, ene gozo guzia da; bainan zer naiz ni Jainkoaren nahia hausteko? Jainkoak komentuan nahi duenaz geroz, eremazu zurekin eta egizue biek othoitz enetzat.

San Kolonbanek komenturat ereman zuen haur gaztea eta berak altxatu zuen arthoski, bertze asko hurrekin.

Haur hori halako suarekin lothu zen berthuteari; non ttipitik egiten baitzituen mirakulu frango. Aldare-tarat alxatua da eta izena du San Aile.

San Leandre, Zebilleko aphezpikuak, bazuen anaia gazte bat, Izidoro. Hori zen bortz ehun eta laue-tanhogoi eta hamarrean.

Nola Leandre bera Benedikano baitzen, komen-tuan zeraukan anaia ttipia ere, bertze zonbait hurre-kin. Izidorok ez zituen oraino hamar bat urthe beizik.

Haur gaixoa lotsatu zen komentuko bizi hertsiaz eta bere anaia Leandren larderiaz. Eskapatu zen eta joan ihesi.

Bidez bide zoharik, akhitua eta egarritua, gelditu zen ithurri baten aldean. Ura xuhur zen; ez zen xorta-ka beizik heldu. Edan-eta, egoiten da ithurriari beha; ohartzen da ur xortek joiten dutela harri lodi bat, eta harri hori oro legundua dela eta erditik arraildua.

Urketa jin emazteki bati galdegiten dio: Zerk egin othe du harriaren erreka pollit hori?

Eta emaztekiak irriz: Ur xorta ttipi horiek egin dute.

Orduan gogoetatu zen eta bere baithan sarthu gure Izidoro gaztea. Ikhusi zuen lan handiak ez direla egiten emeki beizik, eta haurrak ere gizontzen direla entsegatuz eta akhituz.

Bere komenturat itzuli zen orduan, barkhamendu galdegin zion bere anaia Jaunari, eta eskolarat aintzina jarraiki zen. Zer-nahi ikhasi zuen eta egin zen Benedikano. Jakintsun bezain khartsu eta saindu zen; eta San Leandre hil zenean, gure Izidoro egin zuten Zebilleko aphezpiku.

San Frantses Saleskoak nahi zuen, bokazionea duten muthil eta neskatxa gazteak, komenturat sar ditezen goizik.

Ardurako solasa zuen, deus onik ez duela uzkur egoiteak; ernatu behar dela eta Jainkoaren gomituari laster jarraiki. Huna zer hitz ederrak diozkoten gazteri eta nola sustatzen dituen:

«Baldinetaria zuen zorionak deitzen bazaituzte garbitasunezko eta birjinitatezko eztei dohatsuetara, eta begiratu gogo baduzue bethierekotzat zuen birjinitatea; Jainkoagatik atxikazue eta begira zuen amodio

guzia delikatasun eta prekozione handirekin Espo dibino harrentzat, zeinek, bera den bezala garbitasuna bera, deusere ez baitu hanbat maithatzen nola garbitasuna; eta zeinari baitzaizko zor gauza guzien hastapenak eta premiziak, eta beregainki amodioarenak.» (*Philotea, Haranederrek eskuararat itzulia.*)

Jesusen irakaspenak ere berdin manatzen du, ezen goizik eta haur-haurretik gorde zen Jesus, mundutik urrun, Nazareteko etxean, Mariarekin eta Josepekin. Jesusen irakhaspen horri jarraikitzeak, bokazioa duen jende gazteak behar du komenturat goizik lehiatu.

Huna zer dion Atxularrek bere Geroko-geroan:

«Pintatzaile batek egin baleza imajina eder bat, alde guziz konplutua eta abantailatua; imajina hark, baldin ezagutzarik balu, nori lehenik behatu behar othe leraukaio? Segur da pintatzaileari berari, bere egileari. Beraz huneletan gizonak ere, Jainkoak berak bere imajinara eta idurira, hain ederki egina denaz geroz, adimendura heltzen den bezain fite, bere egileari berari, bere iduria eman dioenari behar dio behatu, harren zerbitzuan behar du bere ahala enplegatu.» (*Geroko-geroan, p. 35*).

Komenturako bokazionea duenak ere ezagut dezala Jesus baithan bere bokazionearen egilea; harri beha dezala. Eta ezagutuz geroz, lehia dadiela harren irakhaspenari jarraikitzerat Mundua laster utzirik, sar dadiela komentuko gordairuan, hala-nola Jesus Nazaretoko etxean.

Bestalde orhoit zer erran dutan goraxago: ttipitik trebatua den haurra, gero ere errekiago aintzinatzen dela komentuko eginbidetan; eta bertzeak uzkur eta lotsa direlarik, hura erne eta zalhu ibiliko dela. Hemen ere ederki mintzo da Atxular; huna zer dion:

«Badituzte gauza guziek bere sasoinak, trenpeak eta denborak. Bada ereiteko denbora, eta bai biltze-koa ere. Eta erho handia da, bildu behar den denboran eta muga, ereitera dohana. Gaztean behar da erein eta trabailatu, eta zahartzean bildu, gozatu eta pausatu. *Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadakik kafia, dio errefranak. Zuk nahi baduzu gaztean alfer egon, eta gero zahartzean trabailatu eta obra onen egiten hasi, hori da ordenantzaren haustea, sasoinik ez begiratzea, bildu behar denean ereitea, eta pausatu behar denean lanari lotzea.» (*Gerakogeroan, p. 41.*)*

Komentuan gazterik sartzen denak, ereiten du egiazko aroan eta denboran. Harrek bilduren ditu uztarik aberatsenak Jainkoarentzat eta zerukotzat.

Eta gibela daudelarik bertze asko, akhitzen eta lotsatzen direlarik saindutasuneko bidean; hura deskantsuan ibiliko da; errexki eta trebeki aintzinatuko da.

V - KAPITULUA

Komentuenzat ere probetxu handia dela, haur gazteen hartzea eta altxatzea

Haurrentzat probetxu handia balin bada komentuan goizik eta gazterik sartzea, ez da probetxu ttipiagoa komentuentzat, ezen komentuek laguntza bereziak izaiten dituzte haurren aldetik. Eta hemen ez naiz mintzo edozoin laguntzaz; mintzo naiz xoilki laguntza surnaturalaz, othoitzetik heldu den laguntzaz. Eta diot, laguntza premiatsu hori ez duela nihork hala ardiesten nola haur gaztek.

Testament zaharrean ikhusten dugu nola Agar bere haurrarekin bazabilan bazterrez bazter Bersabeko mortuan. Egarrri ziren eta urik ez zuten. Haurra zen gehienik behartua, hiltzera zohan egarriaren bortxaz. Eta ama gaixoa nigarrez zagon, Jainkoari oihuka: Oi jauna, ez dut bada ene haurra hiltzerat utzi nahi!

Eta haurra, zuhaitz baten pean etzanik, hiltzeko azken haspenetan eroria zagon.

Orduan aingeru bat agertu zitzaion amari eta erran zion: Zer ari zare, Agar? ez izan beldurrik, Jain-

koak entzun du zure haurraren boza: *Noli timere, exaudivit enim Deus vocem pueri.*

Eta denbora berean ithurri bat agertu zen, eta edan zuten biek.

Bainan gu ohart gaiten aingeruaren elheari. Ez du ez amari erraiten: Jainkoak entzun du *zure* boza; bainan erraiten dio: Entzun du *haurraren* boza: *Exaudivit vocem pueri.*

Huna zer dion oraino Testament zaharrak:

Holoferne, gudulari famatua, Judeako alderat abiatu zen, Jerusaleme beretu nahiz. Berri hori jakin zue-nean, Eliakim aphez-nausiak hartu zituen biderik hoberenak etsaiari buru egiteko. Eta zer uste duzu asmatu zuela hazkarrenik eta borthitzenik? Haur ttipiak othoitzean ezarri zituen ahuspez Jerusalemeko tenploaren aintzinean. Eta gero erran zioten guzieri: Etsaia garhaituko dugu, ez ezpatarekin gudukatuz, bainan othoitz khartsuak eginez: *Non ferro pugnando, sed precibus sanctis orando.* Eta hola gerthatu zen.

Bi gerthakari horietarik ageri da Jainkoa zoin ixuria den haurren alderat eta zer amodioz onesten dituen hekien othoitzak.

Bainan haurren artean ere, batzu badire bertzeak baino hobeak; badire haur khartsu, haur jite oneko, haur Jainkotiar batzu. Eta horrelakoak ditu Jesusek hautatzen, mundupetik atheratzen, eta komentuko gordairuan beretzat bildurik zaintzen. Eta baldin haur guzien othoitza laket bazaio, zorbatez ez du hobeki entzuten haur berezi horien othoitza!

Gure eskualdetan badire bi komentu, haurrak gazterik hartzen dituztenak, beren bokazione sailduaren arabera altxatzeko.

Hek dire Bastidako aita Benedikanoen kontentua, eta Maule Agerreko fraide Eskola-emailen komentua.

Jainko maiteari esker, bi komentu horiek hazkartuz eta emendatuz dohatzi. Ez izanagatik oraino zaharrak Eskual-Herrian, jadanik egiten dituzte ongi handiak. Eta nik uste zor diotela gehienik haur gazte horien othoitzeri.

Bestela ere, Benedikanoak ala Fraide Eskola-emai-leak ez dire orai hasiak lan hortan, ezen, hekien lehenbiziko Aitek, san Benuatek eta De la Sala dohatsuak, ez dute deusetan halako entsegurik ibili nola komentu-barneko haurren altxatzean. Hala nola Laborari etxeko-jaunak artha handia baitu bere oihaneko lan-

dariez, berdin bi Ordena horietako moldatzailek beren haurrez izan dute artharik handiena.

Laborariak ez ditu ez landari gazteak larre idekian uzten; inguratzen ditu phezoinez edo hesi hazkarrez; eta holako zerrakian aziendarik ez da sarthuko, arbolek ez dute deus kalterik izanen, joanen dire bethi edertuz eta hazkartuz, eta azkenean oihan bat atherako da hauta.

San Benuatek eta De la Sala dohatsuak ere hola-xet egin dute; bokazione gazteak ez dituzte mundupean utzi, bainan komentuko gordairurat bildu. Saindu horiek berek irakasten diote beraz Bastidako eta Maule Agerreko komentueri haur gazte horien altxatzeko bidea eta moldea. Ikhus dezagun nola batak ala bertzeak maite zituzten beren komentuetako haurrak.

1° Goraxago erran dut nola San Benuatek haur mulxo bat bildu zuen eta zer artha handiarekin altxatzen zituen. Bainan guzien artean, bat bazen gehienik maite zuena, eta hura zen Plazide ttipia, zazpi urhetan komenturat ethorria.

San Benuatek ez zuen kasik urrats bat egiten bere Plazide maitea gabe. Guziz, nahi zuenean Jainkoarenganik grazia zerbait ardietsi, berekin zuen bethi Plazide, othoitz eginarazten zion, ararteko emaiten zuen,

eta aintzinetik segur zen Jainkoak onetsiko zituela haur prestu horren galde guziak.

Saindurik ez da menturaz San Benuatek bezenbat mirakulu egin duenik. Noiznahi, kasik urrats guziez, gauzarik espantagarrienak egiten zituen. Bainan hau da ohartgarri, mirakulu horietarik ederrenak ardietsi baititu bere komentuko haur ttipien othoitzez, edo bederen hekien onetan eta hekientzat amodioz. Hala-nola san Mauro uraren gainean xutik ibili zenean eta Plazide bere adixkidea osina-leizetik atheratu.

Mirakulu horiek guziak ez dezazket hemen aipha. Bainan badire biga hain hunkigarriak non emaiten baititut hemen burutik buru.

Lehen mirakulua. Plazide gaztearen othoitzek ardietsia da, eta bigarrena bertze haur baten onetan egina.

San Benuatek hamar komentu altxatu zituen Zubiakon. Guziak ederki zohatzen, bazuten bokazione frango, erregelan ere bai atxikitzen jarraikitasunik khartsuena. Hitz batez, arimaren aldetik deusen eskasik ez zuten. Bainan gorphutzeko beharren aldetik, zonbat eskasia! Eta guziz, komentu korietarik hirur arraz gaizki ziren. Makhurrik handiena zuten uraren eskasa, eta nola mendiaren kasko-kaskoan baitziren,

lan handia zen hekientzat ur garreion ibiltzea bide gaitz hetan. Eta gero zer hirriskuak mendi xut leizeitsu hartan! demendren behaztopa azki patarrari behera xahutzeko!

Egun batez hirur komentu horietako fraideak bil-tzen dire eta badohazi San Benuatengana. Erraiten diote: Oi aita, urketa akhitzen baikare gu, hor gaindi, mendi zolatik kaskora, edari xorta bat ezin etxeratuz! Othoi bertze nonbait koka detzagun gure hirur komen-tuak.

San Benuatek entzuten ditu hekien arrangura guziak, zonbait elhe on erraiten diozkote eta igortzen ditu bakean.

Ondoko gauean, ilhundu bezain sarri, gure Sain-duak hartzen du berekin Plazide gaztea, eta badohazi biak mendi gaineraino. Harroken erdian belhaunika-tzen dire eta othoitz egiten. Gero San Benuatek bil-tzen ditu hirur harri eta metaturik ezartzen toki hartan berean.

Lan hori egin-eta komentura jausten dire biak, nihor ohartu gabe.

Handik zonbait egunen buruan, fraide berak heldu zaizko arrangura berekin. Eta Benuatek orduan: Zoaz-

te holako tokira, hirur harriak alda zaitzue, Jainko onak sorraraz dezake ithurri bat mendi kasko hartan.

Dohazi laster fraideak, zilo bat egiten dute erran tokian, eta horra non ithurri eder bat atheratzen zaio-ten! Geroztik bethi ur garbi nasaia heldu dire ithurri beretik mendiari behera.

Komentuaren alderdi bat nahi zuten gorago altxatu; eta xutik egoitekotz murrua behar zen xuxen eta lodi. Bainan goratasun hartan asentu-gaiak ez zitezken hel nekez beizik. Lan gaitza zen. Harginek berek ez zezaketen gain-behara so egin durduzatu gabe.

Zer gertha ere, San Benuat othoitzean zagon, bazakien Jainko onak dituela langile gaixoak hobekien zaintzen eta begiratzen.

Othoitzean delarik, agertzen zaio debrua. Desafio-ka abiatzen zaio; debalde duela bai othoitz egitea, jakinen duela laster bere langilen berri, eta arte hortan badohala harginen ikhustera.

San Benuatek berehala bidaltzen diote fraideri go eman dezaten, hekien artean dela bebrua, beldur izaiteko dela zerbait behaztopa gertha dakioten. Berri hori jakin duteneko, murru guzia erortzen da eta haur gazte bat lehertzen du.

Haur hori, Enperadorearen gorthetik ethorria, armadako aintzindari baten semea zen.

Murruaren erortzeaz baino miletan gehiago izitzen dire haur maite horren hiltzeaz. Lasterka badohazi Aita Benuatengana. Sainduak manatzen diote ekhar dezakoten berehala haur gaixo hori.

Oro zathikatua, ez du haurrak jendearen itxura demendrenik.

Molde auhendagarri hortan ekhartzen diote San Benuati. Gelatik kanporat igortzen ditu jende guziak eta gelditzen da bakharrik hezur eta haragi puska horiekin. Ahuspez eta nigarrez othoitz egiten du; eta ez alferretan. Phizten da haur hori, hezur eta haragi zathi hek elkarri lotzen dire, gorphutzak berriz ere jendearen itxura eta moldea hartzen du, eta gure hila xutitzen da hazkar eta sendo. San Benuatek besarkatzen du eta berehala lanerat igortzen. Oi zer bozkarioa langilen artean! Murru eroria alegeraki berriz hasten dute, eta egun gutirik barnean lan guzia akhahutzen.

2° Fraide Eskolo-emailen kongregazionea edo elgartasuna, Elizan behinere agertu den handienetarik bat da. Hedatua da, ez bakharrik Frantzian, ez-eta ere

xoilki European, bainan oraino Afrikan, Ameriketan, munduko bazter guzietan.

Jan-Bastista De la Sala dohatsuak bildu eta asentatu izan du Fraide Eskolaemailen elgertasuna. Saindu hori ez da guretzat arrotza, eskualduna da bere ethorkiaz eta odolez, ezen haren familia atheraia da Ziboroze-Salako jauregitik. Eta nork ez daki Ziboroze eskual-herri bethean dela, Atharratzetik hurbil? Hamalau ehun eta lauetanhogoi eta lauean, harren arbasoek saldu zuten Ziboroze beren ontasuna, eta joan ziren Frantzia behereko eskualdetarat.

Handik bi menderen buruan, hamasei ehun eta lauetanhogoi eta hamekan, morde De la Salak argitarat irakasi zuen Fraide Eskola-emalen elgertasuna. Eta ordu beretik Fraide-gai bezala hartzen zituen haur gazteak. Huna nola abiatu ziren.

Egun batez gure Sainduari jiten zaio haur gazte bat, baizik-eta Eskola-emaile egin nahi dela, eta othoi bere komenturat har dezan. Aste hartan berean ethortzen zaizko bertze zortzi; eta holaxet emendatzen da berehala Jan-Batista de la Salaren nobizia ttipia.

Ez diteke erran Saindu horrek zonbat maite zituen haur gazte horiek. Kasik egun guziez bai-eta egunean frango aldiz, bazohan hekien ikhustera; berak molda-

tzen zituen hekien izpirituak eta bihotzak, berak irakasten ziozkoten berthutean aintzintzeko biderik hoberenak.

Laguntzaile eta bidari bezala eman zioten Jesus-Haurra. Eguberri-gauean, gure Sainduak bere burua kontsekratzen zion lehenik Jesus-Haurrari, eta gero, haur maite horiek; eta xede hortara, guziek othoitz berezi bat erraiten zuten goraki. Iduri zitzaion haur inozent eta obengabe horien othoitz khartsuek laguntzen eta hazkartzen zutela harren Ordena berria. Eta bestalde haur horiek Fraiden egiazko haziak eta landariak ziren. Hazi eta landare horietarik athera dire hainbertze Eskola-emaile saindu, ongirik handienak egin dituztenak Eliza katolikoaren hegal guzietan.

Egungo egunean ere Fraide Eskola-emailek hartzen eta altxatzen dituzte haur gazteak Nobizia ttipietan. Frantzian berean badituzte bi mila baino gehiago. Ez dire guziak heltzen, baina bai gehienak. Eta horra nola altxatzen ahal dituzten eskola girixtinoak hainitz eskualdetan, eta guziz jende erromesen eta beharren artean.

Bai jende beharren artean, ezen nihor ez da sekulan agertu, Jan Batista De la Sala bezenbat eman denik jende xeheari; nihork ez ditu sekulan erromesak

harrek bezenbat maitatu eta lagundu. Zer diot? Ez xoilki maitatu eta lagundu bainan oraino, aberatsa zelarik bere sortzez, erromeseri eman ditu bere ontasun guziak eta hekien heineraino jautsi izan da bera. Berak jasan ditu hekien behar-orduak, hekien nekeak, hekien aphaltasun eta gabetasun guziak.

Bestalde nahi izan du bere dizipuluak ere egon ditezen bethi jende xehearen heinean eta izarian. Hor-tik mendez mende Fraide Eskola-emaileak jende beharraren urrats beretan dabilta bethi. Hekien artean badire asko, sortzez aberatsak, dohainez eta jitez kargu handietako on litezkeenak; bainan ospe guziak ostikatu dituzte eta ontasun guziak arbuiatu. Beren hautuz bizi dire aphalt, erromes, eskoletan akhiz-tuz, nekazaileak bezala behartuz. Eta zertako? A! Jainkoaren amodioz, arimak salbatu nahiz, eta bereziki jende xehearen laguntzeko xedez.

VI - KAPITULUA

Zer den mundua

Zer da mundua? Othe da, gorphutzeko begiez ikhusten dugun zeru-lurren kanpo eta eremu handia? Ez. Ezen huna zer dion Jeremias profetak: Jainkoak aphaizten du lurra bere zuhurtziaz, eta zeruaren zabaltazuna hedatzen du bere gurbiltasunaz. Berzalde Salomonek erraiten du: Jaunaren ospeaz betheak dire haren egintzak, eta Jainko handiaren omena dute zeru-lurrek aiphatzen.

Bertzerik da beraz mundua.

Othe da bederen gizon eta jendekia guzien bilkhura? Ez-eta. Huna zer dion Jesu-Kristok: Hainbestetaraino Aita-eternalak maite izan du gizonen aralde guzia, non hekientzat eman baitu bere seme baxharra. Jesu-Kristo bera zerutik ethorri da gizonen salbatzeko, jendetze guziak bere odolaz erosteko.

Ala zeru-lurrak, ala gizon guzien bilkhura, Jainkoak maite ditu beraz. Guk ere maita dezazkegu, bai eta maitatu behar ditugu.

Huna zer den mundu gaxto hori.

Bai hiri handietan, bai eta herri ttipietan, jende hanitz badire bizi direnak ez balute bezala arimarik. Hekieri, Jainkoa, zerua, ifernua, eternitatea, deusik ez zaizkote.

Izanik ere sinestea, bizi dire ez balute bezala, oro pulunpatuak gorphutzeko atseginetan, lurreko ontasunetan, urguluzko hanpaduretan. Jende horiez erraiten zuen Dabid erregek: Bizi labor eta hilkor huntan derauzkate bihotzak aserik, eta bertze gutziarik ezdu-te.

Mundu horrek ukho egina dio Jesu-Kristori, ukho zeruari. Aski zaio jan edanetan asetzea, lohikeriazko zarkerietan gozatzea, urhe-zilharrak ausarki biltzea, ospez eta aiphamenez hanturik egoitea, bertzez gorago altxaturik nausi agertzea.

Ez du gehiagoko ametsik. Hil ondoko ethorkizunaz ez da orhoitzen ere. Edo orhoitzen bada, uzten du laster bazterrerat; eta aintzina doha bethi bere galbide-tan.

Hortakotz dio Izpiritu Sainduak: Mundua gaizkian oro jarria dago; ai, goemazue harren maitatzetik, ezen munduari estekatzen denak galtzen du, ordu beretik, Jainkoaren amodioa.

Mundu hori Jainkoaren egiazko etsaia da, Jesu-Kristok berak madarikatu izan du: Zorigaitz munduari bere gaitz-bideen edo eskandalengatik, zorigaitz hainitz eta hainitz arima galtzen dituelakotz.

Halako etsaigoa da munduaren eta Jainkoaren artean, non Jesu-Kristok erraiten baiterauku nihor ez daitekela jarraik, denbora berean hari eta munduari. Batari edo bertzeari ukho egin behar da, baina Jainkoari jarraikitzen dena helduko da bakharrik zerurat.

Errepika dezagun beraz phertsulariarekin:

Non nuke adimendua,
Onesterat mundua?
Urrun da segur baitut nik,
Harren gutziarik.
Jainko xoilak maitatzeak,
Hari jarraikitzeak,
Egiten dik, o gizona,
Funtsezko zoriona.

VII - KAPITULUA

Nola ihesi egin bebar zaion munduari

Erran da: Urruneko eltzea urhez, etxera orduko lurrez. Munduaz berdin erran dezakegu. Urrunetik iduri du hau-zer-ezda, oro eder eta garbi. Hortakotz ditu asko eta asko bere saretan hartzen eta galtzen.

Halako elhe xoragarriak aiphatzen ditu, halako itxura maithagarriak agertzen, halako gomitu goxoak egiten, halako atsegin handiak hitzemaiten, non arima hoberenak ere engana baitezazke. Bainan hurbilduz geroztik eta barnago sarthuz geroztik, ez dugu munduan deus ikhusiko baizik ere usteldura eta zarkeria.

Eta orduan nahi baduzu zaindu zure berthutea, eta guziz garbitasuna, bai eta nahi bazare Jainkoaren amodioan aintzinatu, nahi bazare saindutasunean gora altxatu, ai geroztik ihesi egingen diozu munduari.

Hola gerthatu zen San Benuatentzat, beheraxago ikhusiko dugun bezala. Erromako hirirat joan aintzinean, ez zuen ez uste mundua hain galdua zela. Laño-lañoa, deus beldurrik gabe, munduaren erdira erori zen. Ba bainan gero, mundu hori hurbildanik ikhustea-

rekin, ohartu baitzen ez zela han deus onik! Izitua, beldurtua, ihesiari eman zen.

Zer bada, salbatzekotz, atheratu behar othe gare guziak mundutik? Bai guziak. Xoilki ohart huni: bi bidez athera daiteke mundutik, edo xoilki bihotzez, edo, bihotzez bezala, gorphutzez ere.

Gehienak ez daitezke mundutik athera bihotzez beizik. Eta holakoak, bizirik ere munduaren erdian, jarraikitzen dire, ez munduari, bainan Jesu-Kristori. Hala-nola hainitz aphez khartsu, hainitz Aita-Ama girixtino, hainitz gazte Jainkotiar eta garbi.

Bertze asko mundutik atheratzen dire, ez bakharrik bihotzez, bainan oraino gorphutzez eta egoitzaz. Horrelako arima zonbaitek egin dituzke phertsu eder hok:

Lurreko kargu, ohoreak,
Dire ephe gutitako;
Hango izaite, fagoreak,
Zaizkit khearen pareko.

Arrosa arantze gaberik
Ez ahal da nihun sortu;

Ez-eta munduko plazerik,
Khiretsik gabe gerthatu.

Urrun beraz eneganik, mundua;
Ez, ez nitzak nihoiz jarraikiko;
Egin diat orai ene hautua,
Jainko jauna bethi maitatzeko.

Nork erran dezake zonbat eta zonbat joan izan diren holaxet mundutik ihesi? Lege zaharrear berean ikhusten ditugu Jainkoaren Profetak urruntzen mundutik eta toki bazterretan gordetzen. Hala-nola Samuel, Elias, Jondoni Joane-Batista, eta hek bezala bertze hainitz.

Liburu sainduetan irakurtzen dugu nola Abdias, aberats Jainkotiarak, emaiten zioten jatekoa ehun Profeteri, eta Profeta hek mendietako harpetan bizi zirela.

Eta oraino Jesus-Kristo agertuz geroztik, bihotz garbiak osteka eta multzoka hegaldatzen dire mundutik urrun: San Paulo, san Antonio, san Pakome, santa Alexandra, santa Efrosina, eta heiekin batean araldeka asko gizon eta emazteki. Iduri hiriak jendez husten direla, eta bortuetan beizik ez daitekela bizi.

Hekien bihotz garbiek ezin jasan dezakete munduaren bekhatuzko ilhunbea. Nahi dute Jainkoaren argia, nahi dute Jainkoaren amodioa. Eta argi eder hori, amodia gozo hori, kausitzen dituzte mendietako gordairuetan.

Eliza sainduaren lehenbiziko mende hetan, hirur ehun eta hiruetanhogoi eta hamalauetan, huna zer egin zuen san Krisostomok.

San Krisostomo, muthil gazte Jainkotiar khartsua, Antiocheko hirian zagon bere amarekin. Hiri hartako barheiamenduek iziturik zeraukaten. Berak erraiten du bazter guziak hondatuak zirela bekhatuzko izurrite beltz batean, zahar ala gazteak lohikeriazko leize edo osin batean galdurik zaudela.

Hoinbestetarainoko zarkeriez oro lotsatua, ai ez zauken saindu gazte hori. Amets guziak eta bihotz guzia handik urrun hegaldatuak zituen.

Amaren ixilik hartu zituen beraz hiritik atheratzeko bideak. Joan nahi zen toki bazter gorde batetarat, han ejoiteko gizonetarik behex, bakharrik Jainkoarekin.

Bainan ama ohartu zitzaion. Ama gaixo hori, oro nigarretan, joan zen bere semearengana eta erranzion: Oi nere haurra, galdu dut zure aita eta nere

lagun maitea, eta orai behar othe zaitut zu ere galdu? Bakhar-bakharra zare enekin, othoi egon zaite ni hil arte bederen.

San Krisostomo gelditu zen. Bainan handik laster hil izan zen ama gaixoa. Eta begiak hetsi zaizkonean bere amari, saildu gaztea mundutik atheratu zen.

Utzirik bere etxea, utzirik bere ontasunak, utzirik asko adixkide, sarthu zen Teloniako bortuetan. Eta berak asko hitz ederrez errepikatzen ditu bortu hetan gozaten zituen Jainkozko atsegin handiak.

Huna zer dion: Nola itsasoko ur borthitzek alferretan joiten baitute harroka hazkarra, berdin, mendi dohatsu hotan, ifernu guziak deusik ez dezake girixtinoaren galtzeko. Toki bazter huntan, mundutik urrun, ai zer atsegin garbiak! Hemen gure biziak iduri du Zeruko bizi dohatsua. Aingeruen haurride, Jainkoarekin gaude bekhoz bekho, bethi lehiatuak harren amodio sailduan.

Hola-hola eta berdin gazterik joan izan zen San Benuat Erromako hiritik urrun, Zubiako borturat, munduaren higuintzaz eta bere Jainkoa hobeki maitatzeko xedez. Orduan oraino ez zituen hamalau urthe beizik.

Aitoronseme ziren San Benuaten aita-amak, Euprobuz eta Abondanzia. Bainan odolez baino handiago ziren saindutasunez, eta beren haurra altxatu zuten egin-ahala arthoski Jainkoaren bidetan. Ez ziren alferretan entsegatu, ezen ttipidanik Benuat osoki eman zen Jainkoaren amodioari. Ordutik bere elhe eta egitetan, agertzen zituen jende zahar baten zuhurtzia eta bildutasuna. Bere adineko josteta edo barheia-menduetarik urrun zagon, oro sarthua othoitzean eta irakurtze onetan.

Bainan sor-etxetik urrundu behar izan zen. Aita-amek Erromako hirirat igorri zuten, nahiz-eta irakusle jakintsunetarik ikhas zetzan ezagutza eta jakitate hoberenak.

Xede berez Erromako hirian baziren bertze muthil gazte frango, bainan hekien artean on guti eta tzar hainitz. Gehienak zabiltzan galdurik ala phesta, ala jako, ala zer-nahi lizunkerietan.

San Benuatek ez zezaken jasan bere lagunen bizitze galdu hori. Ikhusteak berak izitzen zuen harren bihotz garbia. Beldur zen ere hekien zarkeriek kotsa zezaten bera, eta hekien ondotik leize beretarat eror zadien.

Beldur horrekin, ihesi joan zen hekien artetik. Ukho egin zion munduari. Hor utzirik eskolak, ontasunak, ohoreak, aita-amak, athera zen Erromako hiritik eta joan Zubiako mendirat.

Abiatu zeneko, bi aingeru zerutik jautsi ziren, eta harren bi aldetan emanik, lagundu zuten bide guzia.

Erran dut joan zela ihesi Zubiako mendirat; huna toki hura nolakoa den.

Erromatik dozena bat orenen bidean, mendi kasko gora batzu altxatzen dire. Mendi horietara heltzen da Tibolin gaindi. Emeki-emeki hertsitzen dire bazterrak, eta azkenean mendi-zinta batek inguratzen zaitu. Mendi-barne hortan ikhusten duzu ordoki bat gizona eta aberatsa. Italianoek deitzen dute *ordoki saindua*, *valle santa*, badirelakotz hor asko komentu eta fraide. Beha zazu orai nola etxe multxo bat hedatzen den patar bati gora: hori da Zubiako.

Mundutik ihesi, San Benuat herri hortara heldu izan zen. Bainan ez zen hor gelditu; hor ere ikhusten zuen oraino mundua, eta nahi zen baitezpada harrenganik osoki urrundu.

Zubiakotik harat iragan zen beraz patar xut bati gora; jo zituen bortuko bazter eta zokho gehienak,

atherbe zerbait hatzeman beharrez. Eta azkenekotz harpe batean gelditu zen.

Huna zertsu zen San Benuatek hautatu harpea.

Zubiakotik gorago badire bi mendi, eta bien artean ez da erreka hertsia bat beizik. Xut-xutak eta bi murrupareta iduri, mendi horiek badohatzi hainitz gora. Eta bien arteko erreka-zolan, ur borthitz bat badabila kalapitan eta jauzika. Erreka basa hortan gelditu zen San Benuat.

Iguzkiari beha dagoela eta goratasun ikharagarri batean, mendi horietarik batek badu harpe gorde bat, aphala eta hertsia. Zazpi esku-zehe luzetasunean, lau esku-zehe zabaltasunean; xutik ezin eman; egon behar etzanik edo belhauniko; hona zer harroka-ziloan ehortzi duen San Benuatek bere burua.

Zerk ekharri du Jaun gazte aberats hori bortu hortarat eta harpe ikharagarri hortarat? Munduaren beldurak, salbatzeko gutiziak eta Jainkoaren amodioak.

Dabidek zion: Nork emanen darozkit usoaren hegadak? hegaldak nindaite, eta phausa-toki batetarat hel nindaite. San Benuat ere hegaldatu da; ez da biderditan gelditu. Hain gora altxatu da bere gordairuan, non ez baitezake nihor mintza ezta nihor ikhus.

Geroztik ere, bide hortaz eta adin berean, mundu-
tik atheratu dire asko eta asko saildu. San Bernatek
ez zituen hogoi urthe beizik mundua utzi zuenean;
San Frantses Asisekoak ere hogoi urthe; San Luis Gon-
zagakoak hemezortzi; San Stanizlak hamazazpi.

Oi dohatsu gazterik emaiten direnak Jainkoari,
deus gaizkitan demendrenik kotsatu gabe! Hek dire
Jesu-kristok lore-lorean beretzat biltzen dituen arima
hautatuak.

Zuk, o Jesus maitea, gure jabe ona,
Jende gazte prestuak hain maite tuzuna,
Egiazko prestuak bethi zatzu lagun,
Bere xede onetarik ez daitezen urrun.

II - ZATHIA

Aphezteko bokazionea

I - KAPITULUA

Apheztasuna zer gauza handia den

San Frantsesek ez zuen apheztu nahi; ez ziteken mentura.

Izanagatik saildu handi, bere burua ttipeegi eta ezdeusegi zaukan holako karguari buruz.

Erraiten ohi zuen, ikhusi balitu aingeru bat eta aphez bat elgarrekin, aphezari emanen zuela lehenik bere agurra, eta gero aingeruari. Zertako bada? Zeren eta apheza handiago baitzen harren begietan ezenez aingerua.

Ez dugu zeren espanti san Frantsesen beldur eta sineste hortaz. Ezen apheztasuna hain da handi, non Jainkoa-berarenganik atheratzen baita. Ez da gizonenganik heldu, ez-eta ere aingeruenganik. Goragodanik atheraia da; Trinitate adoragarriaren baithan du apheztasunak bere ithurburua. Aita-Jainkoak emaiten du bere seme bakharrari, Jesu-Kristori; Jesu-Kristok emaiten du aphezpikueri; eta aphezpikuek emaiten dute aphezari.

Apheztasuna da beraz Jainkoaren ganik atheratu dohain berezi bat. Apheztasun horren bidez Jainkoak du gizoneri irakasten sinetsi behar duten egia, emaiten saildutzeko behar duten grazia.

Jesu-Kristok erran diote aphezari:

Ene Aitak zerutik igorri nauen bezala gizonen salbatzeko, nik ere xede beraz igortzen zaituztet lurreko bazter guzietara. Eta nola nik, ene Aitaren seme bakarra bezala, baititut indar eta ahal guziak arimen salbatzeko, berdin zuek ere, ene aphez eta ordain bezala, izanen dituzue indar eta ahal berak.

Zohazte beraz munduko lau hegaletarat eta gizon guzietara aipha eta errepika zazue ene Ebanjelioa.

Nik ilhunbean erraiten darotzuetana, errazue zuek argian; eta beharrira entzuten duzuen, oihuz errazue etxe gaintan.

Zuek argituko dituzue gizaldi eta jenerazione guziak, hala nola iguskiak zeru-lurrak argitzen baititu. Eta nork ere entzunen eta onetsiko baitzaituzte zuek, ni neroni entzunen eta onetsiko naute. Bainan zuei bihurriko dena niri jazarriko da; ene aphezak arbuia-tuz ni naute arbuia-tuko.

Apheztasunaren indarra ez da hortan gelditzen. Apheztasunak hedatzen eta finkatzen du gizonen

artean, ez bakharrik sinetsibehar dugun egia, ez bakharrik atxiki behar dugun legea, ez bakharrik saildu-tu behar gaituen grazia; bainan oraino emaiten derauku Jainkoa ber-bera. Eta nola hori? Aldareko sakramendu adoragarriaren bidez.

Egun oroz mezako sakrifizioan, bai-eta egun bakhotxean hainitz aldiz, aphezek zerutik lurrerat jautsara-razten dute Jainko gizon-egina, Jesu-Kristo. Eta bestalde komunionean, Jainko handi hori hera emaiten dute gizoneri, bere gorphutzarekin, bere odolarekin, bere arimarekin eta bere Jainkotasunarekin.

Sainduen bizian irakurtzen dugu, Urzula doha-tsuak zer begiz behatzen zion aphezetasunari: Apheza ikhustearrekin, iduri zitzaion Jainkoa bera ikhusten zuela.

Sainda hori Italian zagon, Napleseko hirian; eta aphez batekin buru egiten zuen aldi guzietz, karrika bethean izanik ere, emaiten zen belhauniko, eta non ere aphezaren oinek hunkitu baitzuten lurra, han musu egiten zuen.

Nihonek ezagutu izan dut Eskual-Herrian familia on bat, aphezaren baithan Jesu-Kristo bera ikhusten

eta maitatzen zuena. Laborari etxea zen eta apheza frango eman ditu Eliza sailduari.

Huna zer gerthatu zen egun batez etxe hortan.

Aita-amak bizi ziren oraino eta bazituzten zazpi haur. Orotarik gazteena aphezgai zen Seminarioetan. Ohi den bezala, ordenazionetik laster itzuli zen bere herrirat, lehen mezaren emaitako.

Ikhusi zutenean hurbiltzen ari, Aita-ama zaharrak, haurride guziak eta etxeko sehiak, eman ziren belhau-niko athe aintzinean. Aitak erran zion. Ene haurra, emak othoi hire benediziona familia guziari.

Nigarrez hasi zen aphez gaztea, othoiztu zituen xuti ziten eta sar etxerat.

Ez, ez, dio Aita zaharrak, ez gituk xutituko, ez gituk etxerat sartuko, non ez dugun lehenik izaiten hire benediziona.

Orduan aphez gazteak eskua altxatzen du eta nigarren artetik benediziona emaiten diote guzieri.

Testament zaharrak dio: Dohatsu aita-amak, baldin beren haurretarik bat edo bertze eman badute Jainkoari. Haur maite horiek dire Zioneko mendirat iragaiten eta Jerusalemeko hirian buruzagi agertzen, erran nahi baita, Jesu-Kristo bera immolatzen dutela aldare-gainetan, eta Jainkoaren hitzak irakasten dituz-

tela Eliza sainduan: *Beatus qui habet semen in Sion et domesticos in Jerusalem (Isaie).*

Sekulan agertu den Enperadore handienetarik batek erraiten zuen bere erresumako aphezpikueri: Aphezgaiak hauta zaitzue, ez xoilki jende xehearen artean, bainan oraino aitoronsemetan, ezen dohakabe litezke ene erresumako handi-mandiak, baldin Jainkoak ez balitu bere aldaretako onesten: *Ut ministri altaris Dei, non solum servilis conditionis infantes, sed etiam ingenuorum filios aggregent sibi que socient (Capit. Choral. Magn.)*

San Gaudenzio, Bresseko aphezpikuak, izkribatzen zioten bere diesesako aita-amei: Egia da ez duzuela zuen haurrik aphezterat bortxatzen ahal, bainan hekien bihotzak aldaretarat emeki-emeki bidatzen ahal dituzue; eta hori, zombait elhe on erranez; irakatsiz hobe dutela Jainkoaren ministro izaitea ezez mundupean higatzea: *Debitores sunt ut moneant, ut hortentur, ut foveant, ut pignora sua Deo magis gestiant obligare quàm saeculo.*

San Augustinek ere dio: Ageri da Jainkoak emaiten duela bakhotxari bere bokazionea; bainan hargatik ez da gutiago egia, girixtino-haurrak behar direla akhulatu biderik hoberenaren hartzerat: *Unusquisque pro-*

prium donum habet ex Deo; quamvis ad meliora excitandi sunt filii sanctorum.

II - KAPITULUA

**Aphez egiteko gutizia duten haur gazteak
ez direla lotsatu behar,
zerbait traba izanik ere beren bokazionean**

Eman dezagun aphesteko gutizia duen haur gazte bat. Jainko ona mintzatu zaio, eta huna zer bidez.

Edo jaidura gozo batek baderama bethi harren gogoia aldaretarat; edo othoitza hainitz maite du, eta guziz maite ditu elizako ofizioak; edo jadanik herriko jaun erretorak begistatu izan du eta galdatu dio ez lukenez apheztu nahi; edo bertze asko jendek ere erran diote: Haurra, zu aphez izanen zare.

Horiek oro Jainkoaren deiak dire, eta segur haur horrek aphezteko bokazionea badu.

Ba bainan ez baita errex holako xede handirat hel-tzea!

Eta hemen ez naiz mintzo haur horrek berak egin beharko dituen entseguez eta lanez. Duenaz geroz bokazionea, lanak ez du lotsatuko, gogo onez egingen ditu bere bi seminariotako urrats eta helbide guziak.

Mintzo naiz bere Aita-Amenganik dituzken traba eta puxuluez.

Aita-Ama horiek dire, edo ahal gutikoak, edo beren semea etxekotzat atxiki nahi dutenak. Batzuek eta bertzek badukete estakuru frango.

Ahalik ez badute eta beren bizitzean guti edo gehiago hertsatuak badire, ez ditezke mentura; eskolako gastuek lotsatzen dituzte, eta erranen dute berehala beren haurrari: utz detzala holako ametsak, ez direla harren aphezteko heinean, badutela beren ezin-biziarekin lanik aski eta hura ere behar dela hekien bizi-molde berari lothu.

Bainan eman dezagun Aita-Ama horiek ez direla horrela hertsatuak. Ongi dire, badute ontasunik aski beren familia ederki altxatzeko.

Xoilki huna zer den: semetto hori nahi dute etxekotzat atxiki. Haurretarik gehiena da, hori da etxeoko primu.

Horra estakuru bat haur gaixo horren aphez egitetik gibelatzeko.

Ez da azkena. Aita-Ama batzueri ez zaiote aphezgoa beren haurarentzat aski. Nahiago dute izan dadien uxer, notari, mediku, abokat, ez dakit zer. Eta holaxet gibelatuko dute beren haurra aphez egitetik.

Agian Jainkoak barkhatuko diote beren fede eska-
sa.

Estakuru horiez eta bertze askoz, sobra burasoek
damu handia egiten dute Elizari eta beren haurreri,
eta berek ere arima galtzen dute.

Jesus bazabilan hiri eta herri guzietan gaindi,
hekien bilkhuretan egia irakatsiz eta Jaunaren berri
ona ezagutaraziz, bai-eta gaitz ala eritasun guziak
sendotuz. Eta ikhustearekin gizon oste hek, urrikaldu
zen eta bihotzberatu, errebelatuak zirelakotz eta han-
hemenka barheiatuak, artzainik ez duten ardiak iduri.
Bere laguneri erran zioten orduan: Ai! handia da uzta,
bainan ez da langile guti beizik! Othoitz zazue beraz
uztaren nausia, bere uztarat igor detzan langileak,
erran nahi haita aphezak.

Jainkoak haur bati emaiten dionean aphezteko
bokazionea, ez da Aitarik ez Amarik, ez-eta nihor ber-
tzerik, gibela dezakeenik haur hori. Utzi behar da Jain-
koak irakatsi bidean jarraikitzerat.

Eta nork ere aphez-gai bat bere urratsetan lagun-
duko baitu, harrek eginen du obra handia, harrek
emanen du ministro bat Jesu-Kristori eta salbatzaile
bat asko arimeri.

Bainan haur gaixo harrek zer egingen du, kontra baditu bere Aita-Amak? Nola helduko da bere xederat, traba horien artetik?

Helduko da othoitz eginez, Jainkoaren baithan bermatuz, eta zer-nahi izanik bere xedean hazkar egonez. Goiz edo berant Jainkoak lagunduko du.

III - KAPITULUA

Egia horien irakaspenak

Aita-amen estakurua balin bada eskasia eta ezin-heldua, Jainkoaren laguntza helduko zaiote segur non-baitik.

Edo arima on batek, edo herriko jaun erretorak, edo diosesako jaun Aphezpikuak, zerbait eginen dute haur horren altxatzeko.

Huntarik ageriko da.

Nork ez du Eskual-Herrian aiphatzen aditu Aita Garikoitz? Jaun hori Ibarreko zen sortzez; laborariak zituen Aita-Amak, eta ez aberatsak. Etxe ttipia, zorpuska bat, bortz haur arras gazteak, ai lanak ziren.

Eta horra non egun batez haur gehienak burasoe-ri erraiten dioten nahi dela apheztu!

Aitak berehala: Ez gaituk ez hein hortan; hi eta gu lanetik behar gaituk bizi; utz beraz niri holako ametsak.

Migel zuen izena haur horrek, eta zen jite onekoa, ordukotz Jainkoari osoki emana. Ez zen beraz lotsatu

gure Migel, bainan ixil-ixila, deusik ihardetsi gabe Aitaren elhe biphil horri, othoitz egin zuen.

Eta azkenean hunkitu zuen Jainkoaren bihotza, halako moldez non aphezteko bidea kolpez ideki baitzizaion haur gaixoari.

Donaphaleun bazen erretor saindu bat, morde Borda. Jaun hori aspaldiko ezaguna zuten Ibarre Garakotxean, eta haurraren amaxori gogora jin zitzaion Jaun Bordak menturaz zerbait egin zezakela harren aphezteko.

Oilo pare bat zarean emanik badoha emazte hori Donaphaleura. Bere oiloak eta bere agurrak Erretorari eman-eta, erraiten dio: Jauna, gure Migelek apheztu nahi luke, bainan ez dakigu zer egin, ezen gure ahalak ttipiak dire.

Ez lotza, ihardesten du Aphez sainduak, Jainko onak lagunduko zaituzte. Igorrazue berehala Migel eneganat. Ene etxeko lanttuak eginen ditu, eta denbora berean ibiliko da eskolan egun guziez.

Alegerarik itzultzen da amaxo etxeko alderat.

Aphaintzen dute aphur bat beren haur maitea eta Donaphaleurat igortzen denborarik galdu gabe.

Beha zaitzu goiz batez, Larzaalen gaindi, Izuran gaindi, Jutsi eta Uharten gaindi, beha bi lagun horiek,

bat gizon adinekoa, eta bertzea muthil gazte bat. Garikoitz aita-emeak dire.

Bakhotxak derama makhila-puntan mokanes kori-pilatu bat. Aphez-gaiaren hatuak dire hor, amaxok eta amak ongi antolaturik.

Horra beraz Migel Donaphaleuko erretoraren etxean.

Egun guziez jarraikitzen da xuxen eskolari; eta nola hartze ona baitu, hainitz ikhasten du arte gutiz.

Jaun erretora ohartzen da laster Migelek behar duela bertze eskolarik, ezen Donaphaleun ikhas dezazkenak oro badazki.

Denbora hetan Baionako erretora, garaztar aphez bat zen, Jaun Eiherabide, Azkaraten sortua. Donaphaleuko erretorak adixkide handi zuen; galdegin zion ez zukenez Baionan zerbait toki gisakorik Migelentzat; behar zukela eskoletan aintzinatu eta denbora berean bizitzekoa irabazi.

Morde Eiherabide entsegatzen da, tokietarik hobere-
na kausitzen du: Aphezpikutegian muthil bezala hartu nahi dute Migel eta utziko diote behar den denbora guzia eskolari jarraikitzeko.

Eskola hura morde Dargañaratz, Urruñako aphez aiphatu batek altxatua zen.

Asko lan izanagatik aphezpikutegian, Migel jarraiki zen berdin eskolako bere laguneri. Ez bazuen egunaz arterik aski bere liburuetako, loari ebasten ziozkan oren zonbait, eta nihor bezain jakintsun eta erne zen bethi eskolako eginbidetan.

Holaxet denbora laburrez ikhasten ditu Migelek, filosofian sartzeko jakin behar direnak.

Bainan nork lagunduko du handik goiti? Seminarioan ez duke bere biziaren irabazteko ahalik; han beharko du bethi barnean egon.

Hemen ere Jainkoaren eskua agertuko da.

Aphezpikuaren segretario zen orduan aphez on bat, morde Honert, eta hainitz estekatu zen Garikoitz gazteari. Ikhusiz zoin prestua zen, zer hartze ona zuen, nola jarraikia zen osoki aphez-gai baten urrats eta eginbide guzietan, Jaun horrek bere gain hartu zituen haren seminarioko gastuak.

Migel Garikoitz badoha beraz lehenik Aireko seminariorat, eta han egiten du bere filosofia; gero Akizeko seminariorat, eta han egiten du bere teologia; handik igortzen dute Larresoroko seminariorat, irakasle bezala; eta azkenean aphezten da hogoi eta sei urthetan.

Horra Jainkoak nola laguntzen dituen aphez-gai erromesak.

Holako haur gaixoek ez dute zeren lotsa ez gibela, Probidentzia bethi nonbaitik helduko zaiote.

IV - XAPITULUA

Egia beraren bertze irakaspén eder bat

Maria Jan Batista Muard sorthu zen apherilaren hogoi eta lauean, hemezortzi ehun eta bederatzián, Burgoñeko herri ttipi batean, Aita-Ama erromes batzuetarik.

Ontasunez baino ere erreligionez erromesago ziren Aita-Ama gaixo horiek. Sineste zerbait bazuten, bainan jarraikitasunik ez.

Hargatik emazte Jainkotiar bat bazen etxe dohaka-be hortan; hura zen gure haur ttipiaren amaxo; eta abiaduratik eman ziozkan bere ilobasoari girixtinomolde hoberenak.

Berenaz ere haur hori, hain ezti eta maithagarria zen, non amak baitzion: Ez dut uste ene haurrak bada-kien nigar egiten.

Handitzearekin hobeki agertu zituen oraino bere jite onak. Eskolako lagunek zioten prestuegi zela. Othoitzean zagon bazter eta zokho guzietan; eta juramenturik entzuten bazuen, bazohan ihesi.

Egun batez amak aditu zuen Jan Batistak bazuela othoitzean aritzeko tresna zer bait. Larderiitzen du eta mihatzen; eta horra non hatzemaiten dion xiri luxe bat, burutik buru ozkatua. Haur gaixoak ez zuen arrosariorik; eta xiri horrekin berak moldatu zuen zer bait.

Zer duk hori, dio Amak?

Haurra ixilik dago eta burua aphen.

Errak bada zer dukan xiri txar hori, berzela joiten haut.

Ama, dio orduan haurrak, arrosarioaren erraiteko egina dut.

Ez zakien ama harrek zer ziteken arrosarioa. Zafraldi bat emanik, erran zion haurrari: Asa gero, ez niri sekulan ibil, bertzek ez bezalako sinorik.

Burhasoak ez ziren hortan gelditu. Baizik eta haur hori norapait harrotu behar zutela, soinuari batengandat igorri zuten, xirriika joiten ikhasteko. Joan zen haur gaixoa, bainan halako bihotzmina izan zuen, non eritu baitzen berehala. Etxerat berriz ekharri behar izan zuten.

Hargatik thematu zen ama.

Igandetan etxerat biltzen zituen herriko muthil eta neskak, eta xirriika joarazten zion bere semeari.

Ez baitzen haur hori xoxoa, nahasten zituen aire guziak, alegia ez jakin, eta gazteria erho harrek ez zezaken niholere piko xuxenik athera. Bere gisa utzi zuten soinulari herrebesea, eta ez goizegi, ezen haur saindua ez zauken bilkhura zar hetan. Surat aurthiki zuen orduan bere xirriika.

Lehen komunionea egiteko zuen oraino Jan Batis-tak, eta ordukotz bazituen hamabi urthe. Abiatu zen beraz kateximan.

Jaun erretorak ikhusi zuen laster aphez on bat athera zitekela haur hartarik, eta erran zion: Jan Batis-ta, nahi baduk aphez egin, latina irakatsiko deiat.- Oi Jauna, bai gogotik, aita-amek uzten banute.

Aita, gizon puska on bat zen eta bil errexa, bainan amak bazuen borthitz aire bat, eta bestela ere aphez-zak ez maite. Jaun erretorak gogoari eman zuen behar zuela emazte hori bildu, eta huna nola jokhatu zen.

Kateximaren ondotik bere etxean geldiarazten zuen Jan Batista, bere mahainean bazkalarazten, bai-eta zonbait aldiz alderat atxikitzen bizpahirur egune-taraino.

Ba bainan ama gogor harrek ez baitzuen deusik onesten! Egun batez, semea erretorarenganik ethorri-eta, zer-nahi erran zion, jo zuen finki, eta ez eman

jateko ahamenik. Haur gaixoa nigarretan joan zen bere amaxorengana. Amaxok jatera eman zion eta nigarrak xukatu. Eta gero larderiatu zuen bere alaba, eia bada ama batek hola behar zuenez bere semea ibili!

Ama borthitz hori are gehiago sumindu zen, toleatu zuen bere haurra, urrundu beharrez erretorarenganik eta elizatik. Urrunago joan zen; manatu zion lanean ar zadiela igandetan, asteleunetan bezain ongi.

Bainan haurrak nahiago zuen hil ezenez bekhatu-rik egin; ez zen izitu amaren oihuez eta zafraldiez; egon zen tieso eta sekulan lanik ez hunkitu igandea-rekin.

Azkenean haur saindu horrek bentzutu zuen bere ama.

Goiz batez, semea zafratu ondoan, emazte hori badoha urketa, bainan gibelerat itzultzen da biderdi-tarik, ithurrirat heldu gabe; oskiak khentzen ditu eta eskalerak ointuts iragaiten; eztiki eta erdizkaxe ideki-tzen du ganbarako athea, eta zer ikhusten du? bere haurra belhauniko othoitzean ari!

Hitzik erran gabe jausten da sukhalderat, bihotz guzia itzulikaturik. Ondoko gau guzian ez du lo xortik egiten.

Biharamunean lanerat goizik igortzen du senharrara, gelditzen da baxharrik bere semearekin eta erraiten dio: Zertako bada ez zare zu lagunekin ibiltzen?

Ai ama, zer-nahi juramentu egiten dute, eta ez dezaket hori jasan.

Beraz, haurra, ni ere hastio nauzu, ezen juramentu frango egiten dut.

Ez, ez, ama, ez zaitut hastio; nahi nuke bai ez dezazun juramenturik egin, bainan hargatik maite zaitut bethi.

Eta atzo, zertako zinauden ganbaran belhauniko? Ama, zuretzat othoitz egiten nuen.

Aski zen hori; amak nigar egiten du, besarkatzen bu bere haurra, hitzemaiten dio elgarrekin ibiliko direla elizan; eta bethikotz Jainkoarenganat itzultzen da.

Geroztik aita-amek utzi zuten Jan Batista jaun erretoraren eskuetan. Jaun erretorak bere etxerat hartu zuen, eta latinean abiatu zen bertze zonbait lagunekin.

Ez diteke erran zoin handia zen haurraren atsegina; osoki eman zen lanari, gehiago berthuteari, eta

ordutik ageri zen nolako aphez khartsua atherako zen geroxago.

Egun batez jaun erretorak galdegin zioten Jan Batistari eta haren laguneri: Hea hunat, erradazuet guziek zer gutiziatzen duzuen gehienik.

Batek hau eta bertzeak hura, bakhotxak agertu zituen lañoki bere gutiziak. Batzu nahi ziren herri eder batean erretor, bertzeak misionest eta predikari. Gurea ixilik zagon.

Erretorak oihu egiten dio: Eta hik, Jan Batista, ez duka deusik erraiten? Hea laster hunat, errak goraki zer den hire gutizia.

Jauna, ihardesten du haurrak, nik nahi nuke paganoen konbertitzera joan eta ene odola martir ixuri.

Huna bertze treitu bat. Eskale bat eri zen herrian eta ez zuen oherik. Jakin dueneko, Jan Batistak eremaiten dio bere oheko matalaza; eta urthe guzia handik goiti lastoaren gainean lo egiten du.

Bertze aldi batez haur horiek elgarren hatzemaka jostetan ari ziren hatsanturik. Jan Batista hatzemaiten du lagun batek, lotzen zaio lephotik eta oihuz hasten da Ai! zer duk lephondoan, Jan Batista? eskua sistatu derautak zerbaitek.

Jan Batista ahalgetzen da eta ihesi eskapatzen.

Haugi, haugi hunat, dio lagunak, hea zer dukan lephondo hortan.

Bortxaz mihatzen du eta kausitzen dio soinean zurdazko tresna latz dorpe bat. Jan Bastistak errekeritzen du othoi ez dezan deusik erran. Bainan haur hura badoha bertan jaun erretorarengana eta zer ikusi duen aiphatzen dio. Jaun erretorak larderiarekin: Hi egon hadi ixilik eta izan Jan Batista bezain prestu.

Horra nola ttipitik emana zen penitentziari.

Hamahirur urthetan joan zen Auxerreko seminario ttipirat. Jaun erretorak lagundu zuen eta huna zer erran zion seminariko buruzagiari: Ekhartzen derauzut haur bat ttipi dena gorphutzez, bainan handi dena berthutez.

Seminario ttipian iragan zituen zazpi urthe. Arte hortan agertu zen bethi berthutean khartsu, lanean suhar eta erne, urrats guzietan seminarioko hobere-netarik bat.

Zazpi urthe horien buruan iragan zen seminario ttipitik handirat eta hartu zuen sutana. Geroztik are hobeki eman zen lanari, berthuteari, aphez on baten egiteko gai diren bide guzieri. Nausiek ala lagunek

berdin maite zuten; ez xoilki maite, bainan oraino miresten, ageri zelakotz ordutik zer lan handiak eginen zituen egun batez Jainkoarentzat eta arimentzat. Saindu bat bezala ekharria zen hekien elhe eta bihotzetan; eta nahiz ez zioten berari holakorik aiphatzen, jarraikiak ziren oro harren irakasbideri. Nola su handi batetik hedatzen baita berotasuna, berdin gure jaun khartsuaren bihotzetik seminario guzirat hedatzen ari zen berthutezko kotsu on eta salbagarri dat.

Bakantzetan ahidek eman nahi zioten janari berezi eta hobexago zer bait, bainan ez zuen sekulan onetsi holako deus berexkunderik. Aita-Amen ogi eta jaki beretik jaten zuen bethi.

Lau urthe eskas seminario handian zela aphez ordenatu zutenean. Hemezortzi ehun eta hogoi eta lauean, izan zuen aphezgoa, bere arxaphezpikuaren eskuetarik.

Halako sinestea zuen arxaphezpikuak aphez gazte horren baithan, non ordu beretik erretor izendatu baitzuen, ez edozoin herritarat, bainan bederatzi ehun arimetako herri handi batetarat.

Gazte izanagatik, hain ederki atxiki zuen bere herria non lau urthe gabe, gorago altxatu baitzuten

eta igorri Avaloneko hirira. Hiri hortan ere ongi handiak egin zituen. Etxeko andre batek zion: Sobra maite dugu gure jaun Erretora; beldur naiz Jainkoa bera ahantz dezaten Avalondarrek eta ez ditene orhoiten beren erretoraz beizik.

Haur horrek iduriz bazukene estakururik aski aphezgoatik gibelatzeko. Burhasoak erromes eta lanetik doi-doia bizi; ama sordies batek ahalak oro egiten bere umearen urruntzeko elizatik eta aldaretarik; ez utzi nahi sakramenduetarat ez-eta othoitz egiterat; igande goizetan lanera manatzen, eta arratsaldetan soinura eta dantzara; nik ez dut uste baditeken haur batenzat aphezteko traba handiagorik.

Eta bizkitartean haur gaixo horrek behar othe zuken lotsatu? behar othe zuken gibelatu bere bokazionetik?

Ez eiki, ezen aphez on eta khartsu atheratu izanda, ongirik handienak egin ditu herrietan ala komentuetan. Oxala! harrek bezalako indar eta berthutea balute aphezte nahi diren haur guziek!

V - KAPITULUA

Zoin handi eta eder den, herri paganoetarat Misionest dohatzin aphezen bokazionea

Jainkoak hain maite izan gaitu, non bere seme baxharra eman baitu *gizon guzien salbatzeko*, ezen, Jesu-Kristoren erresumak jo behar du munduaren buru batetarik bertzera, eta menderen mende iraun behar du.

Hortakotz erran zioten bere Apostolueri: Zoazte, argi zatzue bazter guziak.

Eta beha zazu zer kharrak deramatzan Apostolu horiek; ez dire gehiago nihon gelditzen ez ixiltzen. Goraki eta beldurrik gabe mintzo dire non-nahi, ala tenploetan, ala jende bilkhuretan, ala karriketan, ala bide handietan; mintzo dire edozoin jenderi, aberatseri eta erromeseri, handieri eta ttipieri, jakintsuneri eta ezjakineri. Mehatxatzen dituzte, preso hartzen, azotatzen. Berdin zaiote, eta aintzina dohazi alegerarik errepikatuz: Ez dezaketela gorde Jainkoaren hitza, ez-eta hauts beren Nausiaren manua.

Apostoluek utzi dituzte ondokoak. Ondoko horiek fede bera hedatzen dute khar berarekin. Eta fede hura, goraki ahoz irakatsi ondoan, hekiek bezala beren odolaz finkatzen dute.

Orai berean, Frantziako lurretik badoazi misionest gazteak osteka. Izenez ere ezagutzen ez dituzten jendaia basa batzuetarat laster egiten dute.

Eta bizkitartean gizonak badire milaka eta milaka ilhunbetan galduak! Jesu-Kristo lurrerat ethorri ez balitz bezain urrun direnak zeruko bidetik!

Oi beraz, misionest joateko gogoia duzuen Jaun gazteak, zoin handia den, zoin ederra den, zuen bibotzeko lehia hori! Ez beha haragiari eta odolari, ez beha lur huntako gozo iragankorreri, bainan orhoit bakharrik Jainkoaz eta arimez. Hemengo ontasunak eta atseginak itzaliko dire laster; ordean Jainkoak eta arimek iraunen dute bethi. Eta nahiz denborak bertze gauza guziak deramatzan, deusik ez dezake arimen gainean; arimeri egiten den ongia, bethiereko ongia da.

Huna zer dion aphezpiku handi batek: Menderen mendeak iragan-eta, zeruko iguzki eta izarrak itzali-eta, mundu huntako azken orenak jo-eta; ez denean gehiagolur huntan gizonik izanen; goizik ez arratsik,

gauik ez egunik, ez ditekenean; orduan oraino, zuek batheiatu salbaia gaixo harren arima zeruetan izanen da bethikotz dohatsu, Jainkoaren maithatzen eta goresten, hari eta zueri eskerren bethi bihurtzen.

Misionest-bokazione hori zoin den premiatsu, ageri da beraz berekin dakharzkan ongietarik eta ondorio aberatsetarik. Harren xedea da Jesu-Kristoren ezagutaraztea, Eliza katolikoaren bethi eta gehiago hedatzea, arima hainitzen salbatzea. Nork erran dezake zer zoriona den arima paganoentzat, izpirituko ilhunbetarik betarik eta aztura gaxtoen lohitik atheratu-eta, azkenean zeruko dohatsutasunerat nerat bethikotz heltzea? Jainkoak bakharrrik erran dezake hori.

Guk dakiguna hau da: Jesu-Kristok bere Eliza egin duela mundu guzirat hedatzeko; eta nahiz Ispiritu Sainduarenganik heldu zaion Elizari bere indarra, bizkitartean gizonentzat egina delakotz, gizonez lagundua dela bere entseguetan; eta Elizaren laguntzaile horietarik baliosenak duela misionestak. Hek dute lanik dorpheena; zuzen da hek izan dezaten ohore eta sari handiena: ohorea gu-guzien estimuan, saria zeruko lorian.

VI - KAPITULUA

Eder bezain hunkigarri dela bokazione hori

Orai duela sei-zazpi urthe huna zer zion Nantese-ko jaun Aphezpikuak: Zonbat aldiz ez ditugu ikhusi aita-amak, fedearen hedatzeko emaiten, ez beren izerdiaz irabazi diru puxka bat, bainan lurreko guziak eta beren bizia baino ere maiteago zuten seme bat.

Aphez gazte hori urruneko misionetarat joaiten ikhustearekin, ez zauku gogora jiten zer bihotzminak jasan dituen berak, ez-eta zer nigarrak ixuri dituzten harren aita-amek.

Ezagutu dut ama horietarik bat; bere seme bakhar-rari erran zion egun batez:

- Haur maitea, zer othe dabilak gogoan? Ez duk aspaldian elherik, ez duk gehiago irrik egiten, ilhun eta ixil hago!

- Gogoeta handi bat badabilat gogoan, Ama.

- Zer duk gogoeta hori?

- Ezin erranez nago. Bainan gaindi egiten daut bihotzak; oi Ama, othoi barkha zazu zure semeari, Jainkoak nahi du egin nadien Misionest.

- Hi Misionest? eta zertako?

- Arimen salbatzera joateko, Ama.

- Zer aldetarat, haurra? Frantzia barnerat?

- Ez dezaket erran. Bainan ene ustez Frantziatik urrun, salbaien eta paganoen arterat.

- Oi haurra, jende suerte horiek hainitz urrun omen dituk; aditu diat erraiten, itsaso zabala iragan hehar dela eskualde hetarat heltzeko.

- Bai, Ama, urrun dire eskualde hek, hain urrun non, behin harat joanez geroztik, ez baita nihor giberat itzultzen.

- Eta zer irabaziko duk, hain urrun joanez?

- Irabaziko? Deusik ez, ez-eta arditik. Gehiago dena, asko nahigabe bai jasanen. Ibili beharko dut eskaleak bezala, erdi buluzirik, eta ardura gosearekin eta egarriarekin. Bainan horrela fedez argituko eta zerurat igorriko ditut arimak milaka, eta arima hek othoitz eginen dute zuretzat, oi ene ama ptaitea, bai-eta enetzat. Zeruan, ama, zeruan elgar ikhusiko dugu!

Orduan amak nigarrez:

- Zer diok, ene haurra? Badakik erromesa naizela eta alharguna; badakik hi baizik ez dudala lur huntan!... Zer-nahi izanik, Jainkoak nahi duenaz geroz, habil, ene haurra, habil harrek irakatsi bazterretarat.

Bainan othoi, ene haur maitea, ez ahantz hire ama gaixoa; orhoit, Jainkoaren aintzinean, orhoit usu hire amaren nigarrez eta bihotzminaz.

Zer ikhusgarri ederra, zeruko aingeruek berek miresten dutena, eta gure artean, ez aldi bat, bainan noiz-nahi gerthatzen dena! Ama batek, Jainkoaren eta arimen amodioz, emaiten bere semea, hanbat izerdinekeen bidez apheztasunerat helarazi duena, bere azken egunetako bizipide eta gozo guzia! ai othe diteke egitate hunkigarriagorik eta ederragorik?

Amaren bihotzmina, bat da; eta zer erran semearen bihotzeko zauriaz?

Semearen emaitza, amarena baino ere handiago eta dorpheago da, ezen Jainkoari emaiten ditu, ez xoilki bere burua, bainan oraino lur huntan maite dituen guziak.

Bere aita-ama gaitxoak, bere haurrideak, bere adixkideak, bere etxea, bere Eskual-Herri maitea, oro bethikotz uzten ditu.

Itsasoari barna deraman untziaren gainetik ikhus-ten ditu bethikotz itzaltzen bere sor-lekhuko bazterrak eta jendeak.

Eta orai beha zakozu, hemendik urrun, itsaso zabalaz harateko bazterretan. Nor da gizon gazte arrotz hori? Bazter hek ez ditu ezagutzen, eta bizkitartean ez da lotsa. Kurutze bat eskuan, aintzina doha beldurrik gabe, arimen ondotik.

Eta azkenean, oi zer atsegina bere odola emaiten ahal badu Jainkoarentzat eta arimentzat!

Beha zakozu.

Soldado higuigarri batzuen erdian doha, burua gorarik eta begitarte arraiik. Bertze orduz Jondoni Extebek bezala, harrek ere orai erran dezake: Ikhus-ten ditut zeruak zabal-zabala neretzat idekiak, ikhus-ten dut Jesus-Jauna ene martirioaren sarizatzerat jadanik abiatua! Harren ezpainak, harren begiak, irriz daude. Ezin-egona lothua du, bere odola lehenbaitlehen ixuri beharrez; eta hil-tokirat heldu deneko, belhaunikatzen da, azken othoitz bat egiten du, bere odola Jainkoari eskeintzen dio, aphaltzen du burua, ezpata kolpe batek lephoa trenkatzen dio; eta horra non den zeruan, Martir bezala bethikotz khoroaturik.

VII - KAPITULUA

Pagano herrietan ere misionestak baditu bere atseginak eta Jainkoaren laguntza bereziak

Askok uste dute Misionestak ez duela deus atseginik eskualde pagano hetan.

Egia da bai behar dela hainitz akhitu; eta bestalde zonbat eskasia, janaren aldetik, beziaren aldetik, eta bertze asko behar-orduen aldetik!

Bainan ordainez Jainkoak nasaiki sariztatzen ditu bere Misionest khartsuaren lanak.

Zer zoriona Misionest saindu horrentzat, eguna eta maiz gau osoa leherturik lanean ari ondoan, ikhustea salbaia gaixo horiek mahain sainduetara hurbiltzen! Zer atsegin gozoarekin ez ditu ikhusten Jesusekin komunioneaz bat eginak, berriki pagano eta, debruaren eskuko ziren jende gaixo horiek! Berak argitu izan ditu, berak athera ditu debruaren haztaparretarik, berak batheiatu ditu eta sarrarazi zeruko bidean.

Zer zoriona ikhusten dituenen salbaia horiek bere inguruan jarriak, oro begi eta oro beharri Jainkoaren hitz sailduaren aditzeko. Gehienak oraino gure egiazko fedetik urrun dire; ez dute oraino deusik eza gutzen beren paganokeria tzarrak beizik. Eta horra non Misionest khartsu horrek emeki emeki kateximarat bildu dituen. Eta jadanik egia sailduak ari ditu hekien ilhunbeak barheiatzen; argi eder bat, sineste katolikoaren argia distirutzen hasi da hekien arime-tan. Eta laster Jaun Misionestak ehunka eta milaka batheiatuko ditu.

Ez zaio ez orduan sobera misionestari sor-lekua utzirik eta hain urrun joanik. Trenkatu bai lokharri eta esteka maite frango; jasan ere bai geroztik asko min eta nahigabe; baina zer dire horiek, arimen aldean eta Jesu-Kristok hekientzat ixuri duen odolaren aldean? eta ba othe diteke lurrean halako zorionik, nola baita Misionestarentzat, arima gaixo hek ifernu-tik atheratzea eta Jainkoari emaita?

Eta horra Misionestari usu gerthatzen zaion bozkarioa. Gorago aipatu urratsetan, eta bertze hainitz horrelako gerthakarietan, hihotza atseginez gaintzen zaio. Eta eskerrak diotza Jainkoari, zeren-eta orai

beretik ehunka saristatzen dituen bere mahastiko langileak.

Egun batez, dio Misionest batek, ikhusi nuen bidean haur ttipi bat. Haur hori izan-ahala maithagarria zen. Eta bertze asko aldiz bezala, nere baithan egiten nuen: Oi bada, zoin damu den holako haur bat debruaren eskuetan!

Handik laster banoha eri multxo baten ikhustera. Eta horra non haur gaixo hura aurkhitzen dutan erien artean; bere aitak ekharria zuen midikuari irakasteko. Ohartu nintzen berehala haur horrek ez zuela eskapurik, sobra zela eri.

Bihotzetik othoitz egiten diot Ama-Birjinari, eman dezadan haur horren batheiatzeko bidea. Eta denborarik galdu gabe, entsegatzen naiz.

Toki hura guzia paganoz bethea zen eta haurra bere aitak zaukan besoetan. Hurbiltzen nitzαιο aldera; galdegiten diotzat haurraren berriak: zer duen gaitza, noiz eritua den.

Hain xar da haur gaixo hori, non doi-doia hartzen baitu hatsa.

Othoizten dut aita, utz nezan egitera, girixtino haurreri egiten ohi dutan bezala, erranez haurrak ez duela onik beizik izanen.

Aitak emaiten daut baimena; laster sakelatik athe-
ratzen dut ur benedikatu untzi bat, bethi nerekin ibil-
tzen dutana; eta haur gaixoa batheiatzen dut. Bi egun
gabe zeruan zen ene aingerua.

Bai, zerurat igorri dut haur hori; ez zait sekulan
ahantziko, eta ene zoriona ez nezake sal munduko
ontasun guzietan truk.

Morde Iribarne, misionest eskualdunak, izkriba-
tzen zuen bere adixkide bati:

«Aspaldian misionest, bezala bizitzen hasi nahia
nindagon; orai badut orduan nahi nuena. Ongi bakha-
rrik niz, mendien artean oihan beltzez inguratua, zoi-
netan basa ihizi gaitz asko baitabila. Bainan etzazko
misionestari aiher.

»Badut zoin aldeira jo; nahigabe asko gerthatzen
zaut bidean, bainan bethi han da Jainkoa, zoinak
harentzat zerbaiten egiteko gogoia dutener nasaiki
emaiten ohi baitiotzate zorionak eta gozoak.

»Eta laster erran behar dauzut deusik ez direla
nahigabeak atseginen aldean. Gehienik pairatu dutan
orenetan etzaut gogoratu ere gibelerat behatzea. Ene
urriki bakharra da zeren ez nizan lehenago ethorri.
Eskerrak diotzat Jainkoari ez dautalakotz epherik

eman, hunat ethortzeko xedea hartu-eta, bururatu ez nueno.»

Ez xoilki, erran dugun bezala, Misionestek badituzte atsegin egiazkoak, bainan oraino Jainkoak laguntzen eta zaintzen ditu eskualde arrotz hetako gerthakunde gaxtoetan.

Huna zer dion Asiako misionest batek.

Basabereak usu dire eskualde hotan, eta guxiz tigreak, orotarik borthitzenak. Ez banute jadanik miletan iretsi, zor diot Jainkoari bakharririk; harrek du bere Misionesta bethi zaindu eta hiltzetik begiratu.

Gau batez huna zer gerthatu zautan. Gau hura zen hain beroa, non ene etxolako athe leihoak idekirik utzi baintuen.

Lo nindagolarik, harrabots batek kolpez ihazartzen nu. Zer ikhusten dut?

Oi jauna, tigre handi hat!

Leihotik barnera jauzi egin du, harren begiek bi ikhatz gorriek bezala argitzen dute, inguruka dabila marrumaz, ene ohantzetik hurbil asmuka ari da...

Jesus eta Maria, othoi hel zaizkitet!

Hori zen ene othoitza, bainan xoilki bihotzetik, ezen ixilik nindagon, ikharan, higitu gabe.

Tigre ikharagarriak azkenean kanporat berriz egin zuen jauzi. Ez ninduen hunkitu; ez bide nintzen harren gogorako poxia; eta zinez aithortzen dut ez zautala batere gaitzitu.

Bainan ez banu ihizi horrek ederki klaskatu, zor diot, ez harren bihotz onari, bainan ene Jainko handiaren laguntzari.

Huna zer dion oraino bertze Misionest batek.

Egun batez, goizean goizik, aldarean nintzen, ene meza sailduaren erraiten ari. Ez bide zaion debruari eder, ezen huna zer gerthatu zen.

Bi gizon aldarera beldu zaizkit mehatxuka, baizik eta toki hek behar ditudala berehala hustu, edo berzeinez hek jakinen dutela zer egin.

Uzten ditut erraitera, eta ene mezari aintzina jarraikitzen naiz.

Biharamunean abiatzen naiz bertze herri batetara; hango girixtinuak kofesetzen ditut, pagano zonbait batheiatzen, eta guzieri luzaz katexima egiten.

Lanak akhabatu-eta, solasean pharatzen naiz herriko buruzagiekin. Mintzo gare gehienik eliza berri baten egiteaz. Eta horra non bezperako gizon tzar hek heldu zaizkidan, zaldiz, harmak eskuan, bira pixtolet gerrian, eta oihuka:

Zer! hemen haiz oraino? Hea jeik hortik, har hire zaldia eta joan hementik urrun!

Hitz horietan khexatzen dire ene Indianoak, oldartzen zaizkote jende arrotz gazto horieri. Ikhusten dut kalapita zerbait izanen dela, eta orduan, ez nahiz odolik ixur dadien nigatik, zaldirat iragaiten naiz eta joaiten ihesi.

Urruntzen ikhusi nuteneko, gizon tzar hek ere abiatzen dire eta niri jarraitzen.

Irriz eta laidoz hasten zaizkit. Zer-nahi zarkeria, zer-nahi ahopaldi gaxto aurthikitzen dute gure Erreligione sainduaren kontra. Joka dabilate ene zaldia, ni lurrerat aurthiki beharrez, Pixtoletak eskuan harturik, hiltzeaz mehatxatzen nute.

Herstura horrek lau egunez irauten du. Eta azkenean, ez dakit nola, nere gisa uzten nute. Ene biziaren sakrifizioa egina nuen, ez nuen uste atheka gaxto hortarik atherako nintzela; baina Jainkoak zaintzen ditu bere Misionestak; harrek khendu nu etsaien eskuetarik.

VIII - KAPITULUA

Bokazione hainitz baliosa dela misionest egitea gure eskualde hotan beretan herriz herri predikatzen ibiltzeko

Aita-Sainduak, konzilioek eta aphezpikuek premia handitan atxiki dituzte bethi misionek. Eta hemen mintzo naiz, ez pagano herrietan emaiten diren misionez, baina gure eskualde hotan emaiten direnez. Dударik ez bokazione hainitz baliosa dela aphez batentzat Misionest izatea, Eliza sainduak hoin beroki onesten eta altxatzen dituenaz geroz misionek.

Huna beraz zer dioten misionez Aita-Sainduak, konzilioek eta aphezpikuek.

Aita-Saindu Pio seigarrenak kondenatu izan du misionen kontrako elhe gaxto hau: Misionek ez dutela behinere menturaz edo arras baxhan beizik egiasko aldamenik egiten arimetan; eta hekien ona eta higialdea, zerbait arrabots egin ondoan, agertu orduko ezeztatzen direla.

Auctorem Fidei erraiten dioten Bulla batean, Aita-Sainduak girixtino guzietan seinalatzen du elhe hori

usart eta kaltekor bezala; eta dio, elhe horrek laidos-tatzen dituela Elizaren egin-moldea eta Jainkoaren hitza.

Geroztik, -1836- Pio bederatzigarriak izkribatu izan du: Misionek phizten dute herrietan sineste girixtinoa, sustatzen dute berhutea, eta arimak lehiarazten dituzte salbamenduko bidetan. Gure gutiziarik handiena da Jaun Aphezpikuek eman detzaten ahal bezenbat misione. Ez dezakete lan hoherik egin.

Aurthen berean, agorrilaren hamabian, oraino bizi den Aita-Saindu Leon hamahirurgarrenak, izkribatu diote Hongariako jaun Aphezpileu guzieri:

Har zaitzue behar diren bideak Misionen usu emaiteko, amoreagatik arimak izan ditezen ungi lanthuak eta arthatuak; eta hortarakotz hauta zaitzue langile bereziak, aphez argitu eta khartsuak, Jesu-Kristoren eta arimen amodioaz oro khaldan daudenak.

Tolosako konzilioak -1851- erraiten du: Aspaldiko denboretan ohartuak dire guziak probetxu handia dela arimentzat, izan dezaten denborarik denborara laguntza berezi zerbait, ardurako aphezen minixterioaz bestalde. Hortakotz hertsiki gomitatzen ditigu Jaun Erretorak, eman detzaten arteka misioneak beren herrietan.

Aix-eko konzilioak -1852- dio: Ez xoilki misioneak probetxos dire gehientzat, baina oraino hain dire baitezpada beharrak zombaitentzat, non arima hek bethikotz gal bailitezke laguntza horren eskasean.

Bordeleko konzilioak: -1852- Zonbat-nahi ederki mintzaturik ere, maiz entzuna den predikariak ez du indar bera, arima hilen higitzeko eta phizteko. Hortakotz behar dire misioneak. Elhe arrotz bat hobeki sartzen da bihotzetan. Orhoit beraz, ez baxharrik on direla misioneak, baina kasik baitezpada eman behar direla noizetik noizera herri guzietan.

Kanbreko Arxaphezpikuak aspaldian manatua diote Diosesako erretor guzieri, misioneak eman detzaten borts urthetarik, edo berantenez zazpi urthetarik.

San Ligoriok nahi zuen misioneak izan zitezen hirur urthetarik harren Diosesako herri guzietan. Bere aphezpiku lagunak ere hortarat ekharri nahi zituzken; huna zer izkrihatu izan duen hetarik bati: Othoi hirur urthetarik emanaraz zaitzu misioneak zure Diosesako bazter guzietan; eta ez beha misionen kontra mintzo direneri, edo maizegi heldu direla erraiten duteneri; hek ez dakite zer dioten. Ez bada kanpoz eta agerian,

bederen Jainkoaren begietan eta arimen barnean, misione batek egiten ditu bethi ongirik handienak.

Poitieko aphezpiku guziz aipatu batek, Pio kardinaleak, erraiten zuen: Ene bizian egin dutan obra handienetarik bat izan da, Misionest etxe bat altxatu baitut, eta orai Diosesako eskualde guzietan emaiten baitire misione frango.

Baionako aphezpiku handienetarik bat, geroztik Tolosan kardinale hil izan dena, morde d'Astros, hainbertzetaraino ohartua zen misionek egiten duten ongiari, non altxatu baitzuen Hazparneko Misionesten etxea. Eta maiz bazohan herriz herri misionestekin; ez zuen prediku bakhar bat huts egiten. Gehiago dena, asko aldiz hek bezala ari zen lanean, ala predikatzen, ala kofesaten, hirietan bereziki.

Aphezpikuez bestalde, zonbat aphez sailduak ez dituzte misionek premia handitan atxiki?

Aldi bat san Bixintxo Paulokua nigarrez pharatu zen, eta zertako? ez zutelakotz gehiago utzi nahi misione emaiten ibiltzera.

Eskual-Herrian asko aphez jakintsun eta saildu, hala-nola Garat-Pikesarri, Deiheralde, Hirigoien, Kuru-txet, eta bertze hainitz, zerk ekharri ditu Misionest

egiterat, erretorgua guziak utzirik? A! baitzakiten zer ongi handiak egiten dituzten misionek arimetan.

Orai duela berrogoi eta borts urthe, huna zer egin zuen aphez goraxago aipatu dugun batek.

Jaun hori erretor zen Avaloneko hirian. Bainan erretor handi izanagatik, bertze ametsik bazuen. Nahi zen erretorguatik atheratu eta Misionest egin.

Horiek hola, gure aphez khartsua emaiten ela, behinere baino su gehiagorekin, othoitzari, barurari eta bertze asko penitentzieri. Jainkoari galdatzen dio idek eta zabal detzakon bere bokazionerat heltzeko bideak.

Holaxet othoitz egin-eta zombait egunez, badoha Jaun aphezpikuarengana eta bere gutizia aiphatzen dio. Othoizten eta errekeritzen du utz dezan bere erretorguatik atheratzerat eta Misionest egiterat. Bainan aphezpikuak ihardesten dio egin detzala lehenik hobeki bere gogoetak; gero ikhusiko dutela.

Aphez saindua ez da lotsatzen, are hobeki lotzen da othoitzari eta penitentziari. Eta laster Jainko maitea heltzen zaio eta mirakulu batez irakasten dio onesten duela harren Misionest egiteko xedea.

Abendoaren hamahiruan, mila zortzi ehun eta hogoi eta hemeretziari, ortziraile batez, othoitzean

zagon Avaloneko elizan. Aditu zuen Jainkoak berak erraiten ziola: Nahi dut izan zaiten saindu!

Eta gero iduritu zitzaion Jesus bera athera zela tabernakletik, ete bere eskuaz zeinatu zuela kopetan, bihotzean eta ezpainetan; lehenik kopetan, irakasteko misionesta behar dela izan jakintsun; gero bihotzean, irakasteko zer su eta khar handiarekin ibili behar den arima galduen ondotik; eta azkenik ezpainetan, irakasteko behar dela mintzatu hazkarki, ausarki eta zuhurki.

Bainan Jauna, dio Erretorak, ez dezaket sinhets bokazione hortarat helduko ahal naizela!

Jesusek orduan bere bihotza irakasten dio: Huna non duzun ene bihotza berme.

Aphez dohatsua xoraturik gelditzen da. Bere herria, bere ahideak, mundu huntako ohore eta atsegin guziak, ez zaizko deusik Jainkoaren aldean. Nahi du guzietarik berehala buluzi.

Hargatik egoiten da oraino bere erretorguan. Segur baino segurrago beharrez, Jainkoari galdatzen dio bere bokazionearen bigarren agergailu bat. Berriz ere Jainkoak irakasten dio misionegaratu helduko dela. Bazituen herrian sei gizon elizatik arras urrundak; othoitz eta entsegu frango ibili zituen hek bildu

nahiz, bainan bethi alferretan. Egun batez erraiten dio Jainkoari: Oi Jauna bekhatoros horiek konbertitzen badituzu, orduan sinetsiko dut misionest egin behar naizela.

Eta egun hartan berean seiak jin ziren Erretor sainduarengana, eta seiak orduan berean kofesatu ziren.

Ez du gehiago dudarik. Ardiesten du aphezpikua-
ren baimena, adioak egiten ditu herriari eta badoha nobiziaren egitera.

Hori zen mila zortzi ehun eta berrogoiean, agorri-
larekin.

Ez diteke erran zer ongi handiak egin dituen misio-
nest saindu horrek. Halako kharra agertu izan du eta
halako obra ederrak moldatu ditu, non harren izena
Frantzian eta urrunago ezagutua baita. Ezen *aita*
Muard nork ez du ezagutzen?

Bekhatoros galduenak zituen gehienik maite.
Misionearen hastetik bazohan berehala etxez etxe;
jende herrebes eta errebelatu guziak ikhusten zituen;
bakhotxarekin lothuko zen borroka, bainan eztiki eta
lausengatuz; eta azkenean irabazten zituen gehienak.

Herri galdu batean hasi zuen misionea; guziek zio-
ten ez zuela han deusik eginen ahal. Hargatik ez zen

lotsatu. Nola ez baitzen nihor heldu predikuetara; nola etxetan ere ez baitzuten soberakinik ikhusi nahi, huna zer egin zuen.

Goiz batez elizan egon zen luzaz eta luzaz, bethi othoitzean, Jainkoari galdeka konberti zezan herri galdu hori. Azkenean oihuz hasten da eta Jesusi erraiten dio: Oi Jauna, ene izaite guzia saltzen derauzut eta osoki emaiten; bainan ordainez, ene buruaren truk, othoi konberti zaitzu hemengo bekhatore gaixoak; berheun bederen galdegiten derauzkizut.

Jainkoak onetsi zuen aita Muarden tratua. Konbertitu ziren, ez berheun xoilki, bainan herriko gizon eta emazteki gehienak.

Herri galdu harrek Bermenton zuen izena.

Aphez khartsu horrek berak bildu eta asentatu izan ditu Benedikano-Predikariak. Ez nahiz nola-nahika jokhatu egintza handi hortan, joan zen lehenik Arzeko jaun Erretorarengana eta bere argiak galdatu ziozkan.

Morde Vianney Arzeko erretor hori zen saindu bat, zer-nahi mirakulu egiten zituena. Frantziako eta Europako bazter guzietarik heldu zitzaizkon jendeak; eta hasirik goizeko bi orenetan, egun guzia berant arte ari zen bethi kofesatzen, predikatzen, eri sendotzen.

Bana-bertze, egunean hemezortzi oren iragaiten zituen kofesionalean.

Ez zuen sekulan jaten esne izpi bat beizik, eta bakar aldi batzuez lursagar egosi zonbait.

Aita Muard heltzen da beraz erretor saindu horren-gana. Aiphatzen diozka bere xedeak eta errekeritzen du othoi erran dezakon hea bide onean ala gaxtoan sartzerat abiatu den.

«Ez lotsa, ihardesten dio Sainduak; obra hobere-netarik bat egitera zoazi; Jainko onak lagunduko zaitu.»

Eta hola gerthatu da. Benedikano-Predikariak hainitz emendatu dire. Badituzte orai zazpi komentu, bortz Frantzian, bat Ameriketan eta bertze bat Anglet-teren.

Zazpi komentu horietarik hazkarrena, bokazione gehienik biltzen duena, gure eskualdetan dugu, Basti-dan.

IX - KAPITULUA

Jaun Iribarne, misionest eta martir

Euskal-herrian misionesta frango eman ditu jendaia paganoeri, hala-nola Bertran Duhalde uztaristarra, Joanes Labartet ainhoarra eta Adraneko aphezpi-ku hil izan dena, Durizburu beskoiztarra, Jaimes aizurukuarra, Mugaburu getharia, Errekarte makaiarra, de Gaztelu iruñarra, Aita Madre hazpandarra, eta bertze asko. Bainan bat bada guzien artean Jainkoak martir bezala hautatu eta goretsi duena. Hura da morde Domingo Iribarne.

Pagano herrietarat abian diren aphez gaztek, bai eta hemen berean Misionest egin nahi direnek, martir eskualdun hori hartu behar lukete patroin eta bidaritzat. Hortakotz xehetasun zonbait aipatu nahi ditugure herritar Jaun Iribarnen ganean.

Domingo Iribarne Orzaizen sortu zen, uztailaren zortzian, mila zortzi ehun eta berrogoi eta hemeretzian.

Goizik hasi zen kanpo-lanetan, eta egun batez alhorrera jin zitzaion herriko aphez saildu bat, morde

Larre, eta galdatu zion: Errak, Domingo, ez othe huke aphez egin nahi?

Haurrak ez zituen oraino hamabi urthe. beizik; harritu zen eta ihardetsi zion: Zer, Jauna, ni aphez! ez du khararik. Nola nahi duzu ene Amak egin detzan kanpolan hok, joaiten banako ni etxetik? Ni beizik ez du nihor!

Morde Larre ez zen lotsatu. Mintzatu zen lehenik amari, eta haurraren aphezterat irabazi zuen. Are hobeki eta errexki bildu zuen Domingo, eta Hazparneko eskolarat berehala igorri.

Hirur urthe iragan zituen Hazparnen. Morde Deiheraldek zion: Urhe metak balio ditu Iribarne eta egun batez ohore eginen dio Eskual-herriari.

Hazparnetik joan zen Larresoroko seminariorat. Etxe aiphatu hortan jakitate hoberenak ikhasi zituen, bainan guziz harren bihotzeko kharra emendatu zen Jainkoarentzat eta arimentzat.

Orduan barnetik hasi zitzaion botz bat erraiten: Misionest joan behar haiz pagano-herrietarat!

Ai eder zitzaion misionest joaitea, ezen gogo suharraren zuen Iribarne; eta non ere ikhusten baitzuen lanik borthitzena, harat ari zen jitez.

Bainan bere griña suertea bazuen, baizik-eta ez zela gai, bokazione hori soberanioa zela harrentzat; eta maiz bere buruari galdeka ari zen: Martir hiltzeko indarrik aski izanen othe duk?

Joan zen egun batez Larresorotik Orzaizera, bere ustez amari erraitekotan zer ametsak zituen misionest egiteko. Ba bainan, etxera orduko bihotza ttipitu zitzaion. Ezin menturatu zen amari hitz baten aiphatzera; eta hogoi bat egun thirabira hortan iraganik, Larresororat itzuli zen deusik egin gabe.

Ondoko urthean Seminario handirat joan zen, eta handik igorri zion amari bere adixkide bat, berri gaitz horren emaitera.

Entzun dueneko Domingoren mezua, asaldatzen da ama gaixo hori. Berehala abiatzen da etxetik eta joaiten Baionara. Ez da hirian demendrenik gelditzen. Eta egun guzia deusik jan ez edan gabe, joiten du xuxen seminaria, eta oihuz hasten: Non da ene semea? Ekharrazue abian hunat ene haurra!

Misionest-gai saindua jausten da gelatik; harritzen da bere ama maitea holakaturik ikhustearekin.

Borroka erdiragarri batean hasten dire, semea misionest joan nahi eta Amak niholere ez utzi nahi. Azkenean belhauniko erortzen da semea; Oi ene ama,

errazu beraz garbiki ez duzula Jainkoaren nahia onesten, eta ene sutana zure oinetara aurtikiko dut eta jinen Orzaizerat zurekin eta haitzurri lothuko.

Ama izitzen da, ez dio ihardesten, beha dago ixilik bere semeari.

Azkenean bihotz guzia erdiratzen eta trenkatzen bezala zaio, eta nigar-hipetan erraiten du: ene haurra, orai beretik enetzat hila zare; egizu beraz Jainkoak nahi duena!

Ordu berean Orzaizerat itzuli zen ama gaixo hori, eta geroztik ez du sekulan demendren arrangurarik egin.

Handik laster Iribarne gaztea Pariserat joan zen eta misionesten seminarioan sarthu.

Behinere baino khar handiarekin lehiatu zen bokazione horri dohazkon berthute guzietan; eta gehienik eman zen penitentziari. Etsai bati bezala jazarri zen bere gorphutzari eta zehaturik zaukan.

Ez zuken bada iduriz penitentziaren behar handirik. Adinaren lore-lorean zen oraino, amarekin iragan zituen lehenbiziko bere urthe garbi eta prestuak, gaizkia ezagutu gabe athera zen mundutik, eta sekulan demendren hedoiak ez zuen harren xahutasuna goibeldu. Egiaz, Iribarne gazteari zohazkon Salomonen

kantiketako hitz eder hok: Nola lilia lapharren erdian, nola sagarondoa oihaneko zuhaitzen artean, hala ene adixkidea agertzen da gizasemen artean: *sicut lilium inter spinias, sicut malus inter ligna silvarum, sic dilectus meus inter filios* (Cantic. 2).

Bainan nahi zen urrundarik martiriora trebatu; bere gorphutza zehatuz, nahi zen hazkartu eta bort-hiztu bere odolaren ixurtzera Jainkoarentzat eta arimentzat.

Martir hiltzea, oi zer amets gozoa aphez khartsu batentzat! Jaun Iribarnek ez zuen bertze gutziarik, nahi zuen bere Jesus odolerraino eta hiltzeraino maitatu; eta zinez harren ahoan eman zitesken phertsu eder hok:

Oi Jesus dibinoa!

Zure amodioa

Hain da garbia!

Hain da ezitia!

Ixurazu ene gainera,

Ene bihotza izan dadin goihera

Heriora joateko.

Zureganako

Nik dudan lehia,
Iduri ithurria,
Zurrutaka badoha.

Ene arimaren bilha
Zatozte aingueruak,
Hunat guziak,
Eremateko airean,
Zuen hegalen gainean,
Zeruko loriara,
Jesusen ikustera.

Hirur urtheren buruan apheztu zen, bere-ama mai-teari egin zazkon adioak, eta gero joan itsasoz gaindi basa herrietarat, mila zortzi ehun eta lauethanogoi eta hirurean, martxoaren hogoi eta zortzian.

Huna orai hitzez hitz zer dioten *Fedearen heda-berriek* morde I ribarnez (I).

Bada Xinako azken mugetan misionest eskualdun bat guziz aiphagarria, Aita Durisburu. Hogoi eta hama-bortz urthe baditu han dela.

Ezin sinhetsiak dire harek denbora luzez pairatu dituen minak. Ereman ditu urthe osoak misionest lagun bat ere ikhusi gabetarik, gizonaren itxura baizik ez zuten salbaia batzuen artean, belhar erro eta begiz

ikhusi ere nahi ez ditugun lurreko ihizi batzuetarik janez bizi zela. Salbaia heiek bezala behti, bethi oint-hutsik ardura urean eta lohian, lur hutsa etzangiatzat, zero zabala atherbe, arbola ostoak estalgi.

Bizkitartean maite zuen misionest horrek bere izaitea eta hanbat zitzakoten bere giristinoer estekatua, non haren lagunek ez baitzezaketen ardiets urrun zadin heietarik, osagarriak baitezpada galdatzen zion ephe zerbaiten hartzeko ere.

Berak ikhusten zuen hargatik bai adinak, bai nekeek, bai eritasunek bazeramatzatela haren indarrak, eta laster bortxaz hustu beharko zuela lekhoa.

Gogoeta horrek goibeltzen zuen haren bihotza, edo zoin neke eta atsekabeek behin ere ilhundu ez khordokatu ahal ez zutena.

Galdatzen zioten bada Pariseko semenarioko buruzagier ez zezaketenez hatzeman Eskualdun erne eta azkar bat haren ondokotzat. Ezen erraiten ohi zuen eskualdun larrua behar zela han irauteko, eta eskualdun bihotza hango jende guti maithagarriaren maithatzeko.

Eskualdunik ez ukhanez, edo bertze zerbaitengatik, igorri ziotzaten Aita Durisbururi, bata bertzearen ondotik, bi misionest gazte, ez oraino ondokotzat bai-

nan lagun bezala. Bata eta bertzea, bigarren urthearen bururan, heltzera utzi gabetarik, ereman zituzten hango sukhar gaixtoek. Eta behinere bezala Aita Durisburu berriz ere baxharrik gelditu zen.

Arte hortan heldu zen gure herritarra Pariseko semenariora. Bazakien aitzinetik zer heinetan zen Aita Durisburu eta nolakoa zen haren nahikundea. Geroztik ez zuen bertzerik amestu ezenez misionest saildu horren lagun eta gero ondoko izaitea.

Bizkitartean xede hori hanbat zitzakon handia, ederra eta haren merezimenduez goragokoa, non ez baitzen ausart nehoi ere aithortzera zer zerabilan gogoan. Jainkoari galdatzen zion bada bere othoitz khartsuetan, nahiz zen berenaz ezdeusa, berak egin zezan xede handi hortakotzat behar zen hezalako.

Othoitz hori sobera zen Jainkoaren gogorakoa ez onhetsia izaiteko. Ordena sailduak hartu zituen egunean bere buruzagiek misionest gai khartsuari erran zioten Aita Durisbururen lagun izendatua zela.

Berri on horrekin ethorri zen bere ahaide eta adiskideer azken agurren egiterat. Ez zezaken gorde bere bozkarioa; eta erraiten zion bere lagun bati:

«Lur huntan gutiziatzen nuen gauza baxharra eman deraut Jainkoak. Ikhusiko dut bada aspaldian

urrunetik ezagutzen eta bihotz oroz maite nuen misionest saildu hura! Ni ezdeusa izanen niz haren lagun eta, behar bada, egun batez, haren ondoko. Zer eskerak zor diotzodan Jainkoari!

Eta nola bere lagunak orhoit arazten baitzuen nola haren aitzineko bi misionest gazteek ezin iraun zuten lekhu dorpe hartan, ihardetsi zion irri gozo batekin:

«- Zer erran nahi du luzaz bizi nadin ala ez? Iraunen dut Jainkoak nahi duen bezain bat. Bertze alde, larru zaila dut, eskualdun larrua, Aita Durisburuk galdatzen duen bezala. Goazin aitzina gure bidean: eta hel dakigula Jainkoak nahi duena!»

Horra zer bihotzeko alegrantziarekin emaiten zuen bere bizia. Ez zen gutiagoa izan misionest zaharraren bozkarioa jakin zuenean berria, bere herritar bat, eskualdun bat igortzen zakotela lagun eta ondokotzat, eta oroz gainetik bere besoetan tinkatu ahal ukhan zuenean Jainkoak emaiten zion aneia gazte hori.

Aita Iribarnek berak erran derauku letra batean nolakoa izan zen, zoin hunkigarria heien elgarretartzea. Jadanik aitzat zaukana eta geroztik aita deithu eta aita bezala maitatu duena ethorria zitzakon bidera. Bata bertzea bezain elgar ikhusi nahiak ziren.

Ordukotz zonbeit hilabete hartan; bere buruzagiek jauts arazia zuten Aita Durisburu bere mendietarik eta emana zuten, han bereko umeetarik misionestzat altxatzen dituzten haurren nausi semenario batean. Haren aldean eman zituen Aita Iribarnek lehen hilabeteak mintzairearen hartzen ari zelarik: harekin ikhasi zuen ikhusiz, adituz baino gehiago, obretarik solasetarik baino hobeki, nola bilhaka misionest khartsu eta saildu. Berak zion ez zezakela nausi ez molde hobeagorik ukhan, nola baitzen hura. Guk erran dezakegu irakasleak merezi bezalakoa zela ikhaslea.

Misionest bezala lehen urhatsak egin ditu haren semenarioari hurbileko herri batean, eta gorago aipatu dugun letran erraiten zaukun, arte zuen aldi oroz, bazakiela estakuru zerbeiten hatzemaiten, ari-nik, mendiari beheara, bere Aita maitearen ikhustera joaiteko.

Zoinak othe zuen atsegin gehiago bertzearen ikhustez, aita ala haurrak. Biak elgarren aditzeko eginak ziren; eta baldin haurrari gozo bazitzaion aitarren ikhustea eta aditzea, ez bide zen gutiagokoa hunen bozkarioa, egunetik egunera hobeki ezagutzen

zuelarik, Jainkoak ondokotzat eman zion herritar gaztearen khar saildua.

Geroxago Aita Iribarne igorria izan zenean mendietan barna, handik zonbeit egunen bidean, Aita Durisbururen aldi zen haren ikhustera joaitea! Bazoa-kon bada, eskola arte zuenean; iduri zitzaion bere lagun gaztearen aldean, gaztetasuneko urtheetaratz itzultzen zela; hanbat zuen bere idurikoa eta khar beraz sustatua!

Horrela, joan den agorrilaren lehen egunak elgarrekin ereman dituzte bi misionest eskualdunek. Ezen Aita Durisburuk izkiribatu du bere herritarraren ikhusten izanik eta haren berriak jaun aphezpikuari emanik, bere egon lekhurat itzultzera zoala, heldu zitzaionean berria haren semenarioa errea izan zela etsaiez, han utzia zuen misionest lagun baxarra hila, eta Aita Iribarneren eskuko lurretan sarthuak zirela gaixtaginak, bazter guziak odol eta sutan emaiten zituztela.

Jainkoak egin dio Aita Iribarneri, azken gudua hurbiltzen ari zitzaionarik bere nausi eta aita maitearen ikhusteko fagorea.

Bai, berek jakin gabetarik, Jainkoak zerabiltzan bata eta bertzea, eta ez da dudatzeko bataren ahoan

eman dituela bertzeak oren hartan aditu behar zituen solasak.

Zer guerthatu zakon gerotzik Aita Iribarneri, nola-koak izan diren haren azken egunak, ezin dezakegu erran.

Guk dakigun gauza bakharra da, nahiz ikhusten zituen etsaiak heldu zirela eta nahiz zuen oraino ihes egiteko artea, egon dela bere girstino maiteen artean.

Ez zuen heriotzeak izitzen; misionestaren ametsa da fedearentzat bere odolaren emaitea.

Eta amets hori Aita Iribarnek nihork bezain ardura erabili du gogoan. Ihes abiatu da azken orenean, ez beldurrez, bainan bai bere buruzagien manuz. Bai Jainkoak nahi izan dio eman hanbat gutiziatzen zuen saria.

Dohatsua hura zeren bere odolaz finkatu izan duen, bethi oso begiratu, goraki aithortu eta hain ederki obratu duen fedea.

Dezotela ardiets, Jainkoarenganik, eskualdun bere herritar maiteer bethi egon ditezen azkar fede berean.

III - ZATHIA

Perfetasunezko bizitzea edo estatua

I - KAPITULUA

Perfetasuna zer den

Zer da arimako perfetasuna? Arimako perfetasuna, hainitzek aiphatzen dute, eta gutiek dakite zer den.

Perfetasuna ez dago sail bakhar batean. Nola baitire zeruan asko egoitza sainduentzat, berdin badire asko mail eta izari perfetasunean girixtinoentzat.

Salbatzekotz, baitezpada atxiki behar diren urratsak, zoin dire? Hek dire Jainkoaren eta Elizaren manamenduak eta gure estatuko eginbideak. Horiek gabe ez gaitezke zerurat hel.

Baitezpadako urrats horietaz bestalde egiten ditugun entseguak, perfetasunezko entseguak dire.

Eman dezagun zombait xehetasun. Atxikiak gare igande oroz mezaren entzutera; eta zuk entzuten duzu; baina oraino asteleunetan ere jarraitzen zare; horra perfetasunezko urrats bat.– Atxikiak gare komuniatzerat urthean behin, Phazkoz; eta zuk egiten dituzu xuxen Phazkoak. Baina oraino hurbiltzen zare Eguberriz; bigarren komunione hori duzu perfetasu-

nezko urrats bat.- Atxikiak gare lagunari heltzera bere behar-orduetan. Eta zu heltzen zaizko, ez xoilki behar-orduetan, bainan bestalde ere bai; eta hori duzu perfetasunezko urrats bat.

Hargatik, perfetasuna ez dago hein hortan, ez da hoin ahal baratzen. Erran othe diteke perfeta dela halako edo holako gizona, entzuten dituelakotz zonbait meza asteleunetan, egiten dituelakotz zonbait komunione urthean, emaiten dituelakotz zonbait laguntza jende beharreri? Ez. Horiek oro entsegu ttipiak dire. Handiagorik nahi du egiazko perfetasunak.

Non diteke bada perfetasuna? Izaiteko perfet, behar othe da heldu Sainduak bezain gora? Behar othe da heldu San Bernaten edo santa Theresaren edo bertze asko sainduen heinera? Ez. Eta huna zertako.

Egiazko perfetasuna dago Jainkoaren alderako amodioan. Jainkoa zinez maite baduzu, perfetasunezko bidean zare; eta zonbatenaz baituzu ausarkiago maite, hanbatenaz zare perfet.

Jainkoari buruz dabiltzazu zure harat-hunatak, ala gogoetak, ala gutziak, ala elheak, ala lanak. Eta non-ere ikhusten baituzu Jainkoa izanen dela gehienik goretsia, harat lehiatzen zare. Eta bide hortan sakrifizioak ez zaitu lotsatzen. Beharrik ere bortxamen asko

egin zure buruari, beharrik ere jasan asko nahigabe, eder eta gozo zautzu, zeren maite duzun zure Jainkoa. Oi dohatsu zarela zu! Zu zare egiazki saindutasunezko eta perfetasunezko bidean.

Izpiritu sainduak berak erraiten du: Jainkoa oro amodio da; eta amodioan dagoena, Jainkoaren baithan dago, eta Jainkoa harren baithan.

Horra zer den perfetasuna, Jainkoaren zinez maitatzea. Eta bestalde behar du arima perfetak laguna ere maitatu Jainkoarengatik. Ezen, dio bethi Izpiritu Sainduak, Jainkoa maite duenak, maita beza bere anaia ere.

Edozoin estatutan maita dezakegu Jainkoa. Beraz nor-nahi izan diteke perfet eta saindu. Ala laboraria, ala soldadoa, ala tratularia, ala erromesa, ala aberatsa, guziak hel ditezke perfetasunerat, guziek dutenaz geroztik Jainkoaren maitatzeko ahala. Eta egiaz badi-re hainitz munduan sainduki bizi direnak, Jainkoa zinez maite dutenak; hitz batez perfetasunezko bidean dabilzanak.

Bainan ohart huni. Gaitz eta neke da munduan perfetasunera heltzea eta Jainkoaren egiazki maitatzea. Munduan bide gehienak zabal-zabala idekiak dire atsegineri, ontasun-goseari eta urgulari. Izpiritu

Sainduaren errana da. Hortik ez da munduan errex Jainkoaren maitatzea. Munduan atsegin-gutiziak nor ez du lizunkerietarat aurthikitzen? ontasun-goseak nor ez du abarizioari estekatzen? urguluak nor ez du izariz goiti hanpatzen eta nahasten? Ez, munduan ez da errex perfet izaitea, ez da errex Jainkoaren zinez maitatzea.

Nor dire beraz perfetasunean trebeki aintzinatzen direnak? Huna nor diren. Beren bihotzetik khentzen dituztenak hirur traba galgarri: atsegin zarren traba, garbitasunezko botua eginez; ontasun gosearen traba, probeziazko botua eginez; urguluraren traba, obedientziazko botua ginez.

Nola mundutiarrak galtzen baitire hirur izurrite gaxtoz: lizunkeriaz, abarizioaz eta urguluaz; hala-hala Jainkotiarrek perfetasunerat heltzen dire hirur bothu eder horiez: garbitasunaz, pobreziaz eta obedientziaz.

Hirur botu horiek dire komentuen egiazko zimen-duak eta asentuak. Botu horietarik heldu da komentuek baitute bizimolde bat berezia, hautatua, bertzez goragokua. Botu horieri esker, komentuetako ala gizon ala emaztekien estatua, deithua da perfetasunezko estatua, saindutasunezko estatua.

Horrek ez du ez erran nahi, aski dela komentuan hirur botuak egitea, izaiteko saindu. Ez. Erran nahi du xoilki botu horien bidez sartzen dela perfetasuneko sailik hoberenean. Erran nahi du, estatu eder hortan ez dela bertze lanik, baizik ere saindutasunean bethi eta gorago altxatzea.

San Frantses Saleskoak gauza bera dio: «Karitate xoilak ezartzen gaitu eta ibentzen edo plazatzen perfekzioanean; bainan obedientzia, kastitatea eta pobretasuna dire harren ardiesteko bide handiak. Ezen obedientziak kontsekratzen dio Jainkoari gure bihotza, harren maitatzeko eta zerbitzatzeko; kastitateak gure gorputza, eta pobretasunak gure dirua.» *Philotea, Haranederrek eskuarat itzulia.*

II - KAPITULUA

Jesu-Kristok berak establitu duela Perfetasunezko estatua

Azken kapituluan erran dut nola komentuetako bizi-moldea deitzen duten Perfetasunezko estatua. Eta hori, ez komentuan sartzea aski delakotz perfetizaiteko, bainan estatu hori delakotz saindutzeko biderik errexena.

Nork egin du, nork asentatu izan du Perfetasunezko estatu hori?

Jesu-Kristok berak.

Egia da Jesu-Kristok ez dituela berak moldatu komentuetako erregela bereziak eta hekien egun bakhotxeko harat-hunatak; bainan xehetasun horietan sarthu gabe, bere eskuez hautatu eta finkatu izan ditu estatu hortako zimenduak, bere eskuez bildurik eta antolaturik ezarri izan ditu harren asentu premiatsuen guziak.

Jainkoa berarenganik, Jesu-Kristorenganik, athe-raia da beraz Perfetasunezko estatu hori. Hola diote Elizako Aitek eta Teologeek. Heretikoak dire bakharririk

bestela mintzo; bainan hek ukhatzen dutena, guk sinetsi behar dugu, ezen heretiko diren ber, makhur dabilta, egiaren etsai eta gezurraren adixkide.

Bai Jesu-Kristok berak egin eta asentatu izan du Perfetasunezko estatua. Bainan nola eta zer bidez? Lehenik bere irakasmenez, eta gero bizitze hortara bere Apostoluak moldatuz.

Komentuaren hirur botuak maiz eta maiz aipatzen ditu Jesu-Kristok Ebanjelioan. Huna zer dion.

1° *Zoaz, sal zaitzu dituzun guziak eta niri jarraik;* horra Pobreziatzko botua.

2° *Ene ondotik ibili nahi denak, ukho egin dezala bere buruari;* horra Obedientziatzko botua.

3° *Haizu diren haragiko atsegineri ukho egin diotenak badire, eta hori zeruko erresumaren ariaz: adi dironak, adi beza;* horra Garbitasunezko botua.

Horiek dire Jesu-Kristoren irakasmenak. Ez da hortan gelditu; mintzatu ondoan, lanari lothu da; estatu eder hortan altxatu izan ditu bere Apostoluak. Perfetasunezko estatua hain da premia andiko Jesu-Kristoren begietan, non berak moldatu izan baititu Apostoluak Probreziatzko, Garbitasunezko eta Obedientziatzko hirur botuen eginbideean, hala-nola oraino ere

komentu guzietan buruzagiek moldatzen baitituzte beren meneko gizon ala emaztekiak.

San Krisostomok komentuar bati erraiten zion: Oi komentuar maitea, zure bokazioneari nola behar zaren jarraiki jakin nahi omen duzu. Ez duzu zeren nonbait ibil argiketa; ezen esku-pean duzu argirik hoberena, Ebanjelioa; eta han ikhususko duzu bide hoberik ez duzula, baizik ere Jondoni Petrik, Jondoni Jakobek eta Jondoni Joanek egin dutenaren zuk ere berdin egitea, ezen Apostoluek ereman dute komentuarrek deramaten bizi-molde bera: *O monache, fac tu quod fecit Petrus, quod fecit Jacobus et Joanes.* (Homil., 7, in Matth.). *Ab Apostolis impleta sunt quae nunc à monachis implentur* (Homil., 69 in Matth.).

Elhe bera diote San Basilek eta San Bernatek. San Basilek bere denboran erregela bereziak egin zituen komentuentzat, eta huna nola mintzo zitzaioten: Zuen estatu hortan berean altxatu izan ditu Jesu-Kristok bere Apostoluak, nahiz-eta geroko komentuar guzieren irakaspen hoberenak helarazi: *Discipulos Christus in hoc elegit, qui hoc vitae institutum aemularentur, ut per eos formam relinqueret eandem secuturae posteritati.* (Constitut. Ascet. c. 5.)

Eta San Bernatek: Estatu hori izan da Elizaren lehenbiziko bizi-moldea; hortarik hasi eta abiatu izan da Eliza: *Ordo monachorum ant religiosorum qui primus fuit in Ecclesia, imo à quo caepit Ecclesia.* (Apol. ad Juill. n. 24.)

Kasianek ere dio: Apostoluen denboratik, hirur botuak egiten zituzten Jerusalemeko girixtinoek; Elizak orduan osoki zeraman oraiko komentuek deramaten bizitze hertsia.

Azkenik huna zer dion Dom Grea teologo aipatuak: Noiz ere Eliza atheratu baita Jesu-Kristoren Bihotzetik, ordu-berean hasi eta agertu izan da Perfetasunezko estatua. Egia hori goraki errepikatzen dut, ezen Dotorrek mendez mende irakatsi izan dute: Eliza abiatu dela Perfetasunezko estatutik, estatu eder hori izan dela harren lehenbiziko bizi-moldea.

Apostoluen denboratik hunat Perfetasunezko estatuak iraun du bethi Eliza sainduan. Bere goiti-beherak izan ditu; mende batzuetan hazkar, bertze batzuetan ez hala; bainan ez da behinere agortu. Eta zer diot ez dela sekulan agortu? oi urrun da, ezen denbora gaxtoenetan ere ithurri aberats horrek eman ditu ur nasaiak, eta ur nasai horietan arimak bethi osteka mainhatu, edertu eta saindutu izan dire: *Communis*

est Patrum sensus statum religiosum à Christi tempore huc usque sine interruptione semper durasse. (Suarez, ibid.)

Hemendik goiti ere berdin iraunen du Perfetasunezko estatuak. Eta nola lur huntako erregek beren gortherat biltzen baitituzte adiskiderik minenak, berdin mendez mende Jesusek ere bere gortherat bilduko ditu bethi asko arima hautatu; eta arima hautatu hek ezarriko ditu hirur botuen gerizan, hala-nola baratzezainak atherbean ezartzen baititu bere landare maitenak; eta hekien artean gozatuko ditu bere Bihotz-Sakratuko atsegin eztienak.

Nork ez ditu erleak frangotan ikhusi eztiketa erne-rik dabilzala lorez lore? Berdin arimaz arima Jesus badabila oro su eta amodio. Eta nor-ere kautsizen baitu, harren Bihotzari dohakonik, hura hautatzen du, biltzen du, komenturat eremaiten eta han bere espos bezala begiratzen.

Detzagun aipha Estatu eder hortako hirur botuak. Ikhus dezagun zer den Pobrezia, zer den Garbitasuna eta zer den Obedientzia.

Sainduen bizian irakhurtzen dugu San Ligoriok bere misionetan botu horiek noiz-nahi errepikatzen

zituela. Saindu handi eta Dotor guziz argitu horrek bere bizia misione emaiten iragan du. Eta sekulan ez du herri bat utzi, non ez duen bietan bederen gazte-riari predikatu, komentuko bizi-molde horren xeheki agertzeko, goresteko eta ahalaz besarkarazteko.

San Ambrosio izan da Elizan agertu den Dotor eta predikari handienetarik bat. Irakurtzen dugu bada harren bizian, multzoka biltzen zituela komenturateko bokazioneak; eta nola arrantzaile trebeak, itsasoa aro denean, arrain elemeniak hartzen baititu bere saretan, berdin harrek ere bere predikuetan arima andanak hartzen zituela eta Perfetasunezko estaturat sarrarazten. Halako moldez non Aita-Ama batzu lotsa baitziren beren haurrak harren predikuetarat uzteaz.

Hola-hola egin dute San Basilek, San Augustinek, San Jeromek, San Bernatek, eta bertze hainitzek. Batzuek ala bertzek, liburuetan ala predikuetan, goresti dituzte bethi Perfetasunezko hirur botuak; eta xeheki agertu dituzte Estatu eder horren probetxuak eta atseginak.

Guk ere, hekien ondotik eta hekien arabera, zerbait aipha dezagun Pobreziaz, Garbitasunaz eta Obedientziaz.

III - KAPITULUA

Pobrezia

Ikhusiko dugu: 1° Zer den Pobrezia eta nola Jesu-Kristok bere eginkariez eta bere hitzez goretsi duen. - 2° Elizak eta Sainduak zer premia handitan atxiki duten bethi Pobrezia. - 3° Zer probetxuak dituen Pobreziak oraiko ala eternitateko.

1° Zer den Probezia eta nola Jesu-Kristok bera eginkariez eta bere hitzez goretsi duen.

Pobrezia da ontasun guzietarik buluztea; ez xoilki kanpoz, bainan oraino bihotzez; eta hori, Jainkoarentzat amodioz, perfetasunean hobeki aintzinatezeko xedez.

Hobeki ikhusteko, huna zonbait xehetasun.

Badire asko, ez direnak nihola ere pobre. Izaitez bezala bihotzez ere ontasunetan daude igerika. Indar guziez eta haztapar guziez lotzen dire ontasuneri. Halakoentzat zioen Dabitek: Aberastasunak bildu dituzte; nasaitasunean eta guritasunean daude ithorik eta galdurik.

Bertze hainitz ikhusten dire, izaitez erromesak, bainan hirritsaz diru-goseak. Moltsa ttipi eta gutziak handi, aberastasunaren sukhar bizia badute. Hirurgarren batzu, aberats dire ontasunez, bainan pobre bihotzez. Hek dituzte ausarki laguntzen jende beharrak, hek dituzte egiten ongi handiak. Urhe-zilharretan aberats, bainan eginkari-onetan aberatsago, zeruko bidean dabilta.

Azkenik badire bakhar zonbait, pobre direnak, dela izaitez, dela bihotzez. Hek atxikitzen dute apostoluaren hitza:

Ontasun guziak ezdeus eta puxulu zaizkit Jesus maitearen aldean; eta harrenganat osokiago joaitekotan, oro arbuiatzen ditut.

Bai ontasunak, bai eta ontasunetarik heldu diren bertze gurikeriak, ostikatu dituzte.

Eta baldin egina badute pobreziatzko botua, ordu beretik jarriak dire perfetasunezko bizitzean edo estatuan. Ezen Jesusek huna zer erran zion gizon gazte bati:

Nahi bazare perfet izan, zoaz, dituzunak sal zaitzu eta eman beharreri, eta izanen duzu aberastasun handi bat zeruan; zato gero eta jarraik zakizkit.

Jesu-Kristok bere baithan biltzen ditu dohain eta aberastasun guziak. Jaunen Jauna da, zeru-lurren jabea da. Gutarterat ager zaiteken, Salomon erregea bezain aberats eta aberatsago. Eta juduek hola ethorriko zela uste zuten.

Bainan ez, bere ospe guziak gordetzen ditu, Beteleemeko barrukian sortzen da. Ama erromesa du, oha-kotzat mañatera du, jauregitzat aberetegia du. Aingeruek erran zioten Judeako artzaineri; Zoazte eta zuen Jainkoa huntarik ezaguturen duzue: Haurtto bat aurkhituren duzue xatharrez inguratua, eta hei bateko askan ezarria.

Indarretara heldu deneko, lanean hasten da, eta bizi da lanetik, erromesek ohi duten bezala. Hortakotz erraiten zuen Jesus berak, Profetaren ahoz: Ni naiz egiazko pobrea, eta gaztedanik nekeetan akhitua nago. Eta egiaz izan da osoki pobre, bai Beteleemen, bai Egipton, bai Nazareten.

Eta gero, hogoi eta hamar urthetarik harat, abiatu deia bai Judeako herrietan gaindi, are hertsikiago behartzen da bere hanbat itzuli eta harat-hunatetan.

Berak erraiten du: Axeriek badituzte ziloak, eta zeruko hegastinek ohandzeak, bainan nik ez dut ene buruaren phausatzeko tokirik.

Jesus izan bada pobre bere bizian, zer erran harren heriotzeko gabetasunaz?

Job Patriarkak bere herstura gaitzetan, galtze minak eta erdiragarriak egin zituen; baina hargatik bereak zituen etzana dagon atherbea eta lasto ustela.

Jesusek kalbarioan ez du hoinbertzekorik: itzatua dagon kurutzea ez du berea; hiltzaileak jabetu dire haren soinekoez; azken hatsa eman duenean, atze baten eskuak ekhartzen diozko hil-oihalak; ehortzeko hobia ere arrotz baten hobia du.

Geroztik oraino mendez mende, gure artean dago, baina nola? Aldaretako sakramenduan, ostia xume batean, pobrezian. Eta balin badire eliza ederrak, zombat gehiago buluziak eta sordiesak! eta han egoiten Jainko handia!

Jesusek goretsi du pobrezia, ez xoilki bere eginkariez, baina oraino bere hitzez.

Huna zer dion: Dohatsu izpirituz beharrak direnak, zergatik hekiena baita zeruko erresuma. Dohatsu zarete, beharrak, ezen Jainkoaren erresuma zuena da. Baina, zorigaitz zueri, aberatsak, zeren-eta orai baitzarete asteginetan itsutuki gozatzen. Kameluari orratz baten xilotik iragaitea errexago lakioke, ezenez aberatsari zeruetako erresuman sartzea. Munduaren

arabera apha! eta ezdeus diren erromesak hautatu ditut, hazkarren eta aberatsen ahalkatzeko.

Jondoni Jakobek erraiten du; Ez deia bada hitz horietarik ageri Jesu-Kristok hautatu dituela erromesak amodio berezi batez? Bai oraidanik hek ditu bere graziez ausarkienik aberasten, eta zeruan ere hekientzat derauzka aphaindurik sari ederrenak.

Dohatsu beraz, pobreziatzko botuan bizi direnak. Hek dire zinez jarraikitzen Jesusen gomituari: Ez bil ontasunak lur huntan, ezen herdoilak eta biphiek jaten dituzte, eta ohoinek ebasten gordairuetarik, bainan bil zaitzue aberastasunak zeruan, ezik han herdoilak, ez biphiek, ez-eta ohoinek ez dituzte hunkituren.

Tratulari, intres gosea,
Deusek ere
Mundu huntan ezin asea
Behinere;
Sarri putzu bat zaik emanen
Egoitzatzat;
Bi braza lur dituk izanen
Ontasuntzat.

Laboraria, alferretan

Haiz nekhatzen;
Maiz herioa duk bet-betan
Guganatzen.
Hazilhan egiteko lanak
Tuk hiretzat,
Eta fruitu heldu direnak
Primuentzat.

IV - KAPITULUA

Nola Elizak eta sainduak premia handitan atxiki duten bethi Pobreziako botua

Huna zer erraiten zioten Jesu-Kristok bere Aposto-lueri, igortzearekin lurreko lau bazterretarat:

Zoazte, eta ez izan zuekin, ez zilharrik edo dirurik, ez alphorxarik bidekotz, ez bi soinekorik edo oinetako-rik, ez makhilarik; ezen langileari zor zaio bere hazku-rria.

Apostoluek entzun orduko onetsi zuten Jesu-Kris-toren gomitu hori. Teologo handi batek dio egin zute-la guziek pobreziako botua; bai-eta egin zituztela denbora berean bertze bi botuak, erran nahi baita gar-bitasunezkoa eta obedientziakoa.

Ez xoilki Apostoluek berek egin zuten pobreziako botua; eginarazi zuten oraino sinestedun guzieri.

Hola diote liburu sainduak: Jerusalem, lehenbizi-ko girixtinoetarik nihork ez zuen deusere berea zuela erraiten; baltsako eta elgarrekilako zituzten gauza guziak. Norbaitek bazuena bai lurrik edo etxerik?

Berehala saltzen zuen eta ekhartzen apostolueri balio guzia.

Hortik ageri da buluzten zirela beren ontasunetarik eta jarraikitzen osoki pobreziako botuari.

Horra nola hastapenean girixtino guziek egiten zuten pobreziako botua.

Bainan Jerusalemetik kanpo, herrialde paganoe-tan, girixtinoek ez zuten holako boturik.

Jerusalemen ere utzi zuten denborarekin abiadurako kharra. Batzuek xoilki atxiki zuten, eta bildu ziren elgarrenganat, eta hasi zuten komentuetako bizi-moldea.

Ordutik hedatu ziren komentuak bazter guzietan. Eta nola baratzezainak landare maite bat berexiki art-hatzen baitu, berdin Eliza katolikoak ere, komentuetako baratze sainduetan arthatu izan du pobreziaren lore ederra. Komentuetan egiten da geroztik pobreziako botua.

Handik hunat, zonbat eta zonbat Ordena, zonbat eta zonbat kongregazione, ez dire agertu eta asentatu? Eta guziek bizi-moldetzat hartu dute Pobrezia. Eta bethi Eliza katolikoak, pobreziako bizi-molde hori

onetsi izan du. Ez xoilki onetsi, bainan oraino lagundu, hazkartu eta sustatu.

Elizak ezagutzen ditu lau erregela handi komentuentzat. Hek dire: 1° San Bazilek egin erregela; 2° San Augustinek egin erregela; 3° San Benuatek egin erregela; 4° San Frantsesek egin erregela. Lau erregela horietan, Pobreziako botua berdin hertsiki mantua da, nola bertze bi botuak, Birjinitatea eta Obedientzia.

Menderen mende agertu diren Ordena edo kongregazionek, lau erregela handi horietarik hartu dituzte beren erregela bereziak. Eta guzietan bethi, Pobreziako botua izan da atxikia eta goretsia.

Ageri da beraz, Eliza sailduak premia handitan atxiki duela bethi pobreziako botua.

1° Kazineko mendi behean bazen komentu bat. Santa Ezkolaztika zuten serorek buruzagi.

Egun gehienez San Benuatek igortzen zioten bere aphezetarik bat.

Edo meza, edo kofesio, edo prediku, serora hek bazuten aphez batentzat lana frango.

Eta nola ikhusten baitzuten berek, zer akhitudideak emaiten ziozkoten Aita horri, oro bihotz eta mainu ziren harrentzat.

Aita Omonierak ez zuen deusen eskasik!

Egun batez Aita hori mokanesik gabe gerthatzen da. Ez diote Seroreri galdatzen ez-eta aiphatzen. Bainan hok ohartzen baitire! Josten dituzte berehala zombait mokanes eta eskeintzen beren Aita onari.

Zer eginen du Omonierak? Badaki bai, Benedikano batek ez dezakela deusik har beretzat. Bainan behar-ordua ez deia hor? Eta nork jakinen du sekutan mokanes horien berri? Gordeko ditu; ez du nihori hitzik aiphatuko.

Ororen buruan hartzen ditu mokanesak eta golkhoan kukutzen.

Gorde bai, ez ordean San Benuaten begientzat!

Seroretarik etxerat itzuli-eta, benedizioea galdegiten dio San Benuati. Eta hunek bixi-bixia: Nolaz bada nausitu zauzu debrua?

Aita Omoniera harritzen da eta balditzen. Ez da orhoit ere bere mokanesez. Ez zaio nihundik gogoratzten zertako jazarri zaion saildua. Ixil-ixila dago, ez jakinez zer ihardets.

Bainan San Benuatek laburzki orhoitarazten du; biphilik eta garbiki erraiten dio: Han nintzen han, Serorek mokanes hek emaiterekin, eta badakit golkhoan gorde dituzula.

Hitz horietan Aita Omoniera belhauniko erortzen da, galdegiten du barkhamendu, eta mokanesak lurre-ra aurthikitzen.

Horra zer larderiarekin San Benuatek zerauzkan bere dizipuluak pobreziazko sailik hertsienean.

2° Erromako hirian bazen komentu bat, San Andres erraiten ziotena. Komentu hortako Abade zen San Gregorio, ordukotz kardinale izendatua, eta laster Aita-Saindu behar zena.

San Gregoriok nahi zuen bere komentuan bizi eta hil, ospe guzietarik urrun. Eta xede hortaz, ez zen sekulan atheratzen komentutik, behar-ordu handiz kanpo: Benedikano saindu baten urratsak hertsiki atxikitzen zituen, bai-eta bertzeri atxikarazten.

San Gregorio Abade delarik, fraide bat hiltzen da. Sakelan hatzemaiten diozkote hirur urhe. Ai berehala asaldura handi bat altxatzen da komentuan. Guziek diote debru gaixtoaren lana dela hori, ez dela behine-re holakorik ikhusi Benedikanoen artean, Jainkoaren

zigorrek jautsiko zaizkotela, behar dutela penitentzia egin.

Abadea zen gehienik khexatu eta damustatu.

Hilaren gorputza khentzen du komentutik, aurthikitzen du erreka zikhin batetara, eta hirur urheak gainera botatzen diozka. Erreka hegitik, komentuko Aita eta fraide guziek oihu egiten dute hilari: Ustel hadi hor, eta hire urhea hirekin gal dadiela.

Eta nola San Gregoriok bihotz-min handia baitzuen, bere komentuan holako hutsa gerthaturik, meza erran zuen berak fraide horrentzat, hogoi eta hamar egunez.

Purgatorioan bazen ere nahi zuen ahalaz lagundu.

3° San Frantses Asisekoak irakatsi du Pobreziarentzat amodiorik handiena. Berak erran du hitz eder hau: Ene esposa da Pobrezia, eta xoratuki maite dut.

Erran du oraino: Ene Ordenaren asentuak eta indarrak ez dire ez urhezko edo zilharrezko; baina dire Jesu-Kristoren hitz hok:

Ez dezazuela izan moltsarik ez dirurik; ez-eta bi soineko bidean; ibil zaitezte oinetakorik eta makhilarik gabe.

Hortik, Frantsiskanoak eske dabilta, janaren eta beztitzekoaren biltzeko.

Daudetzen komentuak ere, ez dituzte bereak; toki arrotzean bizi dire bethi, erromesek ohi duten bezala.

San Frantses johan zen Erromarat, Aita-Sainduaren baimena ardietsi nahiz, Pobreziako erregela hertsi horrentzat.

Orduko Aita-Saindua, Inozent hirugarrena, Latraneko jauregian zagon.

Jauregi hortara doha beraz san Frantses. Leheneko bere adiskide xahar bat aurkhitzen du athean, eta galdegiten dio othoi helaraz dezan Aita-Sainduarengana; eta badohatzi biak; jauregiaren barne ederretan sartzen dire.

Aita-Saindua ikhusi dueneko, San Frantses belhau-nikatzen da eta ahuspez emaiten; eta ukhurtua dago-larik, bere Ordenaren erregela aiphatzen du xeheki; Aita-Sainduaren baimena galdegiten du.

Bainan ez du onesten Aita-Sainduak. Garratzegi eta borthitzegi zaio Pobrezia hoin hertsia. Gure saindu gaixoa gibelerat igortzen du.

Ixil-ixila, demendren arrangurarik egin gabe, badoha kanporat San Frantses.

Jauregitik atheratzearekin aurkhitzen du erromes itsu bat; benedikatzen du eta sendotzen. Eta oro bozkariotan, itsu-argituak ihardesten dio:

Oi jauna, ez lotsa ez, Jainkoak lagunduren zaitu, zure xede guzietarat helduko zare.

Ondoko gauean, Aita-Sainduak amets bat egiten du. Ikhusten du zuhaitz ttipi bat lurretik sortzen, gero laster handitzen, eta azkenean oihanez gaindi gortzen.

Atzarri denean, arranguratzen da, zer erran nahi othe duen amets horrek. Jainkoak argitzen du; bihotzean mintzatzen zaio: zuhaitz hori dela San Frantse-sen ordena, egun lurretik sortzen ari, baina laster oihan guziak gaudituko dituena.

Aita-Sainduak, amets horren ondotik, San Frantse-sen bilha igortzen du.

Aurkhitzen dute ospitale batean, erien arthatzen ari dela.

Latraneko jauregira heldu denean, erraiten dio Aita-Sainduak bilduko duela Kardinalen biltzarrea, eta elgarrekin ikhusiko dutela heia behar den harren Ordena onetsi ala ez.

Biltzen dire beraz Kardinaleak. Aita-Sainduak aipatzen eta xehatzen diote nola Frantsesek Ordena

berri baten abiadurak hartu dituen, eta nola Ordena hori Pobreziarik hertsienean jarria den.

Kardinaleak Ordena berriaren kontra bihurtzen dire. Gaitzesten dute, baizik-eta ez duela iraunen ahal. Diote gabetasun borthitz horrek haizaturen dituela laster Frantsesen lagun bakharrak, eta gainerako bertze lagunik ez zaiola ethorriko.

Kardinale bat bakharrak jartzen da ordena berriaren alde. Erraiten diote bilkura guziari:

Zerk zabilzate holako elhetan? Ez duzue bada ikhusten, Jesu-Kristo bera ukhatzen duzuela eta Ebanjelioa ostikatzen? Ezen, eskale horrek zer galdegiten du, baizik-ere xoilki Kristoren kontseiluak atxikitzea? Eta nork sekulan besarkaturen ahal du Pobrezia hain hertsirik, nola Jesusek besarkatu izan baitu? Ordena berri hori urrunduz, Jesu bera eta harren Ebanjelioa arbuiatzen duzue.

Hitz horietan desegiten da Kardinalen biltzarrea. Aita-Sainduak erraiten dio Frantsesi: Ikhusten duzu ez dugula elgar aditzen ahal; egizu othoitz, Jainkoak argi nezan.

Ondoko gauean ere Aita-Sainduak badu bigarren amets bat.

Latraneko Eliza erortzera dohala ikhusten du.

Oro uzkailia, Eliza eder hori funditzera dohalarik, heltzen da gizon erromes bat eta bere sorbaldez xutik atxikitzen du.

Nor othe da gizon erromes hori?

Behatzen dio Aita-Sainduak eta Frantses eskalea ezagutzen du.

Atzarri-eta biltzen ditu berriz Kardinaleak. Frantses ere jin-arazten du. Eta huna zer erraiten dioten:

Erromes saindu hunek hazkarturen du Eliza katolikoa. Jainkoaren ageraldi bat izan dut ametsetarik, eta ikhusi dut Pobreziak behar gaituela phiztu eta alxatu. Bai, onesten dut Frantsesen Ordena; Jainkoak lagunt dezala orai eta bethi.

4° Huna bertze gerthakari bat.

Migel Gizleri, Dominikanoa, eta geroxago Aita-Saindu behar zena, San Pio bozgarrena, Milaneko aldetan zagon.

Izanik ere ordukotz kargu handitarat altxatua, bazabilan eske egun gehienez.

Hainitz maite zuen Pobrezia, eta zion usu ez dela Pobrezia bezain berthute ederrik.

Goiz batez abiatzen da etxez etxe, herriz herri. Zaku bat bizkarrean, ukhanak hartuz, itzuli frango ibiltzen ditu.

Emeki-emeki loditzen da zakua; iguzkiari ere sua dario; eta bide asko ere bai eginik; ai azkenekotz net akhitzen da gure Aita Migel.

Horrela izerdi-uretan dabilalarik, heltzen zaio gibeletik zamaldun gazte bat.

Nor othe da? Ez preseski deus handirik; da muthil lekhaio bat, bere zamariarekin kurri. Bainan muthil horrek bihotz ona du, erraiten dio Dominikanoari:

Oi aita, nola akhitua zaren! Atsegin baduzu, iragan zaite enekin zaldi hunen gainera: hazkarra da, biak aise eremanen gaitu.

Aita Migelek ihardesten dio:

Milesker, adiskidea; Pobrezia sainduak nahi du akhit nadien, egiazko eskalek ohi duten bezala: goazin beraz hola-hola, zu zaldiz eta ni oinez.

Bainan bederen, dio zamaldunak, emadazut zaku phizu hori; lehertzen zaitu.

Dominikano sainduak eman zion zakua. Eta hola-xet egin zuten elgarrekin bide.

Handik zonbait urtheren buruan, aita Migel egin zen Aphezpiku, eta gero Kardinale, eta azkenean Erromako Aita-Saindu. Alkhi saindurat iragan bezain sarri, igorri zion lekhaioari, ethor zadiela laster Erromarat, eta kargu on bat eman zion bere Palazioan.

Ageri da, Sainduiek erraiten deraukute goraki:

Plazerrak, ontasunak tutzue maithatzen,
Zuen gogo guzia hetan da baratzen;
Hek utzirik berzeentzat, gutien ustean,
Aurkhituren zarete lurraren barnean.

Zerentzat gintuzke beraz munduko fagoreak?
Laster utzi behar diren ontasun, ohoreak?
Arbuia dezagun lurra, eta bilha zerua;
Han du baxharrik aurkitzen bihotzak deskan-

tsua.

V - KAPITULUA

Zer probetxuak dituen Pobreziak mundu huntako eta eternitateko

Jesu-Kristok dio: Ez da nihor bi nausieri jarraikitzen ahal. Edo bat izanen du higuin eta bertzea maite, edo onetsiko du bat eta bertzea arbuiatuko.

Hortik, ezin zerbitza dezazketzue Jainkoa eta dirua.

Ontasunek beretzen dute gure bihotza. Ezartzen gaituzte lurrari estekaturik eta koropilaturik.

Esteka zaite diruari eta laster ahantziko dituzu Jainkoa eta zerua. Urrunduko zare eternitatearen orhoitzapenetik; gogo guzia ehortziko duzu bizi labur eta iragankor huntan; eta zure arima, ezdeuskeria batzuetan galduko duzu.

Badire bai uste dutenak maita ditezkeela bihotz beraz, alde batetik Jainkoa, eta bertze aldetik dirua. Bainan horrelakoak itsu dire, ez dakite zer daasaten. Iduri bai askotan bide onaz eta xutik dabiltzala, eta hargatik bazterka eta behaztopaka ibilki!

Zonbat ez ditu debruak holaxet enganatzen?

Ai bada hauteman huni: bihotza ontasunpean daukanarentzat, ez da funtsean Jainkorik ez eternitaterik. Oro lothua bere aberastasuneri, hetan ditu amets guziak. Ibiliko ditu asko lan eta buru-hauste, baina guziak bere ontasunentzat. Edo emendatzeko suharraz, edo dituenak gal beldurrez, bethi khexu da, bethi thiran eta sukharrean dago, ez du nihun sosegurik.

Hortakotz erraiten zuen Jondoni Paulok:

Aberastu nahi direnak erortzen dire debruaren saretara, behargabeko lehia gaxto hainitzetara. Gizonetarik asko hola dire galtzen, hola dire bethikotz ifernurat erortzen. Alabainan diru gosea, jaramankeria, gaitz guzien erroa da. Eta zonbat ez dire denboran fedetik zehartu eta baztertu, bai-eta atsekabe frangoetan erori, hirritsa galgarri hortaz itsuturik?

Pobreziari bihotzez jarraitzen denak ez du hola-ko galbiderik. Harrek baditu salbatzeko errextasun handienak, eta hil ondoan izanen ditu sari ederrenak.

Egia da bai Pobrezia berenaz gauza hitsa dela. Izitzen gaitu. Ez zauku deus hain dohakaberik nola erro-mesa, eskalea, ontasun guzietarik buluzia eta gabe-tua dena.

Ba baina zer da usu gerthatzen?

Behartasuna hautatzen baduzu amodioz, besarkatzen baduzu Jainkoarentzat eta arimarentzat, ai orduan ezti, eder eta thirriagarri agerturen zaizu; orduan ikhusiko duzu Pobrezia dela egiaz, bolizko dorre xoragarri eta hazkar hura, *turris eburnea*, zointarat iragaiten baitire girixtino bihotzdun eta indartsu gehienak.

Hortik heldu da komentuetan jende andanak, bozkarioz jarraikitzen baitire Pobreziatzko botu hertsiarri; eta gabetasun hortan gozatzen baitituzte atsegin bizienak.

Horren ganean aipha dezaket testament zaharreko gerthakunde bat:

Samson, gizon indartsua, bazabilan egun batez mahasti batzuetan gaindi. Eta horra non agertzen zaion lehoin bat ikharagarria, orroz eta jauzika harren gainerat heldu.

Samson ez da izitzen. Esku hutsez hartzen du lephotik basabere gaitza, aurthikitzen du, eta joka xehatzen pittika bat izan balitz bezala.

Lan hori egin eta, Samson badoha aintzina bere bidean.

Handik zombait egunen buruan, bide beretik iragaiten da eta joaiten lehoin hilarengana.

Eta zer ikhusten du? Lehoinarean ahoan erle multzo bat kokaturik, eta ezti-breska eder bat!

Eztia hartzen du eta bere Aita-Amekin jaten.

Pobrezia ere iduriz eta kanpoztan, lehoina bezain borthitz agertzen da. Bainan bihotzez jarraitzen zaionarentzat, ekhartzen ditu herekin eztitasun xoragarrienak. Emaiten derauzkigu probetxu aberatsenak, 1° bizi huntako, 2° eternitateko.

1° *Bixi huntako*.- Jesu-Kristo berak hitzeman eta segurtatu diote, ala jana, ala janztura, harrentzat amodioz Pobrezian jartzen direneri.

Huna zer erraiten dioten Ebanjelioan:

Antsiarik edo griñarik ez izan, nondik bilduko ahal duzuen egun orotako jana. Beha zazue aireko hegastineri; hek ez dute ereiten, ez uztatzen, ez-eta selhauruetan deus biltzen; eta halarik ere zuen Aita zerukoak hazten ditu. Zuek ez othe zarete hegastin guziak baino hainitzez gehiagokoak?

Eta zuen jaunzturaz zergatik bada zarete khexu?

Larretako lilieri zaudezkiote begira, nola diren handitzen eta ederki aphaintzen. Ez dire bada lanean ez iruten ari.

Eta derratzuet, Salomon handia, bere ospe guziaren erdian, ez dela izan lili horiek bezain aberaski jauntzia.

Baldin beraz larretako belhar bat, egun xutik eta bihar laberat aurthikia dena, Jainkoak hola jaunzten badu, zonbatenaz hobeki eginen zaituzte zuek, oi sineste gutitakoak!

Ez beraz griñarik har erranez: zer janen dugu, edo zer edanen, edo zer jauntziko? Pagonoak dire ezen horien guzien ondoan dabiltzanak. Alabainan, Jainko zuen aita onak badaki horien guzien beharretan zaretela.

Bilha zazue beraz lehenbizikorik Jainkoaren erresuma eta harren zuhurtzia; eta horiek guziak gainduraz emanak izanen zerauzkizue.

Bestalde erran dut liburu hunen hastapenean: Pobreziazko botua komentuan egin duenak, axola guti duela lurreko kalapitez eta ezdeuskeriez.

Mundutarrak dabilta ontasunen ondotik, ohoren ondotik, atseginen ondotik; bethi khexu, bethi zoin gehiagoka, sosegurik gabe.

Komentuan ez da deus holako griñarik. Han ari-mek ukho egin dute munduko eskaintza eta ontasun gezurtieri.

Komentuarren ontasunak, ohoreak, atseginak, dire Jainkoaren amodioa eta zeruko agintza ederra. Hortik kanpo ez dute bertze gutziarik.

Oi zer deskantsu gozoa!

Bai egia da: Jesus kausitu duenak, hatzeman du egiazko ontasuna; eta zer diot? ai hatzeman du zorion guzietarik handiena. Harrek aurkhitu du bihotzeko sosegua; gozoki lokarturik eta oro phausaturik dago bere Jesus baithan.

Hitz batez, Pobreziako botuan bizi denak, gozatzten du oraidanik egiazko bakea.

2° *Eternitateko*.- Jesu-Kristo gure Jaunak dio: dohatsu, amodioz eta bihotzez direnak erromes; eta zertako? hekiena delakotz zeruetako erresuma.

Horrelakoek, errextasun guziak badituzte aintzintatzeko perfetasunean. Trabarik ez dute lurreko ontasunen aldetik, buluzi direnaz geroz osoki beren hautuz.

Jainkoaren amodioa dute beren ontasun baxharra. Lurrerateko esteka guziak trenkatuak dituzte, eta

geroztik zeruko alderat altxatzen ahal dire errexki eta ausarki.

Lurreko ontasunen karga biskarrean dabilanak, badu bere bidean asko lan eta traba. Ez daiteke nekez beizik aintzina girixtino urratsetan.

Pobreziatzko botuan bizi denak ez du holako puxulurik. Errana da: Sorbaldak arhin, zangoak ere arhin. Eta nola pobreak ez baitu karga gaxtorik, erne eta zalhu dabila zeruko bide sainduan. Hortako ditu zeruan ere bertzek baino sari handiagoak gozaturen.

Bestalde huna zer dion Ebanjelioak.

Eta hau urruntxago ere aipatu izan dut.

Jondoni Betirik eta bertze apostoluek utzi zituzten munduko gauza guziak, nahiz-eta Jesusi bakharrrik jarraiki. Eta orduan Jondoni Betirik erran zion:

Jauna, guziak utzi ditugu jarraikitzeke zuri; zer bada emanen deraukuzu saritzat?

Eta Jesu-Kristok ihardesti zioten:

Diotzuet egiaz, noiz ere Jainko-Semea jarriko baita bere handitasunaren alkhian, zuek ere jarriko zarete hamabi alkhitan, Izraelen jujatzeko.

Jondoni Paulok erraiten du; bakhotxak izanen du zeruan bere lanaren araberako saria; holako moldez non, entsegu gehiago egin duenak izanen baititu sari

nasaienak. Eta nola, Pobreziazko botuan bizi denak egin baitu Jainkoarentzat gauza guzien sakrifizioa; Jainkoak ere ordainez ausarkiago saristaturen du bere zeru eternalean.

VI - KAPITULUA

Garbitasun saildua

Iklusiko dugu; 1° birjinitateak aingeruez gorago altxatzen gaituela, eta Jesus-Jainkoaren espos egiten; 2° Zer premia handira atxiki duen bethi Eliza Katolikoa birjinitate saildua, eta nola zeruan ere birjinitateak baduen sari berezia; 3° Tentazioez ez dela behar lotsatu; tentatuak direnentzat zombait hitz altxagarri.

1° Birjinitateak aingeruez gorago altxatzen gaitu.

Jondoni Paulok erraiten zioten Thesalonikarrei.

Jainkoaren nahia da izan zaitezten saildu, eta hortarakotz begira zaitezten lohikeria guzietarik, eta bat-bederak garbi atxik dezan bere gorputza, ezen helduko gare zerurat, ez lizunkeriaz bainan xahutasunaz.

Birjinitate garbi ederrak deslotzen gaitu estekamendu apha eta ahalgegarri guzietarik. Trenkatzen ditu haragizko trabak, gora altxatzen gaitu, bihotzari hegalak emaiten diozka, eta oraidanik egiten gaitu zeruko aingeruen iduri; Jesus beraren errana da.

Birjinek errexki gogoan derauzkate Jainkoaren gauzak eta zeruko orhoitzapenak. Aldiz ezkonduen munduko gauzez dute gehienik asmu, hean nola kausituko dioten senharrari edo emazteari. Beraz, dio Apostoluak, bere haurra ezkontzen duenak egiten du ongi, baina oraino hobeki ezkondu gabe begiratzen duenak.

Hortakotz espantiturik zagon Apostolu hori bera, eta zion: oi dohatsu zuek, arima garbiak, ezen bizi zarete, ez haragiaren arabera, baina izpirituaren arabera; orai beretik deramazue zeruko bizitze miresgarria; aingeruak bezela zabilzate distirant eta notagabe.

Bai eta, dio San Basilek, aingeruez gorago altxatzen gaitu birjinitateak. Zeren-eta Aingeruak errexki baitaude garbi, beren jitez, beren izaitez, deus gudurik gabe.

Baina guk ez dezakegu atxik xahutasun saindua, baizik ere entsegatuz eta bortxatuz. Noiz-nahi garhaitu behar ditugu ala munduaren enganioak, ala ifernuko etsaiaren oldarrak, ala gure bihotzeko jaidurak, ala gorphutzeko ekharritasun galgarriak.

Aingeruentzat garbitasuna entsegurik gabeko dohaina da; aldiz gizonentzat lan handitako irabazia.

Bada non ere baitire gudu eta neke gehienak, han behar dire ospe eta goratasun handiagoak. Hortik erran dezakegu garbitasunak alxatzen gaituela aingeruez ere gorago.

Zuzenez dago beraz espantiturik Zalomon erregea, dionean: Oi zoin ederra den odol garbiko jendakia! Ospez eta distirantzaz oro jauntzirik dabila. Bai Jainkoak, bai gizonek, premia handitan deraukate. Hekien orhoitzapena ez da sekulan galduko.

2° Birjinitateak Jesus-Jainkoaren espos egiten gaitu.

Bihotz garbiek altxatzen dituzte begiak kreaturez gorago. Dohatzi xuxen Jesus Jainkoarenganat. Harren baithan derauzkate bildurik beren amodio eta amets guziak.

Oi hek dute hek ongi hartu Izpiritu-Sainduaren hitz hau: Baldin mundutiaritsuak xoratzen baditu kreaturen edertasunak, zuek othoi, bihotz garbiak, ohar zaitetze bada zombatez ederrago den Jainkoa, edertasunaren aita eta ithurburua.

Jainkoa denaz geroztik izaite guzietarik ederrena, nola espanti ikhustez hainbertze birjina Jesusen amodioaz oro hartuak eta xoratuak?

Hortakotz erraiten zuen Santa Añezek: Jesus ene Jainkoa dut hautatu, hura da baxharrik ene esposa, delakotz bada osoki xoragarria eta aingeruek ere dutelakotz miresten harren edertasuna.

Ordainez, Jesusek ere hartzen ditu bere espos bezala arima garbiak, arima birjinak. Bai eta Jesusek maite ditu ordainezko heinetik miletan gehiago. Ezen gure bihotzetako ahal guziek zer dezakete, Jainko onak duen amodio izarigabearen aldean? Jesusen amodioak gairidituen du bethi birjina khartsuenaren amodioa.

Eta ez xoilki Jesusek hain samurki maite ditu birjina bere esposak, bainan oraino bertze kreaturez gorago altxatzen ditu. Ezen arima birjinaz mintzo delarik, Dabidek erraiten dio Jainkoari: Erregina zure eskuintean dago, soin urhestatu batekin, asko edergailuz inguratua. Erran nahi baita Jesusen espos garbia, birjina xahu eta khartsua, hain ederki aphaindua dela bere berthuteaz nola beztitua balitz urhez eta zer-nahi aberastasunez; eta hortakotz Jainkoak bere eskuinean goresturik deraukala erregina baten pare.

Alabainan ez diteke bertzela. Errege denaz geroztik Jesus bera, zuzen da harren esposak ere erregina dezan. Eta zonbat nahi aphaletik, zonbat nahi erro-meskeriatik ethor dadien birjina bat, Jainko Erregeak Erregina ezartzen du.

Jaunari bihotz garbiak
Xoil zaizko agradatzen;
Haren bihotz eztiak
Tuzte bereganatzen.
Ala baititu maitatzen
Nota gabe direnak!
Zerura ditu gidatzen
Hartaz dakusatenak.

VII - KAPITULUA

**Zer premia handitan atxiki duen bethi
Eliza katolikoak birjinitate saindua,
eta nola zeruan ere birjinitateak
baduen sari berezia**

Hastapenean Eliza guzia bildua zen Jesus baithan. Eta huna zoin premia handitan zaukan Jesusek birjinitatea.

Andredena-Mariaren garbitasun ederraz xoraturik jautsi zen zerutik lurrerat.

Eta hortakotz errana da: Oi Andredena Mariaren birjinitate guziz garbia eta guziz maitagarria, ez zaizkatzet aski aipha, ez aski gorets eta altxa, ezen zuri dugu zor Jesu-Kristo gure salbatzailea.

Horra zer premia handitan zaukan Jesu-Kristok garbitasuna, egin zenaz geroz gizon eta gu iduri, birjinitatearen edertasunaz xoratutik.

Eta bestalde, nor hartu zuen bere aita-lekhukotzat? Hartu zuen San Josepe, zelakotz osoki garbi, osoki birjina.

Apostoluen artean ere, zoin othe zuen Jesu-Kristok gehienik maite? Hura zen Jondoni Joane; eta zertako? A! bizi zelakotz xahutasunean; birjinitatean.

Eta ortzegun sainduz Apostolu hori bera Jesusek atxiki zuen bere bihotzaren gainean eta zabaldu ziozkan bere baithako berri minenak.

Gero, Jesusen ondotik, Jondoni Petrik ekharri zituen birjinitatean bizitzerat bi neskatxa gazte, Erromako aintoronseme handienaren alabak. Hek ziren Santa Pudenziana, eta Santa Praxeda.

Jondoni Paulok ere halako premian zaukan garbitasuna non erraiten baitzuen: Nahi nuke guziak garbitasunean ni bezala egoiten balire.

Apostolu horrek ekharri zituen hainitz neskatxa gazte birjinitatean bizitzerat. Eta neskatxa hetarik asko odol handitakoak ziren. Bai-eta zonbait Enperadore Neronen gortheakoak.

Neronek hortakotz hilarazi zuen Jondoni Paulo.

Bazakien bai apostolu handiak mentura gaxtoan emaiten zuela bere burua, hainbeste birjina gazte khentzearekin otso zikhin lohitsu horren haztaparretarik. Bainan neskatxa hekien zaintzeko, ai Jondoni Paulok axola guti zuen bere biziaz. Alegerarik eta gogo

onez zohan hiltzera, eskeintzeko Jesu-Kristori espos garbi birjinak.

Berdin San Mathiu Ebanjelistak birjinitatean finkatu eta kontsekratu zuen Santa Ifigenia, Ethiopeko erregearen Alaba. Hortakotz aldarean hil zuten, meza erraiten zuelarik. Harrek ere bazakien bai hiltzera zohala emanek Jesu-Kristori errege-alaba hura. Bainan hobe! Holako xedez odola ederki ixuria da.

San Klement, Erromako hirugarren Aita-Saindua, ahide hurbila zen Domiziano Enperadorearekin. Gazte-gaztea urrundu zen gortheko sare-gaxtoetarik, nahiz-eta bere garbitasuna hobeki zaindu. Bestalde ekharri zituen asko jende birjinitatean bizitzera; hala nola Santa Domitila, Enperadorearen iloba; Santa Efrosina, Santa Teodora, eta bertze asko.

Neskatxa gazte horiek gehienak sortze handikoak ziren. Eta hortakotz hil zuten San Klement, bai eta harrekin birjina gazte horiek guziak.

Batzuek eta bertzek izan zuten zorion doblea, eskeini baitzuten Jesu-Kristori birjinitatearen lorea eta martirioko odola.

Geroztik ere mendez mende, Eliza katolikoak, khar eta su berarekin, birjina andanak bildu izan ditu.

Erran diteke ala muthiko gazteak, ala neskhatxa gazteak, inobreka sarthu direla garbitasuneko bidean. Batzu aldarean aphez, bertzeak komentuetan fraide edo serora, jarraiki dire osteka eta lehiatuz Jesu-Kristo beren espos Jainkoari.

Laugarren mendean San Ambrosiok kontsekratu zituen zortzi ehun Birjina, aldi bakhar batez.

Denbora hetan oraino, Oxirinko hirian bizi ziren hogoi mila birjina Jesu Kristori kontsekraturik.

Eta handik hunateko mendetan are gehiago mut-hil eta neskhatxa gazte urrundu dire munduko galbide-tarik eta sarthu garbitasuneko egon tokietan. Horrela-koek diote!

Atsegin banoak,
Ohore faltsoak,
Zohazte eneganik;
Non ez dudan Jauna,
Ene ontasuna,
Ez zarete deusik.

Isaiaz profetak urrundarik agindu zuen Eliza kato-likoari birjina oste horien edertasuna. Huna zer zion:

Oi Jerusaleme, begiak ingurura altxa zaitzu eta ikhus nola bildu diren jende andana garbi horiek.

4° Nola zeruan ere birjinitateak baduan sari berezia.

Jesu-Kristok erraiten derauku bozkaria gaitezela, gozatuko dugulakotz zeruan sari bat nasaia.

Bainan dohatsu guzien saria handi izanik ere, handiago da oraino Jainkoak birjineri emaiten duen sari berezia.

Birjinen zorionak gainditzen ditu zeruan bertze dohatsuen zorionak, ezen huna zer dion Jondoni Joanek:

Ikhusi dut Ziongo mendiaren gainean, erran nahi baita zeruan, xutik zagoela Bildotsa, Jesu-Kristo; eta harrekin zazpitan hogoi eta lau mila dohatsu garbi, kantika berri bat kantatzen zutela; eta nihork ez zezaken eman kantu eder hura, hek beizik, zirelakotz kutsu gabeak eta birjinak.

Hek dire bethi jarraitzen Jesus-bildotsari, noranahi johan dadien.

Hitz horiek erran nahi dute birjinak sartzen direla Jainkoaren lorien eta zorionetan, bertzeak baino hobeki eta osokiago.

Hurbilagodanik eta khar handiagoarekin gozatzen dituzte Jesusen maitagune xoragarriak.

Dohatsu beraz garbitasunari emaiten diren muthiko eta neskak gazteak. Orain beretik Eliza katolikoan gora altxatuak dire, aberastuak dire arimako dohainik berezienez. Eta zeruan gozatuko dute bertzez gorago-ko ospea eta dohatsutasuna.

Nihork baino hobeki erranen ahal dute:

Oi Jauna, dohatsu zure etxean egoitza daudenak. Zeruko etxe lorien hortan gure bihotzak eta gorputzak atseginez gaiturik daude. Eta nola etxeroriak hatzemaiten baitu non egon, bai-eta urto ttorttoilak bere oharra, guk ere badugu zeru eder huntan gure zorioneko egon-toki berezia.

Eskualdun muthiko edo neskak gaztea, egin zaitzu beraz gogoeta zinak. Ikhas zer duzun hobe, ala birjina egoitea Jesu-Kristoren amodioan, ala kreaturari ukhurturik bizitzea. Guziz orhoit zaite egia huntaz:

Hemengo bizia laburra dela, lurreko atseginak laster ezeztaturen direla.

Bainan orhoit berdin: Jesusi garbitasunean jarraikitzen denak gozatuko dituela zeruan bethiereko zorian hautatuak, atsegin berezi bereziak, bertze guziez goragokoak. Birjineri diote Jesusek:

Egon zaitezte enekin,
Nagon ni ere zuekin,
Enekin juntki
Dagona finki
Daite gozoki hazia,
Zerurakotz berezia.

Santa Añez agertu zitzaioten, hil ondoan, bere ahideri. Ahide gaixo hek nigarrez zauden haur maite horren hobi gainean. Eta horra non birjina gazte dohatsua agertzen zaioten. Haur maite hori ikhusten dute, bertze hainitz birjina gaztez inguraturik. Añezek erraiten diote:

Oi ahide maiteak, ez othoi nigarrik egin, ezen osoki dohatsu naiz, oro sutan nago Jesusen amodioan. Bai ni, bai nere lagunak, xoraturik gauzka Jesusek. Ez diteke deus ikhus hain ederrik, nola baita Jesus bere lorian. Eta gu, harren espos birjinak, sarthurik gaude

osoki harren maitagune guzietan; eta hori bethikotz,
deus akhabantzarik gabe, Jainkoa Jainko izanen deno!

VIII - KAPITULUA

Ez lotsa tentazione lohiez. Hekien garraitzeko zer laguntza handiak ditugun

Arima garbien galtzeko, etsai lohia baliatzen da zer-nahi enganamendu eta amarru zarrez. Bere Esku-ko ditu munduaren barheiamendu inobreak, bai eta gizon baxhotxak odolean derailtzan jaidura gaizkiratekoak.

Badakit bai askok garhaitzen dutela errexi etsai lohia. Bainan badakit ere berze hainitz joak direla borthizki, ez dutela irauten nekez beizik. Zer erran bada arima tentatu horiez? Bethi borrokan, bethi khordokan, ez othe dire urrikaltzeko?

Baldin onesten balute tentazionea, baldin erortzen balire, ai orduan bai urrikaltzekoak litezke.

Bainan gudukatzen badute hazkarki, garhaitzen badute etsaia, ez dire urrikaltzeko. Aitzitik edertzen beizik ez dute beren garbitasuna.

Hek dire Jainkoaren egiazko adiskideak, dakitenaz geroztik harrentzat gudukatzen. Eta hanbatenez

emendatzen dute beren zeruko saria, zonbatenaz ere hazkarkiago ihardokitzen baitute tentazioneari. Nola-ko gudua, halako khoroa.

Egiazko soldadoa noiz da ageri? Noiz irakhasten du heian bihotza duen indartsu ala beldurti? Gerla denboran ala bake denboran? Phausuan ala guduan? Ai phausuan herbailak berak hazkar dire; bake denboran edozoinek hau zerda iduri du.

Bainan jin dadiela gerla. Orduan bihotzdunek bak-harrik hazkarki atxikiko dute. Hek dute zinez gudukatuko eta azkenean etsaia bentzutuko.

Berdin da gutaz. Tentazionen artean hazkar dagoena; zonbat-nahi luzaz eta borthizki borrokatua izanik ere, lotsatzen ez dena; bainan bethi gudukatuz eta hazkarki bihurtuz, azkenekotz nausitzen dena; oi zer girixtinoa den hori! Nola edertzen eta aberasten duen bere garbitasuna! Zonbat grazia berri oraidanik, eta zerukotzak zonbat sari-emendatze!

Ba bainan borthitzegi bada tentazionea, nola ihardok?

Huna Jondoni Pauloren hitza; Jainko onak ez zaituzte zuen indarrez goiti tentatzerat utziko. Zer erran nahi du horrek? Horrek erran nahi du Jainkoak emanen derauzkigula bethi laguntza hoberenak, eta

laguntza horiekin tentazioeak, errexki garhaituko ahal ditugula. Eta zer bidez emanen derauzkigu laguntza horiek?

Emanen derauzkigu: 1° Jesu-Kristo beraren bidez; 2° Ama Birjinaren bidez; 3° Aingeruen eta bereziki aingeru begiralearen bidez.

1° *Jesu-Kristoren bidez.*- Ifernuko etsaiak tentatzen gaituenean, ez da guri jazartzen; jazartzen da gu baithan Jesu-Kristo berari.

Ez bagine Jesu-Kristoren graziaz Jainkostatuak, ez bagine Jesu-Kristorekin zerurat deithuak, ai gutaz amets guti luke ifernuko etsaiak, nihor ez lezake tenta. Bainan nola bertze Jesu-Kristo batzu baikare egiazki, hortakotz bihurtzen zauku eta galdu nahi gaitu.

Munduaren hastapenean, zeruko aingeruen artean, gudu handi bat altxatu zen; eta Luzifer bihurtu zitzaion Jesu-Kristori; eta orduko gerla bera da mendez mende luzatzen, eta gure tentazioeak ez dire deus bertzerik, baizik ere Luzifer damnatuaren oldarrak Jesu-Kristoren kontra.

Hortik, tentatuak garenean, Jesu-Kristo berari zaio etsaia jazartzen. Hortik oraino, gure egitekoa bada tentazioneri ihardokitzea, are gehiago Jesu-Kristoren egitekoa da.

Gu tentatuak garen denboran, doha Jesu-Kristorentzat bere loria ez galtzeaz, ez ukho egiteaz, ez ihesi joaiteaz.

Berak erraiten derauku: ene onetan, ene Jainkotasunaren indarra nausiarazteko, bai atxikiko zaitut xutik, o arima tentatua, eta garhaituko dut zu baithan etsai gaxtoa.

Egun batez etsaiak borthizki eta luzaz tentatu zuen Santa Madalena Paziakoa; zer-nahi lohikeria zarrez nahasirik ezarri zuen.

Birjina guziz xahu hori izialdura handitan erori zen. Othoitzaz eta hazkarki ihardokiz, ihesi egin zuen Jainkoaren eskuetarat. Eta azkenean, gudukatzearen bor txaz bentzutu zuen etsaia.

Eta orduan agertu zitzaion Jesu-Kristo; eta Madalenak, oraino oro asaldaturik, erran zion:

Oi Jauna, non zinen bada denbora ikharagarri hortan?

Eta Jesuek: ene haurra, zure bihotzaren erdi erdian nindagon.

Zer jauna, ene arima hondaturik zaukaten zarkeria hekien erdian zinela zu!

Bai, ene haurra, eta zarkeria horiek ez dute zure bihotza demendrenik kotsatu, ezen niri esker hazkar egotu zare. Nik eman derautzut etsaiaren garhaitzeko indarra.

Tentatua zaren arima ona, ez lotsa beraz, zurekin batean gudukaturen du bethi Jesu-Kristok. Etsaiaren guduak izanik ere zonbat-nahi borthitzak, erranen ahal duzu: Enekin da Jesu-Kristo, gerlari ezin bentzuetua.

2° *Ama-Birjinaren bidez.*- Ez dezakegu galdegin laguntza hoberik nola baita Jesu-Kristo beraren laguntza. Hortan berean indarririk aski baginukeela iduri du. Bainan Jainkoaren ontasuna badoha bethi guk uste baino urrunago. Eta hortakotz, berak eman laguntzez bestalde, ezarri du Ama-Birjina gu guzien zaintzale.

Lurreko parabizuan gure lehen borrasoek bekhatu egin-eta, Jainkoak erran zion suge enganatzaileari:

Bethiereko etsaigoak emanen ditiat hire eta Andredena Mariaren artean, eta harrek lehertuko derauk burua.

Ama-Birjinak non lehertuko dio burua debru gaxto-ari? Gure bihotzetan. Eta noiz? Tentuak garen denboran.

Demendren tentazionea gure baithan altxatu deneko, han da Andredena Maria. Han da, ez beldur-ekin, ez banotasunekin; bainan gaitz eta lazgarri, lerrotan paratua den harmada bezala.

Indar guziak baditu eta ifernu guzia errexki bentzu dezake.

Orai duela bi mende iraganik, hamasei ehun eta hogoi eta hamabortzean, Andredena Mariaren Konzeptioneko egunean, Erromako eliza batean mintzo zen Aita Zuki jesuista. Harren predikua zohan garbitasun sailduaz.

Aiphu zuen bereziki Andredena Mariak emaiten derauzkigun laguntzez berthute eder horren begiratzeko. Oroz gainetik errekeritzen zituen jendeak erraitiaz othoitz labur hau tentazione denboran:

«Oi ene erregina, oi ene Ama, zurea naizela orhoitzaite. Begira nezazu, zaint nezazu zure gauza eta zure ontasuna bezala.»

Eta bazen aditzailen artean jaun gazte bat, sortze handitakoa, munduan asko itzuli ibili zituena.

Predikua akhabatu den bezain laster, kofesatzen da jaun gazte hori.

Aita Zuki berari joan zitzaion. Bizi beltza zen harren bizia. Aspaldiko urthe hetan, asko leize zolaraino jo zituen.

Bere bekhatuak aithortu ondoan, erran zion kofessorari: ene Aita, ikusten duzu, galdua naiz; ez ditut garhaituren ahal ene tentazioneak; zarkeria ni baithan sobera da zahartua eta nausitua.

Aita Jesuistak ihardetsi zion;

Ene haur maitea ez lotsa othoi. Andredena Maria har zazu zure erregina eta zure Ama bezala. Noiz-nahi, eta guziz tentazioneko denboran, errokozu nik aiphatu othoitza: *oi ene erregina...* etc... Hola jokhatuz garhaituko duzu etsaia, bai-eta zure jaidura zarrak, eta salbatuko zare.

Jaun gazteak hitzeman zuen jarraikiko zela bide horri. Eta bere hitza atxiki zuen.

Handik lau urtheren buruan, asko ibiltze eta itzuliren ondotik, horra non jaun hori heldu den berriz ere Erromara.

Aita Zuki berari doha, eta erraiten dio: Ene aita, badakizu nola, orai duela lau urthe, kofesatu zinuen bekhatore handi bat. Ni naiz. Geroztik tentazione gaitzak izan ditut. Etsitu ere badut ene salbamenduaz. Bainan zuk erranak egin ditut, oiuhu egin diot Ama-Birjinari. Eta azkenean nausitu naiz osoki eta bake handi batean bizi naiz. Bainan diot, eta bethi errepikatuko dut, Ama-Birjinak salbatu nauela.

3° Aingeruen eta bereziki aingeru begiralearen bidez.– Huna zer irakurtzen dugun Testament zaharrean. Gerla zuten Izraeldarrek auzoko erresuma batekin. Eta nola Eliese baitzen Izraelgo profeta eta buruzagia, etsaien erregeak bere harmada igorri zuen harren ondotik, har zezatela eta estekaturik ekhar.

Eliese mendi baten gainean zagon bere muthilarekin.

Etsai-harmadak mendi guzia inguratu zuen. Eta Eliesen muthila harritu zen ikhustearekin harmada handi hori mendiari gora iragaiten, eta oiuhu egin zion nauziari: Oi gutaz egina da!

Bainan Eliesek:

Ez zaitela izi, ezen zaintzaile hobeak eta gehiagokoak ditugu, ezenez hor ikhusten dituzun harmada horiek.

Orduan profeta othoitzean emaiten da: Oi Jainko handia, idek zaizkotzu ene sehiari arimako begiak, ikhusi dezan nik ikhusten dutan gauza miresgarria!

Eta betbetan ideki ziren muthilaren begiak, eta ikhusi zuen aingeru andana handi bat, mendi guzia hartzen zuela.

Aingeru andana horrek inguratu zituen Eliese eta harren sehia. Eta deus minik gabe atheratu ziren biak harmada etsai guzien artetik.

Gutaz ere berdin da. Tentazione denboran ifernu guzia altxatua da bai; zernahi entsegu dabilta debruak gure arimak galdu nahiz. Bainan beste aldetik Zeru guzia ere altxatua da gure zaintzeko. Eta baldin irauteko nahikunde hazkarra badugu, dudarik ez da nausituko garela bethi.

Eta nola lehenago Mikael arkanjeluak, aingeru onekin batean, bentzutu baitzituen Luzifer eta harrekilako aingeru gaxtoak, berdin orai ere gure bihotzetan garhaitzen ditu.

Huna zer dion Dabitek bere Psalmoetan: Oi arima tentatua, ez zaitela ez lotsa, ezen Jainkoak bere ainge-

rueri eman diote zutaz kargu, zaint zaitzaten zure bide guzietan: Ekharriko zaituzte beren eskuetan, belduz-eta oinaz jo dezazun bideko harri puxulua.

Baldin aingeru guziek laguntzen bagituzte gure tentazionetan, are hobeki laguntzen gaitu gure aingeru begiraleak. Ezen hura da bereziki gutarik bakhotxaren aingerua.

Testament zaharrak erraiten derauku Tobias semeak hatzeman zuela gizon-gazte eder bat, gerria tinkaturik, xutik, makhila eskuan, bideari lotzeko abian iduri. Hura zen Errafael aingerua. Tobias aitak erran zion:

Othoi lagunduko derautazu ene semea, ezen urrun doha, itzuli luzea egin behar du.

Errafaelek: Bai lagunduren dut zure semea, oso eremanen dut eta oso ekharriko darotzut.

Horra gure aingeru begiraleak ere zer egiten duen. Errafael iduri, laguntzen eta zaintzen gaitu urrats guzietan, are hobeki tentazionetan.

IX - KAPITULUA

Tentatuak direnentzat, zombait hitz altxagarri - Bi irakaspen ederrak

Hitz eder hok hartzen ditut San Frantses Saleskoaren ahotik.

«Bekhaturako tentazioneak irauin baleza ere gure bizitze guzian, ez gaitzake egin Jainkoaren desgogorako, non ez zaikun hartan laketzen eta non ez diogun kontsentitzen.

»Jondoni Paulok denbora luzez pairatu izan zituen haragiaren tentazioneak, eta horrengatik Jainkoaren desgogorako izatetik urrun, kontrara Jainkoa lorifikatzen zuen hark hekieri buru egiteaz.

»Handiak bide ziren San Benuatek eta San Frantsesek pairatu zituzten tentazioneak ere; batek elhorranean eta bertzeak elhurpean, bere gorputzak, biluz gorririk, erabili izan zituzten orduan, hek iraungitzeagatik; eta tentazione hekien guziengatik, deusere ez zuten galdu Jainkoaren graziatik; kontrara, horrengatik emendatu eta aberastu zitzairen.

»Ikhusi othe dugu egundaino ikhatz gorri multzo bat hautsez estalia zena? Hamar edo hamabi orenen buruan nihor goaten denean, ea han surik aurkhi ahal dezaken miratzera, doi-doiekoa ere nekez aurkhitzen du erdi-erdian. Bizkitartean han zen bada, aurkhitzen denaz geroz; eta hartaz berriz phitz ahal daitezke ja hilak ziren ikhatz hek guziak.

»Gauza bera da karitateaz ere, zeina baita gure bizitze izpirituala, tentazione handien eta borthitzen erdian dirauen orduan. Ezen tentazioneak, bere atsegintza aurthikirik arimako parte beherenera, estaltzen bezala du hautsez gure arima, eta Jainkoaren amodioa ekhartzen deus gutitara; nihon ere ezen ez da ageri; gordea dago bihotzaren erdian, izpituaren xoko-xokoan; ez du iduri ere han dela; eta ez errex harren aurkhitzea.

»Han da bizkitartean segurki, guziak altharatuak eta nahasiak diren arren gure ariman eta gure gorp-hutzean, bekhatuari eta tentazioneari ez kontsentitze-ko gogoia fermu daukagunaz geroz; eta atsegintzak plazer egiten dioen arren gure gizon kanpokoari, gizon barnekoari gaitzitzen zaionaz geroz; eta gure boron-dateari ingurutan dabilkon arren, ez da orduan barnean sarthua; hortarik ikhusten dugu holako atsegin-

tza guk nahi gabekoa dela; eta holakoa deno ezin ditekela bekhatu.

»Zer nahi tentazione ethor dakizun bada, eta zer nahi atsegintza dakharken berekin, zure borondatea zinki dagoena batari eta bertzeari kontsentimendua ez ematera, ez zaitezela batere althara: zeren Jainkoa ez baita batere ofentsatua.

»Norbait flakutzen denean eta bizi denez seinale ez denean, eskua ematen diote bihotzaren gainean; eta den gutiena badabilala sentitzen diotenean, jujatzen dute oraino bizi dela, eta indarrak ekhar dakiokeiela zonbait ur baliosez edo bertze erremedio onez.

»Orobat gerthatzen da zonbait aldiz gure arima tentazioneen biolentziaz flakaturia eta bere indarrez osoki gabetua bezala, hatsik ez balu bezala jarria; iduri du ez duela bizitze izpiritualik, ez mobimendurik; baina nahi badugu ezagutu zer den, emogun eskua bihotzaren gainean. Mira dezagun hea bihotzak eta borondateak baduten oraino bizitze izpiritualaren mobimendu zonbait, erran nahi ea borondateak errefusatzen duen bere kontsentimendua, tentazioneari eta atsegintzari ihes eta ukho eginez. Ezen ukho egiteko mobimendu horiek gure bihotzaren barnean dituguno, segur gare karitatearen biziak badirauela oraino

gure baithan, eta Jesus-Kristo gure salbatzailea gure ariman aurkhitzen dela, gordea eta estalia dagoen arren; hain ongi non maiz eta usu othoitzaz baliatuz, eta Jainkoa baithako fidantziaz, ardiets ahal baitezazkegu gure indar guziak, eta hekiekin batean bizitze ezti eta perfet bat.»

Huna orai bi irakaspén ederrak eta hunkigarriak.

Mundutik ihesi egin-eta, san Benuat hirur urthez gorderik egon zen harpe batean. Hirur urthe horiez, oi zer othoitzak eta zer penitentziak! Eta Jainkoaren aldetik zonbat grazia!

Bainan hirur urthe horien buruan jendeak ohartu ziren saindu bat bazela Zubiako Mendiaren harpean. San Benuaten omena bazter guzietara kolpez hedatu zen.- Ordu zen bada harren saindutasunak urrun distira zezan eta salba zetzan hainitz arima.

Asko jende abiatu zitzaizkon ikhustera eta mintzatzera. Ala Zubiakotik, ala Erromatik, ala Italiatz haindikozko bazterretarik, nondik-nahi osteka heldu zitzaizkon. Ordutik, beila toki baten iduri egin zen San Benuaten harpea.

Bihotz-min handia zen hori gure sainduarentzat; gaitz eta lotsagarri zitzaion jendepean hola bitzitzea.

Nahi zuken atxiki, orduarte bezala, San Augustinen hitz eder hau: maita zazu bakhartasuna, jendepetik egizu ihesi, beldurrez-eta zerbait behaztopa jasan dezazun zure elhetan edo zure eginbidetan.

Ikhusten bazituen jende hek guziak, ezin bertzez eta karitatez ikhusten zituen beraz. Egin ahal guzian ixiltasunari zagon eta bakhartasunari.

Egun batez jende ospe harrek utzi-eta, gelditu zen bakharrik. Eta horra non ifernuko etsaia lotzen zaion eta tentatzen duen. Lohikeriazko hedoi beltz zikhin batez. Goibeltzen dio bihotz guzia.

Haur denboran Benuatek ikhusi zuen emazte bat, ez batere gutizia zarrez, bainan atseginekin.

Etsai lohia baliatzen da gerthakari hortaz. Zer-nahi gogoeta, zer nahi gutizia, zer-nahi lizunkeria botatzen diozka gogorat eta bihotzerat. Oro nahasia, oro deboilatua da; ez dauke, su gaxto batek erretzen du; bere harpetik atheratzeko heinean da, mundurat berriz ere itzultzera doha.

Bainan Jainkoak laguntzen du, ezen Jainkoa helitzen da bethi bere adiskide behartuari, atheratzen du hersturatik, bai-eta indar berri handiago batez bethetzen.

Zerutik lagundua Benuatek trenkatzen ditu etsai lohiaren estekak. Buluzten da eta jauzi egiten du elhorri sasi baten barnera. Itzulikatzen da elhorrien artean. Larrutzen du gorphutz guzia, oro odoletan ezartzen du. Eta azkenean elhorri sistek hiltzen diote tentazione zarra; arima sendotzen diote gorphutzeko zauriek.

Sekulan geroztik ez du Benuatek izan demendren lohikeriazko tentazionerik. Borroka gaxto hortan hazkarki gudukatu zelakotz, Jainkoak khendu zaizkon haragiaren jaidura zar guziak.

Gure arimen probetxutan balia gaiten irakaspen eder hortaz. Ikhusi dugu zer indarrekin zaindu zuen San Benuatek bere garbitasuna. Athera bazen mundutik eta sarthu borthuetako bazterretan, egin zuen nahiz-eta lore eder hori gorderik eta segurtaturik eman.

Eta bere harpean, bere harroka ziloan, zer othoitzak, zer barurak, zer jazartze borthitzak gorphutzari eta guritasun guzieri! Zertako bada? Haragiaren jaidura gaxto demendrenak zehatzeko; osoki khentzeko lehia zar eta lohitsu guziak.

Eta hargatik phizten oraino su gaxtoa! tentazione borthitzak altxatzen oraino eta bihotz guzia nahasirik

ezartzen! Hainbestetaraino non ez baitezake hirritsa zikhin hori garhait, larrutuz baizik bere gorputza elhorri sasi baten barnean.

Hortik ageri da hazkarrenak ere tentatuak ditezke-la; bihotz garbiena bera egon behar dela ikharan, atzartasun zuhurrenak hartuz.

Huna bigarren irakaspena.

Uztailaren erditsutan, hamabi ehun eta hogoi eta hiruan, negu bihotzean eta gau batez, San Frantses Asiesekoa othoitzean zagon.

Othoitzari oro emana dagolarik, agertzen zaio ifer-nuko etsai gaxtoa. Etsai gezurti hori gizon-gazte baten itxura ederrarekin heldu zaio. Lausenguz, aire ezti batekin erraiten dio:

Zertako bada holako othoitz luzetan akhitzen zare? Osagarri ttipia duzu, ez bortxa zure burua. Berzela erituren zare eta denbora gabe hilen. Ez othe dakizu gaua lo egiteko emana zeraukula? Ba, sinets nezazu, ez duzu gorputza higatu behar, indar gehi-go izanen duzu arimen konbertitzeko eta salbatzeko.

San Frantsesek berehala ezagutu zuen etsai lohia-ren maltzurkeria; eta deusik ihardetsi gabe harren elhe xurieri, athera zen kuxian ganbaratik, joan zen ointhuts elhorri sasi baten ondora, eta han buluzirik

jauzi egin zuen sasiaren barnera. Gorphutz guzia odolatan sarraskiturik ezarri zuen.

Hola garhaitu zuen San Frantsesek etsai lohiaren guritasunezko tentazionea. Eta ordu berean sasi guzia bethe zen arrosa ederrez. Elhorri ondo bakhotxa lorez aphaindurik ageri zen elhurraren artetik.

Handik zombait urtheren buruan, San Frantses joan zen Zubiako mendira. San Benuaten harpean othoitz egin zuen lehenik, eta luzaz belhauniko egon zen hango elhorri-sasiaren ondoan, orhoituz zer tentazione borthitza garhaitu zuen San Benuatek sasi hortan.

Ordu berean, othoitzean zagolarik san Frantses, Jainkoak egin zuen mirakulu handi bat. Sasi hortako elhorri ondo guziak arrosa ederrez bethe ziren, eta geroztik, uda ala negu, loratua dago San Benuaten elhorri-sasia.

Urthe guziez Benedikanoek atheratzen dute arrosa horietarik usain-onezko ur balioz bat eta igortzen dute edo errege zombaiti edo sortze handitako burdies batzueri.

X - KAPITULUA

Obedientzia edo Jauspena

Obedientziak nahi du: 1° Jainkoari buruz egin detzagun aintzindariak manatu guziak; 2° Edozoin urratsetan, ala orrox ala nekeetan, bethi berdin lehia gaiten, deusetan eskasik egin gabe; 3° Ala kanpoz ala barnez, gorphutzez ala bihotzez, berehala eror gaiten buruzagien hitzera.

Jainkoari buruz egin detzagun aintzindariak manatu guziak.

Aintzindariari obeditu behar dugu, ez beldurrez, ez indarra dutelakoan, bainan Jainkoaren ordainak direlakotz.

Jainkoak huna zer dion:

Ene bidez eta ene ordainez dire nausi zuen buruzagiak; eta hek eman legeak, ene nahikundeak dire.

Jondoni Paulok ere dio:

Nausitasunik ez da baizik ere Jainkoarenganik; ditugun aintzindariak, harrek emanak ditugu.

Hortik ageri da gure buruzagieri jarraikiz, Jainkoari berari jarraikitzen garelako, hekien manuak onets detzagun, ez gizonen araberako gogoz, bainan xede gora eta Jainkozko.

Bertzela Jesusek erraiten ahal luke:

Zuek, beheretikakoak zarete; ez zarete ni bezala gainetikakoak, zeren eta aintzindarietan behatzen baituzue xoilki gizonari. Beha zazue bada oroz gainetik Jainkoari, ezen zuen buruzagiak ene ordainak dire.

Hemen san Thomas teologo handiak irakaspen eder bat emaiten derauku.

Saindu hori Boloñeko hirian zagon, Dominikanoen komentuan. Eta handik bere hitzez eta bere izkribuez, mundu guzia argitzen zuen. Ez da sekulan agertu teologo hori bezain jakintsunik.

Beraz teologo handi hori Boloñeko komentuan zen. Eroriko bat eginik min-hartu zuen zango batean. Nekez zabilan xutik. Goiz batez fraide kozinera heldu zaio:

Aita, enekin hirira ethorri behar zare; lagunduko nauzu jatekoen erosten eta garreiatzen.

Fraide gaizoak ez zakien mintzo zela Thomas teologoari. Eta nola Komentuetan kozinerak ere baitu bere bothere poxia; nola har baitezake bere lanetako

behar duen laguntza; san Thomasek Jainkoaren manua ikhusi zuen hor. Ez zen demendrenik arrangu-ratu. Hitzik erran gabe, kozineraren eskutik alphortxak hartu zituen, lephoan sarthu eta mainkhuka jarraiki.

Abiatu ziren Boloñeko karrketan behera. Fraide kozinera lasterxko zabilan. Jadanik eltzea suan eta bazkaiteko tenora hurbiltzen ari, khexu zen. Zer erranen zuten komentuko jendek, ez bazuen bazkaria tenoreko mahian ezarria?

Ba bainan teologo mainkhua ezin jarraik kozinerari! Zangotik min eta alphortxak bethetzen ari, zer nahi ikhusten zuen ezin ibiliz.

Azkenean hiriko jendeak ohartzen dire. Ikhusten dute Dominikano hori oro akhitua, bizkarra kargaturik eta zangoa herrestan.

Bebatzen diote hobeki eta horra non ezagutzen duten Thomas teologo handia. Oihuz hasten zaizkote fraide kozinerari, zer ari den bada, heia behar duenez hola ibilarazi teologoetarik aiphatuena, Italiako ospe eta argia?

Ai orduan koziner gaizoa izitzen da. Bi belhaunez erortzen da bere lagunaren oinetara eta barkhamendu galdegiten dio.

Teologo sainduak irriz xutiarazten du, erraiten diolarik:

Zaude deskantsu, Jainkoari nago zuri jarraikiz, ezen bethi harren ordaina dut ikhusten ene buruzagi guzietan. Xoilki, ahal baduzu, ibil zaite eztikixago.

Horra obedientziatzko irakaspén eder bat. Ez da baxharra; saindu gehienek hein berekoak emaiten derauzkute.

San Frantses gure herritarra, belhauniko zagon San Inazioaren gutunak irakurtzen zituenean. Eta irakurtzen hasi baino lehen, othoitz egiten zuen obedientzia oso baten galdatzeko. Nolaz bada hori? Zeren eta bere buruzagiaren baithan ikhusten baitzuen Jainkoaren egiazko ordaina.

Izkribatzaile balios batek erraiten du: Ikhusi ditut komentuetan aita eta fraide frango, argituak eta kharitsuak, agur egiten zutela ukhurturik Superioraren gela-athean iragaiten ziren aldi guzietan, Jainkoa bera han izan balitz bezala.

Trapistetan izan da fraide saindu bat erraiten zuena:

Ene Abadearekin buru egitera heltzen naizen aldi guzietan, baztertzen naiz eta ukhurtzen, aldareko sakramendua ene aldetik iragaiten balitz bezala.

Bai-eta askotan Jainkoak mirakulu handiak egin ditu obedientziaren goretzeko. Huna bat.

San Benuaten komentutik beheraxago bazen aintzira edo ur-zipu handi bat, itsasoa iduri.

Saindua bere gelan zelarik, horra non Plazide urketa dohan aintzira horren hegira. Ohar gabeen ausarkiegi ukhurtzen da perrararen bethetzeko eta bere bueltak urari behera aurthikitzen du.

Uhinek laster hegitik urrun eremaiten dute. Akhabo da haur gaixoa, ez bazaio berehala norbait heltzen.

Jainkoak argitzen du San Benuat, irakasten dio zer hersturetan den Plazide bere haur maitea.

Aita on hori gelatik abiatzen da oihuz:

Mauro, Mauro, egizu laster, Plazide ithotzen ari da, uretik athera zazu!

Mauro jauzi batez jausten da San Benuaten benedizionearekin, uren gainean xutik laster egiten du, hartzen du Plazide buruko iletarik eta leihorrerat ekhartzen.

Hegirat heldu deneko ohartzen da nola xutik ibili den uraren gainean. Harritzen da.

Doha kuxian San Benuatengana eta zer gerthatu den erraiten dio.

Ihardesten dio Saindu handiak ez duela harrek deusik egin mirakulu hortan; bere obedientzia zalhuak eman diola uren gainean xutik ibiltzeko indarra.

Eta dizipuluak bere aldetik: ezetz, ezetz, mirakulu guzia aita Benuaten othoitzek egin dutela.

Orduan mintzatu zen Plazide eta erran zioten bieri: uren barnetik atheratzearekin, ikhusten nuen aita Benuaten soina eta iduri zautan harrek ninduela osinetik kanporatzen, obedientzia sainduaren ize-nean.

XI - KAPITULUA

Edozoin urratsetan ala errex ala nekeetan bethi berdin obedi dezagun

Gure izaitez ekharriak gare goxoki eta guriki bizi-tzera. Eta nola asko baitire bertzeak baino ere alfer eta nagiago direnak beren jitez, hek are gehiago asmatzen dute bizi laño eta eztia.

Gutixago ala gehixago, jauspena guzientzat bor-txazko urratsa da beraz. Eta oraino ez naiz hemen mintzo uzkuratunaz beizik.

Badugu bihotzean bertze jaidura gaxto bat, jauz-korra eta bihurria, uztarri guzien etsaia dena.

Zoin othe da jaidura hori? Hori da urgulua.

Urguluak berenaz ez dezake jasan deus manurik, deus estekari! Oro trenkatu eta hautsi nahi ditu. Bor-txaz beizik ez da etortzen obeditzera.

Gurikeria alde batetik, urgulua bertze aldetik, horra bi traba bethi trebeska daudenak.

Hortik ageri da ez gaitezkelera eror buruzagien nahi-ra, baizik ere gure jaidurak garhaituz.

Zuzenez diote bai teologoek obedientzia dela egun orotako martirioa. Bainan zer probetxuak lurrean eta zer sariak zeruan!

Aski dugu so egitea: Phausatu nahi nuke, eta horra non obedientziak lanera manatzen nauen; ene lehenbiziko lo-khuman oro lokhartua nago, eta horra non, gauerdiko irian, izkilak elizara jautsarazten nauen; nik dakitan holako eginbidean zuhurki eta gurbilki jokhatu naiz, ene ustez egin dut egiten ahal zen bezain ongi, eta horra non ene aintzindariak ez derautan onesten: eginak oro desegin-eta, manatzen deraut berriz hastea eta bertzela jokhatzea!

Ez othe dire horiek gaitz eta neke?

Bai hala dire. Bainan hori da zeruko bide egiazkoa, Jesu-Kristok aiphatzen duen bide hertsia. Bide hortaz gare hurbildanik eta zinez jarraikitzen Jesu Kristori.

Berak erraiten derauku bere buruaz: Ez naiz ez zerutik ethorri neure nahiaren egiteko, bainan bai ene Aitak manatu derauzkitan guziak bethetzeko.

Jesu-Kristok egin du bere Aitaren nahia, ez xoilki errex eta goxo zitzaion denboran, bainan gehienik noiz-eta gaitz eta samin baizitzaion.

Hiltzeko bezperan, azken hersturetan oro leher-tua, bere atsekaben erditik oihu egin zuen: Oi ene Aita, ez bedi ene nahia egin, bainan bai zurea.

Urrunago ere joan izan da. Ezen Jesu-Kristok obeditu izan du hiltzeraino. Kurutzeko sarraski ikharagarriak jasan ditu, nahiz eta osoki bethe bere Aitaren nahikunde guziak.

Sainduak hemen emaiten derauzkute irakaspen ederra frango.

San Bernatek dio: Oi zuek, herrauts beizik ez zareten kreatura ezdeusak, ikhas zazue bada aphaltzen eta obeditzen, Jainko handia bera aphaltu denaz geroztik eta gizonen azpiko jarri.

Imitazioeak ere dio: Gauza handia da biziaren iragaitea buruzagi baten eskupean, ukho eginik gure nahiari.

Eta Santa Teresak: Hobe da lasto izpi bat lurretik obedientziaz altxatzea, ezenez martir hiltzea gure hautuz.

Zertako Sainduak daukate obedientzia hoin premia handitan? Zeren bide hortaz baikare gehienik deslotzen mundutik; bide hortaz baikare osoki hiltzen gure buruari; bide hortaz baikare Jainkoari net emaiten, Jesusen baithan galdurik jartzen.

Hortakotz zion San Bernatek: Nola itzek baitzauka-
ten Jesus estekaturik kurutzeari, hala-hala obedien-
tziak gauzka kurutze berari itzaturik. Kurutze horren
gainean pairatzen da bai eta unatzen; ordean kuru-
tzeak ere du bentzutu infernua eta ideki zerua; eta
kurutzeak gaitu Kristorekin bat eginik ezartzen.

Arima khartsuak galdegiten du Imitazionean; Oi
Jesus, noiz bada hain barna sarthuko naiz zure bait-
han, eta sustatuko zure amodioaz, non ere burua
arnegaturik, ez baitut deus zu beizik ezagutuko! Eta
Kristok ihardesten du: Orduan xoilki, noiz ere zure
burua utziko baituzu osoki obedientziaren eskutara;
eta hori urrats guzietan, ala errexetan ala nekeetan.

XII - KAPITULUA

Ala kanpoz ala barnez erori behar garela buruzagien nahirat

Ez da aski kanpoz eta itxuraz obeditzea. Gehien-gehienik bihotzez behar da obeditu. Eta gaitzenik hori da.

Jite bizia duenari erakitzen zaio barnea, baldin zer-bait desgogorako manatzen badiote. Jite biziez bestalde, nork ez daki badirela sordiesago ere direnak? Jende khexu bihurri batzu, nihork ez bezala nahi baitituzte gauza guziak? Bertzek bai eta hek ez, bertzek ez eta hek bai, deusik ez zaiote ados heltzen. Hekientzat behar litezke ikhazkinak xuriz beztu, eta eihera-zainak, beltzez beztu.

Bestalde oraino badire jende minberak, jende gaitzikorrek. Horiek ixil eta maltso daude, ez baditugu kontralde hartzen. Ba bainan ez badituzu pherekatzen ilealdetik, gerla bizia dukezu. Zer-nahi erranen derauzute; eta ixildu ondoan ere, geldituko zaitzu beltzuri ilhun batekin.

Holakeentzat da gaitz eta neke bihotzetik obeditzea. Kanpoztan hobeki agertzen dire, zeren-eta aintzindarien beldurrak eta lagunen irakhas-bidek emaiten baitiote larderia puska bat. Bihotzean dute beren khexua, ez baitute han nihor ikhus dezazkenik.

Zer diot? Ai Jainkoak ikhusten ditu bai! Eta Jainko horrek berak erraiten derauku:

Zuen obedientzia bihotzetik ethor bedi. Xuxen, lañoki, deus itzulika gaxtorik gabe, lehia zaitzte manatu guzien egitera. Eta hori, ez bakharrrik zuen gogora manatzen derautzuetenean, bainan oraino, eta guziz, khexu bizi batek phizten zaitueztenean, zuen barnea erakitza eta jauztera dohanean.

Ez ditugu beraz gure aintzindariak zethabean ibili behar, ikhusteko xuxen ala makhur dohatzinez.

Ez da guri behatzea zer duten balio; heia diren jakitate handi ala ttipikoak; heia zuhurtasun hedatua ala laburra duten.

Huna zer ikhusi behar dugun bakharrrik:

Aintzindarien nahiak Jainkoaren nahiak direla, eta guk abiaduran onetsi behar ditugula.

Barzelonen, orai duela bi mende, hamasei ehun eta lauetan hogoi eta hamarrean, bizi zen aphez sain-

du bat. Izeza zuen Oriol. Ez diteke erran zer gauza espantagarriak egiten zituen.

Jesu-kristoren hitza da: Ene baithan sinesten duenak egiten ditu nik baino ere ikhusgarri handiagoak.

Eriak sendotzen zituen, etsai herratsuenak elgarretara biltzen, aspaldiko bekhatore gogortuenak huntitzen eta phizten; hitz batez, eginkari aiphagarrienak egiten.

Huna zer gerthatu zitzaion aphez saindu horri.

Elizan egiten zituen bere mirakuluak. Eta nola, jende oste handiak biltzen baitziren, bazen usu kalapita puska bat.

Eliza hartako jaun erretora arranguratu zitzaion: sobra arrabots zabilala bere mirakuluekin, ez zaitekeela gehiago, ez mezarik erran, ez kofesiorik entzun, ez othoitzik egin.

Eta debekatu zion deus mirakulurik egitea.

Oriol, aphez saindua zen, bainan buru española. Barnetik bihurtura gaxto bat erakitzen hasi zitzaion. Gogoak erraiten zion: erretor hura gaizki ari zela, ez zezakela harrek deus trabarik eman Jainkoaren bothereari.

Bainan hori etsaiaren tentazionea zen. Oriolek zaphatu zuen gogorki, eta demendren hitzik erran

gabe obeditu zuen. Ez zuen mirakulurik egin handik goiti.

Eriak eta jende behartuak heldu zitzaizkon multzoka, bainan alferretan; oro hala-hala gibelerat igortzen zituen.

Jainkoak ordean saristatu zuen laster obedientzia eder hori.

Erretor khexua, zerbait behaztopaz erori zen eta zango bat hautsi zuen.

Ai orduan berehala galdegiten du Oriol saindua, othoi ethor dakion eta senda dezan. Saindua agertu deneko, erraiten dio:

Behar gabe debekatu dauzut mirakulurik egitea; Jainkoak berak gaztigatzen nu; egin zaitzu egin aintzina mirakuluak, eta niganik abia zaite, senda nezaza!

Deus arrangurarik egin gabe, Aphez sainduak galdegin zion Jainkoari erretoraren sendotzea. Eta ordu berean sendotu zuen.

Kapitutu hau Imitazionearen hitz eder hotaz hetsi nahi dut.

«Obedientziatik aldaratzen dena, hasantzen da graziatik. Bere aintzindariak, gogotik eta bihotz onez obeditzen ez dituenak, irakusten du ez duela haragia

ongi hezia; bainan muthiria eta maiz izpirituaren kontra altxatzen dena.

»Ikhas zazu beraz berehala obeditzen zure gidarriari, baldin nahi baduzu zure haragiak obedi zaitzan. Kanpoko etsaia laster da garhaitua, barneko gerla iraungitu denean. Ez duzu zure arimaren etsai handia-gorik eta gaxtoagorik zeroni baino, baldin, zure izpirituarekin bakean ez bazare. Behar duzu zure burua zin-zinez mesprezatu, nahi baduzu zure haragia eta zure odola osoki garhaitu. Herabe duzu berzeren borondateari osoki arrimatzea; zeren sobra maite baituzu oraino zure burua.

»Zer da miresteko, zuk, Jainkoagatik obeditzea gizon bati, ez zarenaz geroztik herrauts eta ezdeus baizen? Ni, zure Jainkoa, egin naiz bada zuregatik gizonen obedient, naizelarik guziz gora eta guziz podorosa.

»Guzietako humilen eta azken egin naiz, ene humiltasuna balia dakizuntzat zure urguluaren garhaitzeko. Herrautsa, ikas zazu beraz obeditzen; lurra, humilia zaite; ongarria, utz zazu zure burua ostikatzera. Ikhaszazu zure nahi guziei ukho egiten, eta obedientzia guzietarat arrimatzen.»

Hortik ageri da Jainkoaren zerbitzari leialak, nola dakien gauza guzietan bere buruari ukho egiten eta bere pasionen garhaitzen. Bainan beha zazu nolakoa izanen den nekhe horien ondorioa, zoin guti iraunen duten, eta zoin sari handia darraioten; eta ez zaituzte lotsatuko, aitzitik hazkartuko eta alegeratuko. Ezen, zure nahieri zeren zerbait bortxa hemen egin diozuten, zure nahi guziak betheko dire zeruan.

XIII - KAPITULUA

**Nola hirur botu horien bidez,
jarraik diteken Jesus kurutzefikatuari.-
Hortan dela komentuetako
probetxu handienetarik bat**

San Jeromek erraiten du:

Martirioa ez dago baxharrik odolaren ixurtzean; ezen martirioa da oraino komentuan bizitzea hirur botueri jarraikiz.

Izkribatzaile jakintsun batek ere dio:

Odolaren ixurtzea, gure biziaren emaita, Jainkoari bihur diteken amodiozko eginkari handiena da; bizkitartean, ez da gutiago egia, komentuko bizi-moldeak ere hein bereko merezimenduak dituela; bai eta gorago altxa ditekela, eta huna zer bidez:

Komentuko bizi-moldeak nahi baititu egun guzietako sakrifizioak; eta odolezko martirioak ez baitu galdegiten, denbora labur baten indar eta bihotza beizik.

Ikhus dezagun: 1° Eliza katolikoan izan dela bethi lehia handi bat Jesusen kurutze eta atsekabeentzat;

2° Komentuetan dela gehienik agertzen Jesus kurutzefikatuaren alderako amodio hori.

Eliza katolikoak lehia handi bat agertu izan du bethi Jesusen kurutze eta atsekabeentzat.

Ortzairaille sainduz, Jesusek bere eskuez hartu zuen kurutzea eta bere sorbaldetara altxatu. Hortakotz erraiten du San Thomas Balenziako arxaphezpikuak: Jesus bera bozkarioz lothu zen kurutzeari, beha egon gabe soldadoek eman zezoten.

Berzela ere, aspaldian errana zioten Apostolueri: Odolezko ibaia batean behar naiz sarthu, eta arte huntan, ai zer lehia eta hersturetan nagon!

Eta hitz horiek xehatzearekin, huna zer dion Aita Korneliok:

Lehiarik borthitzenaz oro errea zagon Jesus, nahiz eta kurutzearen ganean bere odola eskeini. Jainkoaren loriarentzat eta gizonen salbamenduarentzat.

Geroztik, lehia beraz sustatuak izan dire hainitz eta hainitz arima. Apostoluak lehenik; eta gero Jesu-Kristori zinez jarraiki diren girixtino bihotzdun gehienak.

Jerusalemeko aintzindariak azotatu zituztenean, Apostoluak bozkariatu ziren. Eta zertako ziren bozkariatu? Izan zutelakotz Jesusentzat pairatzeko zoriona?

Jondoni Paulok, bere oinaze eta hanbat nahigaben artetik, erraiten zuen:

Ez nagoke gozoz, gaindi egiten deraut nere bozkarioak; eta zertako? oi! huna: Hainitz atsekabek zafrazten baineraute, eta bide hortaz Jesus maiteari jarraitzen bainaiz.

Eta bertze aldi batez, oro sutan jarria, amodioz oro xoratua, oihu egiten zuen: Oi Jesus, ez dut deus nahi zure kurutzea beizik; ukho egiten diotet munduko ospe eta atsegina guziera, egoiteko zurekin itzaturik kurutzearen gainean.

San Andres apostolua, bere martirioko kurutzea ikhusi bezain laster, bozkariotan sarthu zen. Ez zauken atseginez. Errepikatzen zioskan kurutzeari amodiozko hitz amultsuenak. Erraiten zion:

Oi nere kurutze maitea, aspaldian gutiziatua, eta orai bederen gozaten ahal zaitudana, heldu nauzu bozkarioz; bai, bai, bozkarioz, ezen Jesusekin kurutze-fikaturik hiltzera noha!

Jondoni Laurendik ihardesten zion bere hiltzaileari, Baleriano enperadoreari:

Zure borthitzkeria guziek ez naute demendrenik izitzen. Jo nezazu, xeha nezazu. Hots, erna, eta laster entsega. Gutxi naiz khexu, ala zure burdin zorrotzez, ala zure basaberen hortz-ausikiez, ala zure edozoin hil-indarrez. Horiek oro ezti zaizkit, ezen sutan nago nahiz-eta bihurtu nere amodioa Jesusen amodioari, nere oinazeak Jesusen oinazeri, nere heriotzea Jesusen heriotzeari.

Jondoni Bixintxok ere erraiten zioten bere hiltzaile-ri:

Ai zuek zaretela herbailak eta ez-deusak! Uste nuen ni baino hazkarrago zinetela. Bainan ez. Zuen borthizkeriak oro garhaitzen ditut errexki ene Jesusen amodioaz. Eta Jesusentzat, oi nahi nuke jasan, zuek asma dezakezuen baino miletan gehiago.

Neskatxa gazte batek, Santa Agatak, desafioka ihardesten zion bere jujeari.

Huna zer erraiten zion: Ba, egizu ahal duzun guzia, ene gorputza zeha zazu, bai-eta itsasoari behera aurthik zazu; hola nerauzu atsegin handienetan emanen, zeren-eta hanbatenez bainu Jesusek zeruan saristatuko.

Santa Teresak halako khar handia zuen jasaiteko oinazeak eta nahigabeak Jesus kurutzefikatuarekin,

non erraiten ohi baitzuen ez zuela balio bizitzea ez pairatzekotz.

Urrunago zohan oraino Santa Madalena Paziakoa. Nahi zuken sekulan ez hil, eta bethi pairatu.

Horra nola Eliza katolikoan, izan den bethi lehia handi bat, sartzeko phartedun Jesus kurutzefikaturen oinazetan.

Orai diot, komentuetan agertzen dela ardurenik eta gehienik lehia eder hori.

XIV - KAPITULUA

Komentuak dire hobekienik jarraikitzen Jesus kurutzefikatuari

Komentuko bizia, kurutzeko bizia. Pobreziak, Birjinitateak eta obedientziak, hedatzen dute kurutzearen gainean komentuar dohatsua. Ez xoilki hedatzen, baina oraino itzaturik emaiten. Ezen hirur botuak hirur itze dire: komentuarra itzaturik ezartzen dute Jesu-Kristorekin.

Eta baldin bertze girixtinoek, noiz edo noiz egiten badituzte sakrifizioak, erran diteke komentuarrek egiten dituztela egun guzietan, bai-eta egunetan frango aldiz. Noiz-nahi, goiz arrats, borxatzen dute beren burua jarraikitzeke hirur botueri.

Nolaz bada? Zeren-eta hirur botuek zapatzen baituzte gizonaren jaidurak. Oren guzietako borroka da. Botuak Jainkoaren eta arimaren alde: jaidura gaxtoak debruaren eta gorphutzaren alde hortik bethi gudua, hortik asko min eta zauri.

Bai hola da. Komentuan, hirur botuek dute gizona itzaturik atxikitzen kurutzearen gainean. Eta berriz

ere, zer bidez? Ai! ez lausengatuz ez; ez pherekatuz ez. Bainan, gu-baithako jaidurak bortxatuz, ukhaldika zafratuz, bentzutuz eta garhaituz.

Hortakotz, komentuar khartsuak erraiten ahal du, Apostoluak ziona: Kristorekin josia naiz kurutzeari.

Egia hori Jainkoak berak irakatsi zion San Frantses Asiesekoari. Eta huna zer bidez.

Ordukotz saindu hori, hogoi eta hirur urthetarat heldua zen, eta oraino munduan zagon.

Bainan azkenekotz Jainkoak argitu zuen; irakatsi zion ez zaitekela hola bizi; mundua harrentzat desherri zela; bertzelako bizitze batean behar zela sarthu.

Gau batez lotarik amets egin zuen. Ikhusi zuen jauregi bat, eta jauregi hartan asko harma eta gerlako tresna. Harma baxhotxak bazuen kurutze distirant eder bat. Iduri zitzaion gure Sainduari, kurutze bezenbat iguzki bazirela jauregian. Eta oiuhu egin zuen:

Oi Jauna, norentzat othe dire harma kurustatu eder horiek?

Hiretzat dituk eta hirekin bilduko diren gudularientzat.

Zer nahi duzu bada nik egin dezadan, Jauna? Norat joanen naiz gudukatzerara?

Huna zer dutan nahi: utz dezakan mundua, egin hirur botuak, eta hekien bidez ibil debruaren kontra gudu hazkarrak, eta eman hire burua holaxet itzaturik eta sakrifikaturik ene kurutzearen gainean. Ikhusten dukan jauregi hori duk komentua, ene arima hautatuen egoitza dohatsua; harma horiek dituk komentuko hirur botuak, Pobrezia, Garbitasuna, eta Obedientzia; eta kurutze distirant horiek dituk komentuan egiten diren mortifikazione eta bortxamen khartsuak.

Jesu-Kristok bi sakrifizio eskeini ziozkan bere Aitari. Lehenik eskeini zion bere gorphutzaren eta bere odolaren sakrifizioa, ortziraile sainduz, kalbarioko mendian. Bigarrenekorik eskeini zion bere bihotzaren eta bere arima guziaren sakrifizioa, jasanez zer-nahi laido, zernahi herstura eta atsekabe.

Bi sakrifizio horiek oraino erreberitzen ditu Jesu-Kristok. Eta menderen mende erreberituren ditu. Huna nola. Bere gorphutzaren eta odolaren sakrifizioa erreberitzen du gure aldaretan, meza sainduan. Bere bihotzaren eta arimaren sakrifizioa erreberitzen du, girixtino khartsuen mortifikazionetan.

Apostoluek, martirek, bertze asko Jainkotiar suharrak, zonbat eta zonbat oinaze ez dituzte jasan! Eta

zertako jasan dituzte? Jarraikitzeke Jesu-Kristori, harren atsekabetan phartedun jartzeko, harren hesturak eta sakrifizioak imitatzeko, harrek bezala egiteko. Hola zuten Jesu-Kristoren kurutzeko sakrifizioa erreberitzen eta kontinatzen.

Bainan Jesu-Kristori ez zaio hori aski iduritu. Berhexten ditu mundutik arima hautatuak eta komentuetarat biltzen.

Han derauzka, kalbario gainean bezala, bere kurutzeari josirik. Botuen bidez eta erreglamenduen bidez, eginarazten diozkote hanbat eta hanbat inmolazione. Eta hori egun guzietan. Halako moldez non erran baititeke, Jesu-Kristok mendetik mendera kontinatzen dituela kalbarioko bere oinazeak, bai aldare-gainetan mezako sakrifizioaz, bai komentuetan arima kontsekratuen sakrifizioaz.

Arima bihotzdunak, girixtino egiazki handiak, Jesusekin pairatzeko lehiaz dire mundutik urruntzen eta komentuetarat ihesi juaiten. Jarraikiz Pobreziari, jarraikiz Garbitasunari, jarraikiz Obedientziari, berek dute Jesusekin kurutzefikatzen beren burua. Eta hori Amodioz eta beren hautuz. Hek diote Jesusi:

Ikhusiz zure burua

Arantzez bethea,
Niholere ez dut nahi
Lore-pean neurea.

Kurutzea dakharkezu
Zure bihotz garbian;
Nik ere dut ekharriren
Neurearen erdian.

Izanen naiz kolpatua,
Jesus zutaz baxharrik;
Ez beza ene bihotzak
Senti bertze kolperik.

Kurutzean tut orai
Ene atseginak
Jaunak hartuz geroztik
Han nigatik penak.

Oi! dohatsu holako arimak! Hekieri ditu Jainkoak
hedatzen bere dohain eta sari aberatsenak, ala bizi
huntan ala zeruan.

Jesu-Kristoren imitazioneak dio:

Zoaz norat-nahi, bazter guzietarat ibil eta entsega zaite; ez duzu nihon kausituko bide hain segurrik, nola baita kurutzebidea.

Eta noiz-ere kurutzea ezti eta gozo idurituren baitzauzu, a! orduan dohatsu izanen zare, ezen ez zaio Jainkoari deus hain ongi heltzen, eta bat bederari deus hala probetxatzen, nola Jesusentzat amodioz pairatzea.

Bide segur hori dute komentuarrek hautatu; kurutze-pean dire amodioz jarri. Hek dute oraidanik gozatzan egiazko bakea, eta geroxago ardietsiren sari handiena.

Ezen errana da: Hiltzen bagare Jesusekin, Jesusekin ere phiztuko gare; eta harrekilako oinazek emanen deraukute zeruan harrekilako ospea eta zoriona.

XV - KAPITULUA

Jesus kurutzefikaturi jarraikitzen dire komentuak, etsaien aldetik dituzten nahigabez

Komentuarrak phartedun sartzen dire Jesu-Kristoren kurutzean, ez xoilki komentuko bizitze mortifikatuaz, baina oraino beren etsaien aldetik jasaiteko dituzten atsekabez.

Berzela ere, hori da Eliza katoliko guziaren bizia; bethi etsai bat edo bertze nonbaitik jazartzen zaio; mende guzietan martirak izan ditu, eta odola dariola, oro sarraskiturik, doha lurretik zerurat, hala-nola Jesus joan baitzen ortziraile saindutik Phazkorat. Eta nola etsaiak bihotzean jo nahi baitu bere etsaia, berdin ifernuak ere Eliza joiten du bihotzean, erran nahi baita komentuetan.

Egia da denbora onak ere badirela komentuentzat; ez ordean luzerik. Egun eder bat hasten denean, guk uste bai iraunen duela bethi, baina ondikotz laster heldu hedoiak eta galernak!

Orai duela hogoi bat urthe, nork asmatuko zuen komentuek izanen zutela, izan duten bezalako zorigaitzik? Eta guziek badakigu zer izigarrikeriak gerthatu diren geroztik eta oraino ere zer nahigabeak jasaiten dituzten komentuek.

Alemaniatik komentuar guziak kasatuak izan dire; berdin Italiatik eta Frantziatik. Egia da bai bakhanazka ibiltzerat uzten dituztela, bainan ez dire elgarrenganat biltzen ahal, eta hortik ezin bizi ditezke beren komentuetan.

Iduri luke Jainkoak ez lukela holako nahigaberik igorri behar bere adiskideri, eta guziz adiskiderik mineneri. Jainkoak ordean ez du gure begiez ikhusten. Guk behatzen dugu xoilki oraiko atsekabeari, eta damustatzen gare, samintzen gare. Jainkoak berzelako gogoak ditu. Badaki bethiereko atseginak irabazten ditugula gure nakigaben bidez. Hortakotz borthizki jaiten ditu lehenik bere Sainduak eta gero handizki sarizatzen: lurrean kurutzea dorpheago, zeruan khoroa ederrago.

Bainan, egia bada Jainkoak zombait aldiz uzten dituela gaxtaginak kalte frangoren egitera, ez da gutiago egia gaztigitzen ere dituela.

Gerthakari huntarik ageriko da.

San Benuatek hamabi komenta altxatu zituen Zubiaka mendian, eta guziak ederki zohatzen. Hainitz bokazione; erregelari jarraitasun khartsua; janari eta edari arrunta; ixiltasun hertsia eta bertze garratasun frango; hitz batez, bizitze miresgarri bat zabilaten. Komentu saindu horien omena jadanik hedatua zen Erroman gaindi eta Italia guzian.

Bainan nola diteke holako ongia trabarik gabe? Hantik edo hementik, debruak bere ostikoa eman behar du Jainkoaren lanari. Eta bethi badire jende khexu, jende bekhaizti, jende atrebitu asko, ez baitute berzerik nahi baizik ere bazterrak nahastea eta makhurtzea. Jende mota horiek debruaren egiazko langileak dire. Gaxtakeriako bethi suhar eta kopetadun, ez dute Jainkoaren ez infernuaren beldurrik. Ongi egile guzien puxulu eta traba dira.

Beren hutsak utzirik,
Khexu bertzenez,
Mihia xorrotxirik
Daude auhenez
Heien obenez;
Nihor ez da garbirik
Hoierranez

Kanpoz ez barnez;
Zonbat hoik ausikirik
Dagozin minez!

Hemen Jaun gaxto batek egin behar zuen debrua-
ren lana. Jaun horrek Florenzio zuen izena, eta zagon
egoitzaz auzo herri batean. Ez zezaken jasan komen-
turik, are gutiago komentu egilerik. Ai! Judas horrek
merke salduko zituela San Benuat eta harren dizipu-
luak, bai-eta, ederki pagatuz hantxe harat guziak igo-
rriko!

San Benuaten aldetik oro dorpe zitzaizkon, eta
hura galdu beharrez, ez zuen sosegurik. Ala gezurrez,
ala zer-nahi ahopaldi zarrez, ala egitate borthitzenez,
ahal zituen bide makhur guziez, San Benuaten larru-
tzerat eta galtzerat ari zen.

Norbait heldu zena bai San Benuaten eta hamabi
komentuen ikhustera; harrek larderiaturko zuen eta
gibelaraziko. Zerbait emaitza, zerbait laguntza nahi
ziotena egin; harrek hoztuko zituen erasiaka, baizik-
eta Benuatek eta harren komentuek ez zutela deusen
beharrik, hobe zutela segur berentzat atxikitzea eze-
nez hekieri emaita.

Gaxtakeria horiek ez zioten kalte handirik egiten San Benuati eta haren komentueri. Bai bokazioneak, bai jenden amodioa emendatuz zohatzen. Beilarat bezala heldu ziren herri osoak San Benuaten mintzatzera eta komentuen ikhustera.

Hortik are gehiago phizten eta errabiatzen ari zen Florenzio. Azkenean, hainbertzetaraino itsutu eta sorhaitu zen, non ogi phozoindatu bat igorri baitzion San Benuati.

Ba othe diteke zarkeria beltzagorik? Ezen, amodioaren agergailua, amodioaren ezagutkaria zer da jenden artean? Hura da elgarri emaitzak egitea, estekamenduzko irakaspenak igortzea. Eta horra non jaun gaxto horrek ongia gaizkirat itzultzen duen. Adixki-dantzaren itxuraz beztitzen da San Benuaten hobeki galtzeko. Hilarazteko zelata hedatzen dion denboran, heldu zaio, Judas iduri, agur egitera, musu emaitera, jatekoaren eskeintzera. Kanpoz on eta barnez gaxto, kanpoz aingeru eta barnez debru, ez daiteke holako jendea bezain hastiagarri!

San Benuatek esker onekin hartu zuen ogi phozoindatua. Eta ez balu Jainkoak argitu, janen zuen. Bainan Jainko maiteak ezagutarazi zion phozoindatua zela ogi hori, eta ez zuen hunkitu.

Huna zer egin zuen ogi hortaz.

Jateko tenorean, bele bat heldu zitzaion bethi oihanetik, eta San Benuatek bere eskuz emaiten zion jatera. Egun hartan ere ethorri zen. Sainduak aurthiki zion Florenzioren ogi phozoindatua, erranez: Jesu-Kristoren izenean har zak ogi hori eta eremak hemendik urrun, nihor helduko ahal ez den toki bazter batetarat.

Belea abiatzen da inguruka, hegalak eta mokoak zabal-zabala idekirik, lothu nahi eta ezin loth.

Orduan berriz erre San Benuatek: har zak ogi hori eta habil urrun aurthikitzen. Eta belea berdin khexu, ezin lothuz.

Azkenean ausartatzen da; mokoz eta haztaparrez hartzen du, eta bortuari gora eremaiten. Bere lana eginik itzultzen da hirur orenen buruan: Eta nola ez baitzuen izan oraino usaiako janaria, Benuatek aseztera emaiten dio.

Egitate zar hortaz baino gehiago San Benuat orhoitu zen Florenzioren arimaz. Othoitz eta nigar egin zuen; errekeritu zuen Jainko ona, hunki zezan Jaun hori eta onerat alda zezan.

Florenzio ez zen kanbiatu; are gehiago sumindu eta borthiztu zen.

Bai, sumindu eta borthiztu, eta orai jazarriko da, ez gorphutzeko biziari, bainan arimen biziari. Eta baldin alferretan jo badu komentuko aita eta buruzagia, hanbatenaz bihurturen zaiote dizipulueri, hanbatenaz da hekien baitan mendekatuko.

Eta huna zer moldegaitzkeriaren bidez.

Zazpi neskatxa gazte igortzen ditu San Benuaten komentuko baratzeran. Eta han neskatxa sorhaio atrebitu horiek zernahi itsuskeria ibiltzen dute, galdu nahiz fraide gazteak. Bainan hok ez diote behatzen ere.

San Benuatek bakharririk ikhusten ditu. Ai bihotz guzia goibeltzen zaio, ezen izigarrikeria hortarik ageri da Florenziok ez duela gehiago onerat itzultzeko deus molderik.

Beldurtzen ere da, bera denez othe Jaun gaxto horren gal-bide; eta gogora heldu zaio, hobeki eginen duela menturaz bertze norapait joatea. Dudan eta dilindan dago zombait egunez. Ai ez zaio errex bere haur maitetarik urruntzea! Badaki ordean ez dela sakrifizio sobraniorik arima baten salbatzeko; eta hortakotz Zubiakotik atheratzeko xedea hartzen du.

Komentu baxhotxari buruzagi bat emaiten dio; San Mauro ezartzen du guzien aintzindari; eta zorbait dizipulu berekin harturik, herriz aldaratzen da.

San Benuat ihesi joan delako berria jakiten du laster Florenziok. Ez dauke orduan bozkarioz, xoratzen da. Oi zer balentriak eta irriak, nola trufatzen den gure Sainduaz! Erasiaka dago, nausitu dela bai azkenean, ez duela gehiago bere etsaia begien bixtan ikhusiko.

Bainan Jainkoak ez dio uzten espantu egiteko denbora luzerik. Balentriaka ari dela irri karkailaz, atheratzen da Florenzio etxe aintzineko galeriara. Han dea bai, galeria murrutik deslotzen da eta lurrerat erortzen! Gorphutz guzia xehatzen zaio espantu egileari; hats baten arterik gabe xahutua da!

Florenzioren hil berria jakin dueneko, San Maurok laster egiten du San Benuaten ondotik. Lau orenen bidean hatzemaiten du eta erraiten dio: Ene aita, othoi Zubiakorat itzul zaite, ezen hil da zure etsaia.

San Benuatek larderiitzen du, heia bada hola mintzatu behar den? heia bozkaria diteken etsai baten heriotzeaz? Eta gero nigar egiten du, ikhustearekin zoin ikharagarri den Jaun horren heriotzea, nolako ondorio garratzak dituzken Jainkoaren aintzinean, zer

eternitate dorphea jazan beharko duen Florenziok iduri guzien arabera.

Nork ez du hor ikhusten Jainkoaren justizia?

Borthitza da bai ukhaldi hori, bainan, ez othe da zuzena? Gu baithako gogoak berak ez deraukuia erraiten gaizkiari zor zaiola gaztigua? Non ere ikhusten baitugu zarkeria, han ikhusi nahi dugu zigor-kolpea, eta baldin gaxtagin bat edo bertze agertzen bada dohatsu, gure barnea arranguraten da, zerbaitek erraiten derauku ez dela hori zuzen, gaxtagin horrek noizbait jasanen duela zor zaion gaztigua, eta Jainkoak goiz edo berant joko duela.

Egia da bai, askotan ikhusten ditugula gaxtaginak dohatsu, ontasunez oro gizenduak, ohorez hanpatuak eta goretsiak gorphutzeko guritasun eta lizunkeriez aseak, atsegin guzietan igerika galduak. Ba bainan ez baita hortan akhabo! Makhur horiek beharko baitire xuxendu! Jainkoak segur emanen baitio gaxtaginari zor zaion gaztigua!

Eta noiz igorriko dio Jainkoak gaxtaginari bere gaztigu hori! Askotan mundu huntarik beretik. Huna zer dioten liburu sainduak:

Atzo gaxtagina

Ikhusi dut igana
Zedro berez gorago,
Hurren hedoietaraino;
Ordean iragan
 Naizeneko,
Nihor ez zen han
 Gehiago;
Izan zen ere
Ez zen seinale batere.

Bainan hau da ikharagarri, Jainkoak askotan ez baitu oraidanik gaxtagina joiten, bainan hil-ondoan. Oraidanik gaztigatua denak badu konbertitzeko denbora eta bidea, ezen zigor-kolpe hortan berean ihatzar eta xuti diteke. Bainan hilez geroztik akhabo da. Bekhatuan hil denarentzat ez da eternitatea beizik, behiereko gaztigu guziekin,

Jinen da makhur hoi
Xuxentzaile gaitza:
Hark du lanho beltzaren
Leizetako giltza:
Jadanik maiz airean
Ximistak dabilta,

Ihurtzuria ere
Laster daite mintza.

XVI - KAPITULUA

Komentuetako bizi kurutzefikatu hortarik probetxu frango gu-guzientzat

Bizitze kurutzefikatu hortan, komentuarrek aurkhitzen dute, ez xoilki beren probetxua, baina oraino bertzeri ere ongi handiak egiteko grazia.

Jesu-Kristok erran zuen:

Eta nik, kurutxerat iraganen naizenean, oro bilduren ditut enegana. Eta nola komentuarrek kurutzerat iraganik baitaude beren bizi-molde sailduaz, ahal handiak badituzte arimen salbatzeko.

Ezinbertzea da: Nork ere nahi baititu obra handiak egin arimentzat eta Jainkoarentzat, harrek ikas dezala atsekabearen jasaiten.

Gure alhorretan, gure landetan, ogi bihiak ez dezake uztarik ekhar baldin ez bada lehenik usteltzen eta lurpean hiltzen. Noiz-ere aski denboraz egon baita ehortzirik, orduan sortzen da, orduan lur-axala zilhatzen du eta agertzen iguzkirat. Eta laster hazi bakhar hortarik jinen dire ehunka bihi berriak. Jesus beraren errana da.

Bainan Jesus ez zen mintzo bakharrik ogi landez.
Bertzerik bazuen gogoan.

Eliza katolikoa da Jainkoaren egiazko ogi-alhorra.
Elizako bere landa hortan, Jainkoak mendez mende
ereiten ditu arimak, hala-nola laboriak ogi-hazia bere
bazterretan.

Arima hek ez badire mortifikazioneaz lur-pera
jausten, ez badire kurutzetan eta nahigabetan bera-
tzen, uztertzen eta hiltzen, ai hetarik deus guti athe-
rako da. Belharra edo hiraka bai; ez ordean ogi-uzta
ederrik.

Bainan girixtino bihotzdun hazkar batek, nola bai-
tire komentuarra, besarka dezala zinez kurutzea,
jasan detzala amodioz bere oinazeak, o! harrek salba-
tuko ditu herri osoak, zer-nahi obra handi egingen ditu;
harrek uzta ederrak eta aberatzak emanen ditu Jain-
koarentzat eta arimentzat.

Komentuan egun guzietako ohidura da mortifika-
tzea, Jainkoarentzat asko sakrifizioen egitea. Hortik
komentuar arima sutan dago bethi; atsekabek ez dute
izitzen; ordoki zaizko bide patar gaxtoenak; errexki
eta beroki doha lan eta obra handienetarat. Eta Jesu-
sekin dagoelakotz hola kurutze-gainean iraganik eta
itzaturik, nasaiki eta ausarki biltzen ditu arimak, altxa-

tzen ditu bekhatutik berthuterat eta lurretik zerurat. Goraxago aipatu dutan Jesusen hitz bera da: Eta nik, lurretik kurutzera goratua izanen naizenean, oro bilduren ditut eneganat.

Bai, kurutzea, bere buruaren sakrifikatzea Jainko-arentzat eta arimentzat, horra zer manatzen dion Komentuarrari bere bokazioeak.

Ez da beraz espantitzeko, baldin oraiko denboretan ere, komentuarrak badire gehienik hedatzen Misionest bezala, munduko toki salbaienetan. Ordena guzietarik badire. Huna azken urtheko khonduak edo andanak: mila kaputxin, Indietan eta Indi-itsasoko isletan; bi mila eta bortz ehun Franzizkano, Maroken, Xinan, eta Ameriketako; hirur ehun Oblate, Jaffnan, Natalen eta Zeilanen; hamabortz ehun Jesuista, Guyane Anglesean, Armenian eta Madagazkarren; berrehun Lazarista, Persan, Abizinian eta Kian-Sin; bortz ehun Dominikano, Filipinean eta Tonkine barnean; Eta bertze asko, bertze hainitz, zer-nahi bazterretan: ezin konda ditezke.

Eskualdun batek zion berriki: «Deusek ere ez ditu lotsatzen. Jesu-Kristoren soldado miragarri horiek, ez akhidurek, ez zer-nahi gisetako pribazioek, ez martirioak. Zenbat eder den, mendiz mendi, desertuz

desertu, gauzez gau, biderik gabe; bide guziak on baitire arimatarat heltzeko; - zenbat eder zautan misio-nest gaztea, Afrikan edo Auztralian, Tonkinen edo Xinan!

»Bazuen bihotz harenbeste non, ezagutzen ez zituen jendeak, maite baitzituen harren urrun, eta heietarat, heien salbatzeagatik, laster egin baitu.

»Gazte zen, ezik gazte eta hazkar izan behar da, hola abiatzeko; bazuen jakitate, holako bihotzari Jainkoak eman du bethi zor zaion izpiritua.

»Bihotz handi horrekin sekulakotz adio erran du bere Aita eta Amari.

»Gaztetasun horrek, bere sor lekhuari, agertzen ahal zakon bide luze eta ederra utzi du.

»Bere izpirituak hitzemaiten zazkon kargu gorak; mezprezatu ditu, eta zertako? Salbai zenbaiten salbatzeko, hekier lehenik Jainkoaz mintzatzeko, gero Frantziar, eta gero?... Gero dudarik gabe zerbait ohore ukanen du? Kurutzea? obra handi egiler emaiten dutena?... Bai kurutzea, bainan kurutzea, Salbai etsaiek landatua, zoinaren gainean estekatuko baitute, zurezko lantza batez erdiratzeko.» (*Eskualdun Almanaka 1885*)

Bestalde badire zazpi ehun aphez, Pariseko misio-
nesten seminariotik, Malesian, Korean, Tonkinen.

Orotara beraz sei mila eta zazpi ehun misionest
aurkhitzen dire jendaia pagano basen artean. Gaizki
diot erranez *orotara*, ezen bertze frango badire
komentuar misionestak, herri salbaitan hedatuak.
Luzegi liteke nonbre guzien emaita, eta aski badut
erranik irakasteko, nola beren bizi-moldeak akhula-
tzen eta sustatzen dituen komentuararak lan handiene-
tara eta obra ederrenetara.

IV - ZATHIA

**Bat-bederak komentuan
goza dezazken probetxuak**

I - KAPITULUA

Komentuan saindukiago bizitzen da

Munduko gaitzbidetarik urrun, arimak traba guti du komentuan.

Eta gero, zer laguntzak!

Ala othoitzetan, ala sakramenduetan, ala aintzindarien argietan, ala lagunen irakaspén onetan, ala erregela sainduan, baditu arimak zer-nahi goragailu, zer-nahi ernaratzaile.

Jainkoarengat oro atzarria eta lehiatua dago. Ezin lokhar diteke nagikerian edo epheltasunean, are gutiago bekhatuan.

Bethi akhulatua detakotz, badoha bethi aintzintuz, bethi goratuz.

Erran dut arima komentuarrak badituela laguntza bereziak aintzindarien aldetik. Eta zinez hola da.

Buruzagi batek guzieren behatzen diote; akhulatzen ditu nagiak, gaztigatzen ditu obendunak; oro atzartasunekin zaintzen ditu eta bide onari jarraikarazten.

Munduan zonbat arima, aintzinate nahiak Jainkoaren bidetan, eta gibela daudenak ez izanez laguntza funtsezkorik! Hotsemaile zaintsu eta erne baten eska-sean, batzu osoki galtzen dire, berzeak epheltzen eta laxatzen dire, bai-eta hoberenak uzkuratzen.

Errafael aingeruak Tobias gazteari egin zion beza-la, buruzagiak ere komentuan bide xuxena irakasten diote bere menekoeri.

Sainduen bizian ikhusten dugu, Jainkoak argi bere-ziak emaiten dituela komentuetako buruzagieri; bai-eta askotan mirakuluzko argiak.

Eta zertako? Nahi baitu buruzagiek ahalik eta hobeki bida detzaten beren meneko guziak.

Huna nola Jainkoak argitu zuen San Benuat bere komentuko fraide baten gainean.

Saindu hori, arrastiri batez, afariten ari zen, eta fraide batek atxikitzen zion argia.

Bere sortzez fraide hori aitoronseme zen. Eta biz-kitartean ixil-ixila, argia eskuan, sehi bat iduri xutik zagon.

Horiek hola, hanpadura zoro batek nahasten dio burua gure fraide aitoronsemeari.

Debrua barnetik kitzikan ari zaio: Bainan hi, aitoronseme aberatsa, nolaz hago ziri bat bezala landaturik, gizon erromes horren aintzinean? Zer! hi xutik eta hori jarria! hi argi bat esku-puntan eta hori mahian guriki!

Eskualdunak dio: Erhoaren sinestea, zuhur ustea.

Fraide gaizoak ere uste du zorokeria horiek oro zuhurtziak dituela; urguluz hanturik dago.

Kanpotik ez du ez holakorik ageri; geldi-geldia dago, argia eskuan. Bainan izpiritua alhatzen du, khexu du barnea, debrua nausitzen ari zaio.

Tinka gaxto hortan San Benuat heltzen da fraideari, erraiten dio bizi-bizia:

Egizu bada kurutzearen seinalea; debru burlariak zabilta gogoeta ergel horietan; hots beraz egin laster kurutzearen seinalea!

San Benuatek gero jinarazten du bertze fraide bat, atxikarazten dio mahaiko argia, eta oherat igortzen du aitoronseme hori.

Orai duela dotzena bat urthe bi eskualdun gazte joan ziren, bat pagano herrietarat misionest, eta bertzea komentu batetarat Dominikano.

Itsasoa hartzearekin, misionestak izkribatu zion Dominikanoari:

Baderamat nerekin bihotzmin handi bat; eta hura da, uzten baititut Frantziako lurrian hainbertze komentu, eta komentu horietan bide segurrez eginen bainuen ene salbamendua. O! maite dut bai ene bokazionea; ezin egona lothua dut heldu beharrez lehenbait-lehen ene pagano gaixoetarat. Bainan ez da gutiago egia, bihotz guzia bozten zautala komentuez orhoitzearekin. Othoi nitaz urrikal zaite, ezen asko kalapita ibiliko ditut ene paganoekin, zu jarria zaude-larik komentuko geriza segurrean. (*Errekart misionestak aita Madreri izkribatua*)

II - KAPITULUA

Zer aita onak diren komentuetako buruzagiak

Azken kapitulan zerbait jadanik aipatu izan dut buruzagiez. Bigarren kapitulu huntan ere hetaz nahi ditut bi hitz erran.

Komentuko buruzagiari erraiten diote, ez *Nausia*, ez-eta *Jauna*, bainan *Aita*. Eta zertako hori? Irakasteko harren menean daudela, haurrak aita on baten menean dauden bezala.

San Benuatek nahi du Abadea orhoit dadien kargutan emana dela, ez gehienik azpikoeri manatzeko, bainan bai hekien laguntzeko, eta bakhotxari bere behar-orduetan eztiki eta amultsuki heltzeko: *Sciat-que sibi oportere prodesse magis quàm praesse*.

San Frantses Saleskoak erraiten du: komentuko buruzagi batek ez du bertze xederik izan behar, baizik ere arimak perfetasunerat altxatzea. Eta nola Jesu-Kristok amodioz gomidatzen baititu perfetasunerat komentuetako arima bereziak, berdin egiazko buruzagiak amodioz eta ezttasunez aintzinarazten ditu bere

menekoak. Oi! ez du zeren khexa, baldin zerbait lan edo griña emaiten badiote.

Nork sekulan ikhushi du oilo bat samurtzen, bere xitoak hegala-pean zoin gehioka sartzen zaizkolakotz? Ez, uzten ditu xito maiteak lañoki sartzen golkhoari barna, eta tinki-tinkia beren gogora ohatzen.

Berdin egin dezala komentuko buruzagiak. Ama on baten pare, bihotzaren barne-barnean garreia detzala bethi bere haurrak, eta geroztik ongi handiak eginen ditu.

Morde Laphitz, Betharrameko misionestak erraiten du San Iñazioren bizian: Bere haurrak bezala maite zituen Iñaziok konpainiako membro guziak, eta guziak hari zagotzin beren aitari bezala. (p. 234)

Jan-Batista de la Sala dohatsuaren bizian ikhusten dugu zer amodio handia zuen bere menekoentzat. Aitoronseme aberatsa zelarik, bai-eta kalonje bezala kargu handitara altxatua zelarik, jautsi zen Fraide eskola-emailen heineraino. Hekien bizi ber-beraz bizi izan da. Jasan ditu hekien nekeak, hekien behar-orduak, hekien aphaltasun eta gabetasun guziak. Eta

zertako hori? A! baitzakien buruzagi baten eginbiderik hertsiena dela bere menekoak zinez maitatzea.

Egia da beraz: Komentuan dire sainduki bizitzeko laguntzarik hoberenak. Eta laguntza horien artean baliosena da buruzagien laguntza. Ezen, erran dugun bezala, Jainkoak argi bereziak emaiten diozkote buruzagieri; bai-eta askotan mirakuluzko argiak.

Hortakotz, dio San Thomas teologoak, Obedientziako botua da guzietarik aberatsena, berthutean aintzinzatzeko.

San Iñaziok ere Jesuisteri erraiten diote: Jarraik zaitezte buruzagien manueri, eta ordutik hain gora atxatuko zarete, non Jainkoarekin zinez bat egin baitzarete, eta nolaz hori? zuen nahikundetik buluzi zaretelakotz.

Baldin holako amodioa badu komentuko buruzagiak bere meneko guzientzat, are handiagoa du erientzat, zaharrentzat eta haurrentzat.

Huna zer dion San Benuatek bere Erregelan:

«Gure eriez behar dugu atxiki artharik handiena, hala-nola egin baiginezake Jesus-berari buruz. Ezen Jesusek erran du: Eri nintzen eta ikhuskatu nauzue;

eta egiaz diot, ene anaia xumeenari egin dituzkezuen ongi guziak, neroni egin derazkidazue.

»Oi beraz gogo onez jasan detzagun eri gaixoen bizkargoikeria eta makhur guziak, ezen hortik jinen zauku zeruko saririk ederrena.

»Abadeak har detzala bide hoberenak ez uzteko erieri deusen eskasik. Eri maite horieri eman behar zaiote egoitza berezi bat, arthazaile jeinutsu eta jarraiki bat; mainhuak ere hartuko ahal dituzte, bai eta janari gizona. Eta nola Abadeak ez baitezazke bere eskuez egin lan horiek, ikhusi behar du heia eriarthatzaileak jarraikitzen diren, ba edo ez, beren urratseri, ezen berzela, hekien lazakeriak bere gain lituzke.»

Orai duela berrehun eta berrogoi bat urthe, (1645an) Frantziako Benedikanoek egin zuten biltzarre handi bat, eta huna zoin hertsiki manatu zioten Abaderi artharik handiena beren komentuko erien gainean: Baldin lazakeria zerbait agertzen badute Buruzagiek erieri buruz, izan ditezela hazkarki gaztigatuak, ezen bihotz-gabeak jasan behar du bihotzgabetasuna.

Erientzat bezala, zaharrentzat ere, eta haur gazteentzat, San Benuatek bihotz berdin ona du. Huna zer dion:

Gu baitharik eta gure jitez ixuriak gare zaharren eta haurren alderat; hori bera aski behar liteke hekien maitatzeko eta laguntzeko; bainan nahi dut Abadeak orhoit ditezen Erregelak ere hola manatzen diotela. Horrengatik laxatu eta ezitu behar dute hekientzat Erregelaren borthiztasuna, guziz janaren gainean.

San Iñaziok ere amodiorik handiena irakatsi du erientzat. Huna zer irakurtzen dugun harren bizian.

«Anaia erientzat neurri gabekoa zen haren amultsutasuna. Ez xoilki bazohan heien ikhusterat, heien arthatzerat; bainan ezin zagokelakotz bethi heiekin, heien berriak egun guziez jakiten zituen, xeheki eto egunean ardura.

«Eritasun funtsezkorik zenean, begia bazagokan erizainen gainean, eta heien hutsik xumeenak borthizki larderiitzen eta gaztigatzen zituen.

»Bi gizon gazte, komenturat ethorri bezain sarri, eritasunak hartu zituen. Erizaina Aita Iñaziori joan zitzaion, eriteia jadanik bethea zela, eta eri berriek hiriko ospitalerat juan beharko zutela.

»Ez, ez, ihardetsi zion Aita Iñaziok; ez dut nahi nihorat joan ditene. Jainkoarentzat mundua utzi dute-nek, ez othe dute bada, gure etxian atherbe bat khau-situko? Bethea balin bada eriteia, har ditzatela gure ganbarak.

»Bertze behin, Aita eri bati manatua izan zitzaion erremedio bat kharioa, eta komentua azken sosetan zen.

»Khario bada, khario, dio Aita Iñaziok, erremedio-ak behar du ekharri; guk gosea ikhusiko badugu ere, ez dut nahi gure eriak deuseren eskasian egon ditene.

»Gogoetatuak ikhusten zituenean bere eri mai-teak, arhintzeko khantu eder bat adiaraziko zioten. Gogoeta hitsen kontra sineste handia zuen khantu ederretan.

»Gau-erditan sar athera bat egiten zuen eriteian, gauzak xuxen othe ziren. Eri batek lothura bat mak-hurtu zukeelako arrangura bera aski zuen ohetik jeiki-tzeko».

III - KAPITULUA

Jainkoak berak eman ditu komentuetako Erregelak

Jende mihi-gaxto batzuek erraiten dute, nahigabe frango jasaiten dutela komentuarrek, ala beren Erregelaren aldetik, ala beren Buruzagien aldetik.

Eta nik diot bi gezur handi direla horiek.

Komentuarrek Jainkoaren nahia bera dute amodioz besarkatzen Erregela sainduetan; eta Buruzagiak aita on batzu dire hekientzat.

Ezen komentuetako Erregela sainduak ez dire gizonen eskuetarik; Jainkoak berak ditu irakasten eta moldatzen.

Berdin, komentuetako Buruzagiak ez dire gizonxoil batzu, bainan bai Jainkoaren egiazko ordainak eta lekhukoak.

San Pakome gazterik urrundu zen mundutik; eta egun batez Jesu-Kristo agertu zitzaion eta bekhoz bekho mintzatu. Huna zer gerthakariz.

Pakome egurketa joana zen Tabeneko oihanera; lanean eta othoitzean egin-ahala ari zen; eta horra non zeruko aldetik mintzo zaion norbait. Nor othe diteke? Jesu-Kristo da, eta erraiten dio: Ene haurra, altxa zazu hemen kontentu bat, ezen jende hainitz ethorriko dire zugarat, eta zuk dituzu ene urratsetan bidatuko.

Bainan, Jauna, dio Pakomek, nola dezazket nik bertzeak bida, ez naizenaz geroz nihoni itsu bat beizik?

Jesus onak ihardesten dio: Ez lotsa, nihonek emanen derauzkizut Ordena berri hortako erregelak.

Eta denbora berean aingeru bat agertzen da; ekhartzen dio Pakomeri bere Ordenaren erregela saindua, burdinezko mahi baten gainean izkribaturik.

San Benuaten bizian ere ikhusten dugu Jainkoak irakatsi ziola bere Ordenako erregela. Ez bakharririk irakatsi, bainan oraino agintzarik ederrenak egin errege-la hortan biziko diren jenderi.

Zubiako mendian zen San Benuat, eta egun batez othoitzean pharatu zen Maraboteko harpetik hurbil.

Othoitz hortan dagolarik, aingeru bat agertzen zaio, harroka baten gainean xutik. Erraiten dio: Oi

Benuat, ala botheretsuak baitire zure othoitzak! Galda zaitzu nahi dituzun guziak eta ardietsiren dituzu.

Eta sainduak: Zer galda dezakeek nik, ezen aspaldian Jainko maitearen graziek gainditurik naukate.

Aingeruak berriz:

Holakoa denaz geroz zure bihotzeko aphaltasuna, Jainkoak hanbatenaz nahi zaitu goretsi eta altxatu.

Huna zer agintza ederra egiten derauzun Jainko handi horrek:

Zure erregela sainduari jarraikiko diren guziak salbatuko dire; eta erregela horrek iraunen du munduaren akhabantzaraino.

Bestalde huna zer dion Duziako konzilioak, zortzi ehun eta hiruetanhogoi eta hamalauetan:

Izpiritu-Sainduak berak moldatu izan du Erregela hori San Benuaten eskuez: *Sanctus Spiritus per B. Benedictum regutam monachorum edidit (ex Concil. Duziacensi)*.

Erromako Aita-Saindu batek, Biktor hirugarrenak, erraiten du Moise beraren heineko agertu dela San Benuat; harrek bezala Jainkoarenganik bekhoz bekho entzun eta hartu izan duela bere komentuetako legea edo erregela; eta nola Zinaiko menditik jautsi baitziren legerik baliosenak, berdin Zubiakotik eta Kazinetik

jautsi direla Erregelarik hoberenak: *Hoec domus est similis Sinai sacra jura ferenti, ut lex demonstrat hic quoe fut edita quondam.*

Hamabi ehun eta hogoi eta hirurean, San Frantses Asisakoa urrundu zen gizonen artetik, mendi batetara iragan zen eta harpe baten barnean egon berrogoi egunez, bethi barurean eta othoitzean.

Jesu-Kristo agertu zitzaion eta berak eman ziozkan Franzizkanoen ordenako Erregela guziak.

Berrogoi egun horien buruan, athera zen Saindua bere harpetik eta mendiari behera jautsi. Bere laguneriri irakatsi zioten zer Erregela miresgarria igortzen zioten Jainkoak berak. Bainan hok arranguratu ziren, baik-eta borthitzegi zela Erregela hori, ez zutela indarrik aski eginbide hoin hertsieri jarraikitzeke.

Oraino ere San Frantses bere harperat iragan zen eta bethi bezala othoitzean eta barurean pharatu. Eta bigarren aldian agertu zitzaion Jesu-Kristo; berriz ere hitzez hitz Erregela bera eman zion.

Eta nola San Frantses ez baitzen menditik jausten, dizipuluak joan zitzaizkon harperaino eta errekeritu zuten othoi ezti zezan Erregela.

Bainan Jesu-Kristo bera agertu zen hedoi baten gainean, eta ihardetsi zioten:

Ni naiz Erregela horren egilea. Badakit nolakoak diren gizonaren indarrak, badakit noraino hel ditezkeen. Ene laguntzarekin batean edo zoinek badu indarrik aski Erregela huni jarraitzeko. Nahi dut beraz onets dezazuen dena den, eta baldin ez baduzue zuek indarrik aski, ordainak igorriko ditut, eta hek gogo onez besarkatuko dute.

Geroztik San Frantsesek erraiten ohi zuen:

Gure Erregela sainduan ez dut deus ni baitharik ezarri; guziak hitzez hitz hartu ditut Jainkoak eman bezala.

Egun batez Jesus-Jauna agertu zitzaion santa Brigitari eta erran zion:

Frantsesen Erregelaren hitz bat ez da gizonarenik; oro Jainkoarenganik heldu dire.

Gizon jakintsun eta guziz argitu batzuek, Bolandistek diote:

«San Iñazio Loiolakoak, konbertitu bezain sarri, izan zuen zerutik bere ordenako Erregelaren ezagutza eta xehetasun guzia.» Huna zer gerthatu zen.

Mundutik berriki urrundua, Iñazio joana zen Loiolatik ihesi eta Manrezan zagon, Santa Luziako ospita-

lean. Harren ganbara kaperari datxikola zen eta leiho batetik ikhusten ahal zuen barne guzia.

Ebiakoitz batez othoitzean zagon, tarbenakleari buruz. Emeki-emeki arima gorphutzetik deslothu zitzaion eta zeruetan gora altxatu. Gorphutzak iduri zuen hila: foltsutik ezagutu zuten bizi zela oraino. Holaxet geldi-geldia egon zen zortzi egunez, arima Jainkoarekin bekhoz bekho zagolarik.

Buruz buru xoragarri hortan Jesus onak argi nasaiak eman zaizkon Jesuisten Erregela sailduaren gainean. Ai orduan errexki ahantzi zituen bere nahiga-beak eta nekeak, ezen Manrezerat ethorria zen eritasun dorphe bat jasanik, bere ontasun eta ohore guzietan ukho eginik, bere Eskual-herri maitea utzirik. Bainan ordainez zer atsegin handia emaiten dion orai Jainkoak! Ethorkizuneko athe ederrak idekitzen diozka eta erraiten dio, lehenago Abraham patriarkari bezala: Habi aintzina gogo onez, hire haurrak emendatuko dituk zeruko izarrak bezala eta itsasoko hariñak bezala, ezen gizon bihotzdunak andanaka jarraiki nahiko dituk hire ordenako Erregela sailduari.

Iñazio atzarri zenean garaitikako amets hortarik, abiatu zen ezti-eztia erraiten: Oi Jesus! oi Jesus!

Bertze aldi batez, Iñazio Erromarat ari zen, oinez eta egunean eguneko ogia eskatuz.

Bidean dohalarik, botz batek erraiten dio zerutik, sar dadiela Estorkako elizan. Sarthu deneko, argi eder batek inguratzen du, eta argi distirant hortan Trinitate adoragarria agertzen zaio! Emaiten diozkote Hirur Presunek xehetasunik baliosenak bere ordenako Erregelaren gainean.

Hortakotz erraiten zuen Erromako Aita-Saindu Paulo hirugarrenak: Jesusen konpainia ez da gizonen obra, Jainkoaren obra da.

Xehetasun horietarik ageri da Jainko onak berak moldatzen dituela komentuetako Erregelak.

Erregela saindu horieri jarraitzea, ez da beraz gizonen peko jartzea, bainan bai Jainko handiaren peko.

Komentuarrek Jainkoa dute nausi eta nihor ez berzterik, ezen Jainkoa bera ikhusten dute Erregelako urrats guzietan.

Zer diteke bada hain ederrik nola baita Jainko handiaren esku-pean bizitzea?

IV - KAPTTULUA

Komentuan bakhanago erortzen da eta berthutean hobeki ernatzen

Komentuan bakhanago erortzen da eta berthutean hobeki ernatzen.

Han bide guziak idekiak dire berthuteari, bainan hetsiak bekhatuari.

Egia da bekhatu egin ditekela komentuetan ere, bainan nekez. Munduan bekhaturat athea zabal eta lerrakor; komentuan gaizkirako athea hertsia.

Liburu sainduak diote badela dorre hazkar bat, etsaiak ezin hautsia, ezin garhaitua; eta dorre hortan dagoenak ez duela deusen ere beldurrik.

Dorre hori da komentuko barne dohatsua. Han bertze toki guzietan bezala, debruak egin dezazke entsegu frango, bainan ez du eskurik hartzen. Nola-nahi jokha dadien, ez du hausten ahal dorre saindu horren inguru hazkarra.

Hortik eroriko guti komentuetan.

Munduan bai zer-nahi zarkeria eta hainitz arima galtzen. Bainan komentuetan arima guziak kasik saindutzen eta zentratzen.

Jainkoaren errana da: Izpirituaz hiltzen badituzue haragiaren eginkariak, biziko zarete. Eta oraino: Hilarazkizue zuen baithan gizon lurtiarraren jaidurak, eta geroztik aise altxatuko zarete berthutean, eta zuen bizia Kristorekin Jainkoa baithan gorderik atxikiren duzue.

Eta xuxen hortara dohazi komentuko urrats guziak. Erregela sainduak, hirur botuek, bizitze ixil eta gorde harrek, ez dute bertze xederik, baizik ere bihotzak osoki deslotzea lurretik eta osoki emaita Jainkoari eta berthuteari.

Bai, hori da arima komentuarren bizia.

Oi beraz zoin errexki dabilan berthutez berthute, bethi eta gorago altxatuz Jainkoaren bidetan! Deus trabarik gabe, oro deslotua lurreko gauzatarik, zerurat ari da, hegalak zabaldurik, lehia khartsu batekin.

Huna zer dion aita Medaillek bere meditazionetan. Bizi ixil eta gordeaz mintzo da; eta zer da hori baizik ere komentuko bizia?

«Bizi ixil eta gordea da bizi bat zointan pratikatzen baita errexkienik berthutea, humilitatea, bere burua-

ren gaineko atzartasuna, Jainkoarekilako batasuna, berthute barnekor guziak.

»Eskerrak emoitzu Jainkoari, baldin deithu bazaitu bizi gorde hortara, eta ikhus zazu bizkitartean eia hor nola trabailatzen zaren zure abantzamendu izpiritua-tean.

»Bizi ixil eta gordea da salbamenduarentzat lanje-rik gutiena dakharkena.

»Han, urrundua aurkhitzen da urguiluzko eta errespeta humanozko tentazionetarik. Bere eginbidei jarraik-eta, bertze makhurtzerik eta behaztopatzerik ez du, nola baitituzte munduan direnek.

»Ai pleini zaitzu hainbertze lanjerrei munduan pharatuak daudenak, eta ez zaitela sekulan jelos izan heien zortheaz».

San Thomasek ere dio:

Bekhatutik urruntzen gaitu komentuko bizi-molde sainduak, eta perfetasuneko biderik hoberenak ideki-tzen daizku. Hortik, nagi eta erorkor denak behar luke gehienik komenturat ihesi johan.

Suarez teologoak galde hau egiten du:

Zilegi othe zaio komentu baten buruzagiari, guphi-destea eta bere komentutik urruntzea bokazione on eta egiazkoak?

Eta teologo handi horrek berak ihardesten du:

Ez, ez zaio haizu. Zertako bada? Zeren-eta komentuan sarthuz geroztik, arima biderik hoberenean aurkitzen baita bekhatutik urruntzeko eta berthutean aintzinatezko; eta berzela, munduan egonez, galtzeko hirrisku handian bailiteke.

San Benuatek bazakien egia hori, bazakien zer galbideak diren munduan, eta aldiz zer probetxu handiak komentuan.

Hortakotz, gogo onez hartzen zituen ahal-bezenbat bokazione, bai-eta dudazkoak. Eta komenturat sarthuz geroztik, zaintzen eta begiratzen zituen bere ahal guzian.

Huna zer bokazionea onetsi zuen aldi batez.

Muthil gazte bat sehi zagon komentutik hurbil. Fraide egiteko urratsetan abiatua zen. Hasia zen ere ordukotz jarraitzen komentuko othoitzeri eta bertze zonbait harat-hunateri.

Goiz batez nausiak igorri zuen san Benuatengana bi botoila arnorekin.

Arno hura xaharra ziteken, ezen egarria phiztuzion gure muthil gazteari.

Muthil gaztea ez zen ohoina ez, are gutiago hor-
dia; bainan zaldirik ez da behaztopatzen ez denik; eta
haurrak usu haur lan egiten du.

Bestalde debruak ere egin behar zion bere zimi-
koa bokazione gazte horri.

Zer-nahi izanik, huna zer egin zuen gure muthiko-
ak.

Bi botoilak San Benuati ereman behar orde, bat
atxiki zuen beretzat eta bide bazterrean gorderik eza-
rri.

Doha beraz San Benuatengana. Botoil baxharra
eskeintzen dio, bigarrenaz deus aiphurik egin gabe.

Ba bainan San Benuatek erraiten dio: Haurra, ez
edan bertze botoilatik; bere gordeirutik athera zazu,
uzkailazu buruz beheiti eta ikhusiko duzu zer derau-
kan barnean.

Burua aphas, begia ilhun, muthikoa urruntzen da,
hitzik erran gabe.

Botoil ebatsia hesitik atheratzen du eta buruz
beheiti uzkailtzen. Ai zer izialdura! Suge luze ikhara-
garri bat jalgitzen da, eta lurrera deneko jauzi hixtuka
abiatzen!

Adio, adio gure ohoin gaztea! Beha zazu nola las-
terka dohan han-harat, sugearen beldurrez.

Berriz haste baliz, ez lezake egin ez, egin duen bezalako lanik. Orai urriki du bainan berantegi.

Holako bekhatuaren ondotik San Benuatek hartu nahi otheko du bere komenturat? Ageri da ifernuko suge gaxtoaren lana izan dela hor; bere bokazione ederra nahi izan dio galarazi.

Ez da hargatik muthikoa lotsatzen.

Urriki handi batekin itzultzen da San Benuatengana, errekeritzen du othoi barkha dezakon eta komenturat har dezan.

Sainduak bihotz onez barkhatzen dio eta komenturat ordu-berean hartzen.

V - KAPITULUA

Mundu huntarik beretik, komentuarrek gozaten dute egiazko bakea eta zoriona

Komentuarrak bere bihotza bat eginik derauka Jainko maitearekin. Axola guti du lurreko kalapitez eta ezdeuskeriez.

Mundutiarrak ibiltzen dire ontasunen ondotik, ohoren ondotik, atseginen ondotik, bethi khexu, bethi zoin gehiagoka, sosegurik gabe.

Komentuan ez da deus holako griñarik. Han Arimek ukho egin diote munduko eskaintza gezurtieri. Hekien ontasunak, hekien ohoreak, hekien atseginak dire Jainkoaren amodioa eta zeruko agintza ederra.

Hortik kanpo ez dute bertze gutziarik. Oi zer deskantsu gozoa! Bai egia da, Jesus kausitu duenak hatzeman du egiazko ontasuna; eta zer diot? Ai hatzeman du zorion guzietarik handiena. Harrek aurkhitu du bihotzeko sosegua; lokharturik eta oro phausaturik dago bere Jesusen baithan. Bere amodioaz oro susta-

turik, Jesus amultsuari oihuz dago bethi, atsegin handi batekin erraiten diola:

Zuri nago, Jesus maitea,
Zu gabe ez dut bakerik;
Ene bihotzeko gozoa
Zu zare, Jauna, bakharririk;
Ene nahikunde guzia
Zuk xoilki duzu bethetzen;
Ene barneko gutizia
Zu baithan da asetzen.

San Bernatek dio: Oi komentuko bizitze dohatsua, zoin ezti zaren eta maitagarri! Iduri duzu Jakobe patriarkaren zurubia, ezen oraidanik beretik altxatzen dituzu arimak egiazko bakerat, egiazko sosegurat, egiazko parabizu batetarat.

Huna zer dioten Liburu-Sainduak.

Jakobe patriarka athera zen Berzabetik; bazohan Haraneko aldetara. Iguzkia etzan-eta, gelditu zen gauaren iragaiteko, kanpoan, deus atherberik gabe; eta harri bat buru-pean ezarririk, lokhartu zen.

Eta ikhusi zuen ametsetarik, zurubi eder bat, buru batez lurrean bermatzen zela, eta bertzeaz zerua hun-

kitzen zuela. Eta Jainkoaren aingeruak goiti eta beheiti zabiltzan.

Eta zurubi gainetik Jainko handiak erran zion Jakoberi: Ni naiz Abraham zure aitaren Jainko-Jauna, eta Isaaken Jainkoa; zuri eta zure ondokoeri emanen darotzuet, lo zauden lur hori; eta zure odolekoak emendatuko dire lurreko herrautsa bezain inobre; eta hedatuko dire iguzkiaren ilkhialdetik saralderaino, eta ipharretik hegoaraino; eta lurreko jendaia guziak izanen dire zu baithan benedikatuak eta izanen naiz ni zure zaintzailea, eta zure indarra, eta zure gozakaria.

Lotarik atzarri zenean, Jakobek erran zuen: Egiazki, toki huntan da Jauna; hau da Jainkoaren etxea eta zeruko athea.

Jakobe patriarkaren zurubi horrek bezala komentuko bizi-moldeak ere hunkitzen du, alde batetik lurra, eta bertze aldetik zerua.

Lurra hunkitzen du, ez mundu huni estekatzeko, bainan bai ostikatzeko eta arbuiatzeko.

Zerua hunkitzen du, eta nola? Bere amodioaz eta gutizia khartsuez; berthute guzietan lehiatuz eta goratuz.

Eta zeru hori, zer othe da? Othe da xoilki eternitatean gozatuko dugun zorion izarigabea?

Ez, dio San Bernatek, goza dezakegu jadanik bertze parabizu bat, eta hura da komentuan aurkhitzen den bakea eta dohatsutasuna.

Bake hortarat heltzeko, dohatsutasun hortarat iragaiteko, komentuarren bizimoldea da egiazko zurubia; eta mailak ditu errexak eta hazkarrak, ezen hek dire hirur botuak: garbitasuna, pobrezia eta obedientzia.

Hortakotz, ala gizonak ala emazteak, inobreka eta elemeniaka lehiatu izan dire bethi komentueturat. Abraham patriarkaren haurrak bezala, komentuarrek ere hedatu izan dire, iguzkiaren ilkhi-aldeetik sar-alde-raino eta ipharretik hegoaraino. Lurreko jendaia guziak izan dire hekien baithan benedikatuak.

Bestalde huna zer irakurtzen dugun Ebanjelio sainduan.

Jandoni Betirik eta bertze apostoluek utzi zituzten munduko gauza guziak, nahiz-eta Jesusi baxharrik jarraiki.

Eta orduan Jondoni Betirik erran zion: Jauna, guziak utzi ditugu zuri jarraikitzeke; zer bada emanen deraukuzu saritzat?

Eta Jesu-Kristok ihardetsi zion: Diotzuet egiaz, noiz-ere Jainko-Semea jarriko baita bere handitasuna-

ren alkhian, zuek ere jarriko zarete hamabi alkhitan, Izraelen jujatzeko.

Eta ez xoilki zeruan gozatuko dituzue sari eta atsegin bereziak, baina oraidanik ere zuek izanen zarete dohatsu.

Ezen, nihor ez da, utzi dituzkenik etxea, edo anaiak, edo arrebak, edo aita, edo ama, edo haurrak, edo lurrak, nigatik eta Ebanjelioagatik, zoinari ez baitzaio bihurturen ehunetan gehiago etxe, edo anaia, edo arreba, edo aita, edo ama, edo haur, edo lur, eta hori mundu huntako bereko atsekaben erdian.

Bai hola da komentuan: arimako eta gorphutzeko zorionak emendatzen diozkote Jesusek bere haurreri. Han dire nasaiki jausten zeruko graziak, bai-eta lurrean goza ditezken atseginetarik garbienak.

Bihotz onez erran dezakete komentuarrek: Oi zoin ezti eta gozo den anaiak elgarrekin egoitea. Komentuko familia berri huntan ez dugu deusik galdu, ez arimako ez-eta gorphutzeko. Utzi ditugun gauzetarik hanbat eta gehiago hatzeman ditugu. Eta zinez, gu gare oraidanik ere egiazko aberatsak.

VI - KAPITULUA

Komentuan lasterrago bekhatutik altxatzen da

Eman dezagun nor edo nor komentuan eror daitekeela; bainan ez daiteke luzaz egon eroria, beharko du laster altxatu.

Goizetik arrats bere lagunen bizi saindua oihuz ari zaio: Athera hadi bekhatu hortarik!

Othoitzez leherra erraiten du; othoitz hetarik bakhotxa ari zaio akhuluka: Jeik hadi hortik eta konberti!

Zonbat prediku, zonbat irakurtze on, zonbat gomituz ezi, zonbat elhe sarkhor!

Eta bestalde, barnea erakitzen ari, kontzientzia borrokan eta ausikika, bihotzeko arrangura eta sukhar gaxto bat sistaka bethi!

Ai! ez, ez; ez dauke bere bekhatuan, altxatuko da laster.

Erraitera nohan huntarik hobeki ageriko da.

San Benuatek hamabi komentu altxatu zituen Zubiako mendian. Usu egiten zuen hekien guzien itzulia eta bere begiez ikhusten xehetasunekin.

Batzuen eta bertzen behar-ordueri osoki atzarria zagon. Erran ziteken Benuatez Jainkoaren hitz eder hau: Harren zuhurtzia hazkarki heltzen da buru bate-tik bertzera, eta guziak eztiki xuxentzen ditu.

Hamabi komentu horietarik batean fraide bat bazen herrebasa. Xede onak bai eta jarraitzen erregelamenduko urrats gehienetan. Ez ordean egiten meditazionerik, eta bizkitartean hortan izanki othoitz guzietarik beharren-beharrena!

Ai khexu zen komentu hortako Abadea. Ez zakien ordean nondik loth fraide horren argitzeko eta bide onerat biltzeko.

Bai larderiaz, bai eztitasunaz entsegatzen da; othoizten du, errekeritzen du, mehatxatzen du, gazi-gatzen du, hitz batez bide guziak hartzen ditu. Eta oro alferretan.

Fraide sorhaioa atheratzen da Elizatik meditazio-neko orena ethorri bezain laster. Bertze fraideak meditazionean daudelarik, hura kanpoan kurri!

Azkenean San Benuati aiphatzen dio aita Abadeak.

San Benuat badoha komentu hortara; ofizioa kantatzen du bertze aita eta fraide guziekin, eta gero, kantuak ixildu direnean, hasten du meditazionea.

Bethi bezala, horra non gure fraide lazoa badohan elizatik kanpo.

Benuatek behatzen dio eta ikhusten du haur ttiki beltz itsusi bat soin hegitik thiraka ari zaiola kanpoko aldera.

Orduan Abadeari eta Maurori beharrira erraiten diote, ez dutenez ikhusten nola debruak deraman elizatik kanporat? Ihardesten diote ezetz. Beraz othoitz egin dezagun, dio Benuatek, zuek ere ikhus dezazuen nik bezala.

Othoitz egiten dute bi egunez. Eta orduan Maurok ikhusi zuen haur ttiki beltza, bainan ez Abadeak.

Bertze egun batez, fraide hori Elizatik atheratu deneko meditazionea hastean, Benuat ere atheratzen da eta ondotik jarraikitzen zaio. Sainduak orduan hartzen du eskutik fraide errebelatua, larderiartzen du hazkarki, bai-eta zaharo batez joiten.

Aski izan zen hori.

Urrikitan sarthu zen fraidea, eta handik goiti nihor bezain xuxen jarraiki zen komentuko urrats guzietan, bai-eta meditazionean.

VII - KAPITULUA

Komentuan gurbilkiago garbitzen da arima, eta leheneko bekhatuez penitentzia hobeki egiten

Gure bekhatuen orhoitzapenak ardura lotsatzen gaitu. Zonbat nahi aldiz eta ongi kofesatuak izanik ere, bethi gogoratzen zaizkigu bekhatu horiek. Barkhatuak direlako esperantza bai, ez ordean segurtamena.

Eta hortik asko arrangura, asko bihotz min, asko lotsamendu. Norat itzul bada? Zer egin?

Lazdura horiek ez dire nihun hala ttipitzen nola komentuan. Eta zertako? Zeren-eta komentuan baitire penitentziatzko biderik baliosenak. Urrats guziak hortara dohazi: erregela, botuak, lana, beilak, naturalizari egiten zaizkon hanbat bortxamen. Horiek oro zor-pagatze aberatsak dire.

Hanbatenez aberatsak non eginak baitire, ez edozoin girixtinoz bainan Jesu-Kristori kontsekratuak diren arima hautatuez.

Munduan, hoberenek ere, ez dute baxhan beizik bihotza garbitzen. Eta komentuan egun orotako lana da. Hortik beretik ikhus zazu zer probetxu handiak diren komentuko arimentzat.

Egun batez San Iñaziori joaiten zaio bere komentuko fraide bat, baizik-eta eneatus dela, garratzegi zaiola Jesuizten bizia, ez dagokela gehiago, nahi dela atheratu eta mundurat itzuli.

Iñaziok hasperen bat egiten du, begithartea goilbeltzen zaio, eta eztiki bainan minki erralten dio:

Nahi zare beraz komentutik atheratu! Eta gero, nola eginen duzu zure bekhatuez penitentzia?

Ene Aita, dio fraideak, munduan ere galda dezaket ene bekhatuez barkhamendu.

Bai egia da, ihardesten du Iñaziok, hori egin deza-kezu; bainan ez baitire hortarakotz indar berak munduan eta komentuan!... Othoi behar dautazu gauza bat hitzeman.

Bai, ene Aita, nahi dituzun guziak hitzemanen darozkitzut, salbu komentuan egoitea.

Ez, anaia maitea, ez zaitut komentuan bortxaz atxiki nahi. Huna xoilki zer nahi dutan.

Gaur, lehenbiziko loaren ondotik, zure ohean phara zaite agonian bazine bezala; alde batetik beha zazu zure bekhatueri eta bertze aldetik ifernuari; entzunazu zer arrasta lazgarria aurthiki behar dauzun Juje soberanoak. Gero zu baithan ibilazu gogoeta hau: Hartan banintz, nola nahi nuke penitentzia eginik, komentuan ala munduan?

Galde horri ihardetsi-eta, ikhusiko duzu zer dukezun hobe, egonik ala atheraturik.

Gau hartan Iñaziok lo guti egin zuen; denborarik gehiena othoitzean iragan zuen bere fraide maitearen onetan.

Biharamunean badohako ikhustera eta galdatzen dio:

Zer diozu beraz, anaia maitea? uzten othe gaituzu?

Oi, ene Aita, ez, ez, sekulan ez zaitut utziko. Nahi dut komentuan bizi eta komentuan hil; eta zurekin ez banintz, othoitz zindezaket zureganat othoi har nezaun. Ezen gau huntan Jainkoaren deiak harritu nu, ikhusten dut orai, ez dezakedala komentuan beizik egin ene bekhatuen araberako penitentzia.

Mintzo delarik, nigarrez hipaka dago. San Iñazio-ren oinetara erortzen da, othoizten du barkha detzon

leheneko lazotasun guziak. Hitzemaiten dio hartuko duela bertze urratsik eta jarraikiko dela zinez bere Bokazione sailduaren araberako eginbidetan.

San Anselme handiak bazuen adiskide min bat. Hura zen Aita Ozbert, komentu berean harrekin Benedikano zagona.

Bere bizian goiti-behera frango ibiliak zituen. Bathaioko sakramendua bera ez zuen izan berant beizik, hogoi urthetako inguruan.

Zerbait ere gisaz Jainkoak azkenean bereganat bildu zuen, eta konbertituz geroztik bizi zen komentuan nihor bezain khartsuki.

Horiek hola, hiltzerat jiten da. Hil ondoan agertzen zaio Anselmeri eta erraiten dio: Ene adiskidea, zeru ederrean aurkhitzen naiz, eta huna zeri esker.

Jainkoaren jujamenduan ifernuko etsaia oldartu zaut, baizik eta bekhatu hainitz egin dudala, ala bathaiatua izan baino len, ala geroztik komenturat sarthu aintzinean, bai-eta komentuan berean.

Ai orduan zer ikhara, zer lazadura! Jujamendutik ihesi egin nahi, eta ezin egin!

Bainan ene Aingeru begiraleak ihardetsi dio etsaiari. Erran dio: 1º bathaioko sakramenduak bark-

hatu zituela osoki ene gazte denborako bekhatuak; 2º komentuko ene bizitze khartsuak garbitu zituela geroztikako ene huts guziak, zeren-eta komentuko bizitzeak bathaioa iduri baitu.

Hortik ageri da zoin errexki eta segurki egin ditek-en penitentzia komentuan.

VIII - KAPITULUA

Komentuarra bere eginbide eta urrats guzietan zuhurkiago jokatzeko da

Komentuan nihor ez dabila bere buruz baxharrik. Urrats guzietan, ala ttipi ala handietan, bethi baditu argitzaileak.

Bai aintzindariak, bai lagunek so egiten diote; ez dezake demendren makhurrik egin non ez den ikhusia.

Hori bera aski du behaztoparik ez egiteko.

Eta gehiago dena, bere Ordena sainduko erregela hor du. Erregela hori Jainkoaz emana da eta Eliza katolikoaz onetsia. Jarraik dadila xuxen erregela horri, eta sekulan ez da bide onetik zehartuko; zuhurtasunekin ibiliko da bethi.

Egia da bai ez dela bethi errex uztarri saindu horren pean egoitea. Naturalezak batzuetan ez luke nahi buruzagirik ez erregelarik. Orduan barneko su gaxto batek borthizten dio bere urgulua, orduan iduri zaio bera baxharrik behar dela bere buruaren nausi eta jabe.

Horrelako urgulari behatzen dena galduko da laster.

Komentuan, hura da baxharrik bere eginbidetan zuhurki jokhatzen, nor ere zinez jarraitzen baita bere buruzagieri eta bere erregela saildueri. Berzela ez diteke xuxen ibil, ez dezake bide ona luzaz atxik.

Irakaspen huntarik ageriko da.

Kasineko komentuan bazen fraide bat uzkur eta nagia. Lanak akhitzten, othoitzak eneatxen, barurak berazten, gau-erdiko jeikitzeak phorrokatzen, ai ez ziteken hola bizi.

Komentuko harat-hunat guziak bizkarkoi eta dorphe zitzaizkon. Noiz-nahi bazohan San Benuati erraitera ez zitekela egon, athera nahi zela handik.

San Benuatek bethi elhe onak erraiten ziozkan: Hobe zuela hola-hola egoitea, galduko zela munduan, ez zitekela salba komentuko gordeiru sailduan beizik.

Ba bainan gure fraide khexua ezin egon. Joan behar zela eta joan hehar zela, ez zauken ixilik. Orga txarrago, kharranka handiago, bethi arrangura zen.

Benuatek azkenean, eneatua eta fastikatua, laburzki eta finki erraiten dio: Zoazi beraz eta ez ager hunat.

Komentutik athera deneko, ikhusten du erensugea bidearen erdi-erdian, jauzi zalapartaka gainerat heldu zaiola, ahoa zabaldurik!

Fraidea abiatzen da deiagoraka: hel! hel! erensugeak iretsi nahi nu!

Komentutik lasterka jiten zaio jende multxo bat. Ez dute ordean deusik ikhusten. Fraide hura bakharrik hatzemaiten dute, oro deboilatua, ikharaz erdi hila.

Barnerat ekhartzen dute, emaiten diozkate zonbait bihotz-phitzgailu.

Harriduratik athera denean, laster egiten du San Benuatengana, barkhamendu eskatzen dio eta zinez hitzemaiten jarraikiko dela bai komentuko lan eta neke guzieri.

Sekulan gehiago ez zuen atheratzeko gogorik izan.

Fraide gaixo hori zertako zabilan asaldura eta thirahira horietan? Zeren-eta bere buruzagiak eta bere erregela sailduak ez baitzituen maite. Maite izan bali-tu, jarraikiko zen hekien irakaspeneri eta ez bere jai-dura makhurrari; zaphatuko zuen bere urgulua, ez zuen holako haurkeriarik eginen.

Tobias zaharrak hiltzearekin erran zion bere seme maiteari: Jende zuhurren baithan bilha zazu bethi zure argia, ez sekulan jokha zure baitharik eta zuhauren buruz.

Bestalde huna zer dion Izpiritu sailduak: Bere buruaren bidari bakharra nahi denak, behaztopa frango ibiliren ditu; bere baithako asmuek berek enganatu eta galduko dute.

Imitazioneak ere berdin: Nork bere buruaren gutiestea eta zuhurren erranari jarraitzea, hori da jakitaterik hoberena eta baliosena.

Ageri da hortik zer probetxu handia den komentuarrentzat, jarraitzean beren erregela saildueri, eta aintzindarien erranerat bethi erortzean. Buruzagiak eta erregelak zinez maite badituzte, zuhurki dabilta bethi, ez dire sekulan bide onetik zehartzan.

San Iñazio eskualdunak erraiten ohi zuen: Buruzagieri jarraik zaite, eta ordutik zure eginbidetan zuhur agertuko zare.

Oi beraz, komentuan bizi zaren arima hautatua, Jainkoak zaintzen zaitu, Jesus-Jauna da zure geriza, berak argitzen eta laguntzen ditu zure harat-hunatak: *Dominus custodit te*. Egunaz iguzkiak ez zaitu erreko ez-eta gauaz ilhargiak; erran nahi baita Jesusek begi-

ratuko zaituela urrats gaxto guzietarik: *Dominus protectio tua, per diem sol non uret te, neque luna per noctem* (Psalm. 120.)

IX - KAPITULUA

Komentuan hiltzea zoin den eder eta gozo

Erran zaharra: Nolako bizia, halako heriotzea. Komentuan bizia Jainkoari emana da, eta zuzenez heriotzea ere Jainkoari dohako.

Zer diot? Komentuan ez da eta hiltzerik.

Nolaz hada? Zeren-eta komentuan trenkatzen baitire aintzinetik munduko esteka guziak. Ontasunak, ohoreak, atseginak, puxulu horiek oro bazterrerat emanak dire.

Komentuan arimak ez du hegalik zerurateko beizik. Jainkoak bere gomitua igorri dioenean, altxatzen da atseginekin bere Esposarenganat. Eder zaio hiltzea, lehiaturik dago nahiz-eta heldu Jesusenganat, ezen harrentzat Kristo bizeitza da eta hiltzea probetxu. Harrek dezazke errepika kantiketako hitz eder hok:

Nahi duzue jakin ene gutizia?

Jainko onarentzat da ene min guzia.

Azkenekotz zuregana, Jesus ene bizia,
Amodioak dakharke ene bihotz guzia;
Ez dut nihun sosegurik zu gozatu beharrez;
Ene baitharik banoha, zu maithatu plazerrez.

Bere urratsa ez derama erbi pertsegituak,
Hain laster xirripetarat orkhaitz egarrituak,
Nola orai sustaturik zeruko khar biziak
Bainerama mundu-petik zukanako lehiak.

Akhaba zazu, Jaun ona, agonia luze hau,
Ezen, zu gabe biziz, bihotzak ezin dirau.
Ez dut nihun sosegurik, zu gozatu beharrez;
Ene baitharik banoha, zu maitatu plazerrez.

Irakaspen huntarik ageriko da hobeki nola hiltzen diren komentuarrak.

Orai duela berrogoi bat urthe hil izan zen Aita Muard benedikanoa. Jainkoarentzat amodioz oro sutan zagon, eta arrangura zen aspaldian sobra irau-teaz eta zahartzeaz. Errepikatzen zituen usu Liburu-Sainduetako hitz hok: Ai ni unatua naizela hemen, nigarrezko haran huntan! Noiz bada joanen naiz eta agertuko Jaunaren aintzina, ezen ene Jainko maiteaz

dut gose eta egarri, ez nauke Jesus ikhusi eta besarkatu beharrez!

Jainkoak onetsi zuen Aita horren gutizia. Mirakuluz irakatsi zion hilen zela laster. Eta huna zer gerthakariz.

Egun batez Aita Muard othoitzean zagon Andredena Mariaren aldare aintzinean. Ama on horri galdegiten zion eman zezakon suzko bihotz bat, Jesusen hobeki maitatzeko.

Andredena Mariak ihardetsi zion: Bai, ene haurra, laster izanen duzu zeruan atsegin handi hori.

Geroztik Aita Muard ez zen orhoit biltzeaz beizik eta Jainkoarenganat iragaiteaz. Beha zagon bere oren dohatsuari. Diot *oren dohatsuari*, ezen Aita horrentzat, Jondoni Paulorentzat bezala, ez ziteken atsegin gozoagorik nola hiltzea eta Kristorenganat bethikotz joaitea.

Ekhainaren hamalauean, astezkenarekin, sukhar borthitz batek hartu zuen. Jeiki zen oraino biharamunean eta jarraiki komentuko urrats gehienetara.

Bainan sopra bortxatu zuen bere burua; eta hain gaizki ereman zituen ondoko bi egunak, non sakramenduak galdegin baitzituen.

Igande goizean ekharri zioten Sakramendu-Saindua. Berak ihardetsi zuen aphezaren othoitz guziera eta komuniatu, aingeruek egin lezaketen bezala, amodio handienarekin.

Astelehen arratsaldean sukharra borthiztu zitzaion. Erreberietan sarthu zen; erraiten zuen: Oi goazin bekhatosen konbertitzera, goazin, Jainko ona guziek maitatuko dute!...

Gero harritu zen, eta iduri debrua ikhusten zuela, hasi zen oihuka: Ez, ez, sekulan ez haut onetsiko! Oi ene Jesus maitea othoi hel zaizkit!

Bake handi batean sarthu zen tentazione horren ondotik.

Komentuko aiteri galdegin zioten arrosarioa elgarrekin erraitea. Ba bainan eri gaixoak mihia loditua zuen; eta ez zezaken trenka demendren hitzik. Ez zen lotsatu; bortxatu zuen bere burua eta jarraiki zen bertzeri.

Guziak nigarrez zauden; hura zen bakharik arrai eta alegera.

Zazpi orenetako irian arras ttipitu zen. Eman zioten Anontzioa eta Indulientzia osoa. Erran zituzten agoniako othoitzak eta bertze othoitz frango. Komen-

tu guziak botu bat egin zuen mirakulu baten galdatze-ko.

Bainan Jainkoak nahi zuen bere zerbitzari khartsua bethikotz saristatu.

Eriak zerurat altxaturik zerauzkan begiak. Azkene-rat irri eder bat egin zuen eta ezti-eztia phausatu zen.

Arratsaldeko zazpi orenak eta hirur laurdenak ziren, ekhainaren hemeretzian, mila zortzi ehun eta berrogoi eta hamalauean.

Berrogoi eta bortz urthe beizik ez zituen oraino. Gazterik joan zen, bainan lan handiak eginik.

X - KAPITULUA

Komentutik landa, arima nasaikiago saristatua da zeruan

Jesu-Kristok hitzeman du zerua komentuan bizi direneri. Huna zer, dion Ebanjelioan: Nork ere guziak utziko baititu nigatik, harrek ardietziren du bethiereko bizitzea.

Hor kontratu bat bada. Emokozu Jesu-Kristori lurreko zure bizitze laburra, harrek ere ordainez emanen derauzu zeruko bizitze eternala.

Geroztik agintza hori Jesu-Kristok askotan erreberritu izan du.

Ordena gehienetako lehen-buruzagieri hitzeman du ez dela hekien haurretarik nihor galduko, baldin Ordenan bizi-eta, Ordena berean hiltzen badire. Agintza hori egin du hitzez hitz San Benuati, San Frantsezi, San Iñaziori, eta bertze hainitzeri.

Eta ez xoilki hitzeman du zerua, bainan oraino zeruan berean sari berezi handiago bat. Huna zer dion: Bakhotxak izanen du bere lanaren araberako

saria; halako moldez non, lan gehiago egin duenak izanen baitu sari aberatsagoa.

Nork bada egin dezake lan handiagorik nola baita komentuan Jainkoari egiten den emaitza osoa?

Bertzeak baino ausarkiago eman zare Jainkoari komentuan; ordainez harrek ere, berzeak baino ausarkiago saristaturen zaitu zeruan.

Italian, Kanpaniako herrialdean, bazen jaun Abade aipatu bat. Izenez deitzen zuten Zerbando.

Usu heldu zen Kazineko komentura, adiskide handi zelakotz San Benuatekin.

Bere komentuaren ongi bidatzeko, bai-eta bere bihotzaren sustatzeko, Zerbandok gure Sainduari galdegiten ziozkan argiak eta indarrak.

Abade hori Kazinera ethorritz geroztik. lotzen zitzaion San Benuati, haur bat bere Aitari bezala, eta ez zion sosegurik uzten. Bethi ondotik zuen, galdeka eta othoizka. Eta maiz, eguna ez askiz, gauaz ere solasetan zauden.

Arrats batez mintzo ziren Jainkoaz eta zeruko agintza ederrez. San Benuat oro sutan, erranago eta ausarkiago zohan; eta Zerbando bere aldetik aro-

xoratu, entzunago eta goseago, bethi akhulutzen ari zitzaion.

Oi dohatsu zirela bat eta bertzea solas gozo eta suhar horietan! Batek erran eta berzeak entzun, iragan zen denbora, eta gauerditan oraino solasean zauden. Hargatik, noizbait behexi ziren eta lokhartu.

San Benuatek dorre batean zuen bere gela. Dorre hortan baziren bi egontoki, bat behelean eta berzea gainean. Zerbando aphaltenean gelditu zen eta San Benuat gorenerat igan. Lokhartu ziren laster; bainan Benuatek guritasun guti emaiten zion gorphutzari eta jeikia zen bi orenak gabe. Leihoak zabaldurik lothu zen othoitzari. Othoitzari oro emana, begiak landaturik zerauzkan izarrez gorago, Jainko maitea han ikhusten balu bezala.

Eta horra non betbetan argi eder batek hartzen duen zeruko eremu guzia! Illhunbeak ezeztatzen dire; izarrak ihesi dohazi: iguzkiak tenore gabe altxatu dela iduri du. Zer othe da?

Jainkoarenganikako ageraldi bat ethorri zaio San Benuati. Argi distirant xoragarri batean ikhusten ditu bildurik mende guzietako goiti-beherak. Eta mende guzietako goiti-behera horien artean, agertzen zaio bere Ordena sainduaren ospe handia: nola harren

haur maiteak bethi eta gehiago emendatuz joanen diren; nola munduaren akhabantzaraino Benedikanoek emanen dituzten laguntza bereziak arimeri eta Eliza katolikoari; baina guziz ikhusten du zer sari eder eta berezia gozatuko duten zeruan; eta hori, ez xoilki Benedikanoek, baina berdin komentuar khar-tsu guziek.

Zeruko sari hautatu hori; Jainko onak komentua-rrentzat daukan sari handiago hori, hain da xoragarrria, non san Benuat oro sustaturik baitago; bertze ametsik ez du zerukotzat beizik.

San Frantses Asisakoak bazuen bere komentuan gizon gazte bat berriki ethorria. Lotsakorra eta beldurtia zen gizon gazte hori.

Nahi zen Franzizkano egin eta jadanik nobizian sarthua zen, baina joanago eta uzkurrago zohan, komentuko eginbidek lotsatzen ari zuten. Emeki-emeki etsaia nausitzen zaio eta azkenean mundurat itzultzeko xedea hartzen du.

Baina urrikaltzen zaio Jainko maitea eta huna zer ikhugarri ederra igortzen dion.

Gau batez kontentu guziarekin jeikitzen da othoizterat joaiteko. Ofizioa akhabatu ondoan, eliza trebes-

katzen du eta aldare aintzinean ahuspez emaiten da Sakramendu Sainduaren adoratzeko.

Lurrerat ukhurtua dagolarik, argi eder batek inguratzen du. Ikhusten du orduan zerutikako ageraldi miresgarri bat: hainitz gizon gazte lerro-lerro dohatzila, xuriz beztiturik, kantu erripiketan. Mendietako elhurra ez da hain garbi, ez-eta iguzkia hain distirant, nola baitire gizon gazte horien soinekoak. Norat othe dohazi? Gure fraide-gaiak behatzen diote. Eta horra non agertzen den Franzizkano bat, berriki hila; buru egiten du gizon xuriz beztu horiekin. Eta guziek inguratzten dute; egiten diozkote beren agurrak eta ongi-ethorriak; eta gero kanta errepiketan zeruari gora bidatzen dute.

Fraide-gaiak galdegiten dio gizon horietarik bati, nondik heldu diren eta norat dohazin, eta zer den phesta hori.

Gizon xuriz beztituak ihardesten dio: San Frantse-sen haurrak gare guziak. Hil-eta zerurat sarthu ginen laster, eta orai gure anaia hunen bidera heldu gare; parabizurat eremaiten dugu gurekin, eta han gozatu-ko du gurekin komentuar saindueri bakharrik emana den sari berezia.

Hitz horietan itzali zen ageraldi ederra, eta gure fraide-gaia xoraturik gelditu zen. Ordu beretik onerat itzuli zen osoki. Utzi zituen duda-muda guziak, zinez eman zen komentuko biziari eta egin zen Franzizkano khartsu.

Orai dezagun erran Imitazionearekin:

«Holako ontasunen orde zer bihurturen derautzut, ene Jainkoa? Ezen ez da guziari egiten diozuten dohai-na, munduari ukho egitea, eta guziak utzirik, komentuko bizitzean sartzea.

»Oi bai, ohorerik eta loriarik handiena da zure zer-bitzatzea, eta zure amoreagatik gauza guziak arbuia-tzea. Zuregatik munduko atsegin ezdeusak uzten dituztenek izanen dituzte Espiritu-Sainduaren kontso-lazione gozoak. Munduko arthak utzi-eta, zure loriaga-tik bizitze hertsuari lotzen zaizkonak, bihotzeko liberta-teaz gozatuko dire.

»Oi komentuko gathibotasun ezti eta maithaga-rria, zeinak ardiesten baitio arimari libertatea eta sain-dutasuna!

»Oi erreligioneko bizitze saindua, zeinak egiten baitu gizona aingeruen berdin, Jainkoarentzat maitha-garri eta girixtino guzientzat ohoragarri!

»Oi esklabotasun ezin aski desira eta bilha daitekena, harren bidez irabazten dugunaz geroztik ontasun guzien gaineko ontasuna, eta bethi iraunen duen bozkarioa!

V - ZATHIA

Komentuek zer ongi handiak egiten dituzten

I - KAPITULUA

Zer ongi handiak egiten dituzten komentuek

Ikhusi dugu zer probetxuak diren komentuetan bat-bederarentzat.

Orai ikhus dezagun komentuek nola laguntzen dituzten Eliza saildua, erresumak eta herriak.

Zuzen da baxhotxak bere probetxua asma dezan komenturat joaitearekin, bainan ez dadiela hortan geldi, eta urrunago heda dezala bere bihotza.

Egiazko apostolu bat izan behar da komentuar baxhotxa; behar ditu herri osoak argitu eta arima andanak salbatu.

Hortakotz dituzte komentuek laguntza handiak emaiten populueri, ala eskoletan, ala ospitaletan, ala bertze asko behar-orduetan.

Nahi duzu jakin komentuek zer egin duten Eliza-rentzat? Konparantza huntarik ikhusiko duzu.

Jainkoak nahi duenean itsasoraino helarazi ibai eder eta aberats bat, nola jokhatzen da? Lehenik mendi gainetara igortzen ditu ihitzak, lanhoak, elhu-

rrak, uharrak eta erauntsiak. Mendiek edaten eta ires-ten dituzte uri-elementa horiek. Emeki-emeki urak mendien erraietaraino jausten dire. Eta gero, meta-tzearen bortxaz, gainditzera dohazi, eta azkenean lur-petik jauzten dire eta lasterka badohazi erreketan behera.

Itzuli handiak ibiltzen dituzte, herriz herri, ordo-kiak gizenduz eta bazter guziak aberastuz; eta noiz-bait itsasoraino heltzen dire.

Hola-hola gerthatu zaiote San Benuati, San Domingori, San Frantses Asisakoari, San Iñaziori, Santa Teresari, de la Sala dohatsuari, eta bertze asko-ri. Hekien bihotzetan Jainkoak bildu izan ditu dohainik aberatsenak eta nasaienak, hala-nola uri-elementak biltzen baititu mendi-gainetan.

Dabitek dio: Jainkoaren mendia, mendi gizen eta gorria: *mons coagulatus*, *mons pinguis*.

Jainkoaren mendiak dire komentuen lehenbiziko egile eta asentazaile sailduak; mendi gizen eta goriak, zeruko dohain eta graziez oro betheak, oro gaindituak.

Eta gaindidura hortarik atheratzen dire egiazko ibaiak, eta hek dute Eliza saildua bazter guzietan tre-beskatzen arimen ontzeko eta salbatzeko?

Hekien bidez jausten dire gutarterat Jainkoaren ontasun eta laguntza hoberenak: *benedictio Illius quasi fluvius inundavit* (Eccli. 33. 27).

Bai hola gerthatzen da. Jainkoak hautatzen du Saindu bat eta bere dohainez aberasten; eta gero Saindu horren gaindidurarik ontzen du mundua.

Eta nola Saindu hori ez baititeke lur huntan bizi zonbait urthez beizik, ondokoak uzten ditu. Ondoko horiek dire komentuetako Ordenak edo Elgartasunak.

Eta mendez mende bazter guzietarat hedatzen dire; hek daukate Eliza katolikoa bozturik eta aberasturik.

II - KAPITULUA

Benedikanoek nola lagundu duten Eliza saildua

Europako eskualdetan Eliza katolikoak asko nahigabe jasan ditu, bainan borthitzenak gerthatu dire seigarren mendean, hamabigarrenean, eta hamaseigarrenean.

1° Seigarren mendean, jende basa eta pagano batzuek hondatu zituzten bazter guziak. San Benuatek konbertitu eta girixtinotu izan ditu jende pagano horiek.

2° Hamabigarren mendean asko Errege bihurtu ziren Aita-Sainduaren kontra, eta bestalde *Albigois* heretikoak nausitzen ari ziren Frantzian eta Italian. San Domingok eta San Frantses Asisakoak bide onerat bildu dituzte arima errebelatu horiek.

3° Hamaseigarren mendean protestantek jendaia osoak galtzen ari zituzten. Hekien kontra altxatu ziren San Iñazio eta Santa Teresa; Jesuistek eta Karmelitek bentzutu izan dute protestanten errabia.

Ikhus dezagun beraz zer egin duten Elizarentzat, lehenik Benedikanoek, gero Dominikanoek eta Franzizkanoek, eta azkenean Jesuistek eta Karmelitek.

Huna zer egin duten Benedikanoek. Mende guzietan zarrenak eta borthitzenak izan dire bosgarren eta seigarren mendeak. Ezen herstura handian zen orduan Europa.

Alde batetik Erroma zaharra erortzen ari. Lehena-go hegalkak hazkar zituen eta urrun hedatzen, nausi zen bazter guzietan. Bainan orai ez zen berdin, orai puskaka erortzen ari zen alde orotarik, orai leizerat uzkailirik zagon.

Bertze aldetik, jende sineste-gabeak, nonbaitikako jende basa eta pagano batzu heldu dire osteka eta metaka. Ipharreko bazterretarik hedatzen dire, itsaso iduri. Phorroskatzen eta ezeztatzen dituzte harmadak, hiriak, traba suerte guziak. Italia, Frantzia, Alemania, Espainia, bazterrak oro xahutzen ari dituzte.

Jende basa hek dire Bisigotak, Suebeak, Banda-leak, Agotak, eta bertze asko.

Europak ez zuen behinere holako desmasiarik ikhusi. Eta hori zen San Benuaten mendea! Orduan

zituen altxatu bere komentuak, ala Zubiakon ala Kazine mendian!

Huna zer dion Jainkoak denbora hetaz liburu sakratuetan:

«Beha zazue eta harrituko zarete, ezik gerthatuko da gaitz bat ezin sinetsia. Horra non altxaraziko ditudan jendaki borthitz eta zalhuak. Bertzeren etxez eta ontasunez jabetuko dire. Hekien zaldiak, lehoinak baino ere hazkar eta arhin, jauzika dabilta. Arranoek jatera laster egiten duten bezala, hek ere hegaldaka dohazi. Kolpe beraz heltzen dire bazter guzietara eta oro xahutzen dituzte. Trufaka kalitzen dituzte errege hazkarrenak, eta burdinez estekaturik multzoka eremaiten jende osteak».

Eta buru egiteko ibaia borthitz horri, ez ageri nihun deus balio duen indarrik; guziak beldur; erresumako buruzagiak uzkur eta nagi; harmadak lotsa; nihork ez gogoeta zuzenik, nihork nahikunde hazkarririk, oro debalde eroriak! Bakharrik oraino xutik egoki Eliza katolikoa!

Bainan Eliza katolikoan ere asko zauri eta makhur gizonen aldetik; hainbertzetaraino non Konztantinopleko aldetan bortz ehun aphezpiku bihurturik baitaude Aita-Sainduaren kontra.

Bai-eta Egiptoko bortuetan komentu gehienak gal-
tzen ari! Hain luzaz eta khartsuki iraun ondoan, han-
bat fraide, hanbat penitent espantagarri, osoki bar-
heiatuak eta makhurtuak!

Bainan holako denbora gaxto etsituetan, Jainkoak
igortzen du bethi norbait saindu handi. Eta saindu hori
aski da atheratzeko leizetik mende zarrenak eta jen-
daki galduenak.

Hola zen gerthatu seigarren mendean. San Benuat
handia igorri zuen Jainkoak, bai Erroma zaharreko
ustelduren sendotzera, bai-eta jendakia basa hekien
batheiatzera.

Eta huna zer bidez. San Benuatek egiten du Orde-
na berri bat eta emaiten diozka lege edo erregela haz-
karrak. Bazter guzietarik sartzan dire Ordena hortan
hainitz jende. Komentuetarat holaxet dohatzin gehie-
nak dire gizon aberats eta jakintsun baliosenatarik.

Eta gero, gizon argitu Jainkotiar horietarik behexi-
ko dire ala aphezak, ala aphezpikuak, ala Aita Sain-
duak.

Bide hortaz, emeki-emeki, Jainkoak beretzen ditu
bazterrak oro. Eliza Katolikoa jenden artean goratzen
eta nausitzen da. Bai Erroma zaharreko paganoak, bai
populu basa guziak, jartzen dire Elizaren altzoan,

onesten dituzte harren irakaspenak. Eta horra non Europa burutik buru berritua den.

Benedikanoek izan dituzte hogoi eta hamazazpi mila komentu, hogoi eta hamabortz aita-saindu, berrehun kardinale, hameka ehun eta hiruetan hogoi eta lau arxaphezpiku, bortz mila eta bortz ehun eta hamabi aphezpiku, berrogoi eta hamabortz mila Saindu aldaretarat altxatuak. (Darras, *Hist. de l'Ég.*)

Bai, San Benuatek eta harren Ordena sainduak athera dute Europa errekatik. Hekieri esker daude oraino xutik gure sineste katolikoa, gure etxeak, gure herriak.

Egia da Jesus-Kristo dela baxharrik gizonen salbatzaile; berdin egia da, Jesusen ondotik Eliza katolikoari erori direla gu salbatzeko ahalak; baina ez da gutiago egia, Jesu-Kristoren eta Elizaren indarrak, denbora hetan agertu direla gehienik Benedikanoen bidez. Eta ez xoilki denbora hetan; geroztik ere Benedikanoek egin dituzte Elizari laguntzarik hoberenak.

Berriki oraino, Aita Saindu Leo hamahirugarrenak, erran diote Frantziako Abade Benedikanoeri: Hala-nola seigarren Mendean Benedikanoek athera baitzuten errekatik Europa guzia, berdin orai ere hek berrituko eta hazkartuko dute.

III - KAPITULUA

San Domingok eta San Frantsesek nola lagundu duten Eliza

Goraxago erran dut nola hamabigarren mendean, asko errege bihurtu ziren Erromako Aita-Sainduaren kontra. Alemaniako enperadorea, Othone laugarrena; Frantziako erregea, Filipe-Auguzto; eta Angleterreko erregea, Henri bigarrena, eskomikatuak ziren; Aita-Sainduak elizatik khendu eta ideki zituen, zeren-eta asko zarkerietan gogortu eta thematu baitziren, eta hori, arbuiatuz eta ostikatuz Erromatik ethorri abisu on guziak.

Erran dut oraino nola heretiko batzu nausitzen hasiak ziren Frantzian eta Italian, eta guziz Tolosako eskualdetan.

Bainan Jainkoak ez du sekulan ahanzten bere Eliza saindua. Orduan ethorri zen mundurat San Frantses Asisakoa, eta harrek behar zituen sendotu gaitz horietatik gehienak.

Egun batez othoitzean dagolarik, Jesu-Kristo berak erraiten dio: Zoaz eta altxa zazu ene etxea, ene Eliza maitea, ezen ikhusten duzu nola erortzera dohan.

San Frantses berehala lotzen da lanari. Biltzen ditu lagunak eta erraiten diote: Jainkoak ez gaitu xoilki gure arimen salbatzeko deithu, bainan oraino bertze hainitz arimen salbatzeko.

Goazin beraz herriz herri, eskale batzu bezala, oinekorik gabe eta piltzarrez beztiturik.

Eta nola Jesu-Kristok mundua salbatu izan baitu kurutzeko bere oinazez, berdin guk ere arimak salbatuko ditugu gure bizitze aphen eta garratzaz.

Ai beha zazue zer desmasiak dabilzaten bazter guzietan urguluak eta lohikeriak. Ala erregek, ala aitoronsemek, ala jende arruntek ez dute bertze ametsik, baizik ere urgulua eta lohikeria.

Hitz batez, oro galtzen ari dire, eta Elizak uzkailtzerat dohala iduri du.

Guri da guri, gaitz horien sendotzea eta Elizaren laguntzea; eta hortarakotz jarraik gaitezen Jesu-Kristoren erranari: Ez dezazula izan ez urherik, ez zilharrik, ez dirurik. Bidean zabilzalarik ere, ez dezazula izan, ez soinekorik, ez oinetakorik, ez-eta makhilarik.

Gau batez huna zer gerthatu zen Erromako elizanausian. San Domingo gau guzia egon zen Jondoni Petriren eliza hortan, eta Jainkoak igorri zion zerutikako ageraldi bat. Ikhusi zuen Jesu-Kristo, borthitz eta hasarre, gizonen gaztigatzerat abian zela.

Harritzen da Domingo eta nigarrez hasten. Eta bertan agertzen da Andredena Maria; erraiten dio bere Seme-Jainkoari:

Oi Jauna, othoi bekhatorez urrikail zaite; huna bi apostolu, Frantses eta Domingo, hok fedea phiztuko dute eta berriz ere hainitz arima salbatuko.

San Domingok bere burua aise ezagutu zuen ageraldi hortan, bainan bere laguna ez zuen behinere ikhusi.

Biharamun goizean atheratzen da elizatik, eskale bat ikhusten du; nor othe da? Da preseski San Frantses. Berehala elgar ezagutzen dute, besarka lotzen dire bata bertzeari, eta adiskide handi egiten. Luzaz badaude elgar besarkaturik eta hitzik erran gabe.

Azkenean San Domingok emaiten diozka San Frantsesi bere ageraldiaren xehetasunak eta erraiten dio: Gauden biak adiskide eta elgar lagunt dezagun Jainkoaren maitatzen eta arimen salbatzen.

San Frantses, gehienik jazarri zen munduko argu-
luari eta zarkerieri; eta San Domingo hala-hala hereti-
koeri eta hekien gezur gaxtoeri.

Jainkoak berak irakatsi zion San Domingori bere
bidea. Erran dut nola izan zuen Erroman zerutikako
ageraldi bat; ez zen azkena, ezen handik laster bertze
bat gerthatu zitzaion, berdin ederra eta aiphagarria.

Orduan ere, lehenbiziko aldian bezala, othoitzean
zagon Erromako eliza-nausian; Jondoni Petri eta Jon-
doni Paulo agertu zitzaizkon; Jondoni Petrik eman zion
makhila bat, erraiten ziolarik: Habil bidez bide, herriz
herri, eta bil Jainkoari arima errebelatuak; - Jondoni
Paulok eman zion Ebanjelioko liburua, erranez: Mintza
hadi, predika zak goraki Jainkoaren hitza, egiazko
sinestea, sineste katolikoa.

Tolosako eskualdetarat joan zen beraz San Domin-
go bere lagunekin.

Lagun hetarik bat eskualduna zen eta garartarra,
Doniane-Garazin berean sortua. Joanes nafartarra
erraiten zioten. Dominikano sartu zen agorrilaren
hogoi eta zortzian, hamabi ehun eta hamaseian.

San Domingok eta harren lagunek egin-ahalak oro
egin zituzten heretikoan argitzeko. Bazabiltzan herriz
herri, bethi misione emaiten, bethi borrokan Eliza

katolikoaren etsaiekin. Emeki-emeki gehienak bildu zituzten Elizaren galtzarrerat, eta azkenean erran ahal zuten Moisek lehenago erraiten zuena: Non dire Jainkoaren etsaiak? guziak itzali dire!

IV - KAPITULUA

San Iñaziok eta Santa Teresak nola lagundu duten Eliza

Hamaseigarren mendean Eliza katolikoak jasan zituen, sekulan ez bezalako nahigabeak. Luther here-tikoa agertu zen; Erromatik aldaratu eta deslothu zituen jendaia osoak, hala-nola Alemania, Suissa eta Angleterra. Eta itxura guzien arabera, izurrite gaitz horrek bertze kalterik egin behar zuen; hedatzerat eta nausitzerat ari zen eskualde gehienetan.

Tinka gaxto hortan, Jainkoak bere Elizari laguntzai-le igorri zion San Iñazio eskualduna. Harrek eta harren lagunek gibelaraziko dituzte heretiko protestantak.

Iñazio gazterik gerla-gizon athera zen; gerlaren izenak berak phizten zion odola, eta Espainia guzian, nihor ez zen, ezpata harrek bezain ongi zabilanik.

Oi saindu handia, oi eskualdun maitea, ezpataz ez bezalako harmarik ibili beharko duzu. Zure, eta zure lagunen harmak izanen dire kurutzeak eta atseka-beak. Eta huna zertako. Pairatuz beizik ez baititeke deus handirik egin Jainkoarentzat eta arimentzat.

Nork ere nahi baitu berthutean ausarki goratu, berzeak ere saindutzen lagundu, eta Jesusen izena goretsi eta altxatu, harrek jakin dezala atsekabearen jasaiten. Horrelako hersturetan erraiten zuen Jondoni Paulok: Jesusekin itzatua nago kurutzeari.

Bai hola da, eta bethi hola izanen da. Nola Jesu-Kristok gizonen erospen egin baitu hainitz pairatuz, berdin Jesuisten ordenak ere, Eliza laguntzekotz, behar du hainitz pairatu.

Hogoi eta hamar urthetan athera zen San Iñazio mundupetik eta osoki eman bere Jainkoari. Emeki-emeki bildu zituen bederatzi lagun, oro gizon jakintsuak, bihotzdunak eta Jainkotiarrak.

Hamabortz ehun eta berrogoi eta batean, guziek egin zituzten botuak; eta ordu beretik bazter guzieta-
ra hedatu ziren, Apostoluek lehenago egin zuten bezala, eta predikatzen abiatu Protestant heretikoek kontra.

Berriki oraino protestant famatu batek erraiten zuen: Guziek dakitena da, Jesuistak jazarri direla gehienik hamaseigarren mendeko heretikoeri. (*Gui-zot*).

Aita-Saindu Paulo hirugarrenak Trenteko kontziliarat igorri zituen hirur Jesuista, Diego Lainez, Afonse

Salmeron eta Klaude Lejai: Halako lan handiak egin zituzten kontziloan, non Modenako aphezpikuak izkribatu baitzuen bere lagun bati: Eskerrak diozkat Jainkoari zeren eta eman dautan Jesuista horien entzuteko zoriona; nik uste nihork behinere kolpe hoin borthizik ez dioten eman heretikoeri.

Eliza katolikoaren etsai batek, Fra Paolo Sarpik, erraiten zioten Protestanteri: Nahi baduzue Erromako eliza khordokatu eta aphaldu, barheia zaitzue Jesuistak, ezen hek galduz geroztik, Eliza katotikoa laster ttipituko da.

Handik hunateko denboretan Jesuistek entsegu eta lan berak ibili dituzte. Izan dire bethi Eliza sainduaren laguntzailerik hoberenak.

Egia da bai hainitz nahigabe jasan dituztela, eta hori edozoin toki ala denboretan. Nihon eta sekulan Jesuistek ez dute izan bakerik ez sosegurik. Noiz-nahi eta bazter guzietan, gezurrik ikharagarrienez belztu dituzte; askotan beren etxeak eta ontasun guziak ebatsi diozkote; behin baino gehiagotan girixtino lurretarik khasatu dituzte.

Eta bizkitartean ez dire behinere lotsatu. Zer diot? Nahigabe horietan hazkartu dire. Eta goraxago erran dutan bezala, zonbatenez baitute gehiago pairatu,

hanbatenaz egin dituzte ongi handiak eta iraupenezkoak.

Hamaseigarren mendean oraino Karmelitek laguntza handia eman zuten Elizari.

Santa Teresak erraiten dauku zer xedez egin zuen Karmeleko aldamera edo erreforma. Huna nola mintzo den:

«Ikhusten ditut heretikoak alde orotarik emendatzen eta nausitzen ari; ez nauke alferrik, jazarri behar naiote. Bainan zer egin? nondik loth hekien gibelarazteko? Ez zait iduri deus hoberik asma dezakedala, baik ere arima khartsu multxo baten biltzea, amoreagatik beren othoitzez lagunt detzaten Elizako aphezpiku, predikari eta gudulari saildu guziak»

Erromako Aita-Saindu Gregorio hamabortzgarrenak erraiten du: Santa Teresak ez zuen egunik iragaiten, entsegu handiak egin gabe heretikoen konbertitzeko. Nigarretan zagon bethi kasik, ikhusiz zer ilhumbetan galdurik zauden. Ez xoilki othoitza frango, bainan oraino barurak, lizifrinak, eta bertze hainitz gorp-hutz-zehatze egiten ohi zituen. Eta harrek bezala, bertze karmelita lagunek ere berdin.

Protestantek berek zioten: Karmelita horiek azke-
nean konbertituko gaituzte guziak.

Geroztik ere laguntza berak eman dituzte bethi
Karmelitek Eliza katolikoari. Europako erresuma
guzietan ehunka hedatu dituzte beren komentuak.

Zer diot? Protestant-lurretan ere, heretikoan
erdian, badituzte asko komentu, hala-nola biga Lon-
dresen, bat 1866an altxatua, eta bertzea 1878an.
Urrunago ere joan dire. Komentuak egin dituzte: Indie-
tan, Mangaloreko hirian; Bethleemen eta Jerusale-
men; Xinan, Koxinxinan, Kanadan, Afrikan; hitz batez,
Misionestak heltzen ahal diren bazter eta eskualde
guzietan.

Eta bethi, erran dugun xedeaz: Elizako predikari
eta langile khartsuen laguntzeko beren othoitzez eta
mortifikazionez.

Ezin erran diteke zonbat eta zonbat saindu eman
dituzten Elizari. Ordena dohatsu hori izan da egiaz
Jainkoaren baratze hautatua; hor ditu Jesusek bildu
eta gozatu bere Bihotz sakratuaren espos khartsue-
nak, egiazko lore eder eta maitagarriak.

V - KAPITULUA

Komentuek eskoletan egiten dituzten laguntzak herriari

Orai duela ehun eta berrogoi eta hamar urthe iraganik, 1733, Baionako jaun Aphezpiku batek, Piarres de Lavieuvilek, manamendu bat igorri zuen bere Diosesari, suztatzeko aphezak eta eskola-emaileak haurren argitzera, ongi moldatzera, girixtino jakitate eta urratsetan arthoski altxatzera.

Huna manamendu hartarik bi hitz: «Haurren instruitzen haritzen baldin bazarete, zebak salbatuko zarete, eta halaber salbatuko tutzue zuek entzuten zaituztenak.

»Eta baldin zenbait aldiz lanaren difikultateak edo gaitztasunak gibelatzen edo geldiarazten bazaituzte zuen bidean, har zazue animo, orhoitzen zaretelarik nolako bozkarioa eta kontsolazionea izanen duzen agertzeaz Jujamendu Jeneralean, mundu guziaren aintzinean, gure arimen Artzain soberanoaren aintzinean, zuek inozentziazko estatuan begiratu dituzketzuen hainbertze haur maitez lagunduak.

»Nolako deskantsua izanen da zuentzat orduan, erran ahal izaitea Jainkoari:

»Huna ni, eta Jaunak niri fidatu darozkidan haurrak.»

Baionako jaun Aphezpiku harrek bazakien, alde batetik zoin den premiatsu haurreri eskola egitea, eta bertze aldetik zoin den gaitz eta akhitgarri. Eskola emailen suztatzeko, hitzemaiten diote zeruko sari ederra.

Sari horren agintzak hazkartzen eta berotzen ditu homentuar eskola-emaileak.

Bainan guziz Jesusen amodioak deramatza; eta harrek irakatsi urrats beretan nahi dire jarraiki.

Egun batez, dio Ebanjelioak, haurtto batzu ekharri ziozkaten Jesus-Jaunari. Eta Jesus amultsu horrek benedikatzen zituen lehenik eta gero besarkatzen. Dizipuluak ohartu zirenean, abiatu zitzaizkoten larde-riaka, urrunt zitetzela handik.

Bainan Jesusek: Ez bada urrunt haur maite horiek, utz zaitzue hurbiltzera deskantsuan, ezen hunelakoe-na da Jainkoaren erresuma. Egiaz diotzuet: ez bazare-te haurtto hok bezala aphas eta ttipi bihotzez egiten, ez zarete zerurat helduko.

Jesusen izenean eta harren orde, Eliza katolikoak amodio berarekin hartzen eta altxatzen ditu haur gazteak.

Eta Eliza katolikoan, komentuek dute gehien-gehienik atxiki haurren alderateko jarraikitasuna. Bai eskolen nonbreaz, bai irakasteko jeinuaz eta trebetasunaz, komentuek bethi gaina atxiki dute. Nausi agertu dire denbora guzietan.

Edozoin bazterretako jendakia gehienek, duten balio poxia, zor dute komentueri. Komentuek eman diozkote, beren eskoletan, bai sineste katolikoa, bai gainerateko bertze jakitateak.

Orai duela abantzu ehun urthe, gaxtagin erho batzuek ezarri zuten gure Frantzia ederra itzulikaturik eta deseginik. Desmasia zar hori gerthatu aintzinean, bazterrak oro eskolez betheak ziren.

Frantziak bazituen hogoi eta lau eskola-nausi (*universités*) bortz ehun eta hiruetan hogoi kolegio; eta herri guzietan baziren eskola xumeak. Eta guziak kasik komentuen eskuetan ziren.

Gehiago dena, urririk zauzkatzen, nihori kornadorik galdegin gabe.

Ez orai bezala ez: Gobernamentuak dio urririk dauzkala eskolak; baina hori gezurra da. Ezen zer

bidez ditu haurrak eskoletan urririk hartzen? Gu guzien gastuz, gure moltsetarik asko zerga ebatsiz.

Ai lehenago ez baitzen hola! Deus zergarik gabe komentuek urririk zauzkatzen eskolak. Jende aberatsek karitatez emaiten zioten komentueri jende xumearen eskolatzeko sosa; erromesak kitorik eskolatuak ziren. Bainan orai zergak hurruputzen du sosa sakela guzietan. Aitoronsemeak bezala, laborariak ere pagatu behar du.

Bestalde, egungo egunean, girixtino ona ez diteke fida eskola guzietan. Asko badire zarrak eta gaxtoak. Aiphamenik ere ez da Jainkoaz, arimaz, othoitzaz, salbamenduaz. Holako eskoletan jendeak abere bilhakatzen dire, egiazki galtzen dire.

Ez du hainitz urthe Tuloneko hirian, galeretako midiku-nausiak izkribatzen zituela hitz hok:

Gizon hiltzaile gehienak, ohoin handi gehienak, burdinetarat kondenatuak diren gehienak, nondik uzte duzu heldu direla?

Ez katexima irakasten den eskoletarik ez. Ez Fraiden eta Seroren eskoletarik ez.

Bainan heldu dire eskola sineste gabetarik, Jainkoaren etsai diren eskoletarik.

Ai dohatsu Fraidez eta Serorez eskolatuak diren herriak! Eskola girixtino horietan hurrek ikhasten dute gaizkiaren beldurra, ikhasten dute bekhatua dela gaitz guzietarik handiena. Eta mirakulu liteke, hola altxatu haur bat, sekulan galeretaraino erortzen balitz.

Gizon jakintsun handi batek erran du:

Komentuak aurthikitzen badituzue, hekien orde egin beharko dituzue presundegiak.

Horiek oro hola, gorago erran dutana diot berriz ere: Populu girixtinoek duten balio poxia zor dute gehienik komentueri, zeren-eta komentuek eman baitiozkote eskoletan, bai sineste katolikoa, bai gainera-teko bertze jakitate onak.

VI - KAPITULUA

Ahalaz, Fraiden eta Seroren eskoletarat igorri behar direla haurrak

Azken kapituluan erranetarik ageri da, Eskual-Herrian ez dela Buraso hain bihotzgaberik izan behar, non haurrak igorriko baitituzte Jainkorik gabeko eskoletarat.

Diot holako Aita-Amak bihotzgabeak litezkela.

Badakit bai gutiz-gehienek maite dituztela beren haurrak, ezen hori beren jiteak berak manatzen diote. Nor nahik, balitz ere basa herrietako zerbait jende borthitz lotsagarri, Aita edo Ama den ber, maite ditu bere haurrak. Eta hori ukhatzen duenak, zer daasan ez daki; harrek bere burua abereak baino sordiesago dauka, ezik nork sekulan ikhusi du bere sabeleko umeak maite ez dituen abererik?

Beha zakozu gerezi-ondo bati, nola bere aroan ekhartzen dituen gereziak; berdin sagar-ondo bati, nola adar guzietarik sagarra darion uztailari buruz. Hola-hola eta hobeki, Aita baten eta Ama baten biho-

tzetik jitez sortzen da haurren alderako estekamen-
dua.

Bainan huna zertan diren Burasoak bide onetik
zeihartzen.

Haurrak maite bai, ez ordean Jainkoari eta arimari
buruz, iduri sinesterik ez dutela, iduri gorphutzeko eta
lurreko harat-hunatak eginez geroz, oro untsa direla
eta hortan akhabo. Ai bada gorago altxa detzatela
beren gogoak eta xedeak; eta haurrak maita Jainkoa-
rentzat, arimarentzat, zerukotzat!

Aita-Amak atxikiak dire haurren salbamenduaz
ahalik eta artha hoberenen hartzera; hortakotzat
ordean zoin da egitekorik lehen-lehena? Hura da jaki-
tate ona, hura da funtsezko argia Erreligionekeo gauze-
tan.

Argi eta jakitate hori gabe, nihork ez ditu bere
eginbideak bethetzen ahal. Itsuak eginen du bethi itsu-
lan. Norat-nahi jo dezan, zeihartuko da bide onetik eta
bere burua laster xahutuko du.

Aita-Ama eskualdunak, ez baduzue nahi zuen hau-
rrak bazter ditezen zeruko bidetik, igor zaitzue eskola
girixtinoetarat, othoitzak eta katexima irakasten diren
eskoletarat, erran nahi baita Fraidetarat eta Seroretar-
rat. Ezen egungo egunean, gobernamentuko eskole-

tan ez da othoitzik ez kateximarik zilegi; pagano eginak dire, eta Eliza kondenatu izan ditu.

Oi beraz, Aita-Amak orhoit ditezela egoiteaz hortan atzarriak eta garratz, ezen berzela beren arimak berme izanen dituzte Jainkoaren aintzinean. Oraidanik ere ez dute beren haurreri primantza hoberik uzten ahal, nola baita eskola girixtinoetan ikhasten den jakitate eta bizi-molde ona. Fraidetan edo Seroretan hartu urrats onak baliatzen dire berdin denborako ala eternitateko.

Haurrak behar litezke eskola girixtino horietarat jarraikarazi goizik, gaztedanik. Jendea baithan deus ez da hobeki finkatzen nola lehenbiziko jarkiak eta hazturak. Bihotza gazte, guri, eta ibil-errex duelarik, ohidura onak emaiten badire haur ttipiari, gero ere orhoituko da; eginik ere zerbait eroriko, altxatuko da laster. Baina haste-hastetik emaiten badiozkozu itzuli herrebesak, ai gero ere bide berari jarraikiko da; gehienetan holako haurretik atherako da gizon eta girixtino sordies bat.

Jendeak arbola iduri du. Haritz ondoa gazte deno, izanik ere makhur, xuxen diteke. Baina bere makhurrarekin handitzera uzten baduzu, handiago eta neke-

zago xuxenduren duzu. Eta hein batetara helduz geroz, alferretan entsegatuko zare. Hola-hola da jendeaz.

Berdin oraino, landare sorthu berria errotik athera diteke; baina bego erroen egitera: zure indar guziak ez dire geroztik aski izanen, lurrean tieso egonen zauzu. Orobat da gaizkia haurraren bihotzean: Gazte deno khentzen ahal errexki, baina zahartzearekin hazkartzen eta borthizten.

Haurrak beraz goizik igor eskola girixtinoetarat. Eta bestalde, behin abiatuz geroztik, jarraikaraz ongi. Ez egin asko Aita-Amek bezala, egun batez igor, bertze bi egunez etxean atxik; bi egunez eskolan eta lauez kanpo-lanetan; horrek ez du khararik, ikhas bezenbat ahanzten dute hurrek.

Eskolatik hola gibelatuz huna zer gerthatuko den. Lan pozi baten estakuruan, othoitzik ez kateximarik ez ikhasten; urtheak emendatzearekin, gaxtakeria ere handitzen; gaxtakeriarekin burua gogortzen eta bihotza ez ontzen. Eta ordutik zer-nahi ikhusi behar hek ezin moldatuz. Aitaso bezain handi eginak eta oraino ez jakin komuniatzeko gauzarik premiatsuenak. Mahin saindura joan behar arima garbi batekin, eta jadanik asko zarkerietan trebatuak!

Bertze phundu bat oraino. Hurrek lehen komunionea egin dutea bai, asko Burasoek uste dute debalde dela eskolarat gehiago igortzea. Eta bizkitartean zonbat haur ez dire komuniatu dutenak, frango uzkur eta tonto direlarik kateximan eta othoitzetan? Oi zer probetxua liteken haur horientzat, Fraiden edo Seroren eskolarat jarraikitzea zonbait denboraz!

Ba bainan handituak dire, muthil gazte eta neska gazte eginak dire! Zer erran nahi du horrek? Gaztetasuna bertze haurtasun suerte bat da; haur handiek egiten dituzte haurkeria handiak. Gaztek ez dute oraino burua aski asentatua; adinak berak eta berotasun erho batek zorutzen eta itsutzen dituzte. Eta sekulan izaitekotz, orduan behar dute norbait bidari eta argizaile, orduan behar dute zaintzaile indartsua, orduan behar dire eremu onetan atxiki. Bertzela, adineko suak makhurra frango eginaraziko diote.

Bai, komuniatu ondoan ere, hurrek on dute Fraideterat eta Seroretarat zonbait denboraz jarraikitzea.

VII - KAPITULUA

Escoletan bezala, ospitalean ere komentuek laguntza handiak egiten dituzte

Jesu-Kristok erientzat irakatsi izan du bethi amodio berezi-berezi bat.

Ekhartzen ziozkoten osteka eta sendotzen zituen. Bai eta bazohan bera hekien etxetaraino.

Bere eri maiteentzat deusik ez zitzaion sobera, ez elhe onak, ez akhidurak, ez eta mirakuluak.

Jondoni Betiri apostoluaren amagin-arreba eritzen da, helgaitzek borthizki hartzen dute. Berehala Jesus etxera joaiten zaio eta sendotzen du.

Herodesen gortheko aintzindari bat heldu zaio, erranez: Oi Jauna, ene semea eri dut, hiltzera doha; othoi zato eta sendo zazu. Eta Jesusek: zoaz, zure semea ongi da.

Gizon legenez oro zakhartu bat, erdi usteldua, heldu zaio oihuz: Oi Jauna, nahi baduzu, garbi nezakezu! Eta Jesus onak eskuz hunkitzen du, diolarik: Bai nahi dut, garbi zaite. Eta betbetan garbitua da.

Lau gizonek ekhartzen diote hagetan eri ezindu bat. Jesusek erraiten dio: Xuti zaite, har zazu zure ohea eta joan zure etxera.

Hargin batek bere lanean mesklaatzen du besoa eta eihartzen zaio. Badoha Jesusengana: Othoi, Jauna, sendo nezazu, ezen eske nabila, ezin lanean ariz. Orduan Jesusek: Heda zazu zure besoa. Eta berehala sendoturik hedatzen du.

Soldado aintzindari batek bere muthila eri du, eta galdatzen dio Jesusi othoi sendo dezan. Hunkitua da Jesus, eta ordu berean sendotzen du muthil eria.

Emazte bat, oro andeatua dago hamabi urthe hetan odol galtze batekin. Badoha Jesusengana, soinekoa hunkitzen dio, eta betbetan agortzen zaio bere odol ithurria.

Gizon bat mutua eta elkhorra ekhartzen diote. Bere eskuez hunkitzen du Jesusek, ernearazten diozka beharriak eta mihia deslotzen.

Bi itsu abiatzen zaizko oihuz: Othoi urrikal zaite gutaz! Jesus onak berehala argitzen diozkote begiak eta ikhusten dute.

Bidera ethortzen zaizko hamar legentsu, zakharrez estaliak, eta abiatzen zaizko oihuka: Oi Jesus,

gure nausia, othoi urrikal guri! Eta hamarrak sendotzen ditu.

Horra Jesusek nola maite zituen eriak.

Amodio horren primantza Eliza katolikoak ondorioz bildu izan du. Mendez mende, Eliza katolikoaren hedadura guzian, eriak bethi arthatuak izan dire lehia-rik handienarekin.

Hiri gehienetan eriek badituzte erregek bezain egoitza ederrak, ospitaleak. Eta oro kasik komentuar Fraide eta Seroren eskuetan dire.

Herri ttipietan ere berdin Fraidek eta Serorek dituzte gehienik ikhusten eriak.

Non-nahi, ala gorphutzeko ala arimako behar-orduetan, hek diozkote emaiten laguntza hoberenak.

Jaun Aphezen ondotik, Elizako aintzindarien bai-menari bethi jarraikiz, Jesus beraren ordainak dire eri gaixoeri buruz; hekien egiazko aita eta amak dire.

Deus espanturik gabe, ixilik eta eztiki, erien ondolan iragaiten dituzte egunak eta gauak.

Bethidanik hola izan da. Eliza katolikoaren lehen mendetan komentuek biltzen zituzten limosnak ospitalen altxatzeko.

Guy, Montpelieko aintzindari Jaunak, hamabigarren mendean egin zuen Ordena berezi bat erien artatzeko. Ordena hura zen Izpiritu-sainduaren Ordena.

Erromako hirian berean altxatu zuen ospitale bat hain handia, non ganbera baxhotxak baitzerauzkan mila ohetan, mila eri.

Eriez bestalde, Ospitale hortan baziren bi mila haur gazte, umazurtzak, eta guziak urririk. Noiz-ere ezkontzeko adinetara helduak baitziren, emaiten zioten bakotxari ehun luisen dotea.

Denbora hetan beretan (1119) agertu izan zen bertze Ordena miresgarri bat. Hura zen San Lazaroen Ordena. Ordena hortako fraidek bizi guzia zeramaten eri legentsuekin edo lepradunekin.

Legena, lepra, eritasun guzietarik ikharagarriena, ezin ikhus ere diteke. Usteltzen du gizonaren gorputza, haragi ustelduak puskaka erortzen dire; ikhustek berak izitzen du.

Hortakotz, zorigaitzezko eri gaixo horiek zauden jendetarik urrun. Beren ahidek ere ez zituzten ikhusi nahi. Nonbait bizi ziren, bortuetan, basabereak bezala, debalde utziak.

Bainan horra non agertu den Ordena berri hori, San Lazaroen Ordena. Fraidek, beren ospitalera bil-

tzen dituzte ehunka eta milaka legentsu guziak. Gorp-hutz usteldu horiek besarkatzen eta arthatzen dituzte amodiorik handienarekin. Gehienak kotsutzen dire, lepraren usteldurak hartzen ditu, eta bai eriak bai Fraide arthatzaileak gaitz berarekin hiltzen dire.

Geroztik oraino emendatuz dobazi halako Fraide eta Seroren ordenak. Pauloko San Bixintxoren kongregazioneak berak baditu hogoi eta bost mila Serora eriekin daudenak ospitaletan.

Azken denbora hotan, mila zortzi ehun eta hogoi eta hemezortzian, agertu izan da bertze Kongregazione eder bat. Izena dute Serorek: *Erromesen serora xumeak*.

Eta jadanik ospitaleak badituzte hiri gehienetan. Biltzen dituzte, hazten eta arthatzen jende xahar, jende ezindu, jende herrebes guziak.

Eta nola uste duzu ihardokitzen dutela holako lan handiari? Ez diru-kapitalak metatuz ez, bainan bakharrik egunean eguneko limosnak etxez etxe bilduz.

Ez dute hartzen kapitalik. Jainkoaren eskutara uzten dute ethorkizuna. Eta gogoetatu gabe geroaz, eske dabilta egun guziez, egun hartako hazkurriaren bilha. Eta berak ez dire jatera abiatuko non ez dituz-

ten jadanik ase beren erromes maiteak. Pobrek utzi undarretarik bizi dire.

Eta bertze zonbat behar-ordutan ez dituzte komentuek laguntzen herriak eta populuak! Asko komentuek badituzte etxe bereziak itsuen altxatzeko; eta itsu gaixo hekieri irakasten diote liburutan irakurtzen. Hartzen dituzte mutuak eta mintzarazten dituzte, gu bezain trebeki eta ederki.

Horiek egia garbiak dire, ez da hor deus espanturik.

Jesu-Kristoz bezala, komentuez ere erran diteke ongi handiak egiten dituztela populuen artean.

VIII - KAPITULUA

Ospitaletan bezala, komentuetan ere egiten dela karitate frango

Errromesen ihes-lekuak dire komentuak. Bi gertakari hotarik ageriko da.

Bortz ehun eta hogoiean, izurrite gaitz batek xahutu zuen Italiako herrialde bat, Kanpania. San Benuatek erieri eman zituen komentuko sos, bihi, eta jaki guzia. Ez zen jateko pilik gelditu.

Nonbaitik bizkitartean bildu behar zuten egunean egunekoa! Bazterrak khexu ziren. Erran zaharra: Gabeak hatsa karats! Eta komentuan bazen beltzuri frango.

Sukalde zokoan botoil bat olio gelditu zen. Ez zion san Benuatek utzi khiesteko edo kharratzeko denbora luzerik.

Aphez-gai erromes bat, Agapite, eske heldu da, othoi eman dezakoten olio xorta bat. Nola guphidets? nola igor esku-hutsik eskale gaixo hori?

Benuatek manatzen du eman dezakoten berehala azken olio xorta. Bainan sukaldeko fraide aintzinda-

riak ez baitu beharri hortarik entzun nahi, ihardesten dio ezetz ez, ez ditekela eman olio hori, komentuak ere baduela zerbaiten beharra.

Orduan finki samurtzen da San Benuat. Fraide bat igortzen du har dezala sukaldeko botoil hura, eta leihotik mendiari behera aurthik dezala bere olio guziarekin.

Holaxet gaztigatu nahi zuen koziner bihurriaren gogortasuna.

Botoil hura zer egin othe zen? Dudarik ez, mila pusketan hautsi. Bazen-eta zukaldeko leiho-pean leize ikharagarri bat, harroka puntaz oro zorroztua.

Harroka hetan kiski-kaska olio botoila erortzen da zolaraino. Bainan Jainkoak indar handia du, botoila ez da demendrenik hausten.

Komentuko jendeak espantitzen dire. Zer gerthatu den bidaltzen diote berehala Sainduari. Hunek igortzen ditu fraideak ekhar dezaten leize zolatik olio botoila eta eman dezaten eskaleari den bezala, betherik.

Ez da aski. San Benuatek biltzen du komentu guzia, eta ororen bixtan koziner nausiarri egiten dio prediku garratz bat. Demendren olio xortarik gabe,

bainan bipher ausarkittorekin, larderiätzen du biphil-
biphila bere fede eskasaz eta bere gogo bihurriaz.

Denbona bertsu hetan gosete handi batek andea-
tu zituen Kazineko herrialdeak. Urthe hartan lurrek ez
zuten deusik eman, ez ogirik, ez arthorik, ez-eta ber-
tze demendren bizitzeko ahalik.

Eskualdunak dio hobe dela zahi hutsa ezenez aho
hutsa. Hortik zer-nahi gauza okhastagarri jaten zuten
jende gaixoek, ala ezkur, ala hosto, ala zuhaitz-erro
eta azal.

Emaitza handiak egin zituen San Benuatek jende
beharreri. Eta sobera khenduz hustu zen azkenekotz
selaurua; bihi pikor bat ez zen gelditu. Ogi errea ere
oro jana; ez zen ageri gehiago ophil ondar bat beizik.

Komentuko jendea histu zen. Alainan bada, zer
egin? Jan behar eta jatekorik ez!

Ohartzen da Benuat bazterrak khexu direla.
Komentuko fraideak eta Aitak biltzen ditu, erraiten
diote ez dela sekulan Benedikano bat lotsatu behar;
nonbaitik ere Jainkoa bethi heltzen dela bere hurreri;
egin dezatela othoitz eta egon ditezela deskantsuan.

Luzeki mintzatu-eta, azkenik agintza hau egiten
diote: Ez izit zuen ogi eskasaz, izanen duzue nasaiki
bihar beretik.

Erran bezala gerthatu zen. Biharamunetik, goiz-aldera, ehun bat unga ogi kausitu zuten athe-aintzinean. Zakuetan estekatua zen bihia eta nihork sekulan, ez du jakin nondik jin ziteken.

Zer-nahi izanik, phesta zen komentuan. Zahar gaztek eskerrak bihurtu zituzten Jainko onari; eta guziek hitzeman zuten ez zirela handik goiti sekulan lotsatuko.

Jaun aipatu batek dio: Huna zer egiten duten Komentuetako fraidek; idiak bezala jokhatzen dire: ogi-lastoa berentzat atxikitzen eta ogi-bihia bertzeri emaiten.

Berentzat lanak eta oinhazeak, berzeentzat probe-txuak eta ongi suerte guziak.

IX - KAPITULUA

Komentuak, laboriaren eta jende xehearen adiskide

Esku-lana Jesu-Kristok eta Eliza sailduak irakatsia da.

Jesu-Kristok egun batez predikatu zioten Nazareteko jende bere herritareri, eta hekien eriak sendotu zituen. Nazaretarrak espantitu ziren, asaldatu zen hiriko jende guzia, ez zioten sinets Jesusek egin zezakela holako mirakulurik eta hoin prediku ederrik.

Elgarri galdeka zauden: Nondik heldu zaizko huni holako jakitateak eta indarrak? Hori ez othe da, guk dakigun zurgin, Mariaren semea?

Zurgina zen beraz Jesu-Kristo; esku lanean ari zen, hala-nola ari baita edozoin bernuzer, maextru, edo segari.

San Justinek erraiten du: Bere eskuez ari zen lanean Jesu-Kristo; goldeak eta uztarriak egiten zituen.

San Basilek dio, komentuarrentzat egin duen erregean: Gogo onez jokha zaitetze esku-lanari, ezen

Jesusek zer egin du hanbat urthez, baizik ere bere ahi-
dekin esku-lanetan akhitu eta izertu?

Apostoluek berdin esku-lanaz irabazi dute beren
bizia. Eta hori, ez xoilki apostolu izan baino lehen, bai-
nan geroztik ere, Jesu-Kristo bizi zelarik, bai-eta Jesu-
Kristo zerurat iraganez geroztik.

Huna zer erraiten zioten Jondoni Paulok orduko
girixtinoeri:

Orhoit ahal zarete, anaiak, nola gure lanaz eta
nekeaz irabazi dugun bizitzekoa; ez gare sekulan
nihoren behargarri izan; predikatu dugu Ebanjelioa,
nihoren alderat zorrik egin gabe, gau eta egun esku-
lanetan ariz.

Geroztik oraino, Kartageko laugarren Konzilioak
nahi zuen aphezak beren esku-lanaz irabaz zezaten
bizitzekoa. Eta hori, ez xoilki aphez ardurako aphalek,
bainan berdin jakintsunek eta kargudunek.

Konzilio berak dio bestalde: Aphezak bere jana eta
bere beztia athera detzala laborantzatik edo bertze
zerbait esku-lan gisa denetik.

Eliza sailduaren abiaduratik, esku-lana zen
komentueta eginbide premiatsuenetarik bat.

San Jeromek dio Egiptoko komentu guziek esku-
lana manatzen zutela; ez zutela nihor fraidetzat ones-

ten, non ez zen gogo onez lotzen esku-lanari: eta huna zertako: ez gehienik irabaziaren beharrez, bainan arimak salbatu nahiz.

San Bernatek erraiten du:

Esku-lana, ixiltasuna eta probrezia, horra nondik heldu diren komentuetako ospe eta goratasun egiazkoak.

Ez espanti beraz, baldin Ordena gehienetako asentazailek eta lehenbiziko buruzagiek esku-lana manatu badiote beren haurreri. Aiphatu hitzetarik ageri da bazutela hortakotz arrazoina frango.

Bestalde hanbat ondorio miresgarrietarik berdin ageri da. Komentuetako esku-lanetik athera dire, bai Europako aberastasuna, bai hainitz arimen salbamen-
dua.

Sainduen bizian ikhusten dugu, Aitoronsemeak eta jende handienak berak nahi izan direla esku-lanetan saindutu.

Huna zer egin zuten senar-emazte aberats batzuek.

Hamekagarren mendean, aitoronseme gazte bat, Raoul d'Osmond, eritu zen Tournayko hirian. Bizi bar-

heiatu bat ibili zuen orduarte. Eritasunak hautsi zion bihotza eta nahi izan zen konbertitu.

Sendotu-eta joan zen bere koinat Benedikano batengana, galdegin zion nola jokatu behar zen atheratzeko bere galbidetarik.

Koinat hori gizon argitua eta jakina zen. Zuhurki eta emeki, behar zen denbora hartuz, ongi mihatu zuen aitoronseme gaztearen bihotza; xehetasunekin galdegin ziozkan bizi guziko goiti-beherak; eta osoki ezagutu zuenean, erran zion garbiki:

Ez zaiteke salba mundutik atheratuz beizik, behar zare komentu batean sarthu.

Ba bainan, dio aitoronsemeak, badakizu zure arrebarekin ezkondua naizela.

Badakit hori, ardiesten du Benedikanoak; eta hartatik, ez da gutiago egia, ez duzula zure arima galdu behar, maite duzulakotz ene arreba eta zure esposa. Galdegikozu bere baimena eta emanen derauzu. Orduan deus trabarik gabe, joanen ahal zare komenturat.

Hitz horietan, aitoronsemea bere jauregirat itzuli zen eta nigarrez abiatu bere espos maitearen aintzinean.

Ez zituen hunek oraino hogoi eta lau urthe beizik.

Senarrari galdegin zion zer zuken bada bere bihotzmina? Senarrak ez dio abiaduran deusik erran nahi; azkenean largatzen da, aithortzen dio zer hesturetan den.

Eta orduan andre girixtino horrek: Ez zaitela ez lotsa; nik ere, zuk bezala eginen dut; gurekin eremanen ditugu haurrak, zuk muthikoak eta nik neskatokoa.

Erran bezala egin zuten.

Hirur urthez bere komentuko bazterretan, aitoron-seme handi horrek egiten zituen lanik arruntenak, hala-nola ur ekhartzea, egur xehatzea, barrukien garbitzea. Othoitzetako denboraz kanpo, bethi lan bort-hitz horietan ari zen.

Jaun miresgarri horren andrea ez zen gibelerat egon, eta senarrak bezain bihotz hazkarra irakatsi zuen. Benediktinen komentuan sarthuz geroztik, khar handienarekin eman zen saindutasunari.

Ez da harrek egiten ez zuen lan arrunt edo borthitzik: ala irute, ala ehaite, ala bokhata xuritze, orotarat ekharria zen. Eta holaxet akhitu ondoan, bazohan egun guziez eske, etxez etxe bere jatekoaren bilha.

Senar-emazte saindu horien bizitik ikhusten dugu zer premia handitan zeraukaten komentuek esku-lana. Esku-lana bethidanik izan da hekien eginbide sainduenetarik bat, ezen Jainkoarengat dohazi, ez xoilki othoitzaren bidez, bai-oraino beren akhit-izerdiez. Edo hobeki erraiteko, hekien esku-lanak egiazko othoitz baliosak dire. Esku-lanetako akhiduretan Jainkoarengana berdin altxatzen dire, nola othoitzean eta elizako ofizioetan, zeren-eta egiten baitituzte surnaturalki, Jesu-Kristorekin batasunean.

Hamekagarren mendeko izkribatzaile batek dio: Komentuetan ikhusten ditugu jenderik handienak, armadetako aintzindariak, aitoronseme aberatsak, bai-eta Erregen odoleko handi-mandiak, ari direla edozoin lan arruntetan, batzu okhintzan, berzeak kozinan, asko abere-zain, gehienak laborantzan.

X - KAPITULUA

Laborantza komentuek dutela gehienik ederretsi eta maitatu

Benedikanoak izan dire lehenik eta hobekienik laborantzari eman direnak.

San Benuat agertu aintzinean, gure Europako eremu gehienak oihan eta larre ziren. Erromanoek zerga hain soberanioak galdegiten zituzten, non laboraria ez baitziteken bere lanetik bizi. Hobe zuen bere ontasunak debalde uztea, zeren-eta lanthuz ez baitzuen galtzerik baizen. Eta holaxet, emeki-emeki, herri aberatsak eta jendetsuak hustu ziren, egin ziren bortu; eta, gizonen orde, nausitu ziren basabereak.

Geroztik ere zer desmasiak ez ziren izan?

Ipharreko aldetik elemeniaka ethorri ziren jendakia borthitzak, eta kalte handiak egin zituzten. Suaz eta ezpataz xahutu zituzten herrialde osoak. Eta azkenean bazterrak gelditu ziren jenderik gabe.

Goraxago erran dutan bezala, eskualde gehienak oihan eta larre joanak ziren, zonbait hiri bakhar salbu.

San Benuatek ez zuen beraz ustegabeen erraiten langile bati: Zohazi lanera eta gogo onez jokha zaite.

Huna zer gerthakariz erran zuen san Benuatek hitz hori.

San Benuaten komentuan fraide bat bazen agota. Buru eskas aire bat bazuen, bainan hargatik onetsi zuen san Benuatek, eta bere komenturat hartu. Ezen Saindu horrek ez zuen nihor guphidesten baldin irak-hasten bazuen perfetasunari jokhatzeko xede zina.

Egun batez San Benuatek lanerat igorri zuen fraide hori. Ari behar zuen sasi eta elhorri phikatzen, behar zuen larre puska bandi bat aihotzarekin garbitu, eta gero baratze bezala lanthu.

Larre hori zen uretik hurbil.

Ur hegira joan zen beraz fraidea bere aihotzarekin eta brauki lothu zen lanari. Ez baitzen errex sasi eta elhorri zahar hekien khentzea, ari zen indarka, jo harat eta jo hunat, izerdi-uretan.

Bainan izari bat badute gauza guziek, bai eta hoberenek. Eskualdunak dio lehia soberania berantgarri dela eta tresna hazkarrenak ere hausten direla sobera bortxatuz.

Hola gerthatu zitzaion gure fraide agotari. Joitearen bortxaz aihotzaren burdina deslothu zen giderretik eta besainka jauzi uraren erdirat.

Akhabo beraz laneko tresna! Urak hain barna dire non ez baititeke burdin hura niholaere hatzeman.

Ai orduan ikharatu zen fraidea! Joan zen San Maurorengana eta bere gerthakuntza aithortu zion.

San Maurok bidali zion aita Benuati.

Demendrenik khexatu gabe, ethorri zen San Benuat, fraideari eskutik hartu zion aihotz-giderra eta urean erdizkaxe sarthu. Ordu berean, osin-beheretik altxatu zen burdina, bere giderrari lothu, eta sekulan baino hobeki josirik jarri.

Irri gozo batekin San Benuatek fraide agotari eman zion osorik bere aihotza. Erran zion:

Horra non duzun zure aihotza, zoazi berriz lanera eta gogo onez jokha zaite.

Elhe balios hori entzun dute eta zinez atxiki San Benuaten hurrek. Hek dute Europako lurra berriz lanthu eta bereiz aberastu. Oraiko mendetan miresten ditugun hiri eta kanpo ederrak, Benedikanoen izerdietarik sorthu dire. Bai Frantziako, bai Angleterrako, bai Alemaniako herrialde gehienak athera dire Benedikanoen lanetik.

Bertze asko Ordrek ere laborantza berdin ederretsi eta maite izan dute.

Jainkoak bethi lagundu izan ditu batzu ala bertzeak. Zonbat mirakulu eder eta hunkigarri ez ditu egin saristatzeko hekien neke-izerdiak? bai-eta irakasteko munduari, lanean ari zirela, ez aberastu beharrez, bainan bakharrik Jainkozko xedez?

Beren lan-akhitzetan Komentuarrek ez dute deus bertzerik nahi baizik-ere; 1° Jesusen oinazetan parthedun jarri, 2° beren bekhatuez penitentzia egin, 3° girixtino lagunari eman, ahal dituzten irakaspén eta laguntza hoberenak. Eta hortakotz, Jainko ona heldu izan zaiote bethi kanpo-lanetako behar-orduetan; erran diteke berak xukatu dituela hekien izerdiak eta arhindu hekien neke dorpheak.

Huna zonbait xehetasun.

San Ebrulpe aitoronseme aberats eta handi zen. Utzirik ontasunak eta gorapenak, sarthu zen Benedikano komentu batean. Nobiziako denborak egin-eta, abiatu zen oihan beltz bati barna, behar zituela bortularre hek garbitu eta lanthu. Bainan oihan hura zen ohoin-zilo ikharagarri bat, ez ziteken nihor han barna mentura.

San Ebrulpe oihanean sarthu deneko lotzen zaizko ohoinak, bainan ez diote kalterik egiten. Xoilki erraiten diote: Zertako heldu haiz oihan huntarat? ez duk hemen ohoinik baizen; ohoinak eta Benedikanoak ez dituk elgarrekilako eginak; habil beraz hementik urrun; berzela-ere alde hotako lurrak lur borthitzak dituk, ez duk ogi bihi bat sekulan bilduko ahal.

Eta bere aldetik Sainduak: Nere bekhatuen garbitzeko heldu naiz hunat, Jainkoaren eskuetan naiz; ez ohoinek, ez akhitzek, ez naute izitzen. Ageriko da zer eginen dugun. Bethi nik dakitana hau da: Jainkoak loretzen dituela mendi-harrokak eta ene hazkurria ere atherako ahal duela bortu idor hotarik.

Biharamunean ohoin berak ethorri zitzaizkon. Eskeini ziozkoten hirur ogi eta eltze bat ezti. Horra nola Jainkoak ohoinen bidez igorri zuen Benedikano sainduari bere janaria.

Egun gutirik barnean, ohoin hek guziak konbertitu ziren. Beren eskuez egin zuten komentu berri bat, jarri ziren San Ebrulperen menean, eta oihaneko eremu gehiena lanthurik eta ederturik ezarri zuten.

Huna bertze mirakulu bat, komentuar laborarien laguntzeko Jainkoak berdin egina.

San Kolonban zagon Fontaneko komentuan. Landa berri batean erein zuen ogia eta abiaduratik uzta eder bat ekharri zion. Ogi buruak hori-horiak zauden biltzailerari beha. Ba bainan denbora zarrak ari! Gau eta egun ortzi karraskak, uri tulubioak, haize erauntziak; eta landan ogia usteltzen abiatua.

Khexu zen Kolonban, bere ogia sarthu nahi eta ezin sar! Huna azkenean nola jokhatu zen.

Jainkoari othoitz khartsu bat egiten dio, eta komentu guziari manatzen du ogi-landara joan ditena.

Guziak espantitzen dire, bainan ixilik eta lasterrik erortzen Aita Kolonbanen erranera.

Kalerna uharrak erauntsika jausten direla, badohazi, ihitea eskuan, buruzagiaren ondotik.

Eta huna zer egiten duen saindu handi horrek Landaren lau bazterretan emaiten ditu komentuko lau fraide khartsuenak, belhauniko, othoitzean, eta bera ihitearekin abiatzen da ogi phikatzen.

Lanean hasi deneko, hedoiak urruntzen dire landaren eremutik, iguzki eder bat altxatzen da. Landaren inguruan uria jautsaala ari, eta han demendren xortarik ez!

Egun hartan berean ogi guzia ebaki zuten eta komenturat sarthu.

Bertze mirakulu bat oraino, San Leonor Abadeari gerthatua. Saindu horrek bere komentua altxatu zuen toki idor eta harritsu batean. Fraide langile frango ethorri zitzaizkon. Bainan ezin deusik athera lur gaxto hartarik! Zer-nahi entsegu eta akhitze ibiltzen, eta guzien buruan probetxurik ez, bizitzekoa nonbaitik erosi behar!

Egun batez Leonor oro gogotatua zagon, ez jakinez zer egin bere komentuaren hazteko. Jainko onak lagundu zuen. Hegastin xuri pollit bat ethorri zen Sainduaren oinetara, ogi buru eder bat mokoan. Ageri zen hortik bazela hurbil ogi-lur ona eta gizona.

Fraide bati manatzen dio jarraik dadien hegastinari.

Oihanaren erditsutan gelditzen da xoria ogi-ondo batzuen artean. Dudarik ez bazela hor lehenago zer-bait herri edo ontasun. Zer-nahi izanik, fraidea ez dauke atseginez eta bozkarioz, egiten du laster Aita Leonorregana eta erraiten dio zer ikhusi duen.

Komentu guzia toki hortarat aldaratzen da; oihan puska handi bat errotik khentzen dute, lantzen eta ereiten.

Bainan lan hori lan gaitza eta luzea izan zela diote liburuek. Behin baino gehiagotan lotsatu ziren fraideak. Bai eta asko joan ziren ihesi. Lastima hortan othoitz egin zuen san Leonorrek. Eta Jainko ona berehala heldu izan zitzaion. Hamahi oreña hazkar ethorri ziren oihan barnetik eta uztarran jarri, idi maltso batzu bezala. Egun guzia lanean iragan-eta, bazohazin beren egon tokira eta biharamunean lanera berriz heldu ziren.

Eremu guzia lanthurik eta ereinik ezarri arte jarraiki ziren holaxet bortz astez. Orduan San Leonorrek benedikatu zituen eta joan ziren bethikotz oihanerat.

XI - KAPITULUA

Eskualdunak agian bethi eta hobeki jarraikiko dire laborantzari

Huna zer dion izkribatzaile herritar batek Eskualdun laborariari: «Ez gare khexu izan behar zeren Jainkoak ez gaituen sorarazi aitoronseme edo burjes handi.

»Guzien-buru, burjesa, aitoronsemea eta errege bera laborariak hazten ditu; eta guziek behartzen duten ofizioa baino ohoragarriagorik ez daite.

»Laboraria Jainkoaren obretan ari da; ezen Jainkoak egin ditu gizon guziak, eta laborariaren eskutik hazten ditu. Holetan bizi da laboraria Jainkoaren begien aspian.

»Zeruko ihintzak eragiten ditu uztak edo errekol-tak.

»Horrengatik da laboraria jainkotiar, eta Jainkoak maite du.

»Gizonen begietako ere laborantza ez da, ez ofizio apherura, ez arbuiagarria.

»Gauza jakina da presondegietan eta galeretan laborari gutiago higatzen dela, ezenetz tratulari, kargudun edo bertze ofiziotako gizonetarik.

»Ongi bizitzekotzat, laborariak ez du baitezpadako jauntzi ederrik behar. Jan arrunta ere aski zaio, eta ez dabila hirietako atsegin erho, galgarrien ondotik.

»Laborari gare; ez dezagun har bertze ofizio baten irritsik. Jainkoak ez daroku eman onthasuntze handi bat; bainan bizia gozoki irraigaitzekotzat, ez da (askok uste duketen bezala) aberats izan behar.

»Egun oroz ikhusten da aberatsa nahigabez, khexaduraz eta gaitz, eritasunez zaurthua.

»Ezagutzen ditugu berriz hainitz nekhatzale, ontasunik ez dutenak, Jainko onak egunean eguneko ogia ematen diotenak; eta gogoia arinik iragaiten dute beren bizia.

»Erran ere badezaket aberatsaren jauregian nigar gehiago egiten dela beharraren etxolan baino. Aberatsak urgulu gehiago du, gauza ttipiaz damu handia artzen eta zorigaitza auhenekin jasaiten du.

»Ttipiak ez du hainbertze buruiope, ez dabila erre-suma manatu beharrez; egiteko eta eginbide gutiago du; nahigabe gutiago izaiteko bideak dira harren baithan.

»Ontasun handiak griñak ere halakoak ditu.

»Aski duenak ez du soberakinaren beharrik.

»Ez da ontasunetarik heldu dohatsutasuna, baina bai eginbideak ongi bethetzetik, zeren bere eginbidea ongi bethetzen duen gizon prestua, eroria baitago bethi Jainkoaren nahira. Eta Jainkoak emaiten dio barneko bakea.» (*Duvoisin, Laborantzako liburua*).

Bertze herritar izkribatzaile batek ere altxatzen du eta goren laborantzako ofizioa. Huna zer dion:

«Zer ziren lehenbiziko Patriarken lan suerteak? – Lehenbiziko Patriarkak ziren denak artzainak edo laborariak; denetarik ausarki zutelarik, bizi ziren zuhurtzia handian. Hekien aberastasunak kausitzen ziren bereziki aziendetan.

»Abrahamek eta Lothek bazuten hainbertzetaraino, non bat berzearengatik apartatzera bortxatuak izan baitziren, hek bizi ziren lurrean denak ezin kokatuz. Jainkoaren bothereaz landa, osoki libro ziren, eta hekien familiak egiten zuen erresuma ttiki bat, zeinetan Aita baitzen errege bezala. Izen hori zuen bakharrik eskas Abrahamek, ezen erregeek egiten zituzten harrekin adixkidantzak, eta duda gabe balio zuen Lothen libratzeko bentzutu zituen lau printzetarik zein nahik bezanbat».

«Arbuiatu behar dire Israeldarrak, zeren ez ziren ari kanpo lanetan beizik? – Ez; aitzitik miragarri bezala behar dugu behatu heien kharra laneko, zeinetarat bortxatua izan baitzen gizona, bere bekhatuaren segidan. Hala-hala Jainkoak ezagutzera emaiten du maiz ixtorio sainduan, zein laudagarri den ofizio hori harren begietan. Hautatu zuen Gedeon, bere popularen aintzindari, ogi jotzen ari zelarik; Saul astoen bilha zabilarik; eta David, xikhiroen alhatzerazoalarik.» (*Dithurbide, Ixtorio saindua.*)

Azkenik, Aita Benedikano batek erraiten du Eskualdun laborariari:

«Munduko lanteietan egonez San Isidro bezala, zure arimaren salbamendua egin behar duzun laborari edo langilea, iduk zazu zure bihotzean Jainkoaren beldurra eta amodioa, eta, ez izanagatik ere ez onhasun ez jakitate handirik, zer merezimendusko tresorak ez ditutzu zerukotzat biltzen, zure nekhe eta izerdien bidez! Orhoit zaite hortaz, zure egun ilhun eta atsegabez betheak direnetan!» (*Joannatey, Sainduen bizian.*)

Badu zonbait urthe Benedikanoak ethorri direla gutarterat eta lur-lanetan hazkarki ari direla. Bastidako beren ontasuna ederki ontzen eta altxatzen ari

dute. Agian hekien irakaspenak arraphiztuko du Eskual-herrian laborantzako lehia eta jarraikitasuna!

Eskual-Herrian oraino bertze komentu bat badugu, irakasmenik hoberenak emaiten dituen laborariari. Hura da Maule-Agerreko Fraide eskola-emailen komentua.

Duela zonbai egun, Ziberotar etxeko-jaun bat izan da Maule-Agerreko ontasun horren ikhusten. Elgarrekin itzuli frango ibili ditugu ontasunaren buru batetik bertzera.

Ziberotarrak erne du izpiritua. Etxeko-jaun hori laster ohartu zen Fraide eskola-emailek ongirik handiena eginen dutela Eskual-Herriko laborantzari. Errantzautan:

«Jauna, ontasun hau arte gutiz hoberenatarik bat izanen da. Nihon ez bezalako lanak egiten dituzue hemen. Lan eder horien ikhustera jin behar lukete laborari eskualdunek; ezen herri hotako nekhatzaileen eskasia gehienak heldu dire, thematu garelakotz bethi gure aspaldiko lan-mota zaharretan.

»Zerbait berririk ikhasi behar ginuke gure lurren altxatzeko. Eta nola ikhusiz baita hobekienik ikhasten, nik uste Eskualdunek ongi eginen dutela Mauleko Fraide horien ikhustera jiten badire zonbait aldiz.

»Komentuar horiek bezala egiten baginitu gure etxetako lanak, ez ginuke hirietarat edo Ameriketarat joaitearik; gure eskualde hotan baginuke aberastasunik aski.»

Arrazoin zuen etxeko-jaun horrek. Leheneko denboretan bezala, orai ere komentuek argituko dituzte laborariak eta beren irakasmenez lagunduko. Eta baldin laborantzari zinez emaiten badire gure Eskualdunak, utziko dute hirietarat eta Ameriketarat joaiteko duten errabia.

Eskual-Herria, munduko ederrenetarik bat da, eta halere sor-tokian ezin egon! Iduri, hemen ez bezalako aberastasunak badirela bethi bertze nonbait!

Ai gehienek bost nigar egiten dituzte bai Eskual-Herria utzirik; ohartzen dire laster zer zorokeria den eskuko xoriaren uztea, airekoaren menturan.

Nahiz ukhan ez dutena,
Galtzen dute badutena,
Eta gaur bizitzekoa ausarki bazutenak
Aurkhitzen dire biharko kolpez erromesak.

Ar beraz tinki lanean,

Hor, etxeko laborantzan;
Zuhurki zazu goberna
Handik bildu dukezuna.
Etxea arthatzen baduzu,
Tresor handia hor duzu,
Eta doluturen ez zaitzu.

XII - KAPITULUA

Komentuak jende xehearen adiskide eta laguntzaile

Jainko-Semea zerutik lurrerat jautsi arte, mundu huntako jendetze guzia bi andanetan behexia zen. Alde batetik aitoronseme aberatsak, eta bertze aldetik esklaboak.

Aitoronsemek indar guziak bazituzten esklaboen gainean. Aziendak eta abereak bezala saltzen, erosten, joiten eta hiltzen zituzten, berdin errexki eta berdin ausarki.

Europako gizalde gehiena esklabo zen. Hiruetarik bat xoilki zen aitoronseme. Beraz oro kasik desgizonduak, abre eginak, zaldien eta idien heinera eroriak.

O! zoin ziren dohakabe!

Nola-nahika zabilzaten nausi bihotz gabek: egunaz lan borthitzenetan akhulu sistaka, eta gauaz ungarrian elgarrekin etzanak, zerbait atherbe edo barruki zikhinetan.

Nausi batzuek andeatzen eta makaltzen zituzten esklaboak. Eta huna zertako.

Zango hezurak hautsirik, besoak bihurturik, begitartea zaurturik, gorphutz guzia sarraskiturik eta moldegaizturik, eskale bezala emaiten zituzten bide bazterretan.

Dohakabeak han zauden, sos zonbaiten biltzeko beren nausi sorhaioentzat. Zonbatenaz ere baitziren itsuskiago andeatuak, hanbatenaz hunkitu behar zuten bidelanten bihotza, hanbatenaz bildu behar zuten nausiendako dirua. Hortik zoin gehiagoka esklaboen xintxikatzen ari ziren nausi bihotz gabeak.

Esklaboak egiten zuena bai demendren hutsa, demendren makhurra, ai berehala azotatua zen, makhilkatua zen, askotan hilik utzia zen.

Izan dire nausi hain gaitzak non esklaboa urerat aurthiki baitute, hautsi zuelakotz baso txar bat. Baso ez deus batentzat gizonaren hiltzea, othe diteke basakeria handiagorik?

Eta horra paganoen bizi moldea. Gizonek ostikatzen, andeatzen eta xahutzen beren iduriko gizonak! Eta hiruetarik biak bederen hola fundituak izanki gure Europa huntan!

Bainan bizi guzia lanean iragan eta, ez othe ziren zahartzearekin hobeki arthatuak? Ez, orduan ziren gaizkienik.

Laneko on zireno laguntza zerbait egiten zioten, idi bati egiten den bezala, iraun dezan eta indar puska bat atxik dezan. Bainan ezinduz geroztik akhabo.

Esklabo zaharra edo eria etxetik kasatua larrerat edo oihanerat haizatua zen, eta han laster goseak hiltzen zuen.

Gizonak hola zabilan gizona, eta ez xoilki pagano denboretan; geroztik ere, bospasei mendez, iraun du basakeria horrek, ezen Eliza katolikoak ez du khendu ahal izan emeki-emeki beizik.

San Benuaten mendean ere esklabotasunak egiten zituen oraino desmasia frango.

Egin ahalak oro egin zituen Saindu horrek khenitzeko jenden artetik gaitz hastial hori. Erregeak bere erresuman, aintzindariak soldadoen artean, aitoronsemek jauregitan, aberatsek bere etxe edo lurtan, egiten zutena bai zerbait moldegaitzkeria, San Benuat han zen eta larderiatzen zituen guziak, bai-eta mirakuluak egiten jende xehearen laguntzeko.

Huna zonbait xehetasun.

Denbora hetan Agotak ziren Italiako bazterretan nausi. Bazuten errege bat gerlari berua, nihon ez zau-

kena. Guduka zabilan bethi, jo harat eta jo hunat. Harriturik zerauzkan bazter guziak.

Errege hura zen Totila (542).

Ordukotz bazituen asko desmasia eta kalte frango eginik. Italiako aldetan bereziki herrialde handiak xahutu zituen. Eta bere ezin egonarekin abiatua zen berrizere, Erromako hiriaz nausitu behar zela eta gero, itsasoaz gaindi, Ziziliako lurretan sarthuko zela.

Ez baita abiatzea aski, gerlak baititu bere goiti-beherak, bere ustegabeak eta tipustapak, Totila khexu zen. Gerla hori ez zen ere hain errexka. Erromako hiriaren izenak berak bazuen larderia frango denbora hetan. Eta bestalde itsasotik harat iragaitea soldado elemenia batekin, ez zen lan ttipia.

Horiek hola, errege Totilak bazakien Kazineko mendian bazela Saindu bat, mirakulu hainitz egiten zituena, ethorkizuneko berriak ere bazazkiena. Ikhusi nahi zuen Saindu hori eta jakin harrenganik zer gertaturen othe zakion ondoko egunetan.

Abiatzen da beraz mendiari gora bere gortheko aitoronsemekin. Komentutik biderditan gelditzen da eta gaztigatzen dio San Benuati heldu zaiola ikhustera. Ongi dela ihardesten dio Sainduak, ethortzen ahal dela nahi duenean, bai eta ordu berean.

Ez da leihatzen erregea eta huna zertako. Jitez trufaria da, jenden enganatzea maite du, asko itzuli eta maltzurkeria ibiltzen ditu, bethi nolazbait egin nahi du irri. Eskualdunak dio: Hazitik bihia eta burlaritik burla. Egia handia hori. Errege Totila ez dauke beretarik egin gabe.

Bera biderditan dagolarik, San Benuatengana igortzen du Rigon, gortheiko zamaldunetarik bat. Eta ez edozoin aphainduretan. Bere oinetakoak, bere soi-nekoak, bere edergailu guziak jaunztarazten diozka. Zertako bada aphaindura hori? Nahi du jakin eia San Benuatek ikhusten dituen gauza gordeak eta ezagutuko duenez ez dela zamaldun hori egiazko erregea.

Urheriaz estalirik, Rigon gure zamalduna badoha beraz.

Ez da baxharrik. Totilak eman diozka hirur lagun, bere gortheiko aintzindari lehenak. Hirur Jaun horiek egin behar diozkate errege bati egiten diren agurrak eta gorapenak. Inguruan badu oraino soldado andana eder bat.

Hitz batez erregerik handienaren itxura guziak baditu.

Aphaindura hortan, furfuila hortan, Rigon komentura heltzen da. San Benuat ikhusten du jarririk dago-

la toki bazter batean. Saindua ere bere aldetik ohar-
tzen da nola jende-andana hori heldu zaion, bainan ez
da higitzen, beha dago geldi-geldia. Rigon hurbildu
denean bere gorthearekin, Benuatek erraiten dio: Ene
haurra, utz zaitzu utz soineko eder horiek, ez dire ber-
din zureak.

Hitz horietan Rigon harriturik lurrerat erortzen da,
barkhamendu galdegiten du Sainduari. Harren lagu-
nak ere iziturik ahuspez emaiten dire. Eta gero, bere
espantu guziak barnerat sarthurik, itzultzen dire erre-
gearengana, erraiten diote ez dela ez han trufarik,
hekien maltzurkeriak oro agerian ikhusi dituela.

Ai orduan Totilak ere uzten ditu burlak eta espan-
tuak. San Benuatengana heltzen da ixil eta maltso.
Urrunetik ikhusi duen bezain laster, ez da aintzinago
menturatzten, han berean dago lurrerat ahuspez ero-
ria.

Behin baino gehiagotan Sainduak erraiten dio:
Xuti zaite, errege, xuti zaite!

Bainan erregea ez da higitzen. Azkenean Benuat
bera hurbiltzen zaio eta bere eskuez lurretik altxatzen
du.

Xutitu denean erregea, Sainduak erraiten diozka
berek. Hazkarki, deus beldurrik gabe, larderiatzten

du, baizik-eta damustatu dituela jende xeheak, erro-
mesen nigarrak oihuz daudela harren kontra, Jainkoa
hasarre duela. Erraiten dio:

«Kalte handiak egin dituzu, bara zaite noizbait,
berzela Jainkoaren zigorradak jauziko dire. Bizkitar-
tean, baldin nahi bazare eztitu eta zentzatu, nik hitze-
maiten derauzut Erroman sarthuko zarela, bai eta
itsasoz berzalde iraganen zarela. Bainan orhoit: Ez
duzula erreginatuko bederatzi urthez beizik; hamarga-
rren urthean hilen zare.»

Hitz horiek lazten dute erregea. Auhenekin
gomendatzen da Sainduaren othoitzeri. Eta geroztik
ez du desmasia gaxtorik egiten. Bere gerla eta gudue-
tan jokhatzen da moldezki eta zuhurki.

San Benuatek erran bezala, Totila jabetu zen Ero-
mako hiriaz, iragan zuen itsasoa, eta hil izan zen
hamargarren urthean (552).

Errege hori bizi zelarik oraino, bazen Kazinetik
hurbil, aitoronseme bat osoki moldegaitza. Heretikoa
zen, eta ez zezaken katolikorik ikhus. Galla zuen
izena. Aurkhitzen zuena bai aphez bat, fraide bat,
girixtino on bat, joka zehatu behar zuen.

Hastio bazituen katolikoak, maite zuen dirua. Heretiko bezain ohoina zen, ebalea zen. Akhabo zen harrek harrapatu jende diruduna. Hatzemanak oro buluz eta garbi, ez zuen bertze ametsik. Ala egunaz, ala gauaz, jende ihizin eta sos ihizin zabilan.

Bidean egun batez buru egiten du gizon nekha-tzaile batekin. Lotzen eta azartzen zaio, kolpeka xeha-tzen du. Bizia edo moltsa; ez du laborari gaizoak eska-purik.

Gizon gaixoak errepikatzen dio: Baietz bai ema-nen diozkola dituen guziak.

Non dituk bada hire sosak? – Aita Benuaten eskue-tan ditut, goazin harrengana.

Beldurrak erranarazi zion gezur hori. Eta aitoron-sembleak sinetsi zuen.

Hunek orduan sokha hazkar batez estekatzen du laboraria, bere aintzinean joka eremaiten du erranez bida dezala Benuatengana eta bere sosak altxa detza-la harren eskuetarik.

Komentura holaxet heltzen dire. Eta xuxen San Benuat athe aintzinean jarria dago, liburu bat eskuan irakurtzen ari. Ikhusi dueneko, laborariak bere jotzai-leari erraiten dio: Horra, horra Benuat, galda zakozu ene dirua!

Galla orduan oihuka abiatzen zaio Benuati: Hots! xuti hortik, eta bihur hunat ebatsi ditukan sos horiek.

Xutitu gabe eta hitzik ihardetsi gabe, begiak altxatzen ditu Sainduak eta behatzen du lehenik aitoronsemeari, gero gizon estekatuari. Begi kolpe hortan desegiten dire laborariaren estekak. Eskurik zalhuenak ez zituen sekulan hain laster deslothuako.

Harritzen da aitoronseme sorhaioa; trenpexarturik erortzen da, ez du hitzik ez hatsik, hila iduri du.

San Benuat oraino ere ez da xutitzen ez-eta irakurzetik baratzen. Xoilki oihu egiten diote fraide batzueri, altxa dezatela lurretik aitoronseme trenpexartua, ereman dezatela eta eman zerbait jateko edo edateko.

Bere sokorri poxia hartu duenean, ekhartzen dute berriz San Benuaten aintzinerara. Sainduak orduan hazkarki larderiatzen du. Jainkoaren izenean manatzen dio utz detzan bethikotz bere moldegaitzkeria zarrak.

Gallak barkhamendu galdegiten du, hitzemaiten du ez duela gehiago deus gaxtakeriarik eginen, eta bere etxerat itzultzen da.

XIII - KAPITULUA

Geroztik ere, komentuak bethi jende xehearen adiskide eta laguntzaile agertu izan dire

1° Theodebert erregeak hautatu zuen Trebireko aphezpikutzat Nizier Abadea. Ez zen ordean abade hori athera nahi bere komentutik; ihardetsi zion erregeari: Ezetz, ez zuela kargu beharrik, nahi zela komentuan bizi eta komentuan hil.

Ba bainan ez baita trufarik jaun handiekin! Erregea sinesten ez duenak beharko du sinetsi lekaioa; eta gogotik ez bada, bortxaz agur egingen du. Samurtzen da Theodebert, komentura igortzen ditu armada-ko zombait aintzindari, ekhar dezaten berekin Abadea. Badohazi, hartzen dute eta bortxaz eremaiten.

Komentutik athera-eta lehenbiziko trikaldian, aintzindariak jausten dire zaldietarik: Uste duzu menturaz zaldiak aberetegian emaiten dituztela? Ez-eta gogoratzen ere!

Ogi-landa baten erdirat sartzen dituzte, han ase ditezela laboriaren gustuz.

Ai orduan abade saindua oldartzen zaiote, Hazkar-ki manatzen diote khen detzatela zaldiak ogi-landa hartarik; berzela eskumikatuko dituela guziak, izanik ere aitoronseme eta jaun handi.

Bainan gure zamaldunak bihurtzen zaizko. Khexu-khexuak eta erdi trufan, erraiten diote: Zer! ez zare oraino aphezpiku eta uste duzu eskumikatzen ahal gaituzula?

Eta abadeak: Ez, ez naiz aphezpiku eta ez dut aphezpikutzeko gutziazirik; bainan erregeari berari ez diot nik sekulan gaizkirik barkhatuko. Eta zuek orai-berean athera zaitzue zaldi horiek ogi-landatik. Zer bada, zuen zorokeriagatik, laborariak galdu behar othe du bere urtheiko ogia?

Nahi bazuten eta ez bazuten, khendu zituzten zaldiak, eta zaldaria mañateran janarazi.

2° Theodebert errege beraren denboran, gortheko bizkundetarik lehena, Florus, sarthu zen fraide. Eta huna zer bidez.

Gorthean zagolarik oraino, bizkunde horrek bere diruz altxatu zuen komentu bat. Komentu hortara jiten zen noiznahi; eta hurbildanik ikhustearekin komentua-

rren bizitze saindua, hari ere gorthetik atheratzeko gutizia jin zitzaion.

Bainan nola kargu handiak baitzituen erregearen armadetan, ez ziteken komenturat sar Theodeberten baimena gabe. Aipatu zion beraz zer xede zuen eta othoi ez zezala gaizki har.

Erregeak ez zuen ez errexki utzi, bainan bazakien ez zezakela trabarik eman Jainkoaren nahiari, bazakien errege handienek bere onetsi behar dutela bethi komenturateko bokazione saindua. Hortakotz eman zion Bizkundeari galdatau baimena.

Baimenaz bestalde, erregeak berak komentura lagundu zuen. Ethorri zen Theodebert, gortheko jende handi eta aphaindura eder guziekin. Nahi zuen irakatsi zonbat maite zuen Florus bere adiskidea.

Hurbiltzera zohalarik, aintziner athera zitzaion komentuko buruzagia, San Mauro. Sainduak erregeari egin zion ongi-ethorria, eta Theodebert bere aldetik eman zen belhauniko Mauroren oinetan. Benedizionea hartu-eta, sarthu zen komentuan, mintzatu zituen aldizka fraide guziak, eta mahi berean jan zuen hekiekin.

Florus bizkundeak egin zituen gero bere bothuak erregearen aintzinean. Eta hunek ikhusi zuenean bere

adiskidea Benedikanoen soin beltzaz beztiturik, nigarra jauzi zitzaion. Elgar besarkatu zuten eta egon ziren luzaz bata bertzearen besoetan.

Eta orai hau da miresgarri. Florus, komentuar berriak, egun hartan berean libratu zituen hogoi esklabo.

Esklabo horiek libratu zituen, ez zeremonia ondoran, bainan hasi baino lehen. Zertako libratu zituen bada aintzinetik? Zeren-eta komentutik ez baitzuten aitoronsemerik botuetarat onesten, zerbait ongi eta laguntza ardietsi gabe jende xehearen onetan.

3° Bertze saindu bat, Aredius, bazohan beilaz bere komentutik San Martinen hobira.

Dohalarik, heldu zaizko bidera laborariak eta jende beharrak. Asko arrangura aiphatzen diozkote: zerga gaitzak dituztela, ez daitekela nekazailea bizi, othoi erregea mintza dezan, egin detzan ahalak oro hekien onetan.

Egun hetan xuxen eri zen erregea. Jakinik Aredius komentutik kanpo zela, igorri ziozkan mandatariak, errekerituz hel zakion othoi eta senda zezan. Errege hura zen Chilperik.

Gure Sainduak laster egiten du, badoha xuxen erregearen jauregira. Heldu denean, othoitz khartsu bat egiten du Jainkoari, eriarengana sartzen da, eta huna zer erraiten dion: Errege, ez dezaket deusik egin zuretzat, non ez dituzun lehenik ttipitzen erresumako zergak.

Abiaduran erregrak beltzuri egiten du, ez zaio gisa Sainduaren ausartzia hori.

Nahi baitzen ordean sendotu, ez da arranguratzten eta maltso maltsoa ihardesten dio: Bai hitzemaiten derauzut ttipituko ditudala erresumako zergak. Eta berehala manatzen du ekhar detzazkoten zerga guzien argiak eta irakusten ditu Sainduari.

Hunek eskuratu dituenean paper lotsagarri horiek, su handi bat phizten du jauregiko athe aintzinean. Sua phizten ari delarik, jende oste bat biltzen da. Eta jende horien bixtan Sainduak aurthikitzen ditu suaren erdirat zerga-titulu guziak.

Erre direnean, itzultzen da erregearen ohera eta mirakuluz sendotzen du.

XIV - KAPITULUA

Komentuek herriari emaiten duten othoitzezko laguntza

Egiptotik athera-eta itsasoa trebeskatu zuen Moisek eta sarthu zen Arabiko bortuetan. Bi ilhabete bortu horietan zabilala, eta horra non bidera atheratzen zaion Amalek, jendaki borthitza. Heldu da, ez bakez, baina etsaigoaz; gudu emaiten dio berehala Moisi.

Amalek, jendaki borthitz hori, sineste hazkarretan zagon bere indarren gainean. Ala zaldiz, ala oinez, harmada gaitzak zituen.

Aldiz Izraeldarrek ez zuten holako indarrik, hurbiltzeko ere. Baina Jainkoak bere eskuko du gerla. Erreki hausten du hazkarren indarra, eta berdin erreki borthizten du ttipien herbailtasuna.

Amalek gudu emaitera ethorri zenean, Moisek erran zion Josueri: Hauta zaitzu gizonak; eta atheraturik, guduka zaite Amaleken kontra. Eta ni egonen naiz othoitzean.

Josuek egin zuen Moisek errana. Bi harmadek elgar jo zuten ordoki zabal batean.

Eta gudua beroki ari zelarik, Moise othoitzean zagon.

Haste-hastetik iragan zen mendiska baten bizkar-
rera, eta besoak hedaturik Jainkoari oihuz abiatu zen:

Oi Jauna, othoi, othoi, Izraeli emokuzu indarra, eta Amalek fundi zazu!

Besoak altxaturik zauzkanean, Izraelek gaina zuen. Baina erortzerat uzten bazituen, Amalek gainditzera zohan. Ai bada zer egin? Akhiduraren bortxaz ez zezazken atxik zabalduak.

Berekin zituen, mendiskaren gainean, Aaron bere anaia eta Hur bere koinata. Eta hek harri bat ezarri zioten azpira eta jarri zen gainean. Eta biek bi aldeta-
rik eskuak goititzen ziozkatzen. Eta holaxet Moisen eskuak egon ziren hedaturik, iruzkia sar arte. Eta Josue nausiturik, Amalek eman zen ihesari, eta harren jendakia ezpataz xaxutu zuten...

Mundu huntan populuak bethi zerbait holako gudu handitan ari dire. Eta denbora berean, Moise iduri, arima onak, arima hautatuak, othoitzean daude, besoak zerura hedaturik.

Non dire othoitz egile horiek? Dire komentuetan, munduaz gorago, Jainkoari hurbil.

Usu, sopra usu, gizon herrebesak bihurtzen eta oldartzen zaizko Jainkoari, harren Kristo-Jaunari, Eliza katolikoari. Bekhatuak bekhatuen gainean metatzen dituzte. Zarkeria nausitzen da bazter guzietan; krea-tura ezdeusek beren kreatzaile soberanoa laidosta-tzen eta ostikatzen dute. Ai! orduan heldu dire gazti-guak Orduan heldu dire gerlak, izurriteak, goseteak; nahigabe borthitzenak. Jainko hasarretua mendeka-tzen da.

Holako gduetan, holako hersturetan, nork bada ardietsiko diote gizoneri barkhamendua? Erran dut: Arima sainduak, Moise bezala othoitzean daudenek.

Eta holako arimak aurkhitzen dire komentuetan. Gauaz eta egunaz komentuarrek eskeintzen diozkate Jainkoari othoitzik khartsuenak.

Nola Jesu-Kristok khurutze gainetik oihu egin bai-tzuen: Oi ene Aita, barkha biozazute, ezen ez dakite zer ari diren; komentuarrek ere Jainko hasarretuari berdin oihu egiten diote: Oi Jauna, othoi barkha zazu zure populuari!

Zerutikako amets batean, Oniaz aphez-nausia agertu zitzaion Makabe gerlari handiari. Eta irakatsi zion Jeremias Profeta, erranez: Hau da gizonen egiazko adiskidea, zeren-eta othoitz nasaiak egiten baititu populuarentzat.

Nik ere hitz bera diot: komentuetan dire gizonen egiazko adiskideak, zeren-eta komentuetako arima kartsuek othoitz nasaiak egiten baitituzte populuarentzat, herri eta erresuma guzientzat.

Valens enperadoreari erran zion bere gortheako aintzindari batek: Jauna, uzten zaitut, banoha komenturat.

Kexatu zen enperadorea, eta ihardetsi zion: Zertako bada nahi zare komentuan sarthu? hemen ere baginukee zure beharra!

Eta aintzindariak: Gorthean baino hobeki lagunduko zaitut komentuan, ezen othoitz eginen dut zuretzat eta zure erresumarentzat.

Enperadoreak orduan: Zohazi beraz; egia diozu, othoitzak behar gaitu xutik atxiki ni eta ene erresuma.

Bai, komentuek laguntza handia emaiten diote othoitzaz herrieri eta erresumeri. Badire asko lastima

gaxto ezin trenka ditezkenak othoitza gabe. Orduan akhabo litezke populurik hazkarrenak, ez balitz hel-tzen othoitza, eta othoitzarekin Jainkoaren urrikal-mendua.

Huna irakaspen bat.

Egun batez berri-ekharle bat ethorri zitzaion Josafat erregeari, eta erran zion Oi jauna. etsai-oste handi bat zure kontra heldu da itsasoz haindiko leihorretarik!

Harritu zen Josafat eta deihadarka abiatu zitzaion Jainkoari: Oi Jauna, norat itzul, nola jokha? ez dezakegu buru egin holako etsai-oste handiari; bakharrik zugarat begiak altxa dezazkegu.

Hola da, asko lastima gaxtotan erresumak ez daitezke athera othoitzaren laguntzaz beizik.

Eta laguntza hori, gehien-gehiena, komentuek emaiten dute.

XV - KAPITULUA

Elizako ofizioak komentuetan

Komentuetako othoitzetan baliosenak dire Elizako ofizioak. Eta badire asko Ordena saindu, ofizio horietan deramatenak denborarik hoberena, bai-eta gozoe-na, ezen zer diteke hain gozorik nola baita Jainkoaren maithaguneak usu errepikatzea?

Gau oroz jeikitzen dire, elizara biltzen eta luzaz othoitzean egoiten. Egunaz ere badituzte asko zere-monia, hala-nola meza kantatu bat, bezperak eta bertze hainitz ofizio; eta hori egun guziez.

Hola manatu diote beren haurreri, San Benuatek, San Domingok, San Frantsesek, San Bernatek, Santa Teresak eta bertze hainitzek.

Bertzela ere huna zer dion Jondoni Paulok:

Jesu-Kristoren othoitza izan bedi maiz zuen aho-mihitan, elgar berotzen duzuelarik psalmoetan, him-noetan eta bertze kantika izpiritualetan, Jainkoari eskerrak eta gorapenak errepikatu.

Dom Geranger, solesmeko abade famatuak errai-ten du:

Komentuarrek ez dute deus hala behar atxiki nola elizako ofizioak. Orhoit ditezela bethi hortan dutela komentuko lan guzietarik baliosena. Jainkoarentzat urrundu dire mundutik. Jainkoarentzat buluzi eta gabetu dire lurreko ontasun ala ospe guzietarik; lehia ditezela beraz, elgar bero dezatela, elizako kantu ederrretan, Jainko maite horren bethi eta gehiago goreste-ko eta ospatzeko.

Sekulan baino hobeki, oraiko denbora gaxto hotan behar dire komentuarrek Ofizio sainduan lehiatu. Lehenago non-nahi baziren komentuak; alde orotarik Jainkoaren omena errepikatzen ari zuten. Bainan orai urrun da baitugu gutartean holako zorionik. Bakhandu dire komentuak eta guziz eliza-ofizioen erraileak; eta izanagatik bertze asko komentu, eskolez eta ospitalez ederki ibilkatzen direnak, guti dire emanik egun-orota-ko othoitz kantatuari.

Hortik, are hobeki lehia ditezela Benedikanoak, Dominikanoak, Frantsiskanoak, Karmelidak, eta maiz ezkerak bihur detzatela Jainkoari, zeren hautatu dituen eta mundutik berezi, harren bethi goreste-ko kantu-errepiketari, hala-nola egiten baitute zeruan aingeruek eta sainduak.

Debruak menturaz gibelarazi nahiko ditu eliza-ofizioetarik. Gogorat emanen diote enganamendu hau, baizik-eta hobeki balia litezkela liburuetan edo bertze zerbait othoitzetan. Gezurra hori, ezen nork asma dezake lan edo othoitz hoberik, nola baita Elizak irakatsi eginbidea Jainkoaren laudatzeko? Mezako sakrifizioetik eta sakramenduetarik landa. Ofizio sailduak dire egin ditezken obrarik hoberenak.

Frantziako aphezpiku-kardinale famatu batek dio: Ene diosesarat ethorri naizenean, entsegatu naiz berehala Benedikano-komentu bat altxatu beharrez. Hori nuen ene ametsik minena, banakielakotz ez ninduela deusek hala lagunduko nola Benedikanoen eliza-ofizioek. Altxatu izan dut komentu hori, eta geroztik deskantsuan nago, ezen ene diosesari eman diot hor egiazko geriza eta atherbe saildu bat, gaitz guztetarik begiratuko duena.

Bertze aphezpiku batek ere dio: Eliza-ofizioetan dago Benedikanoen eginbiderik premiatsuena. Ez dute zeren bertze biderik asma perfetasunerat heltzeko; hori bera aski dute. Othoitz publiko horri bihotzez jarraikiko diren ber, betheko dute beren bokazione sailduaren egiazko xedea eta helburua.

Berzela oraino, girixtinoek bethi premia handitan atxiki dituzke komentuetako eliza-ofizioak. Arimako ala gorphutzeko behar orduetan ez zaioten iduri badi-tekeela laguntza hoberik. Eta hori zuzenez; bi gerthakari hotarik ageriko da.

Godefroy, Alemaniako aitoronseme handienetarik bat, bizi zen hamekagarren mendean. Asko urthez gerla hainitz eta espantu frango ibili zituen. Hazkar, eder, aberats, ez zauken nihon. Edo gerla eta gudu, edo phesta eta josteta, edo erregearen gorthean asko hanpadura eta ageraldi, bazabilan bethi sosegurik gabe, khaldan eta sukharretan.

Emeki-emeki adinak hausten du eta azkenekotz erixartzen da. Nahi da berehala kofesatu. Jinarazten du aita Thierry, San-Huberteko abadea; errekeritzen du othoi lagun dezan heriotze saildu baten egiten.

Ethorri deneko, Abadea mintzatzen zaio hazkarki, baizik-eta jende xexea ostikatu duela bere denboran, zer-nahi gerla eta zer-nahi demasia ibili dituela; eta orai behar dela ikharatu eta laztu.

Bainan horra non auzoko komentu batean ezquila sailduak deika abiatzen diren.

Oi aita, dio eriak, Benedikanoek kantatzen ari dute beren ofizioa; fidantziarekin nago hekien othoitzari, ezen nik diotet altxatu beren komentua, eta baldin ni banaiz bekhatore handi, hek bederen saildu dire, eta barkhamendua ardietsiren derautet.

Ongi kofesaturik, ederki hil izan zen.

Hamabi ehun eta hogoiean, Jerusalemetik itsasoz heldu zen Raul bizkonde anglesa. Gauaz hamar orene-tako irian, itsasoa borthiztu zen. Uhinek untzia toleraturik zabilaten, jo harat eta jo hunat, iduri iretsi behar zutela. Mariñelak harriturik zauden, kalernari ezin buru eginez.

Bainan Raul bizkondeak hazkartzen ditu. Erraiten diote ez diten lotsa; gauerditan hasiko direla Benedikanoak ofizioaren kantatzen komentu guzietan, eta hekien othoitzek heziko dituztela itsasoaren uhinak.

Eta hola gerthatu zen. Gauerditik harat ezitu eta ordokitu zen itsasoa.

XVI - KAPITULUA

Bi hitz Aita-Ameri eta komenturat johan nahi diren hekien haurreri

Ikusi dugu: lehenik zer den Perfetasunezko estatua; bigarrenetik nolakoak diren komentuan bat-bederak goza dezazken probetxuak; eta azkenik zer ongi handiak egiten dituzten komentuek bazter guzietan.

Bi hitz orai, komentuan sartzeko bokazioa duten gazteri, bai-eta hekien Aita-Ameri.

Oroz gainetik, batzuek eta bertzek ongi ikhusi behar lukete zer premia handiko estatua den Perfetasunezko estatua.

Zonbat girixtino, uste baitute ez dela hain beharra komentuetako bizitze saindu hori!

Iduri zaiote, komentuak osoki khendurik ere, ez litekela halako damurik Eliza katolikoarentzat. Huna zer dioten: Adar zonbait phikaturik ere haritz-ondo bati, berdin hazkar egonen da; hala-hala, bazterrerat emanik ere Perfetasunezko estatua, Eliza berdin oso eta berdin sendo geldi liteke.

Eta nik ihardesten dut, holako girixtinoek ez daki-tela zer den Eliza, are gutiago zer den Perfetasunezko estatua. Perfetasunezko estatu hori ez da xoilki adar bat Elizako arbolan, ez-eta bakharrik aphaindura edo edergailu bat. Ez. Perfetasunezko estatua Eliza katolikoaren egiazko muina eta bihotza da.

Hortakotz dio San Augustinek: Ez dezaket erran zonbat maite dutan Perfetasunezko estatua. Jainkoari esker, nihoni bizi naiz estatu hortan, komentuko bizi-tze sainduan; eta bertzeak ere, ene egin-ahal guzian, komenturat biltzen ditut: *Ad hoc propositum, quantis possum viribus alios adhortor.* (Epist. ad Hilarium).

Berdin oraino san Thomas teologo handiak: Nork ere Perfetasunezko bizitze hortarat ekharriko eta bil-duko baititu arimak, harrek obra handia eta miresga-rria eginen du. Eta baldin lan horri jokhatzen bada zuhurtziarekin Jainkoaren amodioz, sari bat ederra izanen du zeruan.

Holako merezimenduak eta sariak dituenaz geroz bokazione biltzaileak, nolakoak ez dituzke bera komenturat joaiten denak?

Oi beraz zuek, Aita eta Amak, nola behar zareten bozkariatu, zuen haur bat komenturat sarthu nahi

denean! Ez diteke mundu huntan ohore handiagorik, ez-eta zerukotzat probetxu hoberik.

Aita-Ama egiazki girixtino eta Jainkotiar direnek ez diote deus trabarik egiten komenturat johan nahi diren haurreri. Bainan berotzen eta sustatzen dituzte, bai-eta ahalaz laguntzen.

Buraso hek badakite ez dutela izanen, mundu huntako ez bertzeko, haur horiek baino othoitz-egile hoberik.

Eta guziz hil-ondoko, haur horietan dute esperantzarik handiena eta menturaz baxharra. Ezen nork ez du ikhusten, ahidek munduan zoin laster ahanzten dituzten beren hilak?

Huna zer dion Zaldubi laphurtarrak:

Ongi egile gutiz
Orhoit da mundua
Ahidetan beretan
Arin da dolua;
Hila hil, osoki da
Etxetik khendua,
Bai-eta hark utzia
Harentzat galdua.

Bainan haur bat edo bertze Jainkoari eman baduzu komentuan, oi harrek ez zaitu sekulan ahantziko.

Ez da baratuko zuretzat othoitz egitetik. Ala komentuko bere lagunekin, ala eskolako bere haurrekin, ala ospitaleko bere eriekin, othoitzean egin-ahala ariko da bere Aita-Ama gaixoentzat.

Hitz batez, Jainkoari bortxaka ariko zaio, bere buraso maiteak Purgatoriotik athera beharrez eta zerurat helarazi beharrez.

Bertze gauza bat. Baldin komenturat joaiteko gogoia baduzu, denborarik ez gal kontseilu galdatzen batari eta bertzeari. Gaixo batzu badire, iduri baitzaio-te jende guziak adiskide handi dituztela. Eta amets horrekin badabiltza orori kontseilu galdatzen. Ai bada, orhoit phertsulariaren erranaz:

Bethi da bere mihian adiskide nor-nahi;
Bainan erhoa fidatzen zaiona hitzari;
Izena da komunena,
Izana aldiz bakhanena.

Eta gero, zer gerthatzen da ? Guzieri kontseilu galdegin segreturik handiengan; eta laster auzoak auzoari segretu hura errepikatzen: eta geroztik zer-nahi traba eta puxulu alde orotarik sortzen bokazione horren gibelatzeko.

Liburu hunen hastapenean erran dut: Guti dire ixiltasuna atxik dezaketenak; oro barheiatzen eta nahasten dituzte.

Goihetxe Urruñarrak ez zituen ustegabeen egin ez phertsu hok:

Deusik hain pizurik nola segretu bat.

Urrun garreiatzea gaitz da andreentzat,

Baina lan bereko badakitza ere

Bizardun ez-guti direnak emazte.

Bokazioneaz ez da beraz kontseilu galdatu behar edozoini ez-eta hainitz jenderi, ez mintza jende argituari eta ixilari beizik. Kofesor jakintsun eta khartsu batek emanen derauzkizu egiazko kontseilu onak eta zuhurak.